



Eusko Jaurlaritzak, 2012-2016 Legegintzaldian, **bake eta bizikidetzaren** arloan sortutako dokumentuen bilduma

1. Proiektu orokorra

- 2. Iragana argitzea
- 3. Biktimak
- 4. Memoria
- 5. Espetxe-politika
- 6. Hezkuntza
- 7. Bizikidetzarako kultura eta Giza Eskubideak

2016ko urria
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

Aurkibidea

Zazpi libururen bilduma honen aurkezpen orokorra.	5
Liburu honen aurkezpena.	6
1. dokumentua. 2013-16 aldirako Bake eta Bizikidetza Plana.	9
2. dokumentua. Seihilekoz seihilekoko jarraipen-txostenak.	95
3. dokumentua. Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetza Planaren bitarteko ebaluazioa.	151
4. dokumentua. Legealdiaren amaieran Bake eta Bizikidetza Planaren garapenari buruzko txostena. Zazpi lehentasun.	199
5. dokumentua. Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetza Planaren balorazioa X. Legegintzaldiaren amaieran.	221
6. dokumentua. Bake eta Bizikidetza Planarekin harremana duten iritzi-azterlanen laburpena.	259

Zazpi libururen bilduma honen aurkezpen orokorra

Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko hauteskundeak urriaren 25ean izan ziren. Azaroaren 20an, X. Legegintzaldiari hasiera eman zion Eusko Legebiltzarrak. Abenduaren 13an, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakari izendatu zuten. Sailburuak lanpostuaz jabetu ondoren, abenduaren 18an, lehen aldiz bildu zen gobernu-kontseilua.

Hamalau hilabete lehenago, 2011ko urriaren 20an, ETAk jarduera armatua behin betiko utziko zuela iragarri zuen. Zenbait hamarkadaren ondoren, indarkeriaren eta terrorismoaren mehatxurik gabe ekin zioten Legegintzaldi bati euskal politikak eta gizarteak.

Hori horrela izanik, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak hartu zuen lehen erabakietako bat Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia sortzea izan zen, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariatzari atxikita, eta Lehendakariaren mende. 2013ko urtarrilaren 30ean, Jonan Fernandez izendatu zuen Lehendakariak Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusi.

Idazkaritza horrek sail ezberdinetara atxikitako bi zuzendaritza bildu zituen egitura berean: Biktimen Zuzendaritza –ordura arte, Herrizaingo Sailaren mende zegoen– eta Giza Eskubideen Zuzendaritza –aurretik, Justizia Sailaren barruan zegoen. Hala, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren egitura berriak Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza bakar bat izan zuen, Monika Hernando buru zuela.

Legegintzaldi honetan, 14 plan estrategiko onartu ditu Eusko Jaurlaritzak; horietan lehena, 2013ko abendukoa, Bake eta Bizikidetzeta Plana izan zen. Horren ondorio dira, hain zuzen, 18 ekimen eta programa eta jarduera ugari. 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzeta Plana garatzeko prozesuan, hainbat dokumentu sortu dira Legegintzaldi honetan. Liburu-bilduma honek, bada, dokumentu nagusienak biltzen ditu zazpi liburukitan.

Hona hemen zazpi liburuon izenburuak: (1) Proiektu orokorra, (2) Iragana argitzea, (3) Biktimak, (4) Memoria, (5) Espetxe-politika, (6) Hezkuntza, eta (7) Bizikidetzaren kultura eta Giza Eskubideak. Lehen liburu honek proiektu orokorrari dagozkion dokumentuak jasotzen ditu; alegia, Bake eta Bizikidetzeta Planaren diseinuari, bultzadari, kudeaketari, jarraipenari eta ebaluazioari buruzkoak.

Liburu honen aurkezpena

2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetza Plana da bilduma honen lehen dokumentua. Gobernu-konseiluak 2013ko azaroaren 26an onartu zuen behin betiko. Nolanahi ere, urte horretako otsailean abiarazi zen. Plana gizarteak eta politikariek elkarrekin sortzea nahi zuen Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak.

2013ko ekainaren 11n, Bake eta Bizikidetza Plana Eusko Jaurlaritzara bidali zen, eta proposamen ireki baten gisara aurkeztu zen jendaurrean, hiru hilabete baino gehiagoko epean ekarpenak jasotzeko zabalik baitzegoen. Egun horren aurretik eta ondoren, Idazkaritzak hainbat bilera egin zituen sail eta erakundeen artean, bai eta Legebiltzarreko taldeekin, alderdi politikoekin, gizarte-taldeekin, hezkuntza-taldeekin eta nazioarteko taldeekin ere.

Prozesu horren ondorioz, 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetza Planak atariko berri bat jaso zuen. Hartan, jasotako ekarpen orokorrei tokia eman nahi zitzaien eta berariazko ekarpenei erantzuna ematen zieten 27 zuzenketa jaso ziren; azken batean, atariko bat zetorren jasotako 42 iradokizun edo proposamenekin.

Bake eta Bizikidetza Planak sektorekako 18 ekimen handi eta kudeaketarekin, ebaluazioarekin eta finantzaketarekin erlazionatutako 3 lan-ildo ditu. Jarraipenari dagokionez, zehaztu zen sailarteko batzorde batek Bake eta Bizikidetza Planaren gauzapeanaren seihilekoz seihilekoko jarraipen-txostenak egingo zituela, bai eta gobernu-kontseiluari igorri ere. Liburu honen 2. dokumentuak Plana onartu zenetik egin diren bost txostenak jasotzen ditu. Txostenok ez dute garatutako lanaren ebaluazio kualitatiboa jorratzen, hartutako egutegi-konpromisoen betetzearen balantzea baizik.

Izan ere, kanpo-balorazio kualitatiboa jasotzen duen dokumentua liburu honen hirugarrena da; horrek, bada, «Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetza Planaren Bitarteko Ebaluazioa»-ren edukia jasotzen du. Roberto Toscano, Covadonga Morales, Jesús Núñez eta Francisco Rey adituek egin zuten lan hori. Planak berak zehazten du Bake eta Bizikidetza Planaren garapenari buruzko kanpo-ebaluazio osoa egiteko mekanismoa egituratuko dela bi urtez behin, eta ebaluazio horretako emaitzak baliatuko direla Bake eta Bizikidetza Planaren lan-programa eguneratzeko.

Kanpo-ebaluazioko dokumentu hori 2015eko irailaren 11n aurkeztu zen. Gomendioei eta koiuntura-analisiari jarraikiz, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak lan-programa eguneratzeko dokumentu bat egin zuen: «Legealdiaren amaieran Bake eta Bizikidetzaren Planak izango duen garapenari buruzko txostena. Amaiera ordenatua eta hasiera berritzailea. Zazpi lehentasun». Liburu hori 4. dokumentu gisa aurkezten da.

Aurreko biekien lotuta, liburu honen 5. dokumentuak «Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzaren Planaren balorazioa X. Legegintzaldiaren amaieran» aurkezten du; berau bitarteko ebaluazioa egin zuten talde berari enkargatu zitzaion. Lan horren helburua lau urte hauetako esperientziaren ondorio nagusiak finkatzea da, hurrengo Legegintzaldian jorratu beharko den zeregina zehazte aldera.

Legegintzaldi honetan garatutako lan guztiak helburu nagusi bat zuen: gizarte-topaketa. Edo, beste era batera esanda, euskal gizartea eta bizikidetzaren hori dela eta, lehen liburu honen azken dokumentua egindako lanaren gizarte-balantzeari buruzkoa da. Hala, 6. dokumentuak Eusko Jaurlaritzak bake eta bizikidetzaren arloan jarraitu duen politikari buruz edo planaren ekimen nagusiei buruz euskal gizarteari egin zaizkion galdeketen edo iritzi-azterlanen datuak biltzen ditu, labur. Egiaztatu ahal izango den bezala, Eusko Jaurlaritzaren politika publikoaren jardura-ardatz hau estimatu eta ondo baloratu du euskal gizarteak.

Azken laburpen gisa, nabarmendu beharko litzateke 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzaren Plana bultzatu eta kudeatzeko, lan handia, sistematizatua eta integrala egin dela bake eta bizikidetzaren arlo guztietan. Ondorioz, eragin on eta positiboa lortu da gizarte-normalkuntzarako eta -topaketarako. Oztopoak, blokeoak, immobilismoak eta paralisiak gorabehera, planari esker, bake- eta bizikidetzaren prozesu bat benetan eraikitzeko bidea partekatu dugu gizartearekin, egitate eta proposamen jakinetan oinarrituta.



1. dokumentua

2013-2016ko
Bake eta Bizikidetza Plana
Gizartea elkartzea helburu



2013-2016ko Bake eta Bizikidetz Plana

Gizartea elkartzea helburu

2013ko azaroa

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

Aurkibidea

Atarikoa

Aurkezpena

Lehen zatia

Proiektua. Ezinegonetik ongizatera

1. Egoeraren diagnostikoa.

- 1.1. Errealitate-printzipioak.
 - I. Abiapuntu bat: errealitatea aldatu egin da eta ez du bideragarria den atzerako bueltarik.
 - II. Oinarri bat: gizarte heldua dugu, hainbat ideia argi dituena.
 - III. Lehentasun bat: orain da komenigarria bizikidetzan inbertitzea.
- 1.2. Erantzukizun-printzipioak.
 - I. Iragana. Gauzak argitzeko betebeharra dugu.
 - II. Oraina. Normalizatzeko betebeharra dugu.
 - III. Etorkizuna. Adiskidetzeko betebeharra dugu.

2. Proiektuaren oinarriak lau urte hauetarako.

- 2.1. Izena eta eginkizuna.
 - 2.2. Helburuak.
 - 2.3. Estrategia.
 - I. Printzipio etiko eta demokratikoak.
 - II. Irizpide gidatzailea: Adostasuna eta nazioarteko estandarrak.
 - III. Metodologia: *Mikroakordioak*.
 - IV. Jardun orokorreko irizpideak: Jokoaren arauak.
 - 2.4. Ardatzak eta ekimenak.
 - 2.5. Oinarrizko konpromisoak: Erronka estrategiko diren *mikroakordioak*.
-

Bigarren zatia

Prozesua. Mesfidantzatik konfiantzara

1. Prozesua eta iragana, ikuspegi etiko-soziala.

- 1.1. Gako estrategikoa: iragana kudeatzearen konplexutasuna.
- 1.2. Mugari bat prozesuan: iraganaren gaineko konpromisoa.
- 1.3. Urratsak.

2. Prozesua eta oraina: ikuspegi soziopolitiko.

- 2.1. Gako estrategikoa: mesfidantzaren inertzia.
- 2.2. Mugari bat prozesuan: orainaren gaineko konpromisoa.
- 2.3. Urratsak.

3. Prozesua eta etorkizuna: *gizarte- eta hezkuntza-arloko* ikuspegia.

- 3.1. Gako estrategikoa: bizikidetzaren urratzearen arrazoien azterketa.
 - 3.2. Mugari bat prozesuan: etorkizunaren gaineko konpromisoa.
 - 3.3. Urratsak.
-

Hirugarren zatia

Programa. Desadostasunetik adostasunera

•I. ardatza. Fitxen arabera antolatutako ekimenak, iragana kudeatzeari dagokionez.

- 1. ekimena. Giza Eskubideen urraketei buruzko txostenak egitea eta eratorzen diren ekintzak.
- 2. ekimena. Memoriaren eta Bizikidetzaren Institututa.
- 3. ekimena. Terrorismoaren biktimak gogorarazteko proiektuari ekarpenak egitea.
- 4. ekimena. Terrorismoaren biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea.
- 5. ekimena. Egungo legedian babesik ez duten biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea.
- 6. ekimena. Torturari buruzko ikerketa eta ekintzak.

•II. ardatza. Fitxen arabera antolatutako ekimenak, oraina kudeatzeari dagokionez.

- 7. ekimena. Lankidetzaren eta elkarlana Eusko Legebiltzararekin.
- 8. ekimena. Espetxe-politikari buruzko *Hitzeman* programa garatzea.
- 9. ekimena. Europar Batasunarekiko elkarlanerako bideak bultzatzea.
- 10. ekimena. Lankidetzaren Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin.
- 11. ekimena. Euskal unibertsitateen ekarpen partekatua.
- 12. ekimena. ERTZAINTZAren Konpromiso Sozialaren jarraipena Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen alde.

•III. ardatza. Fitxen arabera antolatutako ekimenak, etorkizuna kudeatzeari dagokionez.

- 13. ekimena. Lankidetzaren *publiko-soziala* euskal elkarten sarearekin.
- 14. ekimena. Herritarren parte hartzea sustatzea.
- 15. ekimena. Bizikidetzaren aldeko hitzarmena Foru Aldundiekin eta Udalekin.
- 16. ekimena. Jardun-lerro osagarriak bultzatzea heziketa formalaren eremuan.
- 17. ekimena. Jardun-lerro espezifikokoak bultzatzea gazteriaren, kulturaren eta heziketa ez-formalaren eremuan.
- 18. ekimena. Gizartearen sentsibilizazioa eta hedabide publikoen konpromisoa.

•Zeharkako ardatza. Jarraipena eta ebaluazioa.

- I. fitxa. Sustapena, kudeaketa eta koordinazioa.
- II. fitxa. Jarraipena, ebaluazioa eta zuzendaritza.
- III. fitxa. Planaren aurrekontuaren aurreikuspen xehaketa.

Eranskina

Atarikoa

2013ko ekainaren 11n, Eusko Jaurlaritzak 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzeta Plana aurkeztu zuen, proposamen gisa. Une horretatik aurrera, hiru hilabeteko epea zabaldu zen legebiltzar taldeek, elkarteen sareak eta herritarrek beraiek ekarpenak aurkezteko. Epe hori irailaren 20an amaitu zen.

Atariko hau jasotako ekarpenak hartu eta aztertu ondoren idatzi da. Atarikoaren helburua bikoitza da: lehenengo, esanahi bat ematea (A) plan hau sortu deneko partaidetza-esparruari eta bigarren, hura interpretatzeko esparru bat finkatzea (B), argitasunak behar dituzten alderdiak hobeki argitzen laguntze aldera.

A. PLANA SORTU DENEKO PARTAIDETZA-ESPARRUA

Bitartekoa lortu nahi den helburuaren zati bat da. Plan hau Jaurlaritzaren agiri bat da. Abian jartzeko behar zuen baldintza bakarra zen Jaurlaritzaren Kontseiluak onartzea, behin plan estrategiko gisa izapidetzerako zegokion barneko prozedura beteta. Bestalde, plana sortzen hasi zenetik, Eusko Jaurlaritzak uneoro jakin du ezinezkoa zela hura onartu aurretik adostasun orokor eta anitza lortzea. Oraindik ere elkarrengandik oso urrun daude tradizio politiko bakoitzaren abiapuntuak.

Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzak nahi izan du planaren sorrera sozialki eta politikoki parte hartutako prozesu bat izatea. Partaidetza bake eta bizikidetzeta plan honen esanahiaren funtsezko atala da. Planaren edukia eta helburuak ezin dira egoki ulertu onartu aurretik lagun izan duen eta gero ere lagun izango duen partaidetza-prozesua izan gabe.

Izan ere, planak eta bere sorrera- eta kudeaketa-prozesuak bilatzen dutena da planaren indarraldia amaitzen denean gaur egun dagoen jarreraren urruntzea jarreraren hurbilketa bat izan dadila. Horretarako, lehenengo urratsa partaidetzari bidea ematea da. Partaidetza-prozesuak nabarmendu beharreko mugarri batzuk badauzka.

- Otsailaren 15ean, gutun bat bidali zitzaien elkarte guztiei, plana idatzi aurretik ekarpenak egin zitzaizkien. Martxoaren 10a baino lehen, hamar entitateen ekarpenak jaso ziren, planaren lehenengo bertsoaren idazketan berariaz islatu direnak (Amnistia Internazionala, Bakeola, Baketik, CEAR Euskadi, Elkarleen Foroa, Fernando Buesa Fundazioa, Jose Mari Kortaren Bidetik Fundazioa, Lokarri, Unesco etxea eta Zaitu).
- 2013ko martxoaren 6an, Eusko Jaurlaritzako Bake eta Elkarbizitzarako idazkari nagusiak agerraldia egin zuen Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideen Batzordean, berak eskatuta, Bake eta Bizikidetzeta Planaren aurrerapen bat aurkezteko.
- Plana idazteko prozesuan zehar, bilerak egin ziren Eusko Jaurlaritzako hezkuntzaren, gazteriaren eta segurtasunaren arloetako arduradunekin, bai eta Emakunderekin eta EITBrekin ere. Era berean, hartu-emanak izan ziren hiru aldundiekin, EUDELekin eta legebiltzar taldeekin.
- Ekainaren 11n, Bake eta Bizikidetzeta Plana Eusko Jaurlaritzara bidali zen, eta proposamen ireki baten gisara aurkeztu zen jendaurrean, hiru hilabete baino gehiagoko epean ekarpenak jasotzeko zabalik baitzegoen.
- Epe horretan, 26 entitateen eta bi partikularren ekarpenak erregistratu ziren. Zehazki, Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten honako formazio politikoetako agiriak jaso ziren: UPyD, PP, PSE-EE eta EHBildu. Formazio politikoen artean, Ezker Anitzak ere bere ekarpenak egin zituen; sindikatuen artean, berriz, CCOO Irakaskuntzak berea egin zuen.
- Elkarleen sarearen barruan, honakoak izan ziren beren ekarpena egin zuten entitateak: Amnistia Internazionala, Argituz, Aserfavite, AVT, Bakeola, Baketik, Gazteriaren Kontseilua, Covite, Egiari Zor, Etxerat, Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarleen Foroa, Fernando Buesa Fundazioa, Gernika Gogoratuz, Herrira, Valentin de Foronda Institutua, Lau Haizetara Gogoan, Lokarri, Martxoak 3 Elkarlea, Gernikako Bakearen Museoa eta Unesco Etxea.
- Prozesu horretan guztian zehar, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia hiru aldiz bildu zen berariaz Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluarekin, planaren agiria, jasotako ekarpenak eta emandako erantzunak aztertzeko.
- Ekainetik azarora bitarte informazio bilera bat egin zen, elkarleen sare osoari irekia, eta beste bi bilera Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarleen Foroarekin.
- Hezkuntzaren arloari dagokionez, ekainetik azarora, bilera bat egin zen hezkuntza eragile bakoitzarekin; horiekin guztiekin bi osoko bilera egin ziren, eta Gizalegez Akordioa onetsi zen.
- Plana sortzeko prozesuan, bi bilera egin ziren hiru unibertsitateetako errektoreekin eta lan-topaketa bat izan zen erakunde horietako ordezkariekin.
- Osagarri gisa, nazioarteko adituei irizpenak eskatu zaizkio, bai Europako esparruan, bai Estatu Batuetako izen handiko erakunde akademikoen esparruan ere. Era berean, planak hasieratik aurreikusten du aholkularitza- eta ebaluazio-harreman bat izatea Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin.
- Azkenik, plana onartu aurretik, Eusko Jaurlaritzako legebiltzar taldeetako kideekin berriz ere bildu da, elkarrekin hitz egiteko, jarrerak hurbiltzeko eta amaierako testuan sartutako aldaketei buruz ados jartzeko.

Prozesu horren guztiaren ondorioz, 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzeta Planak atariko berri bat jasotzen du. Hartan, jasotako ekarpen orokorreari tokia eman nahi zaie eta berariazko ekarpenei erantzuna ematen dieten 27 zuzenketa jasotzen dira; azken batean, atariko bat dator jasotako 42 iradokizun edo proposamenekin.

Horretaz gainera, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartzen du elkarriketa eta akordioa bilatzen jarraitzeko, bai gizarte eragileekin, bai legebiltzar taldeekin, plana eta bere 18 ekimenak ezartzeko garaian. Bere gain hartzen du konpromiso hori, partaidetza, kasu honetan, forma ez ezik, espiritua eta funtsa ere badelako. Akordioa sustatzea da Planaren plana.

B. PLAN HONEN INTERPRETAZIO-ESPARRUA

Jasotako ekarpen guztiak aztertu ondoren, gutxienez ere bost dira gogoeta osagarri bat merezi duen alderdiak. Puntu horiek dira atarikoaren bigarren atal honen arrazoia eta egitura eratzten dutenak: (I) gure burua orainaldian kokatzeko gutxieneko etiko eta demokratikoak; (II) ETaren amaieraren aurreko jarrera; (III) iraganari buruzko narratiba; (IV) hainbat jatorritako urraketen tratamendua; eta (V) etorkizunaren aurrean eduki beharreko lehentasunaren norabidea.

Nolanahi ere, bost puntu horiek lantzen hasi baino lehen, aurrez lantzea merezi duten bi gai metodologiko badaude, zeinek jasotako ekarpen ugaritan zeharkako eragina baitute.

- Lehenengo, planaren asmoak buruzko oharra. Jasotako ekarpenen artetik, askok planak dioena baino, ustez haren asmoa izan daitekeena baloratzen dute. Ernegazio eta mesfidantza denbora luze batetik gataz, eta normaltasunez onartu behar dira horrelako errezeloak. Ez da erraza asebetetzeko moduko erantzuna ematea asmoak juzgatzen dituzten iritziei. Hala eta guzti zere, Eusko Jaurlaritzak planaren amaierako erredakzioan eta, zehazki, atariko honetan duen borondatea da kezka horiei ere erantzuna ematen saiatzea.
- Bigarrenik, premisen eta helburuen arteko tentsioa. Bake eta Bizikidetzaren Planak 2016ra arteko proiektioa du. Progresioko eta prozesuko ikuspegi batean oinarritzen da, eta ikuspegi horrek aitortzen du nolako konplexutasun sozial eta politikoa dakarren bizitzaren ari garen eraldaketa historiko honek. Puntu honetan, desio denaren eta bideragarria denaren arteko tentsio logiko bat gertatzen da. Ideala da dena gerta dadila gertatu behar den moduan eta berehala. Errealak da gertatu behar dena gerta dadila kontraesanen artean eta ontze-denbora baten ondoren. Ekarpen batzuetan, tentsio hori ikus daiteke, ibilbidearen eta lortu nahi diren helburuen atala dena abiapuntuan jartzen duena.

I. Gure burua orainaldian kokatzeko gutxieneko etiko eta demokratikoak

Galdera zinez erabakigarria da: zein da gaur egun partekatu dezakegun eta partekatu behar dugun gutxieneko etiko eta demokratikoa bakearen eta bizikidetzaren alde elkarrekin lan egiteko? Bake eta Bizikidetzaren Planak, bere lehenengo mikroakordioan, testu bat iradokitzen du proposamen gisa. Bere lehenengo letrorikada bat dator hitzez hitz *zoru etiko* gisa ezagutzen den Oinarrizko Printzipioarekin: Eusko Legebiltzarrak aurreko legegintzaldian onartutako gutxieneko etiko eta demokratikoen agiri bat da, gaurko testuinguruan bake eta bizikidetasun prozesu bat bultzatzeko oinarriak definitzen dituena.

Ilido beretik, Lehendakariak, irailaren 19ko Politika Orokorreko Eztatidarian egin zuen hitzaldian, honakoa adierazi zuen:

- “Bakeak eta elkarbizitzak indarkeriaren injustizia, egindako kaltearen aitortza eta biktima guztien duintasuna behar dituzte. Denek merezi dute egia, justizia eta konponketarako eskubidea” (Horixe da *zoru etiko*aren Oinarrizko Printzipioa, Legebiltzarraren 2013ko martxoaren 14ko erabakiaz berretsia, lau legebiltzar talde handien babesarekin)
- Bake eta Bizikidetzaren Plana oinarrizko akordio honen argitara irakurri beharra dago. Bere edukian, bere espirituaren eta bere letran ezer ere ezin izango da interpretatu ETaren terrorismoa edo giza eskubideen bestelako edozein urraketa minimizatzearen edo, are gutxiago, justifikatzearen edo zilegi egitearen bidetik. Aitzitik, bidegabekeriaren aitopenean oinarritzen da.
- Plan honetan ezer ere, ez hitzetan, ez espirituaren, ezin izango da interpretatu gure gizartearen zati bat integrazio sozial eta politikoko prozesutik kanpo uztearen bidetik, integrazio horixe baita bizikidetasunaren normalizazioaren lehentasunezko helburuak eskatzen duena”.
- Premisa.** Eusko Jaurlaritzak eta 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planak bere egiten dute Eusko Legebiltzarrak onartutako *zoru etiko*. Orain arte gai honetan lortu den adostasunik garrantzitsuena da. Horregatik, osorik sartu dugu plan honetan, eranskin gisa. Dokumentu osoari buruzko zeharkako akordioa oraingoz tazitua da bakarrik. Baina oinarrizko printzipioari buruzko puntuak, legegintzaldi honetan, Legebiltzarreko lau talde handien aldeko botoa jaso zuen.

·**Helburua.** Oinarri horrekin, Bake eta Bizikidetzaren Planak gizarte elkartzea izateko eginkizuna dauka. Plana publiko bat eraiki nahi dugu, herri honetako familia politiko guztientzat lekua eskaintzen duena. *Zoru etikoa* eta hiru mikroakordioak abiapuntuan daude. Bizikidetzarako akordio demokratiko bat, gure iraganari, gure orainari eta gure etorkizunari aurre egiten dakiena, da Legegintzaldi honetan daukagun helburua.

II. ETAREN AMAIERAREN AURREKO JARRERA

ETAren amaiera eta testuinguru honen aurrean batzuek eta besteek beren jarrera nola azaltzen duten da lehenbiziko kezka-eremua. Alor honetan, bi kontzeptu bereizi beharko genituzke: ETAren desagertzearen exijentzia, batetik, eta hori gauzatzeko egin beharreko urratsak, bestetik.

·**Exijentzia.** Erakundeek jarrerari dagokionez, ETAren amaieraren, desagertzearen edo desegitearen exijentzia, inolako baldintza politikorik gabe, Eusko Jaurlaritzaren eta bere Bake eta Bizikidetzaren Planaren premisa da. Gauza nabarmena da, baina ez bakarrik gai zehatz honetan: Eusko Jaurlaritzak terrorismoaren aurrean izan duen ibilbide historikoaren barruan kokatu beharreko jarrera da. Horrexegatik, hain zuzen ere, Bake eta Bizikidetzaren Planaren lehenbiziko helburua da.

·**Lehenengo urratsa.** ETAren benetako amaieraren exijentzia gauzatzeko laguntza da Eusko Jaurlaritzak hartzen duen konpromisoa. Horretarako, desarmea eta bere egitura militarrik modu ordenatuan eta seguruan behin betiko desegitea da lehenbiziko urratsa. Hori da, erantzukizuneko ikuspegi batetik, erakundeek orain izan behar dituzten lehentasunetako bat.

III. IRAGANAREN KONTAKIZUNA

Iraganari buruzko kontakizuna idaztea. Kontakizun horrek, kritikoa eta konprometitua izateaz gain, gizarte elkartzearen helburuan lagundu behar du. Hau aurrean daukagun eginkizunik delikatu, zail eta garrantzitsuenetako bat da. Bake eta Bizikidetzaren Planaren lehentasuneko helburu estrategikoetako bat, hain zuzen, iraganaren kontakizun kritikoan geure ekarpena egitea da. Eusko Jaurlaritzari eta Bake Planari ez dagokie kontakizun jakin bat inposatzea, baizik eta konpartitutako gogoeta hori posible egiten duten baldintzak sortzea. Ibilbide hori segurtasun demokratikoz eta sinesgarritasun etikoz janzten duten printzipio bat eta irizpide bat daukagu.

·**Printzipio bat.** Eusko Legebiltzarrak onartutako *zoru etikoa* berriro ere plan honen erreferentzia da: “Eragile ezberdinek gertatutakoaren kausei buruz konpartitutako akordio bat lortzea desiragarria den arren, giza eskubideen urraketaren sorrerari buruz interpretazio ugari egon daitezkeela onartu behar da. Ondorioa da eskubide horien urraketa guztiak gertatzeko arrazoia dela zenbait talde eta pertsonak beste helburu batzuk jarri zituztela giza duintasunaren gainetik”. Hori aurretiazko elkarte eremua da.

·**irizpide bat.** Bake eta Bizikidetzaren Planak irizpide etiko bat du euskarri, goitik behera. Bere hiru mikroakordioetan islatzen da, batez ere bigarrenean. Honela laburbildu ahal dugu: “Iraganari buruzko kontakizun kritiko eta konpartitutan, ezin da argudiorik erabili (ez gatazka-testuingurua, ez elkarren aurka dauden aldeek gaineko tesia, ez jatorri ezberdinetako urraketek salaketa, ez estatu-arrazoia, ez etorkizunaren garrantzia handiagoa dela) ETAren indarkeria edo giza eskubideen bestelako urraketak gutxitzeko, justifikatzeko edo legitimatzeko”.

IV. JATORRI EZBERDINETAKO URRAKETEN TRATAMENDUA

Iraganari begiratzean, lanik zailenetako eta, aldi berean, garrantzitsuenetako bat giza eskubideen urraketa guztiak aitortzea da, bat ere baztertu gabe edo garrantzia kendu gabe. Arriskua bikoitza da. Lehenik eta behin, urraketa batzuk besteekin justifikatzeko edo konpentsatzeko erabil liteke iragana argitzeko ariketa hau. Bigarren arriskua urraketa batzuen existentzia gutxitzea edo ezkutetzea da, hain zuzen ere norbaitek urraketa hauek beste batzuk justifikatzeko argudio gisa erabiliko ote dituen beldurrez. Berriro ere, *zoru etikoan* arazo hauek gainditzen lagunduko duten bi erreferentzia daude:

·Egiaren printzipioa: “Erdizkako egia, erreprimitutakoa edo amnesia ekiditea: gertaeren kontakizun objektiboaren bidez, giza eskubideen urraketari buruzko konpartitutako egia eratztea”.

·Erantzukizunaren printzipioa: “Bakoitzak iraganean duen erantzukizuna eta giza eskubideen urraketen ondorioak zehaztea eta aitortzea”.

Zoru etikoak ezarritako premisa horietatik ikuspegi bikoitza egon daiteke. Tratamendu integral bat, giza eskubideen urraketa guztiak aitortzeko gai dena, urraketa horien jatorria edo izaera kontuan izan gabe. Horrek haietako bakoitzean banan-banan jarduteko eskatzen du. Giza eskubide guztiekin eta biktima guztiekin konprometitutako begirada horrek giza eskubideen urraketan errealitate bakoitzari buruzko berariazko balorazioak eskatzen ditu.

·**Tratamendu integrala.** Nazioarteko erakundeek eta guk egindako txosten independenteen arabera, azken 50 urteetako giza eskubideen urraketek jatorri eta proportzio ezberdinak izan dituzte hamarkada bakoitzean. ETA eta antzeko taldeetatik, Segurtasun Indarretatik eta/edo Estatuaren izenean, talde parapolizialeetatik eta eskuin muturreko taldeetatik etorri dira. Urraketa eta biktimen existentzia aitortzea, beraien jatorria kontuan izan gabe, oinarritzko eta baztertu ezinezko printzipio etiko eta demokratikoa da. *Zoru etikoak*, egiaren printzipiotik, eta giza eskubideen inguruko nazioarteko eskubideek gomendatzen duten erantzukizuneko jarrera urraketa guztiak aitortzeko eta kalteak ordaintzeko lan egitea da. Euskal gatazkan 1960tik 2013ra izan diren giza eskubideen urraketari buruzko txostenen azaltzen denez, urraketa horiek guztiek eta beraien biktimek egiazko, justiziazko eta ordaina emateko prozesuak merezi dituzte.

·**Balorazio espezifikoak.** Tratamendu integral batek giza eskubideen urraketan eremu bakoitzaren balorazio espezifikoari heltzeko eskatzen du, bakoitzaren dimentsioa eta esanahia kontuan izanik. Hain zuzen ere, dauzkan dimentsioetatik eta esanahiagatik, ETAREN indarkeriak berariazko balorazioa merezi du. Horrek ez du baztertzeko bestelako giza eskubideen urraketak (arestian aipatutakoak adibidez) berariaz baloratu behar ez direnik; aitzitik, behar hori berresten du. Halere, denboran iraun duelako, inposaketa politikorako asmoa izan duelako, Trantsizioaren eta amnistia orokorraren ondoren luzatu delako, izan duen babes soziopolitikoagatik eta, batez ere, sortutako giza kalte konpon ezinen larritasun eta intentsitateagatik, ETAREN indarkeriaren injustizia berariaz baloratu beharra dago, batez ere biktimei eta haien senideei egindako kalte bidegabeari dagokionez. Hori da *zoru etikoak* iraganaren berrikuspen kritikoa gomendatzen duen erantzukizunaren printzipioa.

V. Etorkizunaren lehentasunaren zentzua

Finean, etorkizunari begira, galdera erabakigarria hau da: zer da garrantzitsuena? Bake eta Bizikidetzaren Planak erantzun soil eta argia eskaintzen du: “gizarte elkartzea” sustatzea. Hori da haren eginkizuna eta helburu nagusia. Esan nahi du “bereizitako munduak” ez dauzkan gizarte bat eraiki nahi dugula. Hori esan nahi da denontzat lekua daukan plaza publikoa eraikitzea iradokitzen denean. Ez du esan nahi orain dagoena gutxiesten denik ezta zerotik hasten den eraikuntza berria egin nahi denik ere. Orain dauden espazioak irekitzea da, konpartitzeko.

Denbora luzez bi unibertso soziopolitiko paralelotan bizi izan gara. Aurrez aurre eta elkarrekin komunikatu gabe bizi ziren argudio eta pertzepzioen bi eraikuntza integral eta oso zeuden. Indarkeria eta ETA desagertzea lor dezakegu, baina halere bereizitako munduak dauzkan gizarte batean bizitzen jarrai dezakegu. Hori ez da ona ez desiragarria, eta seguruenik orain irudikatu ere ezin ditugun bizikidetzaren arazoak sortuko lirarteke etorkizunean.

Herrialdearen eta belaunaldi berriekiko konpromisoaren ikuspegi arduratsu batetik, bereizitako mundurik gabeko gizarte batean legoke etorkizunerako lehentasuna. Lehentasunaren zentzu honek aurretiazko baldintza bat eta eginkizun argi bat dauzka.

·**Aurretiazko baldintza bat.** Etorkizuna eraikitzeagatik ordaindu behar den faktura ezin daiteke izan iragana ahaztea ez aurretik zegoena gutxiestea. Bizikidetzaren integratu eta adiskidetzaren etorkizunaren lehentasuna iragana argitzeko printzipiotik landu behar da. *Zoru etikoak* honela formulatzen du: “Konpartitutako oroimenaren eraikuntza biktimen bidegabeko sufrimendua arintzeko, zigorgabetasuna ekiditeko, eta bakea eta bizikidetzaren demokratikoa lortzeko bitartekoa izan dadila saiatzea. Oroimen hori etorkizuna birpentsatzeko eta eraikitzeko erabili behar da, gertatutakoaren kontakizunean harrapatuta geratu gabe”.

·**Eginkizun argi bat.** Gure gizarteak, guztiek bezalaxe, arazoak, gatazkak, krisiak eta zatiketak dauzka eta edukiko ditu. Hori bizikidetzeta demokratikoaren errealitatearen barruan kokatzen da. Ez dugu gizarte utopikoa eraiki nahi. Gure helburua xumeagoa da. Gutxieneko etiko eta demokratiko batzuk konpartitzen dakien gizarte bat eraiki nahi dugu soilik, gainontzeko gaietan ezadostasunak bermeekin agertu ahal izateko. Hori “bereizitako mundurik” gabeko gizarte da. Hori da etorkizunerako eginkizun argi eta arduratsua eta erronka. *Zoru etikoak* dioenez, “iragan mingarri baten ateak itxi behar dira eta denontzat itxaropentsua den etorkizunaren ateak ireki”.

Ondorio gisa

Bake eta Bizikidetzeta Planaren proposamenak jaso dituen ekarpenen multzoa (guztira 28 dokumentu) bakea eta bizikidetzeta eraikitzekeko prozesu bat hasi behar den ulean pilatzen diren kezka, min, beldur, nahi eta ikuspegi ugariaren isla fidela da. Harrapatuta gauzkan gurutzatutako argudioen labirintoaren eta konplexutasunaren katalogo osatua da. Argudio horiek, sarritan, inmuneak dira batzuk besteen aurrean.

Bake eta Bizikidetzeta Planaren proposamenak jaso dituen ekarpen guztien esanahia esaldi bakar batean laburbildu beharko bagenu, hau aukeratuko genuke: “Iraganak mina ematen digu, orainak kezkatzen gaitu eta etorkizunak batzen gaitu”. Hori izan liteke ekarpen guztien lehenengo analisi kualitatibo eta globala.

Iraganak mina ematen digu eta hori argi eta garbi ikusten da eragozpenak sorrarazten dituzten ekimenetan eta horretarako ematen diren argudioetan. Orainak arazo gutxiago sortzen ditu, baina iraganeko konfiantza ezak orainean proiektatzen den kezka sortzen du. Bizikidetzako etorkizuna konpartitzeko borondateak, ordea, batu egiten gaitu. Hori argi eta garbi ikusten da zuzenketarik jaso ez duten ekimenetan; gehienak etorkizunari begira egin diren proposamenak dira.

Eusko Jaurlaritzak errealitate konplexu hori onartzea proposatzen du, zalapartak alboratuta, normaltasunez, zorrotasunez eta eraikitzekeko borondatez. Gauzak argitzekeko elkarrizketa da adostasun eta ezadostasun horiei ekitekeko tresna. Ikuspegia ez galtzeko, nondik gatozen eta nora joan nahi dugun argi eduki beharko genuke. Une historikoa bizitzen ari gara.

Bake eta Bizikidetzeta Planak jasotako ekarpenek arazoak non dauden argitu dute. Formulatu ditugun bost gai horiek egiteke dugun lanaren agenda islatu baino ez dute egiten. Bost gai horiek denon artean jorratu behar ditugu.

Hau da Bake eta Bizikidetzeta Plana: baldintza egokiak sortzea herri honetako familia politiko guztiek gutxieneko akordioak lortu ahal izateko zenbait gairi buruz: (I) ETAREN amaierari buruzko jarrera; (II) orainean kokatzeko gutxieneko etiko eta demokratikoak; (III) iraganari buruzko kontakizuna; (IV) jatorri ezberdinetako urraketen tratamendua; eta (V) etorkizunari lehentasuna ematearen zentzua. Horra hor ibilbide-orria. Bake eta Bizikidetzeta Plana abiapuntu bat da.

Aurkezpena

X. legegintzaldiaren hasieran, Eusko Jaurlaritzak Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia sortzea erabaki zuen, lehengo bi zuzendaritza –hau da, Herrizaingo Sailari atxikitako Biktimen Zuzendaritza eta Justizia Sailean txertatutako Giza Eskubideen Zuzendaritza– egitura bakar batean biltzeko; Idazkaritza Nagusi hori Lehendakaritzan txertatuta izaki, zuzenean Lehendakariaren mende dago.

Europako esparruan, gobernu-politiken egiturak normalki giza eskubideen zuzendaritza bat, institutu bat edo antzeko instantzia bat eduki ohi du, giza eskubideak defendatu eta bultzatzeko. Normaltasun-testuinguruetan, tresna hori nahikoa da gizabidearekin eta funtsezko askatasun eta eskubideekin konpromisoa hartzeko politikak bideratzeko.

Gure egungo testuingurua, ordea, berezia da. Duela bi urte, indarkeriazko jarduna bertan behera uzten zuela iragarri zuen ETAk, bost hamarkada baino gehiago igaro ondoren. Berrogeita hamar urte baino gutxiago ditugun guztiok beti bizi izan gara egoera horretan. Gertakari benetan historikoa dugu aurrean. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusi baten sorkuntza zuzenean dago testuinguru soziopolitiko berezi horri lotuta.

Koiuntura berezi bati egokitutako erantzuna da. Bi puntu nagusik definitzen dute haren eginkizun espezifikoa: lehenik, bakea behin betiko eta modu itzulezinean sendotzen laguntzea; eta, bigarren, bizikidetzaz sozial eta politikoaren hobekuntza sustatzea, terrorismoz, indarkeriaz eta giza eskubideen urraketaz betetako bizipen traumatiko eta iraunkor batek kaltetu baitu.

Seguru asko, eginkizun bikoitz espezifikorrek ez du inolako zentzurik izango gure politika publikoetan hemendik urte batzuetara, orduan erronkak beste batzuk izango dira eta. Baina, hala eta guztiz ere, orain ahalegin hori ez badugu egiten, beharbada hemendik urte batzuetara horren hutsunea sumatuko dugu.

Une honetan Legebiltzarrean, Jaurlaritzan edo gizartearen edozein erantzukizun dugunok aukera paregabea dugu bakearen eta bizikidetzaren erronka bikoitz horri aurre egiteko. Testuinguru horretan, jokoan dagoena ez da eredu bat ala bestea, indarkeriaren ondorengo etapa honen ikuspegi ideologiko bat ala bestea. Jokoan dagoenak, lehenengo eta behin, giza sufrimenduarekin du zerikusia.

Pertsona askok asko sufritu dute, eta oraindik ere sufritzen ari dira. Orain egiten duguna edo egiten ez duguna baliagarria izango da pertsonen sufrimenduak arintzeko, murrizteko edo gainditzeko. Gure ekintza politiko bateratua lagungarria izan daiteke pertsona jakin batzuen bizitza hobetzeko eta gutxiago sufritu dezaten lortzeko. Hori da, une honetan, baliorik handiena duen erreferentzia.

Giza faktorea da, alde batera utzi ezinezko faktorea. Politikaren alderik zintzoena erakusten duen lan bat garatzeko aukera dugu. Premisa horretan oinarrituta, Idazkaritza honek legegintzaldi osorako bere gain hartu duen lehen eginkizuna bakegintza eta bizikidetzarako plan bat egitea da, giza aurpegia duen plan bat. Dokumentu hau horren isla da. Eusko Jauriaritzaren Legegintzaldi honetarako bigarren ardatz eta konpromisoari dagokio.

Nolanahi ere, plan hau ez da hutsetik sortu, baizik eta lehenago egin den ibilbidetik eta kokatzen den esparru arautzailetik. Zentzu horretan, VIII. Legegintzaldian egin zen “2008-2011ko Bakerako eta Giza Eskubideetarako Heziketako Euskal Planak” eta IX. Legegintzaldian garatu zen “2010-2011ko Bizikidetzeta Demokratikoaren eta Indarkeria Deslegitimatzearen Planak” egin zuten aurretiazko lana hor dago.

Plan honen edukietan eragina daukan esparru arautzailearen erreferentzia nagusiak hauek dira:

- 52/2007 Legea, abenduaren 26koa, gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zituztenei eskubideak aitortu eta gehitu zizkiena eta beraien aldeko neurriak ezarri zituen.
- 4/2008 Legea, ekainaren 19koa, terrorismoaren biktimei errekonozimendua eta ordaina emateari buruzkoa. (Araudi autonomikoa)
- 29/2011 Legea, irailaren 22koa, terrorismoaren biktimei errekonozimendu eta babes osoa emateari buruzkoa.
- 17/2012 Dekretua, ekainaren 12koa, 1960 eta 1978. urteen artean Euskal Autonomia Erkidegoan izan zen motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan, giza eskubideak urratu zitzaizkielako sufrimendu bidegabea bizi zuten biktimak izendatzeari eta ordaina emateari buruzkoa.
- 1/2011 Dekretua, urtarrilaren 11koa, Giza Eskubideetarako eta Bakerako Heziketako Kontsulta Kontseilua sortu eta arautu zuen otsailaren 10eko 31/2009 Dekretua aldatu zuena.
- 55/2010 Dekretua, otsailaren 23koa, Terrorismoaren Biktimen Partaidetza Kontseilua arautu zuena.

Planaren edukian ibilbide bat proposatzen da, gizartearen eta politikaren arloetan partekatutako ibilbide bat; alor honetan Eusko Jauriaritzak egin asmo duenaren isla idatzia. Dokumentu hau Planaren erakusgarria da, eta hura definitzen duten bi ezaugarri nagusi bildu nahi ditu: argitasuna eta zehaztapena. Hiru zatitan egituratuko da: proiektua, prozesua eta programa.

Proiektuak planaren oinarriak eta osagai funtsezkoak definitzen ditu, ikuspegi kontzeptual batetik. Irudikatu nahi du indarkeriaren eta amorraren ondorez sakonetik bakearen eta bizikidetzaren ongizate zibikora igarotzeko bidea bultzatzeko borondatea. Eraldaketa hori gauzatzen laguntzeko proiektua da.

Bigarren zatiak jarraitu nahi dugun prozesua deskribatzen du. Banan-banan azaltzen ditu urrats guztiak; horrela, denak batera argazki global batean ikusita, haren zentzuaren batasuna hobeto antzeman dadin. Mesfidantzatik konfiantzara joateko ibilbide bat, sentsibilitate politiko guztiak barne hartuko dituena. Gure gizartearen, bizikidetzaren errealtatean zuzenki eragingo duen prozesua. Urrats guztien artean, eta ibilbide hori errazte aldera, gako eta mugarri estrategiko batzuk nabarmentzen dira, iragana, oraina eta etorkizuna kudeatzearen inguruan.

Hirugarren zatiak lan-programa jasotzen du. Hitzetatik ekintzetara igarotzeko aldia biltzen du. Zati horretan, aurreko guztia abian jartzeko operatibitatea deskribatzen da. Kontzeptuetatik lan zehatzetara pasatzen gara. Guztira, 18 ekimen aurkeztu ditugu, lehentasunezko hiru jardun-arlotan banaturik, eta beste ekimen bat zeharkakoa.

Lehen Zatia

Proiektua

Ondoezetik ongizatera

Lehen Zatia

Proiektua. Ondoezetik ongizatera

Planaren lehenengo zati honek bi atal nagusi ditu: egoeraren diagnostikoa eta proiektuaren oinarriak lau urte hauetarako. Gakoa da analizatzea eta proiektatzea, jakitun izanik une historiko batean gaudela, bidegurutze estrategiko batean. Datozen urteetan zer egiten dugun edo zer ez dugun egiten, ondorengo analista eta historialarien begirada zorrotzak aztertuko du, bai eta herritarrek berek ere.

Ziur aski, une honetan guztioi exijitu behar zaigun baldintza da ikusmira zabalago batez ahalegintzea erabakiak hartzen. Ez gara ari unean uneko eztabaida igarokor edo egoeraren araberako batez. Ez gara ari prentsako titularrak geureganatzeko borroka mediatiko batez. Jokoan dagoena da bakea irabazteari eman diezaiokegun erantzun partekatuaren ardura. Eta horrek bere ondorioak ditu gaurko eta etorkizuneko gure gizartean.

Ikuspegia zabaldu beharra dugu, beraz, behar adinako perspektibaz jarduteko. Horixe dugu bakerako eta elkarbizitzarako proiektu bat definitzen hasteko ezinbestez behar dugun baldintza. Nondik gatozen aztertu, non gauden eta nora joan nahi dugun, alde batera utzita egunez eguneko liskar politiko eta alderdikoiak, partekaturiko eraldaketa baten egileak bihurtzeko. Ondoez sakon batek markaturiko esperientzia sozial eta politiko batetik gatoz. Bizikidetzaren normalizatu baterantz, ongizate arrazoizko baterantz aurrera egiteko desafioa dugu aurrez aurre.

Funtsezko desafioa, azken batean, partekatzea da. Horren ondorioz etor baitaiteke, arazoak arazo, gizarte-ongizatea. Gai izatea tradizio politiko guztiak integratuko dituzten oinarritzko adostasunak ehuntzeko. Politikagintzan, nahiko erraza da diferentzia markatzen duen kokagunea finkatzea; baina benetan txalotzea merezi duena adostasuna posible egiten duen kokagunea finkatzea da. Lidergo ausartak behar ditugu, presio eta zailtasunei aurre egiten dakitenak. Eta, halaber, pausoak aurrera emateko lidergo partekatu eta sendo baten beharrezanaren kontzientzia behar dugu.

1. Egoeraren diagnostikoa

Egoeraren diagnostikoa hezuramaitzen da ardatz nagusi baten inguruan (euskar gizartea) eta erreferentzia-puntu baten inguruan (bizikidetzeta). Bi galderak egituratzen dute diagnostikoa. Lehenik eta behin: zein da gure errealitatea? Eta, bigarrenik: zein beharizan daude egungo egoeran? Horrela, egituratzaile gisa, hiru errealitate-printzipio eta hiru erantzukizun-printzipio formulatzen dira.

1.1. Errealitate-printzipioak

Abiapuntu argi bat, oinarri sendo bat eta lehenitasun nabarmen bat. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusi honek bateratu eta bultzatu nahi duen proiektua ondoko hiru errealitate-printzipio hauetan oinarritzen da.

I. Abiapuntu bat: errealitatea aldatu egin da eta ez du bideragarria den atzerako bueltarik

Errealitatea aldatu egin da, eta hobera aldatu ere. Gainera, asko hobetu daiteke oraindik. Aldaketa horrek arau mailako indarra dauka. Gure gizartea testuinguru berri horren arabera bizi da dagoeneko. Hain zuzen ere aldaketa hori gizartean errotuta dagoenez, besteak beste, esan dezakegu aldaketa itzulezina dela, atzera egitea ez delako bideragarria, ezta zentzuzkoa ere.

Errealitate-printzipio honen sakontasuna ulertzea erabakigarria da etapa berri honen abiapuntuan kokatzeko. Evidentzia hori azpimarratu beharra dago, denok ditugu-eta iraganeko sorgin-gurpiletara behin eta berriz itzularazten gaituzten inertzia batzuk. Hala eta guztiz ere, gure egungo gizarteak antz handiagoa du 2023. urteko euskal gizartearekin 2003. urteko euskal gizartearekin baino.

II. Oinarri bat: gizarte heldua dugu, hainbat ideia argi dituena

Egoera honek arriskuak ditu, noski, baina guk ditugun beldurretako batzuk ez daude justifikatuta. Ezin ditugu bake eta bizikidetzako politika guztiak bideratu pentsatuz gure gizartearen gehiengoaren adin txikikoa dela printzipio etiko, zibiko edo demokratikoei dagokienez. Guztion ahaleginari esker, lan asko egin da.

Indarkeria edo terrorismoa erabiltzea edo edozein giza eskubide urratzea, gaur egun, sozialki eta politikoki ezeztatuta daude. Gure gizartea gizarte heldua da. Hori oinarri, gure funtsezko zeregina da erabaki praktikoak, zehatzak eta objektiboak adostea; hau da, iraganeko kalteak konpontzeko, oraina hobetzeko eta etorkizuna prestatzeko baliagarriak izango diren erabakiak adostea.

III. Lehenitasun bat: orain da komenigarria bizikidetzan inbertitzea

Aldi berean, onartu behar dugu sozialki eta politikoki traumatikoa izan den indarkeriazko historia bat bizi izan dugula, eta horrek modu desberdinean baldintzatzen gaituela, gutariko bakoitzak lehendik izan dugun zirkunstantzia biografikoaren arabera. Indarkeria-osteko beste testuinguru batzuen esperientziatik zerbait ikasi dugu. Gizarteak horrelako bizipenak ez baditu ondo barneratzen, hamabost edo hogeitau urte geroago gerta daiteke erreakzio-eraginak agertzea; normalki minoritarioak dira erreakzio horiek, baina ezin dira aurreikusi eta ez ditugu nahi.

Orain komeni da bizikidetzan inbertitzea. Eta horrek zer esan nahi du praktikan? Esan nahi du funtsezkoa dela sozialki eta politikoki oinarri gutxi batzuk konpartitzea. Oinarrizko adostasunak identifikatu, definitu eta proiektatu egin behar ditugu, gainerako guztian iritzi desberdinak izan ahal izateko berme guztiekin. Funtsezko konfiantza sozial eta politikoko gune bat sortzea esan nahi du. Lau urte hauetan aurrez aurre izango dugun lehenitasun handietako bat da hori.

1.2. Erantzukizun-printzipioak

Hiru errealitate-printzipio horien definizioak aukera emango digu hiru erantzukizun-printzipioen inguruko jardun-esparrua sortzeko. Iraganarekin, orainarekin eta etorkizunarekin zer egin behar dugun jakiteko baliagarriak dira.

I. Iragana. Gauzak argitzeko betebeharra dugu

Ezin dugu etorkizuna eraiki iraganean ezer gertatu izan ez balitz bezala. Larregi sufritu dugu. Behar-beharrezkoa dugu, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketa bakoitzaren inguruko argitasuna, egia, justizia eta ordainaren printzipioak benetan gauzatuko badira. Argitze-prozesu horretan, gure betekizun etikoa da bi irizpide errespetatzea: ez baztertzea eta garrantzirik gabe ez uztea. Biktimen oroimen eta errekonozimenduarekiko betebeharrak bat da, eta Legebiltzarraren legeak eta erabakiak betetzeko beharrezkoa ere bai.

Giza eskubideen urraketa ekarri zuten gertakari objektiboak bisualizatu behar ditugu, horietako bakar bat ere baztertu edo ahaztu gabe. Aldi berean, testuinguru biktimologiko eta kriminologikoen diferentziak errespetatu behar ditugu, eskubide-urraketa bakoitzaren berezko larritasuna beste zeinu bateko urraketa larritasunarekin nahastu, parekatu, konpentsatu, konparatu edo arindu gabe.

II. Oraina. Normalizatzeko betebeharra dugu

Iraganaren ondorioek gure oraina baldintzatzen dute. Indarkeriak eta giza eskubideen urraketek eragin deshumanizatzailea dute. Giza izaeraren txarrena ateratzen dute, eta besteentzat txarrena nahi izatea ere eragiten dute. Indarkeria osteko prozesuei buruzko nazioarteko esperientziek azpimarratzen dute oso garrantzitsua dela orainaren normalizazio sozialera bideratzen diren estrategiak, konpromisoak, diskurtsoak eta ekintzak gauzatzea.

Normalizazio sozial hori sustatzeak esan nahi du pausoak eman behar direla indarkeria erabat desagertu dadin lortzeko, aurreko etapatik heredatutako inertiak eta ondorioak berbideratzeko eta bizikidetzaren behin betiko sendotzeko. Normalizazio soziala, era berean, tradizio politiko guztiek kokaleku bat izango duten gune bat sortzea da, gertatu dena gertatu dela ere. Lantegi partekatua eta adostua izan behar du.

III. Etorkizuna. Adiskidetzeko betebeharra dugu

Sistema demokratiko baten funtsa bizikidetzaren zuzena eta bateratzailea lortzea da. Hori da balio nagusia, demokrazian ekintza politiko orok duen funtsezko helburua. Edozein zirkunstantziaren ondorioz bizikidetzaren oreka hori galtzen denean, politikak oreka hori berreskuratu behar du, posible eta arrazoizko den neurriraino.

Iraganaren berrikuspen kritikoa egitea eta oraina normalizatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzea garrantzitsua da, baina hori bezain garrantzitsua da etorkizunean bizikidetzaren demokratikoa eta adiskidetzaren bideratzeko oinarriak jartzea. Giza duintasunaren eta giza eskubideen inguruan oinarritzeko kohesio bat gauzatzea ahalbidetuko duten hezkuntza-, dibulgazio- edo komunikazio-estrategiak bilatu eta bultzatu behar dira.

2. Proiektuaren oinarriak lau urte hauetarako

Plan edo proiektu horren gakoak bost ataletan laburbil daitezke: (1) izena eta eginkizuna, (2) helburuak, (3) estrategia, (4) ardatzak eta ekimenak, eta (5) erroka estrategikoak.

2.1. Izena eta eginkizuna

Une honetan aurrez aurre dugun eginkizun honetan, batu egingo gaituen hitz bat aurkitu behar dugu. Ez da erraza. Nazioartean, normalki, *adiskidetze* kontzeptua erabiltzen da. Hemen, ordea, hitz horrek arazoak ematen ditu, ez da behar bezain baketsua. Adostasun-guneak bilatzeko bidean, lagungarri zaigun hitz bat hartu dugu maileguan.

2013ko otsailaren 21ean, Salvador Allende Fundazioko presidentea Osvaldo Puccio jaunak, Fernando Buesaren eta Jorge Díezen oroimeneko ekitaldian hizlari gonbidatua izan zenak, bere esperientzian baliagarritzat jo duen eta guk gauzatu behar dugun zereginaren azken helburua ondo definitzen duen kontzeptu bat aipatu zuen.

Haren azalpenaren arabera, bakea, iraganaren berrikuspen kritikoa, bizikidetzaren, adiskidetzaren eta gainerako helburu guztiak hitz baten barruan bil daitezke, eta hitz hori *berrelkartzea* edo *elkartzea* da.

“2013-2016ko Bake eta Bizikidetzeta Plana, gizartea *elkartzea* helburu”. Horregatik du izen hori Bake eta Bizikidetzeta Plan honek.

Elkartze kontzeptuak ezin hobeto azaltzen eta islatzen du plana bultzatzen duen espiritua. Haren eginkizuna deskribatzen du: gizarte konpartitu bat eraikitzea. Pentsa dezagun datozen zortzi edo hamar urteez. Gure zeregin nagusia da herri honetan denok sar gaitezkeen *plaza publiko* bat edukitzeko baldintzak sortzea. Elkartze demokratikoko gune bat izan behar du, bertan errespetua eta desadostasuna normaltasun osoz uztartuko dituena.

2.2. Helburuak

Proiektu honen eginkizuna gizartean *berrelkartzea* da. Lau urte ditugu norabide horretan aurrera egingeko. 2016an, zazpi helburu zehatz eta ebaluagarri beteak nahi genituzke. Hain zuzen, legegintzaldi honetan Eusko Jaurlaritzak duen jardun-planaren muina osatzen dutenak.

- I. ETAre desarmearen exijentzia eta haren benetako amaiera gauzatzen laguntzea.
- II. Giza eskubideen urraketa guztien egiaztapena egitea.
- III. Biktima guztien errekonozimendu- eta ordain-prozesua osatzea.
- IV. Memoriaren politika publiko bat definitzea eta bultzatzea.
- V. Testuinguru berriarekin bat datorren espetxe-politika baterako akordioak bultzatzea.
- VI. Bizikidetzako akordio demokratiko baterako oinarritzko adostasunak lortzea.
- VII. Gizarte- eta hezkuntza-arloko elkarrekintzak bilatzea, gizarte-*elkarketako* kultura bultzatzeko.

2.3. Estrategia

Helburu horiek lortzeko garatuko dugun strategiaren oinarria izango dira printzipio etiko eta demokratiko batzuk, irizpide gidatzaile bat, metodologia bat eta jardun orokorrerako hainbat irizpide.

I. Printzipio etiko eta demokratikoak

Gizartea *elkartzeko* proiektu honen funtsa giza duintasuna da, balio gorena den heinean, bai eta giza eskubideen defentsa eta sustapena ere. Printzipio etiko horretatik ondorioztatzen da erabateko konpromiso bat demokraziarekin, askatasunarekin eta pluralismoarekin, eta edozein indarkeria-modu edo inposizio antidemokratiko erabiltzearen aurkako konpromisoa ere.

II. Irizpide gidatzailea: Adostasuna eta nazioarteko estandarrak

Edozein ikuspuntutatik begiratuta, uste osoa dugulako eta premia ere handia delako, bizikidetzaren alor honetan funtsezkoa da ahalik eta adostasun handienak bilatzea. Horixe izango da, beti, Idazkaritza Nagusi honen aukera: gure errealitate soziopolitikoaren aniztasunarekiko zeharkako akordioa bilatzea.

Idazkaritza Nagusi honek Nazio Batuen jarraibideei eta giza eskubideen eta bake- eta adiskidetzeta-prozesuen alorreko nazioarteko estandarrei hobekien erantzuten dieten erabakiak hartuko ditu.

III. Metodologia: *Mikroakordioak*

Adostasunak lortzea funtsezkoa da; baina onartu behar dugu ez dela zeregin erraza. Idazkaritza Nagusi honek Legebiltzarreko taldeekin lanerako eta lankidetzarako metodologia bat bultzatuko du, eta metodologia horren oinarria *mikroakordioak* bilatzea izango da. Ibilbide errealista bat gauzatzea, aurrera egingeko modukoa eta, azken batean, eraginkorra, horixe da helburua.

Mikroakordioen proposamena bokazio metatzailea eta progresiboa duen lan-metodo bat da, akordio txikien bitartez adostasun oinarritzko, sendo eta indartsuko azken ikuspegi bat eraikitzea ahalbidetzeko.

IV. Jardun orokorreko irizpideak: jokoaren arauak

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren lan-programak jardun orokorreko lau jarraibide ditu. Zehaztu eta, ahal den neurrian, konpartitu nahi ditugun jokoaren arauak dira.

·Bake- eta bizikidetzaz alorreko jarduna hiru denboratan egituratuko da: iragana, oraina eta etorkizuna. Programak eta ekintzak honako era honetan ordenatuko dira: bat, iraganean gertatutakoari buruzko erantzunak; bi, orainaren beharrezkoetatik eratorritako lehentasunak, eta hiru, etorkizunerako funtsezko zereginak.

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak lankidetzaz esparruak bilatuko ditu gai honetan zeresana duten erakunde eta gizarte-entitate guztiekin eta, bereziki eta oroz gainetik, Eusko Legebiltzararekin.

·Pronuntziamentu publikoak eta eztabaida mediatikoak eragin eztabaidaezina dute politikaren eta erakundearen eremuan. Hala eta guztiz ere, Idazkaritza Nagusi honen asmoa da borroka hori modu klasi-koan ez egitea, eta, edozein kasutan, langintza zuzenaren eta adostasuna lortzeko helburu nagusiaren mende jartzea.

·Proiektu honen jardun-irizpide bat da inola ere ez nahastea esparru juridiko-politikoari buruzko eztabaida politikoa eta *elkarketa* zibiko-sozialeko esparruari buruzko eztabaida aurre-politiko. Bigarren horrek izaera etiko du, batez ere, eta alderdien aukera politikoetatik haraindi elkartu behar gaitu.

2.4. Ardatzak eta ekimenak

Bake eta Bizikidetzaz Planaren lan-programak hiru ardatz ditu: iragana, oraina eta etorkizuna. Ardatz horietako bakoitzak sei ekimen nagusi ditu. Eta ekimen bakoitzean hainbat jardun-lerro txertatzen dira:

·I. ardatza. Iragana

- 1. **ekimena.** Giza Eskubideen urraketari buruzko txostenak egitea eta eratorzen diren ekintzak.
- 2. **ekimena.** Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua.
- 3. **ekimena.** Terrorismoaren biktimak gogorarazteko proiektuari ekarpenak egitea.
- 4. **ekimena.** Terrorismoaren biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea.
- 5. **ekimena.** Egungo legedian babesik ez duten biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea.
- 6. **ekimena.** Torturari buruzko ikerketa eta ekintzak.

·II. ardatza. Oraina.

- 7. **ekimena.** Lankidetzaz eta elkarlana Eusko Legebiltzararekin.
- 8. **ekimena.** Espetxe-politikari buruzko *Hitzeman* programa garatzea.
- 9. **ekimena.** Europar Batasunarekiko elkarlanerako bideak bultzatzea.
- 10. **ekimena.** Lankidetzaz Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin.
- 11. **ekimena.** Euskal unibertsitateen ekarpen partekatua.
- 12. **ekimena.** ERTZAINTZAren Konpromiso Sozialaren jarraipena Bizikidetzazaren eta Giza Eskubideen alde.

·III. ardatza. Etorkizuna.

- 13. **ekimena.** Lankidetzaz *publiko-soziala* euskal elkartearen sarearekin.
- 14. **ekimena.** Herritarren parte hartzea sustatzea.
- 15. **ekimena.** Bizikidetzazaren aldeko hitzarmena Foru Aldundiekin eta Udalekin.
- 16. **ekimena.** Jardun-lerro osagarriak bultzatzea heziketa formalaren eremuan.
- 17. **ekimena.** Jardun-lerro espezifikokoak bultzatzea gazterien, kulturaren eta heziketa ez-formalaren eremuan.

-18. **ekimena.** Gizartearen sentsibilizazioa eta hedabide publikoen konpromisoa.

Zeharkako ardatza. Jarraipena eta ebaluazioa.

-I. **fitxa.** Sustapena, kudeaketa eta koordinazioa.

-II. **fitxa.** Jarraipena, ebaluazioa eta zuzendaritza.

-III. **fitxa.** Planaren aurrekontuaren aurreikuspen xehakatuak.

2.5. Oinarrizko konpromisoak: Erronka estrategiko diren *mikroakordioak*.

Lehen aipaturiko mikroakordioen metodologia giltzarria da datozen hilabete eta urteetako estrategian. Metodologia hori zehazteko, hiru helburu-kategoria ezartzen dira:

I. Iraganari buruzko ondorio konpartitua ateratzeko ***mikroakordioak***.

II. Oraingo gure errealitatea normalizatzeko ***mikroakordioak***.

III. Oinarri etiko eta aurre-politikoaren ***mikroakordioak***, *elkarketa*-etorkizunerako.

Bigarren zatia

Prozesua

Mesfidantzatik konfiantzara

Bigarren zatia

Prozesua. Mesfidantzatik konfiantzara

Aldaketak oso kasu gutxitan gertatzen dira modu disruptiboan. Ohiko moduan, gizarte-eraldaketak eta, are gehiago, bizikidetzakulturari eragiten diotenak, heltze-prozesu baten ondorio izaten dira. Bilakaera horrek aurrera egin dezan, denbora igarotzea ezinbestekoa da. Aurrerabide dinamiko horri *prozesu* esaten zaio. Pentsamolde horri jarraiki jardun behar dugu. Aurkeztu berri den bake- eta bizikidetzaproiektua prozesu baten barruan eta prozesu baten zerbitzura dago.

Aldaketak oso mantso gertatzen direnean ezinegona, antsietatea eta frustrazioa sortzen zaizkigu baina goian aipatu dugun ikuspegi hori behar-beharrezkoa da gizarte-eraldaketen logika ulertzeko. Prozesu-ikuspegia errealtate-printzipioan txertatzen da eta frustrazioko edo zorrozkeriaren bulkadei aurre egiten laguntzen du. Bizikidetzaren bidean, nortasunak, interesak eta asmoak ahal den gehienon gustura harmonizatzea zein konplexua den gogorarazten digu.

Guk lortu nahi dugun aldaketa prozesu bat da eta, gainera, prozesu hori partekatzeko premia dugu; beraz, zailtasunak areagotu egiten dira. Horrelako prozesuek aurrera egingo badute, horren aldeko egoera izatea ezinbestekoa da. Horren aldeko egoera hori sortzeko elkarrekin egin behar dugu lan eta plan honen oinarritzko proposamena horixe baino ez da. Ez dugu beti ados egon beharrik. Aitzitik, gizarte askotariko eta demokratiko batean ia gai guztietan egoten dira desadostasunak. Kontraesan-printzipioa da gizarte ororen berme.

Alabaina, aniztasun hori zabaltzeko gutxieneko adostasun-maila bat behar da, jokalekua eta jokoaren arauak zehaztearren. Jokalekua eta arau horiek zehaztu ezean, bakoitzak nahi duena egiten du. Horregatik, kontraesan-printzipioa oinarritzko konfiantza-printzipioarekin konpentsatu behar da. Konfiantzarik gabe, jai dugu. Bizitza eta bizikidetzak egingarriak dira gutxieneko konfiantza izan badugulako besterengan, etorkizunean, proiektuetan, gizartean, erakundeetan...

Eta politikan ere berdina da; elkarrekiko konfiantzaren gutxieneko maila bat partekatu behar dugu. Hala ere, muturreko mesfidantzaren aldi batetik gatoz. Eta Bake eta Bizikidetzak Plan honek sustatu nahi duen prozesuaren erronka mesfidantzatik konfiantzarako aldaketa hori ahalbidetzea da. Gizartearen elkartze-prozesu bat partekatzeko, oinarritzko konfiantzaren egoera bat sortzea da planaren funtsa. Egoera hori sortzeko, argitasunez, zehaztasunez eta konpromisoak hartuta jarduten dugu.

1. Prozesua eta iragana, ikuspegi etiko-soziala

1.1. Gako estrategikoa: iragana kudeatzearen konplexutasuna

Indarkeria indarrean egon den aldia amaitutakoan, iragana kudeatzea da, zalantzarik gabe, lanik zailena. Horixe da zailena zeren iraganean metatzen baitira erantzukizunen eta erruen diagnostikoak. Horregatik da hain zaila gertaturikoaren gaineko akordioak lortzea eta, bereziki, gertaturiko horren interpretazioen gainekoak. Errua beti da norbaitena. Eta batak besteari leporatzen ibiltzen gara.

Gizaki garen aldetik, errua ukatu egiten dugu. Inork ez du nahi izaten errua leporatzerik. Inork ez du nahi erantzule bakarra izan. Horregatik, beti aurkitzen dugu argudioren bat dela errua partekatzeke edo aurrekariak ahazteko, dela geure burua aurretiazko eraso handiago baten, errealitate jakin baten edo testuinguru jakin baten biktimatza hartzeko, geure erantzukizuna garbitzearen.

Iraganak urrundu egiten gaitu, erruak eragiten duen saminarekiko beldurra sustatzen baitu. Horregatik eragiten du hainbesteko segurtasunik eza. Eta beldur horren ondorioz da hain konplexua iragana kudeatzea. Iragana aztertzeak ez du justifikatzen jarrera iheskorra izatea, baina arazoa ulertzen laguntzen du, hobeto aurre egiteko.

Zuzentzea ere geure-geurea dugu, gizaki garen aldetik. Bulkadaren eta beldurraren botereari arrazoiaren boterea gailentzen zaila esan nahi du. Zuzentzea aukera dezakegu. Horixe da pertsonen eta gizarteek euren esku duten lehen boterea, aldaketaren eta eraldaketaren lehen boterea. Iraganak beldurraren eta segurtasunik ezaren bulkada eragiten badu, arrazoiaren bitartez erantzun dezakegu; horretarako, ziurtasun-esparru bat sortuko dugu. Gure iraganarekin zer egingo dugun argi eta garbi esan beharko diogu elkarri, eta zein izango den gure jokalekua; besterik ez.

Bada iragana kudeatzen laguntzen duen oinarritzko arau bat. Arau horren edukari jarraiki, hiru kontzeptu bereizi behar dira: *gertakari objektiboak*, *interpretazio subjektiboak* eta *partekatutako balioespena*.

- Gertakari objektiboak. Giza eskubideen urraketak dira. Bat bera ere alde batera utzi gabe bisualizatu behar dira, eta ez dira batzuk besteekin nahastu edo konpentsatu behar. Guzti-guztiek gertakariaren kontakizuna adierazten dute. Gure iraganaren egia aurrez aurre jarriko digun kontakizuna, iraganaren biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko.
- Interpretazio subjektiboak. Gertaturikoaren arrazoiei edo jatorriari buruzko interpretazioak askotarikoak izango direla onartu behar da. Tradizio politiko bakoitzak irakurketa modu subjektiboan egingo du. Guztien artean adostasunak eta desadostasunak izango dira. Adostasuneko guneen balio kualitatiboa birtualtasun handikoa izango da.
- Partekatutako balioespena. Diagnostiko desberdinak egongo diren arren, gertatu denaren balioespen etikoa eta kritikoa partekatzea lortu behar da eta ezinbestekoa da. Erantzukizun politiko horrek etorkizunean antzeko gertaerarik berriz gertatzea saihestu behar du eta belaunaldi berriei "inoiz gehiago ez" horren arrazoa azaldu behar die.

Orainaldia eta etorkizuna daude jokoan jarraibide hauetako lehenaren eta hirugarrenaren garapean. Lehenik eta behin, gertatukoaren errealitatea onartu behar dugu eta, gero, gutxienezko balioespen kritiko bat partekatzeke gai izan. Eta, zalantzarik gabe, zailena azkeneko hori izango da.

1.2. Mugarri bat prozesuan: iraganaren gaineko konpromisoa

Gatazka eta indarkeria nagusi izan den aldia gainditu osteko gizartea elkartzeko prozesuan mugarririk garrantzitsuena zera da, iraganaren balioespen kritikoa egiten elkarrekin noraino hel gaitzkeen argitzea. Gutxienezko horren arabera zehazten da tradizio politiko guztiek gertaturikoaren balioespen kritikoa egitean parteka dezaketen gehieneko komuna. Ziurrenik, guztien artean adostu dezaguna gutxi izango da; baina fidagarritasun eta potentzialtasun handikoa izan daiteke, baldin eta kualitatiboki sakona baldin bada.

Bake eta Bizikidetza Plan honek helburu hori betetzen lagundu nahi du. Iraganari buruz partekatutako akordio bat lortzeko lan egingo dugu. Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarreko Bake eta Bizikidetza Ponentziaren barruan, iraganari buruzko lehen konpromisoaren oinarri izango den eztabaidarako proposamen hau egin du:

MIKROAKORDIOAK (I)

Iraganaren partekatutako balioespena egiteko konpromiso etikoaren proposamena

“Etorkizuneko bakeak eta bizikidetzak biolentziaren bidegabekeriaren aitor-tortzea eskatzen dute, sortutako minaren eta biktimen duintasunaren aitor-tortzea, biktima guztiak egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidea dutelarik. (Legebiltzarren 2013ko martxoaren 14ko erabakia)

Jazotakoa —terrorismoa, indarkeria eta giza eskubideen urraketak— gertatu zen talde eta pertsonen giza duintasunaren aurrean beste helburu batzuk ezarri zituztelako, hau da, kausa baten, helburu baten, estatu-arrazoi baten, ikuspegi ideologiko baten edo bestelako sinesmen edo usteen defentsa.

Etorkizunean, inoiz gehiago ez, ez kausa politikorik edo arrazoi partidario-rik, ez bestelako uste osorik edo ziurtasunik ez da jarriko, balio absolutu bat izango balira bezala, giza eskubideen, pertsonaren eta bizitzaren balioaren gainetik”.

1.3. Urratsak

Iraganarekin loturik azaldu ditugun gogoeten esparruan, Bake eta Bizikidetza Plan honetan garatzeko proposatzen diren jardunak zazpi urratseko prozesu batean laburbiltzen dira. Orokorrean hartuta, bere zentzu osoaren adierazgarri dira urrats horiek.

• **Lehen urratsa.** 1960. urtetik aurrera jazotako giza eskubideen urraketak jasoko dituen txosten bat egiteko agintzea, iragana argitzeari dagokionez eta biktimen errekonozimendu eta ordainari dagokienez, non eta nola jardun behar dugun zehazteko.

• **Bigarren urratsa.** Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua sortuko dugu eta azken 80 urteotako gertakari biolento eta traumatikoen aurrean memoria demokratikoen aniztasuna irudikatzen duen ondarea kudeatuko du.

• **Hirugarren urratsa.** Terrorismoaren Biktimen Errekonozimendu eta Babeserako Legearen 57. artikuluari jarraiki, Euskal Herrian Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroa sortzen lagunduko dugu.

• **Laugarren urratsa.** Eusko Jaurlaritzak duela lau legegintzaldi abiarazitako prozesuei, hau da, terrorismoaren biktimei babesa, errekonozimendua eta ordaina emateko prozesuei jarraipen emango diegu.

• **Bosgarren urratsa.** Legez kontrako kontraterrorismoaren ekintzen ondorioz gertatu diren giza eskubideen urraketan biktimen ordaina eta errekonozimendua emateko prozesuak garatu eta zabalduko ditugu, egungo legerian ez baitute babesik.

• **Seigarren urratsa.** Torturaren fenomenoak egiaz duen eraginari buruzko ikerketa zorrotz eta independente bat egiteko aginduko dugu, dagozkion errekonozimenduko eta prebentzioko neurriak hartzearen.

• **Zazpigarren urratsa.** Iraganari buruzko balioespen kritikoa egiteko konpromiso etikoaren mikroakordio bat sustatuko dugu, betiere gure nahia eta erabakia izanik tradizio politiko guztiak mikroakordio hori partekatu, sinatu eta garatzea.

2. Prozesua eta oraina: ikuspegi soziopolitiko

2.1. Gako estrategikoa: mesfidantzaren inertzia

Gure erakunde-eremuan, harreman politikoak baldintzatzen dituen arazo nagusietako bat (handiena ez bada) mesfidantza da. Urtetan indarkeriak, giza eskubideen urraketak, zatiketak eta asaldurak izan dituen ondorio suntsitzaileetatik datorren mesfidantza.

Indarkeriak kalte eragindako bizikidetzeta berreskuratzeari dagokionez, oinarritzko adostasunak bilatzea da aurrera egiteko bide garrantzitsuena. Alabaina, adostasunaren bidean aurrera egitea galarazten duen lehenengo traba mesfidantza dugu. Metodologikoki eta lehen urrats gisa, ezinbestekoa da faktore horren inguruan lan egitea.

Gure errealtatea erabat baldintzatzen duen mesfidantza gainditu behar dugu eta gure herriko tradizio politiko guztien artean gutxieneko konfiantza-giroa sortu behar dugu, bizikidetzeta gizartean normalizatzea lortzeko.

Mesfidantzak nagusi dira, eta neutralizatu egiten dute politika. Erraz identifikatzeko moduko beldurretan oinarritzen dira eta, maiz, seguruenik, justifikatuta daude. Beldur horiek, alde batetik, ez dira partekatuak zeren, edukiaren arabera, soilik alde batekoak edo bestekoak hartzen baitituzte eraginpean. Eta, hain justu horregatik, alde batekoen kezkek eta ardurak beste aldekoentzat ezezagunak edo ezdeusak izan daitezke.

Mesfidantza gainditzeko lehen urratsa oinarri-oinarritzko beldurrak esanbidez adieraztea da, hitzez adieraztea eta geuregan eta besteengan daudela onartzea. Inertziaren herentzia desaktibatze gako estrategikoa da. Bake eta bizikidetzaren arloan hainbat mesfidantza detekta ditzakegu eta horiek guztiak esanbidez adierazi eta onartu behar dira; hona hemen:

- ETAREN indarkeriaren bukaerak iraganean sufritutako guztia ahaztea ekarriko duen beldurra, kontuak argitu gabe, errekonozimendurik gabe eta kritika espliziturik gabe.
- Amnesia jota begirada etorkizunean jarri dugulako, biktimen oroimena eta ohorea bazterturik geratzeko beldurra.
- Bi aldeen edo bi indarkerien teoria oinarri hartuta, ETAREN indarkeria justifikatuko duen historia bat berridatziko den beldurra.
- ETAk eragindakoak ez diren giza eskubideen urraketak eta biktimak ahaztuta, baztertuta edo marjinalatuta geratzeko beldurra.
- Indarkeriaren amaiera gizartearen parte baten kontrako umiliazio-, mendeku edo marjinazio-prozesu bilakatuko den beldurra.
- Bakeak eta adiskidetzak presoan eta espetxe-politikaren kontua prozesutik kanpo utziko duten beldurra.
- Indarkeriaren amaierak azkenean benetako bakea eta gizarte-normalizazioa ez ekartzeko beldurra.

Jakina, mesfidantzen zerrenda hori luza daiteke, gehiago ere badago-eta. Zazpi horiekin ez da bukatzen. Baina, seguruenik, garrantzitsuenetakoak izango dira.

2.2. Mugarri bat prozesuan: orainaren gaineko konpromisoa

Mesfidantzak beldurrak dira; hain zuzen ere, gure ustez funtsezkoak diren alderdiei dagokienez alde batekoek edo bestekoek izan ditzaketen benetako asmoei buruz ditugun zalantzek eragindako beldurrak. Eta arazo horri aurre egiteko modu bakarra dago: argi eta garbi hitz egitea, argi eta garbi hitz egitea elkarri. Gure aurkari politikoengan beldurra eta mesfidantza sortzen duten kontuei buruz argi erantzun behar dugu.

Argi eta garbi adierazi, zer asmo dugun, egoera argitzeko eta mesfidantzak uxatzeko. Ildo beretik, oso garrantzitsua da alde batekoek eta bestekoek elkarrekiko mesfidantzak behar bezala gainditzeko

beharrezkoak diren hitzak argi eta garbi esaten entzutea elkarri, modu sinesgarrian, konprometituan eta irmotasunez, baldin eta mesfidantza horiek funsgabeak badira.

Tradizio politiko bakoitzak jakin behar du zer formulazio nabarmendu eta azpimarratu behar dituen konpromiso politikoko ariketa hau eraginkorra eta baliagarria izan dadin alde batekoak eta bestekoak urruntzen dituen mesfidantza-amildegia murrizteko aurkari politikoarengan.

Bake eta Bizikidetzaren Plan honen bitartez mesfidantzatik konfiantzarako bide hori egiten lagundu nahi dugu. Horrekin loturik, orainari buruz partekatutako akordio bat lortzeko lan egingo dugu. Eusko Jaur-laritzak, Eusko Legebiltzarreko Bake eta Bizikidetzaren Ponentziaren barruan, orainari buruzko lehen konpromisoaren oinarri izango den eztabaidarako proposamen hau egin du.

MIKROAKORDIOAK (II)

Orainaldian konfiantza-esparrua lortzeko konpromiso politikoaren proposamena

·Hitz ematen dugu, gure aldetik, ETaren indarkeriaren bukaera ez dela izango, besterik gabe, orria pasatzea, kontuak argitu gabe, errekonozimendurik gabe eta gertatutakoari buruzko kritika espliziturik gabe.

·Hitz ematen dugu gure aldetik biktimen oroimena eta ohorea ez direla bazterturik geratuko, iragana ahazturik etorkizunera begiratzeagatik.

·Hitz ematen dugu ez dugula indarkeria eta giza eskubideen urraketak justifikatuko dituen historiari berridatziko, eta halakoak idaztearen eta erabiltzearen kontra egongo garela.

·Hitz ematen dugu biktima guzti-guztiek, baita legez kontrako kontraterrorismoenak ere, –parekotzat jo gabe–, merezi duten errekonozimendua eta ordaina jasoko dutela.

·Hitz ematen dugu gure aldetik indarkeriaren amaiera ez dela ezein sektorearen aurkako mendeku bilakatuko, integrazio eta bizikidetzarako gizarte-egituraketa baizik.

·Hitz ematen dugu, legez dauden aukeren barruan, gizartearen normalizazioak presoen eta espetxe-politikaren kontuari helduko diola, gizarte-errealitate berriarekin bat etorrira.

·Hitz ematen dugu gure aldetik indarkeriaren amaierak bakea eta bizikidetzaren normalizazioa ekarriko dituela eta gizartea elkartzeko proiektu, prozesu eta programa bat ahalbidetuko duela.

2.3. Urratsak

Orainarekin loturik azaldu ditugun gogoeten esparruan, Bake eta Bizikidetzaren Plan honetan garatzeko proposatzen diren jardunak zazpi urratseko prozesu batean laburbiltzen dira. Orokorrean hartuta, bere zentzu osoaren adierazgarri dira urrats horiek.

·Lehen urratsa. Eusko Legebiltzarrari lagundu eta harekin lankidetzan jardungo dugu Bake eta Bizikidetzaren Ponentzia sortzeko eta ponentziari eusteko, bizikidetzarako akordio estrategikoak lortzeko langune plurala den aldetik.

·Bigarren urratsa. Ponentzia honetan bertan orain hartzen ditugun konpromisoei buruzko mikroakordio politiko bat sustatuko dugu, oinarritzko konfiantza-giroa sortzeko.

·Hirugarren urratsa. EAEko hiru unibertsitateek batera eta modu koordinatuan proiektu bat garatzea sustatuko dugu, bizikidetzaren normalizatzeko prozesuari unibertsitateak egin beharreko ekarpena zehaztu eta garatzearen.

·**Laugarren urratsa.** Presoak gizarteratzeari dagokionez, presoak gizarteratzeko Euskal Programa bat bultzatuko dugu eta, aldi berean, Legebiltzarrean, erakundeen artean, gizarrean eta politikarien artean adostasuna lortzea sustatuko dugu, programa hori ezartzeko.

·**Bosgarren urratsa.** Europako eta eskualde arteko lankidetzeta eta ekarpenak sustatuko ditugu, dela Bake eta Bizikidetzeta Planerako, oro har, dela planeko programen berariazko garapenerako.

·**Seigarren urratsa.** Nazio Batuetako Goi Komisarioarekin harremanetarako eta aholkularitzako esparru bat finkatuko dugu, indarkeria-osteko egoeretako giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidearen estandarrak aplikatzeko.

·**Zazpigarren urratsa.** ERTZAINTZAko agenteek parte hartzeko prozesu bat sustatuko dugu Segurtasun Sailarekin, ERTZAINTZAren Gizarte Konpromisoarekin jarraitzeko proposamena egiteko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen alde.

3. Prozesua eta etorkizuna: gizarte- eta hezkuntza-arloko ikuspegia

3.1. Gako estrategikoa: bizikidetzeta urratzearen arrazoien azterketa.

Gizarrean, politikaren edo historiaren arloko faktore askok izan dezakete eragina bizikidetzaren suntsipenean. Gure kasuan, azterketa global horri ekiteak gure plan honen eskumena eta eremua gainditzen du. Bestalde, ez dirudi erraza izango denik azterketa hori egitea, zeharkako adostasuna lortzeko moduan. Azterketa honen xedea ez da hain handia eta ikuspegi pedagogikoari atxikita dago.

Zehazki, helburua honako hau da: modu unibertsalean, bizikidetzeta urratzen dituzten gatazkak eragiten dituzten arrazoiak (kulturarekin, hezkuntzarekin eta norberaren edo taldearen jarrerarekin loturikoak) identifikatzea eta sentsibilitate politiko guztiek partekatze moduan egitea. Eta horretaz gain, euskal gatazka esaten zaion horretan ez ezik, gatazka suntsitzailen bilakaeran ere zeharkako eragina duten kausak, arrazoiak identifikatzea.

Gatazka bat gatazka suntsitzailen bihurtzen duten bizikidetzeta urratzearen arrazoi horiek lau nukleo nagusien inguruan biltzen dira: dogmatismoa, fatalismoa, manikeismoa eta sektarismoa. Lau paradigma horiek gizarrean kultura eta norberaren pentsamoldean txertatuta egon daitezke, diskrezioz. Laurek badute ezaugarri komun bat, hain zuzen ere, ezarpena, indarkeria, giza eskubideen urraketa edo baliabide ez-etikoen erabilera normalizatu egiten dituztela:

·**Dogmatismoa.** Guztiz zuzen zauden eta egia osoaren jabe zaren ustea izatea esan nahi du. “Segurtasun”-pertzepzio hori nahitaezkoa da baliabide ez-etikoen erabilera legitimatzeko eta baliabide horiek erabiltzera ausartzeko. Dogmatismoa mugen kontzientzia nahikoa ez dagoelako sortzen eta garatzen da.

·**Fatalismoa.** Funtsean, ikuspegi biktimista da eta horren eraginez ez da beste aukerarik ikusten, ezarpenean oinarritutakoa ez bada. Indarkeriaren erabilera justifikatu egiten da: “ez dago beste aukerarik”, “gainera, haiek egiten dutena okerragoa da”. Zailtasunen erdian, aukerak identifikatzeko ezintasuna du oinarrian.

·**Manikeismoa.** Arazoak alde aurreko dikotomia batera murrizten ditu, benetan aukeratzeko erantzukizuna eragozten duela. Demagogia arriskutsua da, “dena da baleko” modukoak indarrean jartzen baititu eta aurkaria “etsai-iruditat” baino ez duelako hartzen. Manikeismoa kontzientzia etikoaren sakontasun ahuleko egoeretan zabaltzen da.

·**Sektarismoa.** Ideia bati giza eskubideei baino balio handiagoa ematen diogularik, ideia horren defentsa kolektibo eta gogorra egitea esan nahi du. Bestea etiketa soil bihurtzen du. Deshumanizazio-prozesuak eragiten ditu, baita ergeltze-prozesuak ere. Giza duintasunaren balio gorena behar bezala ez barneratuta izatean oinarritzen da.

Gatazka suntsitzailen, giza eskubideen urraketen eta indarkeria-fenomenoen (indarkeria politikoa, sektarioa, klasista, arrazista, sexista, etnien artekoa edo erlijioen artekoa) prebentzioak lotura zuzena

du bizikidetzaren urraketaen lau arrazoi horiei ematen zaien erantzunarekin. Prebentzioaren aukera zera da, modu sinple, iraunkor eta osagarrian hainbat eremutatik bizikidetzarako oinarri alternatiboak sustatzea.

3.2. Mugarri bat prozesuan: etorkizunaren gaineko konpromisoa

Etorkizunari dagokion prozesuaren mugarria oinarritzko akordio batera iristea da, hezkuntzaren eta gizartearen arloko oinarritzko edukiak zehazteaz gain, adostasun-akordio bat ere izango dena, bizikidetzako eta gizarte elkartzeko kultura berria bultzatzearen. Ezin dira asko izan; aitzitik, gutxi, sendoak eta garatzeko potentzialtasun handikoak izan behar dute.

Horretaz gain, ez dira pentsatu behar azken hamarkadatan gure herrian bizi izan dugun indarkeriaren arazoari emandako erantzun moduan. Etorkizunera begira ari gara eta, ildo beretik, bizikidetzarako gizarte-hezkuntzako eduki horiek baliagarriak izan behar dute giza eskubideen defentsa arriskuan jartzen duten fenomeno antisozial guztietan.

Zentzu horretan, giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza unibertsalaren oinarrien proposamena izan behar dute, sexismoaren, xenofobiaren, arrazakeriaren edo indarkeriaren adierazpen guztiei aurre egiteko. Guztiok gara gizartearen eta hezkuntzaren arloko agente. Bizikidetzaren aldeko eta indarkeriaren eta gatazka suntsitzaileren prebentzioko kultura bat lortzeko gizartearen, politikaren eta erakundearen arloan lan egiteak ados jartzea eskatzen du gutxieneko oinarri jakin batzuei dagokienez, oinarri horien potentzialtasuna askatasunez eta modu sortzaile eta askotarikoan garatu ahal izan dadin.

Premia horietan oinarrituta, Bake eta Bizikidetz Plan honetan lau ildo nagusi garatzea proposatzen da. Hain justu, *oinarritzko lau arauak* —kenketa, batuketa, biderketa eta zatiketa— bizikidetzaren arloan aplikatzea.

•**Kenketa gure nahi dut horretan.** Bizikidetz zera da, gure ikuspegia beti osatu gabea dela onartzea. Errealitatearen agindu hori ulertzeko, gizaki izatearen mugak onartzearen esperientzia hezigarria indartu behar da. Gizaki guzti-guztiak mugatuak garenaz jabetzea esan nahi du eta, hain justu horregatik, ez dugu arrazoi osoa, ezin dugu dena egin eta ezin gara egia osoaren jabe izan. Gure *nahi dut* horri gure errealitate ez-perfektuaren faktorea kendu behar zaio.

•**Batuketa gure ahal dut horretan.** Bizikidetz zera da, zailtasunen artean aukerak sustatzen ikastea. Hori ikasteko, balio positiboaren esperientzia hezigarria sustatzea ezinbestekoa da. Esperientzia horri esker, fatalismoa, etsipena eta baliabide ez-etikoetara jotzea ez diren aukera hobekak badirela konturatuko gara. Gure ahal *dut* horri gure aukera agortezinaren faktorea batu behar zaio.

•**Zatiketa gure behar dut horretan.** Bizikidetz zera da, egoera bakoitzean gure erantzukizun etikoa geure gain hartzea. Kontzientzia etiko pertsonalean sakontzeko esperientzia hezigarria sustatzea ezinbestekoa da. Dogmatismoaren, amorraren, agresibitatearen, beldurraren, norberekoikeriaren... bulkada soila baino gehiago gara, arrazoibidea dugulako eta zentzu etikoz aukeratzeko gai garelako. Gure handinahikeria gure betebeharraren etikoaren faktorearekin zatitu behar da.

•**Biderketa gure naiz horretan.** Bizikidetz zera da, giza duintasunaren errespetuaren goi-mailako balioa ulertzea (*Carlton-eko Akordioa*). Giza duintasunaren eta giza eskubideen esperientzia hezigarria sustatzea. Gizaki guztiok merezi dugu errespetua eta eskubideen subjektu izatea. Pertsona bakoitza etiketa edo bere buruaren murrizketa soila baino gehiago da. Kontzientzia hori erabakigarria da bizikidetz zibilizatua lortzeko. Pertsona balioa duintasunaren faktorearekin biderkatu behar da.

Bake eta Bizikidetz Plan honen bitartez mesfidantzatik konfiantzarako prozesuan lagundu nahi dugu. Etorkizunari buruz partekatutako akordio bat lortzeko lan egingo dugu. Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarreko Bake eta Bizikidetz Ponentziaren barruan, etorkizunari buruzko gizartearen eta hezkuntzaren arloko lehen konpromisoaren oinarri izango den eztabaidarako proposamen hau egin du.

MIKROAKORDIOAK (III)

Gizartearen eta hezkuntzaren arloko konpromiso bat Gizalegez Akordioa

Lau oinarri bizikidetzeta-hezkuntzarako

Bake-kulturaren sustapenak eta gatazka suntsitzaileen, giza eskubideen urraketen eta mota guztietako indarkeria-fenomenoen prebentzioak lotura zuzena dute bizikidetzaren urraketaren honako lau arrazoi hauei ematen zaien erantzunarekin: dogmatismoa, fatalismoa, manikeismoa eta sektarismoa. Prebentziozko erantzun hori eratzearren, gizartearen eta hezkuntzaren arloko konpromiso bat garatzea adostu dugu, lau hezkuntza-oinarri alternatiboren bitartez:

·*Kenketa. Bizikidetzeta zera da, gure ikuspegia beti osatu gabea dela onartzea. Mugen esperientzia hezigarriak dogmatismoari aurrea hartzen dio eta elkarrizketa eta indarkeriarik eza sustatzen ditu.*

·*Batuketa. Bizikidetzeta zera da, zailtasunen artean aukerak sustatzen ikastea. Balio positiboaren esperientzia hezigarriak fatalismoari aurrea hartzen dio eta aniztasuna sustatzen du.*

·*Zatiketa. Bizikidetzeta zera da, egoera bakoitzean gure erantzukizun etikoa geure gain hartzea. Kontzientzia etikoaren esperientzia hezigarriak manikeismoari aurrea hartzen dio eta enpatia eta elkartasuna sustatzen ditu.*

·*Biderketa. Bizikidetzeta zera da, giza duintasunaren errespetuaren goi-mailako balioa ulertzea. Giza duintasunaren esperientzia hezigarriak indarkeriara jotzeari aurrea hartzen dio eta giza eskubideen errespetua sustatzen du.*

Aurrera begira eta gure helburuak indarkeriaren prebentzioa, giza eskubideen babes unibertsala eta gizartea elkartzeko bizikidetzaren eta bakearen kultura direla kontuan izanik, gizartearen eta hezkuntzaren arloko zeharkako proiektu integrala sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, betiere lau oinarri etiko horiei buruzko adostasuna abiapuntu hartuta. Hainbat eremutatik modu osagarrian sustatzea proposatzen dugu, modu sinple, sortzaile, libre eta askotarikoan.

3.3. Urratsak

·**Lehen urratsa.** Gizartearen eta hezkuntzaren arloko konpromisoa sustatuko dugu etorkizunerako prebentzio-estrategia partekatzeko, betiere gure nahia eta erabakia izanik tradizio politiko guztiek konpromiso hori partekatu eta sinatzea.

·**Bigarren urratsa.** Gizarte-erakundeekin akordioak lortu nahi ditugu Gizalegez Akordioko gizarte- eta hezkuntza-arloko konpromisoa hainbat eremutan garatzeko (herritarren partaidetzan, udal-unibertsoan eta hezkuntza-ekintzan).

·**Hirugarren urratsa.** Herritarren partaidetzarako proiektu bat sustatuko dugu gizartea elkartzeko prozesu baten eraketan, betiere bizikidetzaren aldeko gizartearen eta hezkuntzaren arloko konpromisoa eta lau oinarriak abiapuntu hartuta.

·**Laugarren urratsa.** Lankidetzeta-esparrua sustatuko dugu gizarte-erakundeekin, Udalekin eta Foru Aldundiekin, proposamen horren inguruko gizarte- eta hezkuntza-arloko elkarte-dinamika askotarikoak sustatzearren.

·**Bosgarren urratsa.** Ildo beretik, ikastetxeekin lankidetzeta-esparru handi bat ere lortu nahi dugu, giza eskubideen, bikiimekiko elkartasunaren, gatazken konponketa baketsuaren eta bizikidetzaren arloko prestakuntza eta hezkuntza emateko.

·**Seigarren urratsa.** Kulturaren, gazteen eta heziketa ez-formalaren arloetan akordioak lortu nahi ditugu gizartearen eta hezkuntzaren arloko proiektu hori sustatzeko baliabide eta hizkuntza sortzaileen bitartez.

·**Zazpigarren urratsa.** Aurreko guztiarekin batera, gizartea sentsibilizatzeko lanari ere ekingo diogu EiTBrekin elkarlanean, gizartea elkartzeko proiektu, prozesu eta programa baten oinarriak indartuko dituzten kanpainen eta programen bitartez.

Hirugarren zatia

Programa

Desadostasunik adostasunera

Hirugarren zatia

Programa. Desadostasunetik adostasunera

Plangintza estrategiko ororen jardun-programa zera da, aurretiazko asmo teoriko guztien gauzatze errealena biltzen duen azken erretratua. Azken batean, hitzetatik ekintzetara igarotzea da kontua. Jarraian garatuko dugun jardun-programa formulazio sinple, argi eta sintetiko baten bitartez aurkeztu nahi izan dugu, fitxen formatu praktikoa eta zehatzari jarraiki. Halaber, edonork ulertzeko moduan idatzi nahi izan dugu, erraz irakurtzekoa izan dadin.

Programa hori hiru *ardatz*en arabera egituratzen da: iragana, oraina eta etorkizuna. Ardatz bakoitzak sei *ekimen* biltzen ditu. Oro har, beraz, programan 18 ekimen sartzen dira. Bakoitzaren barruan hainbat ekintza garatzea aurreikusten da. Eta horretaz guztiaz gain, plan osoaren kudeaketarekin, jarraipenarekin eta ebaluazioarekin loturik beste bost jardun biltzen dituen zeharkako ekimen bat ere badago.

Bake eta Bizikidetzaren Planaren hirugarren zati honetan deskribapen kuantitatiboa egiteaz gain, planaren zentzua eta egitura sakonki ulertzeko ezinbestekoa den deskribapen kualitatiboa ere egingo dugu. Plan honen programaren bitartez esparru bat eratu nahi dugu, sentsibiltate politiko guztietako kezka demokratikoak bildu, adierazi eta irudikatuko dituen esparrua, hain zuzen. Gutariko bakoitzak bere tokia izango duen plaza publiko bat eraikitzearen parekotzat har daiteke jardun-programa honek adierazten duen borondatea. *Gizartea elkartzeko* gune bat.

Iraganari, orainari eta etorkizunari dagokienez, tradizio politiko bakoitzak bere bizipenek baldintzatutako kezka politikoak ditu. Eta denak ez dira kontrajarriak. Askok tokia egitea behar dute, ez besterik. Zalantzarik gabe demokratikoak badira eta lau urteko proiektu batean bideragarriak izanez gero, kezka guztiek izan beharko dute tokia jardun-programa honetan. Guztion artean partekatu behar dugun plaza publikoan tokia izan behar dute. Lan-programa honen bitartez hitzetatik ekintzetara igaro nahi dugu, desadostasunetik gizaritearen adostasunera iristeko.

I. ardatza

Fitxen arabera antolatutako ekimenak

iragana

kudeatzeari dagokionez

1. ekimenaren fitxa

Giza Eskubideen urraketek buruzko txostenak egitea eta eratortzen diren ekintzak

1. Ekimenaren deskribapena

Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak agindu du, lehenengo urrats modura, 1960tik 2013ra bitarte euskal gatazkan jazotako Giza Eskubideen Urraketak Egiaztatzeko Txostena egitea. Txosten horren helburua giza eskubideen urraketek mapa alde aurretik mugatzea da. Txostena batzorde bati agindu zaio, lan hori egiteko irizmena, independentzia eta izen ona egiaztatua duten lau pertsonaz osatutako batzorde bati. Oinarri horren arabera, eta txosten honetako gomendioei jarraiki, iragana argitzeko txostenak egiten jarraituko da.

2. Helburuak

- Iraganaren berrikuspen kritikoa egiteko beharrezkoa da gertatutakora objektiboki hurbiltzea eta lehen hurbilketa hori egingo dugu, parekatu gabe, giza eskubideen urraketa bat bera ere garrantzi barik edota kanpoan utzi gabe.
- Giza eskubideen urraketekin loturiko gertaera objektiboen kontakizuna egitea, orain arte sakabanatuta dagoen guztia biltzeko.
- Jaurlaritzak memoriari, iraganaren azterketa kritikoari eta biktimen ordain eta errekonozimenduari dagokien gauzatuko dituen ekintzen oinarri izango diren txosten baimenduak izatea.
- Hala badagokio, etorkizunean ikerketa gehiago edo memoria-txosten zehatzagoak egiteko oinarria finkatzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Lehenengo xostenean, motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan 1960. urtetik aurrera gertatu diren giza eskubideen urraketak sailkatu eta zenbatu behar dira. Ez da izango kasuen ikerketa bat, baizik eta hurbilketa bat, lehendik dauden datu fidagarriak bildu eta pilatuta.
- Sailkapen horrek ez du parekatzerik, konparaziorik edo konpentsaziorik eragin behar jatorri edo izaera desberdineko urraketek artean. Ildo beretik, testuinguru biktimologiko eta kriminologiko guztiak errespetatu beharko ditu egituraren eta gaiarekin loturiko nazioarteko estandarren erreferentziari jarraitu beharko dio.
- Txostenak ez du interpretaziorik edo baloraziorik egingo. Asko jota, egoki irizitako oharrak eta gomendioak egin ahal izango ditu.
- Eusko Jaurlaritzak jardun berriak egituratu ahal izango ditu txosten horretan bildutako datuen, ondorioen eta gomendioen ondorioz. Zehazki, iragana argitzeko txostenek artean, lehentasuna izango dute giza eskubideen urraketekin eta atentatuekin lotura duten eta oraindik argitu ez direnek.
- Emakunderekin lankidetzan, giza eskubideen urraketetako genero-ikuspegiari buruz eta horrek bakea eta bizikidetzaren prozesuan duen isla praktikoa eta zehatzari buruz berriazko txostena egingo da.
- Era berean, eta iragana argitzeko prozesuetan laguntzeko eta Memoriaren Institutua eratu baino lehen, memoria historikoaren gaineko lehentasunen oinarri-programa garatuko da.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
1. ekintza. Txostena agindu, egin eta Eusko Legebiltzarrari ematea.	·2013ko martxotik ekainera bitarte
2. ekintza. Txostena bakearen, giza eskubideen, biktimen, memoriaren, adiskidetzaren edo bizikidetzarako heziketaren eremuetan jarduten duten elkarten sareari eskaintzea.	·2013ko irailtik abendura bitarte
3. ekintza. Txostenaren edukiaren eta gomen-dioen ondorioz ekintzak eta ikerketak egin behar diren aztertzea eta proiektuak egitea.	·2014ko lehenengo seihilekoan
4. ekintza. Memoria historikoaren gaineko lehen-tasunen oinarri-programa prestatzea.	·2014ko lehenengo seihilekoan

2. ekimenaren fitxa

Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua

1. Ekimenaren deskribapena

Eusko Jaurlaritzak Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua sortuko du. Erakunde horretan memoriari buruzko politika publikoak eta zentroen, espazioen edo ekitaldien sarearen sinergiak koordinatu eta dinamizatu dira. Institutuaren eginkizun zehatzenak honako hauek izango dira: oroitzapen-ospakizunak, kontserbazioko, ikerketako, prestakuntza, partaidetzako, zabalkundeko, integrazioko, kontsultako eta dibulgazioko jarduerak sustatzea. Betiere erakundeekin, hezkuntza-arloko agenteekin eta gizarte-agenteekin elkarreraginan. Kokalekuaren gaineko erabakia hartu baino lehen, aukera ezberdinak aztertuko dira, erreferentziatzko bi punturekin: adostasuna eta iraunkortasuna.

2. Helburuak

- Lehen helburua honako hau da: elkarrekin bizi diren memoria demokratikoen artean herritarren elkarrikeria sortzaile bat bideratzea, sustatzea eta horri adierazpidea ematea, iraganeko esperientzia sozial eta politikoki traumatikoei dagokienez.
- Helburu nagusia, aldiz, egoerarik txarrean ere, bizikidetzaren demokratiko baten eta giza eskubideetako konpromisoan oinarritutako gizarte baten balioak eratzeko ahaleginetan laguntzea. Borroka horien oroitzapenek gorde beharreko ondare demokratikoa osatzen dute.
- Eta azken helburuari dagokionez, plaza publiko edo *agora* bat modu dinamikoan eta produktiboan eratzeko laguntzea, gizartearen balioak elkartzeko toki bat, berdintasun, askatasun eta demokrazia-maila handiagoa lortzeko.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Ez ditugu aurkituko berdin-berdinak diren bi memoria. Horregatik, memoria publikoa eratzeko gatazkatsua izango da; bi printzipio uztartu behar ditu: memoria demokratiko bat gogoratzearen, oroitzapena egitearen, partekatzearen eta transmititzearen erantzukizun etiko eta politikoari erantzutea; eta eratzeko-prozesuan aniztasunaren partaidetza eta adierazpidea bideratzea, kontakizun monolitikoa ezarri nahi izan gabe.

- Gure gizartearen azken 80 urteotan pairatu izan ditugun indarkeriazko eta biktimizazioko lau testuinguru nagusien aurrean, memoria demokratikoen aniztasuna irudikatzen duen ondare kolektiboa kudeatuko du Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutuak; hona hemen lau testuinguru horiek: gerra zibila; diktadura, ETA eta legez kontrako kontraterrorismoak.
- Memorien arteko elkarrikeria libre eta plural horren kudeaketak badu muga: gutxieneko demokratiko bartzuk bete behar ditu. Ezin da erabili gertakariak parekatzeko, ezta kanpoan uzteko ere. Ezin da erabili, halaber, giza eskubideen urraketako, indarkeriazko edo terrorismoko ezein ekintza legitimatuko duen historia bat berridazteko. Giza duintasunaren goi-mailako balioa eta balio horren ondoriozko eskubide eta askatasuna izan behar ditu xede, egia eta justizia argitzearen.
- Memoria publikoa ez da soilik sufrimendua eguneratzea. Memoriaren zentro baten balioak proiektatzen ditu. Samina ez da balio bat eta ezin da arrazoia ordeztu duen memoria-agintaritzaren printzipiotzat hartu. Sufrimenduaren esperientziaren lekukotza memoria demokratikoaren barruan biltzen da.
- Memoriari buruzko politika publiko baten xede herritar guztiak dira, betiere herritar horiei erantzukizuna eskatzen dien aldetik. Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutuak biktimen eta herritarren arteko bereizketa desegin behar du, biktima izateak berak bereizketa hori egitea baitakar eta herritarri inolako inplikazio zuzenik esleitu gabe. Memoriaren zentroak herritarren inplikazioko ibilbide etikoa egitea iradokitzen du.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
1. ekintza. Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutuaren proposamena onartzea Parlamentuan.	·2014ko lehenengo seihilekoan
2. ekintza. Memoriaren Institutua eratzeko eta sortzeko prozesuari ekitea.	·2014ko bigarren seihilekoan
3. ekintza. Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua inauguratzea.	·2014-15 ikasturtean

3. ekimenaren fitxa

Terrorismoaren biktimak gogorarazteko proiektuari ekarpenak egitea

1. Ekimenaren deskribapena

Terrorismoaren Biktimen Errekonozimendu eta Babeserako Legearen 57. artikuluari jarraiki, Euskal Herrian Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroa sortzen lagunduko du Eusko Jaurlaritzak. Zentro hori sortzea eta zuzentzea Espainiako Gobernuaren erantzukizuna da. Dena dela, Eusko Jaurlaritzak modu aktiboan parte hartu du proiektu honetan, proiektua diseinatzeko eta indartzeko zeregina esleitu zitzaion Batzorde Mistoan duen ordezkartzaren bidez.

2. Helburuak

- Terrorismoaren biktima guztiei omenaldi iraunkorra egitea.
- Terrorismoaren fenomenoak bai gure tokiko testuinguruan, bai munduan zer eragin duen berariaz gogoratzea.
- Helburu politikoak edo bestelakoak lortzeko bidetzat indarkeriara jotzeko aukera deslegitimatzea eta giza eskubideak defendatzea.
- Terrorismoari aurre eginez, bizikidetza demokratikorako aukera ekarri zuten balio etiko, sozial eta politikoek memoria gogoratzea eta sustatzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Gure gizartean larritasun eta garrantzi handia izan dute erakunde terroristek egindako giza eskubideen urraketek; horretaz gain, ez da komeni indarkeriazko eta biktimizazioko testuinguru desberdinak nahastea. Bi faktore horiek kontuan izanik, jardun espezifiko honi bultzada eman beharko genioke, betiere bateragarria izanik indarkeriazko eta biktimizazioko bestelako testuinguruetan gertatutako urraketei merezi duten errekonozimendua eta ordaina emateko jardunekin. Proiektu honen ekimena legez Espainiako Gobernuari dagokion arren, Eusko Jaurlaritzari dagokion neurrian, hona hemen irizpide nagusiak:

- Memorialaren diseinuan tokikoaren eta unibertsalaren dimentsio bikoitza txertatzea. Alde batetik, memorialak argi adierazi behar du euskal eta espainiar gizarteek pairatu dituzten terrorismoen aurrean emandako erantzun zibiko demokratikoa eta terrorismo horien biktimei zuzendutako omenaldi ere izan behar du. Bestalde, erantzun zibiko-politiko hori fenomeno berdina pairatzen ari diren munduko beste toki batzuetara proiektatu behar du.
- Euskadin, Memoriaren Institutuak zentroen, espazioen eta ekitaldien sarea koordinatu eta dinamizatu du eta Terrorismoaren Biktimak Gogorarazteko proiektua sare horretan txertatuko da.
- Dimentsionamendu zentzuduna eta iraunkorra izango du. Baliabideak optimizatzea eta sinergia lortzea izango du xede, bikoiztasunak saihestuz. Ildo beretik, gaiarekin loturik jada lanean ari diren gizarte-erakundeak proiektuaren kudeaketan inplikatzeko ahalegina egingo du.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
1. ekintza. Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernua ekimen hau indartzeko partekatzen duten Batzorde Mistoan proiektua batera diseinatzea eta definitzea.	·Batzorde Mistoan adosten den egutegiaren arabera
2. ekintza. Proiektua egitea eta onartzea.	·Batzorde Mistoan adosten den egutegiaren arabera
3. ekintza. Abiaraztea.	·Batzorde Mistoan adosten den egutegiaren arabera

4. ekimenaren fitxa

Terrorismoaren biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea

1. Ekimenaren deskribapena

Duela lau legegintzaldi, Eusko Jaurlaritzak terrorismoaren biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina emateko prozesuak gauzatzen hasi zen, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bitartez. Programa horiei jarraipena emango diegu eta indarkeriaren amaierak ekarri duen gizarte-errealitatera egokituko dira. Ildo beretik, Bake eta Bizikidetzaren Plan honetan, programa horiek Lehendakariari atxikitako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusitik bideratuko dira eta, zehazki, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzatik.

2. Helburuak

- Laguntza. Biktimez zuzenean eta banaka arduratzea, kasu bakoitzaren beharrezkoak zein diren jakiteko; indarreko legeriaren arabera dagozkien eskubide eta baliabideen berri emango zaie, eta horiek gauzatzen lagunduko.
- Errekonozimendua. Giza eskubideen urraketa guztien biktimen eskubideak baliatzera bideratutako ekimen eta jarduerak indartzea eta laguntzea, Egiaren, Justiziaren eta Ordainaren printzipioak garatze aldera.
- Ordaina. Indarreko legerian erreparatze- eta laguntza-prestazioetarako eskabideak ebaztea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Elkartasuna. Biktimekiko elkartasuna eta horien errekonozimendu publiko eta soziala sustatzea, honela bakearen aldeko kultura, giza eskubideen eta askatasunen errespetua zabalduz eta iraganaren ikuspegi etikoarekin memoria kritikoa babestuz.
- Koordinazioa. Lankidetzaren eta informazio-harremanak izatea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko erakundeekin, baita bestelako instituzio, erakunde eta administrazio publikoekin ere, bakoitzaren eskumenen eremuan, biktimei laguntza osoa eta egokia emateko.
- Sinergia. Oinarritzako helburutzat biktimei giza laguntza eta laguntza psikosoziala ematea eta haien eskubideen alde egitea duten elkarte, fundazio eta gizarte-mugimenduekin lankidetzaren harremanak indartzea.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
<p>1. ekintza. Laguntza-ekintzaren ildoak. Biktimari Laguntzeko Zerbitzuari eustea, baita onartutako presazioetarako itzuli behar ez diren diru-laguntzen programari eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekiko hitzarmenari ere, Auzitegi Nazionaleko Biktimei laguntzeko bulegorako.</p>	<p>·Urtean garatzeko konpromisoa</p>
<p>2. ekintza. Gizarte-erakundeekiko lankidetzaren ildoak. Biktimei laguntzeko elkarreentzako diru-laguntzen urteroko deialdiari eustea, baita Victim del Terrorismo Fundazioarekin eta Fernando Buesa Fundazioarekin sinatutako hitzarmenari ere. Horrekin guztiarekin batera, topaketak eta mintegiak ere egingo dira elkarrekin eta biktimekin.</p>	<p>·Urtean garatzeko konpromisoa</p>
<p>3. ekintza. Ikerketak eta azterketak sustatzeko ildoak. EHUrekin (KREI) dugun hitzarmenari eustea, urteroko ikerketak garatzeko eta gradu ondoko ikasketetarako.</p>	<p>·Urtean garatzeko konpromisoa</p>
<p>4. ekintza. Parte-hartzea sustatzeko ildoak. Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluarekin koordinazioa eta baterako lana sustatzea. Memoriaren Egunerako ospakizunak ados daitezen bultzatzea. Memoriaren Mapa era adostuan gara dadin bultzatzea.</p>	<p>·Urtean garatzeko konpromisoa</p>

5. ekimenaren fitxa

Egungo legerian babesik ez duten biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea

1. Ekimenaren deskribapena

Egungo legeriak ez du aurreikusten gure testuinguruan azken hamarkadatan gertatu diren giza eskubideen zenbait urraketa-kategoriatako biktimekiko babesa. Defizit hori zuzentzeko xedez, 2012an Eusko Jaurlaritzak honako hau onartu zuen: *107/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa*.

Ildo berari jarraiki, Legegintzaldi honetan, legez kontrako kontraterrorismoko ekintzen ondorioz giza eskubideen urraketan biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko prozesuak garatzeko eta zabaltzeko beharrezkoak diren legezko tresnak sortuko ditu Eusko Jaurlaritzak, horiek babestea ez baita sartzeko legerian aurreikusitako kasuetan.

2. Helburuak

- Aurreko legegintzaldian 107/2012 Dekretuarekin abiarazitako lana burutzea; izan ere, Dekretu horretan 1960-1978 aldia biltzen baita.
- Legez kontrako kontraterrorismoen biktima guztiei errekonozimendua eta ordaina emateko prozesuak burutzeko beharrezkoak diren lege- eta administrazio-tresnak sortzea, horiek babestea ez baita sartzeko legerian aurreikusitako kasuetan.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Ekimen hori konpromiso etiko batean oinarritzen da: giza eskubideen urraketak eragin zituzten gertakari guztiak agerian uztea horien biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko eta "lege-iluntasunean oinarritutako paradisuak" saihesteko. Konpromiso hori printzipio honetan oinarritzen da: "urraketa berdina, babes berdina". Azkenik, kontua zera da, urraketa bat bera ere kanpoan ez uztea, ez desagerraraztea, indarkeriazko eta biktimizazioko testuinguru desberdinak nahastu edo konpentsatu gabe. Gako horien arabera, hona hemen irizpideak:

- 107/2012 Dekretua* teknikoki egokitzea, egikaritzeko garaian agerian geratu diren arazo praktikoak konpontzeko.
- Balioespen Batzordearen lanarekin jarraitzea, aurkeztutako espediente guztien irizpena 2013. urtean amaituta egon dadin, *107/2012 Dekretuan* ezarritakoari jarraiki.
- Giza Eskubideen Urraketak Egiaztatzeko Txostena eta 107/2012 Dekretuaren kudeaketaren balantzea bera abiapuntu hartuta, bigarren dekretu bat onesteko azterketa bat egingo da, babesik eskaini ez zaien biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko prozesuak burutzeko.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
<p>1. ekintza. 107/2012 Dekretuaren ondoriozko prozesua burutzea. Horrek esan nahi du teknikoki egokitu egin behar dela eta aurkeztu diren espediente guztiak kudeatu, Ebaluazio Batzordearen irizpenen bitartez.</p>	<p>·2013. urte osoan</p>
<p>2. ekintza. Babesik gabeko biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko prozesuen azterketa egitea, bigarren dekretu bat onartzeko asmoz.</p>	<p>·2013ko hirugarren hiruhilekoan</p>
<p>3. ekintza. Biktima guztiei errekonozimendua eta ordaina emateko prozesuak burutzea ahalbidetuko duen bigarren dekretua prestatzea.</p>	<p>·2013ko laugarren hiruhilekoan eta 2014ko lehenengoan</p>
<p>4. ekintza. Bigarren dekretuaren ondoriozko prozesua kudeatzea.</p>	<p>·2014. urte osoan</p>
<p>5. ekintza. Neurri osagarriak ezarri behar ote diren balioestea.</p>	<p>·2015eko lehen sei hilekoan</p>

6. ekimenaren fitxa

Torturari buruzko ikerketa eta ekintzak

1. Ekimenaren deskribapena

Tortura eta tratu txarrak aztertzen dituzten nazioarteko zenbait erakunde gaituk (hala nola, Torturaren Prebentzioarako Europako Batzordeak, Nazio Batuen Torturaren aurkako Batzordeak eta horren errelatore bereziak) eta Gobernu Kanpoko zenbait Erakundek (hala nola, Amnistia Internazionala edo Human Right Watch), besteak beste, behin eta berriz adierazi dute (eta guztiak bat datoz horretan) oso kezkatuta daudela Espainian torturaren fenomenoaren ezin delako gaindituztat eman edo tortura ez delako murrizten noizean behin edo tarteka gertatzen den kasuistikara.

Tortura giza eskubideen urraketa gaitzesgarrietan gaitzesgarriena da. Fenomeno hori gerta daiteke, zeren atxilotuekiko tratuak gertatzen diren tokiak eta atxilotzealdia kontrolpetik at gera baitaitezke. Opakutasunak zigorgabetasun-egoerak sortzen ditu eta zigorgabetasunak, aldi berean, horrelako praktiketarako egoera ezin hobek. Tortura gertatzen den susmo zentzuduna izate hutsak zalantza hori argitzera bultzatu behar luke giza eskubideekin eta demokraziaren balioekin konprometitua dagoen pertsona edo erakunde oro, baita fenomeno hori ez gertatzeko hartu beharreko neurriak hartzerako ere. Tortura gertatzeko aukera dagoela detektatzeak eta horri erantzuteak ez ditu sistema demokratikoa eta polizia-kidegoak ahultzen; aitzitik, haien legitimitatea eta sistema demokratikoarekiko konpromisoa areagotzen du.

Horren ondorioz, eta salaketa asko, zalantza zentzudunak eta egia-zantzuak gertatzen direnez, torturaren fenomenoak egiaz duen eraginari buruzko ikerketa zorrotz eta independente bat egingo da, dagozkion errekonozimenduko eta prebentzioko neurriak hartzearen. Administrazioaren betebeharrak etiko, politiko eta legezkoa da herritarrei segurtasunez bermatzea atxilotuei ematen zaien tratuan giza eskubideak errespetatzen direla eta, nolahi ere, fenomeno hori ez gertatzeko eta, gertatuz gero, detektatu eta zuzentzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen direla.

2. Helburuak

- Gure testuinguruan, torturaren fenomenoaren errealitate objektibora hurbilduko gaituen azterketa zientifiko bat egitea.
- Azterketa horren ondorioei jarraiki, beharrezkoak eta onargarriak diren errekonozimenduko, ordaina emateko eta prebentzioko neurriak hartzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

2009ko martxoan Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zuen torturari buruzko Azterketa Zientifikoaren Txostenaren edukia izango da ekimen horren eta aginduko den ikerketaren abiapuntua. Eduki horretan oinarrituta, ekimena honako irizpide hauen arabera bultzatuko da:

- Azterketa egitean eta azterketaren proiektioan bi aldi bereiziko dira: lehena, 1960tik 1978ra bitarte; eta bigarrena, 1978tik 2013ra bitarte. Torturak eta tratu txarrak ikertzeko mekanismo independente eta inpartziala sortzeko aukera aurreikusiko du.
- “Istanbulgo Protokoloa” eta Giza Eskubideetarako Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoaren “Manual para la investigación y documentación eficaces de la tortura y otros tratos o penas crueles o degradantes” eskuliburua erabiltzea erreferentzia-tresnatzat.
- Tokiko beste erakunde batzuen lankidetzeta eta aholkularitza sustatzea, hala nola, Arartekoa eta unibertitateak (KREI Kriminologiaren Euskal Institutua).

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
1. ekintza. Azterketa egitea.	·2014ko lehen hiruhilekoan
2. ekintza. Tortura-kasuak aztertzeko ezarri behar diren protokoloak buruzko ondorioak ezartzea.	·2014ko bigarren hiruhilekoan
3. ekintza. Torturaren gaineko ikerketa eta ekintzarako jardun-proposamena aurkeztea.	·2014ko bigarren seiuhilekoan
4. ekintza. Torturaren gaineko ikerketa eta ekintzarako jardun-proposamena garatzea.	·2014-15 ikasturtean zehar

II. ardatza

Fitxen arabera antolatutako eki

oraina

kudeatzeari dagokionez

7. ekimenaren fitxa

Lankidetza eta elkarlana Eusko Legebiltzarrarekin

1. Ekimenaren deskribapena

Azken 80 urte hauetan gure herrialdeko lau tradizio politiko handiak ez dira inoiz bildu mahai baten inguruan gure bizikidetza-arazoei erantzuna elkarrekin ematen saiatzeko. Eusko Legebiltzarrean sortutako Bake eta Bizikidetza Ponentzia aukera historikoa da ezohiko errealitate hori zuzentzeko.

Eusko Jaurlaritzak lehenasunezko garrantzia ematen dio Legebiltzarreko foro horri. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak lagunduko du eta modu aktiboan jardungo du elkarlanean Legebiltzarrarekin elkarlanerako eta elkarriketa pluralerako gune hori sortzen eta gune horri eusten nahiz euskal gizarterako akordio estrategikoak bilatzen.

Bake eta Bizikidetza Ponentziak jarraituko duen prozesuarekin batera, Eusko Jaurlaritzak lankidetza-hitzarmen bat ezarriko du Eusko Legebiltzarraren Lehendakariarekin herritarren parte-hartzea sustatzeko bakearen eta bizikidetzaren inguruan. Ekimen honen helburua da komunikatzeko eta ideiak eta proposamenak trukatzeko zubi bat sortzea, gobernuaren, legeen eta herritarren eremuak lotuko dituen zubia, hain zuzen ere.

2. Helburuak

Konfiantza sortzen eta oztopoak gainditzeko laguntzea, Eusko Legebiltzarraren Bake eta Bizikidetza Ponentziak adierazten duen elkarriketarako eta adostasunerako potentzial demokratikoa hedatzeko.

- Iraganaren, orainaren eta etorkizunaren inguruan adostasuna lortzeko oinarritzko proposamenak eskaintzea, betiere proposamen horiek tradizio politiko guztiek partekatuko dituztela lortzeko.
- Herritarren parte-hartzeaz gain Erakundearen eta gizartearen arteko komunikazioa sustatzea Eusko Legebiltzarrarekin elkarlanean jardunda.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Eusko Jaurlaritza Legebiltzarraren Bake eta Bizikidetza Ponentziari edozertan laguntzeko prest dago, gizartearen *elkartzeko* proiekturako garrantzitsuak diren eremu guztietan adostasun-ibilbideak jorratzen laguntzeko. Eusko Legebiltzarra, gure herriko sentsibilitate politiko guztiak ordezkatuta dauden foro plurala da, herritarrek askatasunez hala erabakita. Erakunde horretan gauzatzen diren elkarriketa- eta akordio-prozesuek balio estrategikoa dute. Iritzi orokor hori oinarri hartuta, irizpide espezifikoak honako hauek dira:

- Elkarriketa arina eta iraunkorra izatea Eusko Legebiltzarraren Bake eta Bizikidetza Ponentziarekin eta Ganberako Legebiltzarreko Talde guztiekin.
- Ahalik eta adostasun handiena lortzea Eusko Legebiltzarrean Jaurlaritzaren proiektu guztietan, bizikidetza-eremuan estrategikoak direnetan.
- Mikroakordio* progresibo eta metagarrien metodologia eta prozesua erabiliz lan egitea.
- Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak eta gizarte zibilaren erakundeek herritarren parte-hartzea bideratzen dituzten ahaleginen arteko sinergia sortzea.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
<p>1. ekintza. Bake eta Bizikidetzeta Plana Eusko Legebiltzarrean aurkeztea eta Legebiltzarreko Taldeen ekarpenak jasotzea.</p>	<p>·2013ko ekainetik urrira.</p>
<p>2. ekintza. Legebiltzarrarekin modu aktiboan elkarlanean jardutea Jaurlaritzaren proiektu guztietan, bizikidetzeta-eremuan estrategikoak direnetan.</p>	<p>·Denboraldi osoan.</p>
<p>3. ekintza. Herritarren parte-hartzeari buruzko lankidetzeta-hitzarmen bat prestatzea, sinatzea eta abian jartzea Eusko Legebiltzarrarekin.</p>	<p>·2013ko bigarren seihilekoan.</p>
<p>4. ekintza. Hitzartutako jardun-lerroak eguneratu eta garatzeko agiria aurkeztea.</p>	<p>·2014ko azaroan. ·2015eko azaroan. ·2016ko azaroan.</p>

8. ekimenaren fitxa

Espetxe-politikari buruzko Hitzeman Programa garatzea

1. Ekimenaren deskribapena

Espetxe-politikaren eta bergizarteratzearen alorrean, Eusko Jurlaritzak bere programa sustatuko du, presoak bergizarteratzeko prozesua ahalbidetzera bideratuta dagoen programa. Ekimen hori gaur egungo eskumen-esparruak eskaintzen dituen mugen eta aukeren esparruan kokatzen da, legediak horretarako ematen duen ahalmena aztertuta.

Hitzeman Programan parte hartzeko bakearen eta bizikidetzaren aldeko behin betiko berrabizirik konpromisoari atxiki beharko zaio. Izena eman ostean, Eusko Jurlaritzak abian jarriko du programa, eta egoeraren arabera hainbat ibilbideren artean hautatzeko aukera ematen du programa horrek; ihes egin duten pertsonak bergizarteratzera ere hedatu ahal izango da.

Ibilbide horien guztien baterako ardatza du oinarri: konpromisoa eta erantzukizuna. Alde batetik, normalizazio sozialaren erantzukizuna bere gain hartzen duen gizartearen konpromisoa. Beste alde batetik, iraganaren, orainaren eta etorkizunaren erantzukizuna beren gain hartzen duten presoek konpromisoa. Oinarri horiek programaren izenean laburbiltzen dira: "Hitzeman". *Hitzematea* erantzukizuna eta konpromisoa hartzea da.

2. Helburuak

·Bergizarteratzearen arloan, bergizarteratzearen inguruko euskal programa bat diseinatzeaz eta sustatzeaz gain, programa hori ezartzeko adostasun parlamentarioa, erakunde arteko eta sozio-politikoaren sustatzea.

Lege-esparruaren barruan, bakea eta bizikidetzaren lortzeko hainbat ibilbide definitzea; terrorismo-delituengatik kondenatutako presoek ibilbide horiek beren gain hartzeak ahalbidetuko du, edo, hala badagokio, arinduko du bergizarteratze-prozesuen aldeko txostena gauzatzea.

·Nazioarteko esperientzia kontuan hartuta, laguntzea espetxe-politika bakea eta normalizazio soziala finantzatzeko alderdia izan dadin.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Eusko Jurlaritzak da programa honen sustatzailea. Nolanahi ere, programa honen garapenaren arrakasta bi alderdiren baitan egongo da: alde batetik, ekimen honek erakundearen eta eraginpean hartutako erakundearen adostasuna lortzeko duen gaitasunaren baitan, eta beste alde batetik, erakunde laguntzailearen sarea sortzearen baitan.

·Erakunde laguntzaileak funtsezkoak izango dira. Nabarmendu behar da garrantzitsua dela bakearen, giza eskubideen edo biktimen elkartasunaren alde lan egin duten gizarte-erakundearen parte-hartzea. Era berean, programak Europako eta nazioarteko erakundearen esanbidezko laguntza bilatuko du.

·Hitzeman programa "Eusko Jurlaritzaren jardun-printzipioak espetxe-politikaren alorrean" deituriko dokumentuaren barnean biltzen da, eta honako puntu hauetan laburbiltzen da:

A. Berezko ekimenaren eremuan, Eusko Jurlaritzak ahaleginak egingo ditu honako hauek azpimarratzeko: (1) espetxe-politikaren inguruan Espainiako Gobernuarekin akordioak eta baterako konpromisoei lortzeko duen asmoa salbuespen-politikak gainditzeko legedia betetze aldera, (2) bergizarteratzearen alorrean legeak eskaintzen dituen aukerak aztertze eta sustatzeko hartutako erabaki sendoa, eta (3) alor horretan adostasun soziopolitiko zabalak lortzeko hartutako erabakia.

B. Proposizioaren eremuan, Eusko Jurlaritzak honako hauek eskatuko ditu: (1) espetxeen eskumena eskualdatzea, (2) presoak EAEko kartzeletara hurbiltzea, (3) espetxe-onurak lortzearen normalizazioa, (4) hasitako prozesuekin –Bizikidetzaren Tailerrekin eta Leheneratze Topaketekin, esaterako– jarraitzea, (5) gaixorik dauden presoentzako irtenbide humanitarioak eta (6) garai batean legez kanpokoak ziren baina orain modu legezkoan garatzen diren jardueren politikoekin erlazionatuta dauden kondenak dituzten presoentzako legezko erantzunak.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
1. ekintza. Espainiako Gobernuarekin elkarriketak izatea eta akordioak lortzea.	·Etengabeko konpromisoa legegintzaldi osoan.
2. ekintza. Hitzeman programa prestatzea.	·2014ko lehen seihilekoan.
3. ekintza. Presoak ordezkatzeko dituzten erakundeak erakustea programa.	·2014ko bigarren seihilekoan.
4. ekintza. Erakunde laguntzaileekin adostasunak lortzea eta erabaki sendoak hartzea.	·2014ko hirugarren hiruhilekotik aurrera.
5. ekintza. Programa ezartzea.	·2014-15 ikasturtean.
6. ekintza. Hitzeman Programa eguneratu eta garatzeko agiria aurkeztea.	·2015eko azaroan. ·2016ko azaroan.

9. ekimenaren fitxa

Europar Batasunarekiko elkarlanerako bideak bultzatzea

1. Ekimenaren deskribapena

Eusko Jaurlaritzak Bake eta Bizikidetzaren Plan hau garatu nahi du Europar Batasunarekin komunikazioan, koordinazioan eta elkarlanean jardunda, hau da, duela gutxi Bakearen Nobel Saria eman diote erakundearekin jardunda. Horri jarraiki, bi jardun-lerro handi garatuko dira.

Lehenik eta behin, Bake eta Bizikidetzaren Plan hau Europako erakundeetan aurkeztuko dugu lankidetzaren datz bat definitzeko, plana Europar Batasunaren babesarekin eta inplikazioarekin garatzearen. Bigarrenik, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak bakearen eta bizikidetzaren arloan antzeko interesak dituzten Europako beste eskualde batzuekin batera elkarlanean jarduteko gune bat sortzea sustatuko du.

2. Helburuak

- Bakearen eta bizikidetzaren inguruan Euskadin lortu nahi den helburua Europar Batasunean proaktiboki parteka dadin lortzea.
- Europar Batasunarekiko lankidetzaren esparru praktikoa antolatzea bakea finkatzeko eta bizikidetzaren kultura berri bat sustatzeko.
- Bakearen eta bizikidetzaren eremuan politika espezifikoak garatzen ari diren Europako beste eskualde batzuekin esperientzia erabilgarriak trukatzeko aukera ezartzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Jardun-lerro horiekin lortu nahi den oinarritzeko ideia da elkarri onurak ematea esperientziak eta ikaskuntzak trukatzeko. Alde batetik, bakearen eta bizikidetzaren alorrean Europan dituzten esperientziak gure errealitatean isla erabilgarria izan dezaten lortzea. Bestetik, ahaleginak egitea hezkuntzaren, gazteriaren, udalen, unibertsitateen edo herritarren parte-hartzearen eremuan hemen garatzen ditugun jardunek Europar Batasunean proiektzioa eta trukeko gune konpartitu bat izan dezaten. Espiritu orokor horretatik abiatuta, honako irizpide zehatz hauei jarraituko diegu:

- Tokiko adostasun soziopolitiko zabalaren babesa eskuratzen duten ekimenak Europar Batasunean aurkeztea.
- Espezifikoak aztertzea Europar Batasunarekin elkarlanean jarduteko aukera, egiturazko funtsen diziplina erabiliz, Europako Gizarte Funtsaren bitartez nahiz Interreg bitartez.
- Era berean, PEACE Programaren arduradunekin elkarlanean jarduteko guneak definitzea Europar Batasunean eta Ipar Irlandan.
- Berrikuntza sozialaren esparruan pilotatze-programak sustatzea biktimen alorrean nahiz justizia lehenatzailearen eta bergizarteratzearen alorrean, gai horri dagokionez duela gutxi sortutako Biktimen Europar Zuzendaritza diegenari jarraiki.
- Lankidetzaren eremuak esploratu eta, bere kasuan, ezarri Europako Kontseiluarekin, Europan demokrazia bultzatzeko eta giza eskubideak babesteko erakunde arduraduna den heinean.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
1. ekintza. Bake eta Bizikidetzeta Plana Europako Erakundeetan aurkeztea.	·2013ko azken hiruhilekoan.
2. ekintza. Lankidetzaguneak antolatzea.	·2014ko lehen hiruhilekoan.
3. ekintza. Definituriko programak garatzea.	·2014ko lehen hiruhilekotik aurrera.
4. ekintza. Ezarritako jardun-lerroak eguneratu eta garatzeko agiria aurkeztea.	·2014ko abenduan. ·2015eko abenduan ·2016ko irailean

10. ekimenaren fitxa

Lankidetza Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin

1. Ekimenaren deskribapena

2008. urteaz geroztik, Eusko Jaurlaritzak lankidetza-harremana du Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin eta harreman hori urtero berrargitaratzen da Elkar Ulertzeko Memorandumaren bitartez. Legegintzaldi honetan, Eusko Jaurlaritzak, bere Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eta haren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, lankidetza-esparru horri eusteko asmoa du. Honako hauek izango dira lankidetza-esparru horren jardun-lerroak:

- Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegora bidaltzea 2013-2016 aldiko Bake eta Bizikidetzeta Plana aztertzeke eta berrikusteko.
- Bake eta Bizikidetzeta Planaren kudeaketari buruzko urteko balioespen-txostena egin dezaten eskatzea.
- Bi erakundeen interesekoa den urteko jarduera bat elkarrekin antolatzea.
- Harreman-esparruari eustea eta indarkeria-osteko egoeretako giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidearen estandarrei buruzko aholkularitza ematea

2. Helburuak

- Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoak Bake eta Bizikidetzeta Planari eta Plan horren kudeaketari buruzko aholkularitza ematea eta ebaluazioa egitea.
- Ikuspegi globaletik nahiz tokiko ikuspegitik interesa duten jarduerak garatzen laguntzea.
- Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoarekin batera aztertzea giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidearen estandarrak gure testuingurura aplikatuta interpretatzeko aukera.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Lankidetzari eta aholkularitzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren bulegoarekin eduki nahi duen harremana honako hau da batez ere: demokratikoki finkaturiko eta egiazaturiko nazioarteko erreferentziak —gure errealitatean beharrezkoak diren barneko adostasunak lortzeko erabilgarriak izan daitezkeenak— identifikatzea. Oinarrizko ezaugarri horren oinarriaren inguruan, irizpide zehatzak honako hauek izango dira:

- Nazio Batuekin egingo den lankidetzak Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren aholkularitza bilatuko du Bake eta Bizikidetzeta Planaren ardatzak eta edukiak orientatzeko, bere “Giza Eskubideen Ekintza Planei buruzko Eskuliburua” izeneko txostena oinarritzat hartuz.
- Erreferentzia-esparru hori kontuan hartuko da gizarte-komunikazioarekin, hedapenarekin, hezkuntzarekin, gazteriarekin, tokiko edo Europako erakundeekin inplikazioarekin edo herritarren parte-hartzearekin loturiko jardunen jarraibideak definitzerakoan, bai eta emakumeen parte-hartzearekin ere, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 ebazpena oinarri hartuta.
- Elkarrekin antolatuko diren ekintzak honako hauek izan daitezke: erakundeekin bisitak hitzartzea, gai espezifikoei buruzko ekitaldiak edo mintegiak antolatzea, elkarren interesekoak diren dokumentuen itzulpena eta hedapena, edo Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoak garatzen dituen giza eskubideen inguruko ekimen zehatzen alde egitea.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
1. ekintza. 2013ko Memoranduma sinatzea eta Bake eta Bizikidetzeta Plana bidaltzea ebalua dezaten.	·2013ko bigarren seihilekoan.
2. ekintza. 2014ko Memoranduma sinatzea eta 2013ko balorazio-txostena jasotzea.	·2014ko lehen seihilekoan.
3. ekintza. 2015eko Memoranduma sinatzea eta 2014ko balorazio-txostena jasotzea.	·2015eko lehen seihilekoan.
4. ekintza. 2016ko Memoranduma sinatzea eta 2015eko balorazio-txostena jasotzea.	·2016ko lehen seihilekoan.

11. ekimenaren fitxa

Euskal unibertsitateen ekarpen partekatua

1. Ekimenaren deskribapena

Eusko Jaurlaritzak, EAEko hiru unibertsitateekin koordinatuta, prozesu bat proposatu eta sustatuko du, bakea eta gizartearen elkarketa finkatzeko egungo prozesuari unibertsitate horiek egin diezaioketen baterako ekarpen espezifikoak definitzera eta garatzera bideratutako prozesua, hain zuzen ere.

Unibertsitateen ekarpen horrek gure bizikidetzak gaur egun dituen funtsezko eta lehentasunezko erronka batzuetan oinarritu behar du, iraganera, orainaldira edo etorkizunera begira.

Lan honen gaia eta eremu zehatza unibertsitateekin elkarrizketatuz eta adostuz identifikatuko dira. Jardun-esparrua definitu ostean, unibertsitateen arteko taldea sortuko da, eta talde horrek garatuko du proiektua. Ekimen hori 2015-2018 aldiko Unibertsitate Planean bilduko da.

2. Helburuak

- EAEko hiru unibertsitateen arteko lankidetzak sustatzea indarkeriaren amaierak sortzen dituen erronka soziopolitiko eta kulturalen aurrean.
- Oinarri zientifikoa eta akademikoa duen proiektu bat aurkeztea, bakearen eta bizikidetzaren arloan aurreratzea ahalbidetzeko bokazio praktikoa eta zehatza duena.
- Unibertsitate-erakundearen eta une historiko bakoitzeko premien arteko ezinbesteko eta etengabeko kongruentzia-prozesuan sakontzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Ekimen honen zentzua asmo batean biltzen da: EAEko unibertsitate-sistemaren ikerketak, talentuak eta jakintzak hain garrantzitsuak, konplexuak eta delikatuak den lehentasunaren esparruan, hots, bakearen eta bizikidetzaren esparruan erabilgarria izango den aplikazio-eremua aurki eta eskaini dezan lortzea. Asmo horiek bideratzeko irizpideak honako hauek dira:

- Proiektuak bokazio zehatza eta praktikoa izango du nabarmenki. Ildo horretatik, aplikazio-proposamen batean gauzatuko da.
- Proiektuak dimentsio zentzuduna izan behar du, ez neurrigabea, ezta handiustekoa ere, eta haren gizarte-erabileran eta EAEko unibertsitateen artean sinergiak sortzeko ahalmenean oinarrituko da.
- Proiektu hau diseinatzeko, egiteko eta aplikatzeko prozesuan gizarte zibilak eta haren gizarte-eragileek lagundu ahal izango dute.
- Eusko Jaurlaritzak (Europar Batasunean nahiz Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioarekin) bakearen eta bizikidetzaren arloan ezar dezakeen elkarlaneko programen esparruan nazioarteko lankidetzak-lerroak eta beste unibertsitateekiko lankidetzak-lerroak ezarri ahal izateko aukera egongo da.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
1. ekintza. Elkarrekin definitzea proiektuaren xedea bakearen eta bizikidetzaren premien barnean.	·2013ko azken hiruhilekoan
2 ekintza. Lana gauzatzea.	·2014an
3 ekintza. Ondorio praktikoak hartzea beren ondorioen gainean.	·2015eko lehen hiruhilekoan
4. ekintza. Ekimen hau berrargitaratzeko aukera eta egokitasuna aztertzea.	·2015eko lehen hiruhilekoan ·2016ko lehen hiruhilekoan

12. ekimenaren fitxa

ERTZAINZAREN Konpromiso Sozialaren jarraipena Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen alde

1. Ekimenaren deskribapena

ERTZAINZAK, bere xedearren definizioa betez, ERTZAINZA_Horizonte 2016 Plan Estrategikoko¹ hitzaurrean jasotakoari jarraiki, agenteen partaidetzarako prozesu bat sustatuko du, bere egituraren oinarritik, urte hauetan guztietan zehar garatu duen Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen aldeko Gizarte Konpromisoarekin jarraitzeko proposamena egin eta garatzeko asmoz. Ekimen honek lau dimentsio izango ditu:

- ARKAUTEko Polizia eta Larrialdietako Euskal Ikastegiaren bidez, polizia integralaren giza eskubide eta oinarri etikoen gaineko etengabeko prestakuntzarako zeharkako programa indartuko du, bizikidetzaren demokratikoa lortzeko.
- ERTZAINZA_Horizonte 2016 plan estrategikoaren esparru orokorrean, ERTZAINZAK orain arte garatu duen eta, orain, bake eta bizikidetzaren garai berri honetan euskal gizartearekin berritu nahi duen konpromisoari edukia emateko, partaidetza- eta hausnarketa-ekintzen programa zehaztuko da.
- Gizarte-konpromisoa ezagutzera emateko modua formalizatuko da, jarraipen eta ebaluaziorako tresnak barne hartuko dituzten ekimen eta jardueren bidez.
- Poliziaren jardura kontrolatzeko mekanismoei dagokienez hobekuntza-proposamenak aztertu eta egingo ditu.

2. Helburuak

- ERTZAINZAK berezkoak zaizkion printzipioekin, balioekin, askatasunekin eta eskubide demokratikoekin hartutako konpromisoa berrestea.
- Zerbitzua emateko konpromisoan eta ERTZAINZA euskal gizartearekin identifikatzeko harremanean sakontzea.
- Testuinguru soziopolitiko berri honetan bakean, bizikidetzaren eta giza eskubideen errespetuan oinarrituriko kultura finkatzen laguntzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Ekimen honen bidez, polizia integral gisa zerbitzatzen duen gizartean bakea eta bizikidetzaren finkatzeko bidean lagundu nahi du, balio erantsidun jardura eta helburuekin, une historiko zehatz honetan beharrezkoa baita gure gizarteko eragile bakoitzak bere esku dagoena egitea, bakea finkatu eta etorkizuneko bizikidetzaren bermatze aldera.

- Ekimen hau bultzatzeko, Euskal Poliziaren Legeaz eta orain arte egindako lanarekin lotutako bestelako barne-agiriez gain, nazioarteko bi agiri hartuko dira erreferentzia-oinarri eta jardura-esparru kontzeptual gisa: batetik, Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Mailako Ordezkarien Bulegoak Poliziarentzako Giza Eskubideen Araudi eta Praktikari buruz egindako eskuliburua; eta, bestetik, Poliziaren Kode Etikoa Europarra.
- Prozesuaren funtsezko ezaugarri gisa, ERTZAINZAREN barruko barne-dinamikan egingo dira diseinua eta garapena eta kideen partaidetzarako eta beste gizarte-agente batzuekiko harremanetarako metodologiaren bitartez antolatuko da.
- Horretarako, ERTZAINZAK zerbitzatzen duen gizartearekiko duen etengabeko Gizarte Konpromiso horrekin jarraitzeko programa hau Horizonte 2016 _Plan Estrategikoaren parte izango da. Azken hori prestaketa- eta betearazpen-fasean dago orain. Horretarako, berariazko Lan Talde baten sorrera aktibatuko da.

¹ Ertzaintza_Horizonte 2016 plan estrategikoa: Xedea: "ERTZAINZA Euskadiko polizia integrala da. Zerbitzatzen duen gizartearekiko konpromisoa betez, bakea eta bizikidetzaren eta pertsonen segurtasuna eta ongizatea sustatzen ditu".

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
<p>1. ekintza. Ekimen hau sustatzeko eta dinamizatzeko Lantaldea izendatzea.</p>	<p>·2013ko laugarren hiruhilekoan</p>
<p>2. ekintza. Bizikidetzaren demokratikoa lortzeko poli-ziaren giza eskubideei eta oinarri etikoei buruzko Prestakuntza Programa eguneratzea eta garatzea.</p>	<p>·2014an zehar</p>
<p>3. ekintza. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen aldeko ERTZAINZAREN Konpromiso Sozialaren jarraipenaren ekimenak eta helburuak egiteko Par-teroidetza Programa abian jartzea.</p>	<p>·2014ko bigarren hiruhilekoan</p>
<p>4. ekintza. ERTZAINZAREN Konpromiso Sozialaren jarraipenaren Programa aktibatzea, edukiak eta jarraipen eta ebaluazio tresnak ezarriz.</p>	<p>·2015eko lehen hiruhilekoan</p>

III. ardatza.

Fitxen arabera antolatutako ekimenak,

etorkizuna

kudeatzeari dagokionez

13. ekimenaren fitxa

Lankidetza *publiko-soziala* euskal elkartearen sarearekin

1. Ekimenaren deskribapena

Azken 25 urte hauetan, euskal gizarte zibileko elkarteek eta erakundeek balio handiko zeregina izan dute bakearen, indarkeriarik ezaren eta giza eskubideen aldeko borroka egiten. Etapa berri honetan, Eusko Jaurlaritzak ekarpen horren jarraitutasuna sustatu nahi du erakunde publikoen eta gizarte zibil antolatuko eragileen arteko lankidetza publiko-sozialeko estrategia bidez.

Helburu horrekin, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak, beste erakunde batzuekin ados jarrita, Elkarrekin Bonu Programa sustatuko du. Programa horren bitartez funts bat sortuko da, eta funts horri esker ekarpen ekonomiko bat eman ahal izango zaie gizarte-erakundeei hainbat arlori buruz, hala nola hezkuntzari, herritarren parte-hartzeari, elkarbizitzari, gatazkak konpontzeari eta abarri buruz ikas-tetxeei, udalei eta beste erakunde batzuei emandako prestakuntzako, dinamizazioko edo aholkularitzako zerbitzuen justifikatutako ordu bakoitzeko.

Funts horretatik laguntzen diren prestakuntzako, dinamizazioko edo aholkularitzako ekimenek Giza-legez Akordioaren gizarte- eta hezkuntza-arloko konpromisoa sustatuko dute. Indarkeria prebenitzeko nahiz bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzeko Bake eta Bizikidetzaren Plan honek indartzen duen esparrua, gutxienez lau oinarri dituena.

2. Helburuak

- Indarkeriaren kulturari aurrea hartzea eta bakean, bizikidetzan eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura sustatzea.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko zeharkako konpromisoa —gutxieneko oinarri etiko batzuen inguruan hainbat eragileren ahaleginak elkartzea ahalbidetuko duena— sustatzea.
- Lankidetza publiko-sozialeko estrategia bat garatzea, Eusko Jaurlaritzari Bake eta Bizikidetzaren Plana gauzatzen lagunduko diona eta zailtasuneko uneetan erakunde sozialei eusten lagunduko diona.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Ekimen horren garapenak ekarriko du akordioak eta hitzarmenak ezartzea bi norabidetan. Alde batetik, Gizalegez Akordioaren gizarte- eta hezkuntza-arloko konpromisoaren zati izan nahi duten eta Elkarrekin Bonu Programari atxiki nahi zaizkien gizarte zibil antolatuko erakundeekin; eta bestetik, ekimen hau sustatu nahi duten erakundeekin. Ildo horretan, honako hauek dira jardun-irizpide zehatzak:

- Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak lankidetza-hitzarmen bat sinatuko du beren zerbitzuekin Gizalegez Akordioaren gizarte- eta hezkuntza-arloko konpromisoa sustatu nahi duten gizarte zibil antolatuko erakunde guztiekin”.
- Era berean, lankidetzaren hitzarmenak edo -akordioak ezarriko dira Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin, Foru Aldundiekin, Udalekin eta Elkarrekin Bonu Programaren funtsaren partaide izan nahi duten beste erakunde batzuekin.
- Ekimen horrek indartze gehigarriko izaera du salbuespenezko testuinguru baterako. Bestelako hitzarmenen bidezko jardun-lerroek edo diru-laguntzen urteko deialdiek orain arte bezala jarraituko dute.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
1. ekintza. Euskal elkarteen sarearekin akordioa prestatzea eta sinatzea Gizalegez Akordioaren inguruan.	·2014ko lehen seihilekoan
2. ekintza. Lankidetzaren hitzarmenak eta -akordioak prestatzea eta sinatzea beste erakunde batzuekin Elkarrekin Bonu Programa sustatzeko.	·2014ko lehen seihilekoan
3. ekintza. Elkarrekin Bonu Programa abian jartzea.	·2014ko bigarren seihilekoan
4. ekintza. Elkarrekin Bonu Programa eguneratu eta garatzeko agiria aurkeztea.	·2014ko azken hiruhilekoan ·2015eko azken hiruhilekoan ·2016ko azken hiruhilekoan

14. ekimenaren fitxa

Herritarren parte-hartzea sustatzea

1. Ekimenaren deskribapena

Herritarren parte-hartzea garrantzitsua da eremu guztietan, baina are garrantzitsuagoa da, gure kasuan bezala, bakea finkatu nahi badugu eta bizikidetzako eta gizartea elkartzeko prozesu bat sustatu nahi badugu. Eusko Jaurlaritzaren ustez funtsezkoa da Bake eta Bizikidetzaren Planaren garapenarekin batera politika harkorrak, irekiak eta proaktiboak izatea herritarren parte-hartzeari dagokionez.

Arlo honetako Idazkaritza Nagusiak Esparru Dokumentu bat aurkeztuko du bakearen eta bizikidetzaren alorrean herritarren parte-hartzea sustatzeko. Dokumentu horretan herritarrek parte hartzeko hiru bide handi ezarriko dira:

- Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren arteko hitzarmenetik ateratzen dena, herritarrekin lotura izateko bi erakundeek dituzten parte hartzeko tresnen bitartez.
- Udalekin hitzartutako tokiko parte hartzeko ekimenak, Elkarrekin Bonu Programaren bitartez eta Giza-legez Akordioaren inguruko gizarte- eta hezkuntza-arloko konpromisoan bilduta daudenak.
- Herritarren parte-hartzea sustatzeko hitzarmen espezifikoak izateko aukera. Hitzarmen horiek egin ahal izango dira baldin eta hainbat erakunderen askotariko bateratze bidez aurkezten badira eta modu zehatzean, praktikoan, funtzionalean eta eraginkorrean proiektatzen badira.

2. Helburuak

- Bake eta Bizikidetzaren Plan hori hobetuko duten ekarpenak, iradokizunak, kritikak, proposamenak edo iritziak biltzea.
- Plan horren edukiak euskal gizarteak ezagutu eta uler ditzan laguntzea.
- Bakea finkatzea eta gizarte- nahiz hezkuntza-arloko prozesua indartzea gizartea elkartzera bideraturiko bizikidetzaren kultura lortzeko.
- Erakundeen eta herritarren arteko elkarriketa, komunikazioa, entzutea eta elkarrekintza demokratikoa hobetzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Ezinbestekoa da zintzoki onartzea herritarren parte-hartzea praktikan jartzea konplexua dela. Behar bada, horregatik, askotan, baliabide hori erretorikoa da erreala baino gehiago, edo minoritarioegia da garrantzitsutzat eta eragin handikotzat hartzeko. Nolanahi ere, herritarren parte-hartzearen sustapena eta kanalizazioa ezinbesteko azterketa- eta konpromiso-eremua da sistema demokratikoa hobetzen, eguneratzen eta berritzen lagundu nahi duen administrazio publiko ororentzat. Parte-hartzearen konplexutasunaren eta premiaren arteko errealitate anibalente hori kontuan hartuta, honako irizpide hauei jarraituko zaie eremu horretan:

- Herritarren parte hartzeko proiektu orean irizpide gidari gisa proiektu horren izaera praktikoaren eta berritzailearen justifikazioa ezartzea, adierazpen hutseko orientazioaren arriskua gainditu ahal izateko.
- Emakumeen esku-hartze eta partaidetza parekidea bermatzen duten ekintzak sustatzea, bakea eta bizikidetzaren finkatzeko funtsezko eragile gisa.
- Parte-hartzearen alorrean Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak dituzten tresna zehatzak aprobetxatzea eta optimizatzea eta elkarrekin sarearekiko lankidetzaren publiko-sozialaren estrategiaren barruan kokatzea.
- Udalen eta elkarrekin sarearen artean hitzartutako udal-eremuko ekimenei lehentasuna ematea.
- Gure testuinguruan egiten diren herritarren parte-hartze esperientziak Europako eremuko antzeko beste ekimen batzuekin lotzea.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
1. ekintza. Herritarren parte-hartzeari buruzko esparru-dokumentua aurkeztea.	·2013ko laugarren hiruhilekoan
2. ekintza. Herritarren parte-hartzeari buruzko ekimenak abian jartzea.	·2014ko lehenengo sei hilekoan
3. ekintza. Hitzartutako jardun-lerroak eguneratu eta garatzeko agiria aurkeztea.	·2014ko azken hiruhilekoan ·2015eko azken hiruhilekoan ·2016ko azken hiruhilekoan

15. ekimenaren fitxa

Bizikidetzaren aldeko adostasuna Foru Aldundiekin eta Udalekin

1. Ekimenaren deskribapena

Udalek, Foru Aldundi bakoitzak eta Eusko Jaurlaritzak bakearen eta bizikidetzaren eremuan antzeko orientazioa duten ekimenak garatzen ditu. Ildo horretako jardunen aniztasunak eta ugaltzeak ez du arazorik sortzen, baizik eta aukera bat dela esan genezake. Nolanahi ere, erakundeen erantzukizunaren agindua da bikoiztasunak saihestea eta koordinatua izateaz gain gutxieneko eduki batzuk batera jartzen dituen jardun bat bilatzea.

Eusko Jaurlaritzak akordio bat proposatu nahi die Foru Aldundiei eta EUDELI jardun hitzartuaren oinarritzko ardatz batzuk definitzeko. Akordio-proposamen horren oinarria Gizalegez Akordioaren inguruko gizarte- eta hezkuntza-arloko konpromisoa izango da. "Elkarrekin Bonu Programa" tresna zehatz gisa eskainiko da adostutakoa gauzatzeko eta bideratzeko. Lehentasunezko jardun-eremuak askotariko lankidetzaren lortzeko tokiko esperientzien sustapena, heziketa formala eta ez-formala eta herritarren parte-hartzea izango dira.

2. Helburuak

- Bakearen eta gizarte elkartzearen helburua lortzen laguntzea, erakunde arteko lankidetzaren errealitatea proiektatuz.
- Bakearen eta bizikidetzaren aldeko politika publikoak elkartzea eta optimizatzea hainbat erakunderen artean.
- Lankidetzaren publiko-sozialeko sinergiak sortzea hezkuntza-arloko eragileekin eta elkarten sarearekin.
- Bizikidetzaren eta giza eskubideetan oinarritutako kultura sustatzera bideratutako gizarte- eta hezkuntza-arloko ekimenak babestea eta sustatzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

2012. urteaz geroztik, askotariko esperientziak garatu dira hainbat udalerritan, gizarte elkartzeko gunea bilatzera bideratuta dauden esperientziak, hain zuzen ere. Ekimen xumeak dira, baina oso interesgarriak, tokiko sentsibiltate politiko guztiak eta gizarte-erakundeak barnean hartzen dituztelako. Foru Aldundiekin, EUDELekin eta Udalekin hitzartzeko ekimen honen espiritua jardun-eremu honetan kokatzen da: batuko gaituzten jardun xumeak eta askotarikoak sustatzea. Premisa horretatik abiatuta, honako irizpide zehatz hauei jarraituko diegu:

- Lana Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Udalen artean bateratuko da gutxienekoak adostuta.
- Bizikidetzaren alorreko organoak, foroak edo askotariko gomendioak tokiko eremuan sustatuko dira gizarte elkartzeko kultura dinamizatzeko.
- Giza eskubideetan, biktimizekiko elkartasunean, bakean, bizikidetzaren, gatazketan eta abarretan oinarritutako heziketa formalerako eta ez-formalerako prestakuntza-babesa ematea.
- Herritarren parte-hartzeko aukera sustatzea gizarte zibileko erakundeekin elkarlanean jardunda.
- Udalen, ikastetxeen eta gizarte zibileko erakundeen arteko tokiko aliantza estrategikoa ahaleginak koordinatzeko.
- Lan-lerro hori ahal den neurrian euskal udal guztietara zabaltzea.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
1. ekintza. Akordioa definitzea Foru Aldundi bakoitzarekin, EUDELekin eta Udalekin.	·2013ko azken hiruhilekoan eta 2014ko lehenengoan
2. ekintza. Erakunde arteko akordioak abian jartzea.	·2014ko lehen hiruhilekotik aurrera
3. ekintza. Hitzartutako jardun-lerroak eguneratu eta garatzeko agiria aurkeztea.	·2014ko azken hiruhilekoan ·2015eko azken hiruhilekoan ·2016ko azken hiruhilekoan

16. ekimenaren fitxa

Jardun-lerro osagarriak bultzatzea heziketa formalaren eremuan

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimen honetan ikastetxeekin eta haren eragileen komunitatearekin lankidetzaren esparru bat sortzera bideraturiko hainbat ekintza biltzen dira, giza baliabideetan, bakean, biktimekiko elkartasunean eta gatazken konponketa baketsuan oinarritutako hezkuntza indartzeko. Abiapuntu gisa Gizalegez akordioa, “bizikidetzarako hezkuntzarako lau oinarriren gizarte- eta hezkuntza-arloko konpromisoa” hartzen du, garapen librea eta sortzailea gauzatzeko..

Gure hezkuntza-sistemak urteak daramatza lanean bizikidetzarako hezkuntzaren eremuan. Plan honen helburua ez da lan horren jabe egitea, zuzentzea, desagerraraztea edo eragozte. Aitzitik, ekimen hori *gehigarri* gisa definitzen da, indartzea duelako helburu. Salbuespenezko testuinguru sozialaren erdian, (bakea finkatzea) orain arte, irizpide onez, egin dena indartzeko jardun-lerro espezifikoak eta gehigarriak ezarri nahi ditu.

2. Helburuak

- Carlton-en Akordioaren esperientzian oinarrituta, hezkuntza-komunitatearen elkartze kooperatiboa ahalbidetzea Gizalegez akordioaren, “bizikidetzarako hezkuntzarako lau oinarriren gizarte- eta hezkuntza-arloko konpromisoaren gaitasunen garapen irekiaren inguruan.
- Lankidetzaren ahalbidetzea Hezkuntza Sailaren, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eta gizarte- nahiz hezkuntza-arloko eragileen artean, giza eskubideetan, bakean, bizikidetzan, biktimekiko elkartasunean eta gatazken konponketa baketsuan oinarrituriko hezkuntzarako irakasleek egin behar duten prestakuntza-errefortzua sustatzeko.
- Hezkuntza-esperientziekin jarraitzea biktimen testigantzen bitartez; testigantza horiek, ikastetxe bakoitzaren erabakiaren arabera, presentzialak, idatzizkoak edota ikus-entzunezkoak izango dira.
- Webguneak eta Eskola Bakegune berritzea, eguneratzea eta optimizatzea, gizarte- nahiz hezkuntza-arloko dokumentazio-zentro eta tresna gisa.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Ekimen honen eta haren jardun-lerroen garapena hezkuntza-komunitate osoan egiaztatutako adostasun-funtsean oinarritzen da: bakearen eta bizikidetzaren aldeko hezkuntza, giza duintasuna errespetatzeko printzipio unibertsalean eta giza eskubideekiko konpromisoan oinarrituta dagoena, sustatzea. Premisa horri dagokionez, honako hauek dira irizpide nagusiak:

- Ikastetxeen eta hezitzaileen autonomiarekiko errespetuan oinarritutako lankidetzaren sustatzea; hezkuntza-komunitateko eragileekiko elkarrizketa bidez bideratuta dagoen eta adostasun zabalenak lortzera bideratuta dagoen lankidetzaren.
- Sinergia eta ikaskuntza-komunitatea sustatzea hezkuntza-eragileen, udalen eta giza eskubideetan eta bizikidetzan oinarritutako hezkuntzaren eremuan jarduten duten gizarte zibil antolatuen ordezkariekin artean.
- Ikasleekiko hezkuntza-ekimenei lehentasuna ematea hainbat baliabide erabiliz, adibidez: zinema, antzerkia, literatura, teknologia berriak edo hizkuntzak.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
1. ekintza. Hezkuntzaren erkidegoko Gizalegez Akordioa prestatu eta garatzea.	·2013ko maiatzetik urrira bitarte
2. ekintza. Hezkuntza-esperientziei jarraipena emateko plana onartzea eta sustatzea biktimen testigantzen bitartez.	·2013-14 ikasturtean
3. ekintza. Webguneak eta Eskola Bakegune berritzea, eguneratzea eta optimizatzea.	·2013ko azken hiruhilekoa
4. ekintza. Hezkuntza Sailaren, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eta gizarte- nahiz hezkuntza-arloko eragileen arteko lankidetzaren adostea.	·2013ko azken hiruhilekoa
5. ekintza. Aurreko jardun-lerroak eguneratu eta garatzeko agiria aurkeztea.	·2014ko maiatzean ·2015eko maiatzean ·2016ko maiatzean

17. ekimenaren fitxa

Jardun-lerro espezifikoak bultzatzea gazteriaren, kulturaren eta heziketa ez-formalaren eremuan

1. Ekimenaren deskribapena

Eusko Jaurlaritzak, Gazteria Zuzendaritzaren eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren bitartez, akordio bat proposatu nahi dio Gazteriaren Kontseiluari plan honen garapenean elkarrekin parte hartzeko eremuak ezartzeko. Akordio-proposamen horren oinarria gizarte-, hezkuntza-, etika- eta politika-arloko konpromisoak izango dira. Horrenbestez, gazteak beren garaiko protagonistak izan direla, direla eta izango direla ulertzen da. Jardun-ardatz hauek izango ditu:

- Bizikidetzaren, giza eskubideen eta gatazken konponketaren alorreko prestakuntza espezifikoko urteko programa sustatzea, “Elkarrekin Bonu Programaren” bidez antolatu ahalko dena.
- Espazio ireki bat sortzea, gazteek eta gazte-taldeek beren testigantza, esperientzia eta ikuspegiak bidaltzeko aukera izan dezaten euskarri desberdinetan (argazkiak, bideoak, marrazkiak, audioa, ipuinak, poesiak, eskultura...).
- Elkarte eta gazteen topaketa bat antolatzea, bakearen eta bizikidetzaren gaineko ikuspegiak elkar trukatzeko eta iraganeko esperientziak, gaur egun garatzen ari diren proiektuak eta etorkizunerako ideiak partekatzeko.
- Literaturako, antzerkiko, zinemako eta beste diziplina artistiko batzuetako lanei buruzko erreferentzia-funtsa sortzea; ikuspegi pedagogikotik begiratuta bakea eta bizikidetzaren oinarri dituen kulturari ekarpena egiteko erabilgarriak izan daitezkeen eta gazteen elkarten sare osoarentzat eskuragarri egongo diren lanak.

2. Helburuak

- Gazteek bakearen eta bizikidetzaren gainean dituzten iritziak eta esperientziak entzun eta erantzutea.
- Gazteriaren eremuan bakearen, bizikidetzaren, kulturartekotasunaren eta giza eskubideen aldeko gizarte- eta hezkuntza-arloko konpromisoa partekatzea.
- Bizikidetzaren gatazken tratamendu erakitzaileko tresnak banatzea gazteen artean.
- Bizikidetzako eta gizarte elkarteko kultura lortzeko baliabide eta aplikazio sortzaileen eta artistikoen funtsa sortzea.
- Sormena, ekintzailetza eta berrikuntza soziala sustatzea gazteen artean bizikidetzaren proiektuei dagokienez.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Bakea eta Bizikidetzaren Plana iragan, orainaldi eta etorkizunera begira eginda dago eta hartzaileak, beste batzuen artean, gazteak dira. Asmoa dimentsio desberdinetan ahalegin honen partaide senti daitezela lortzea da. Premisa horri dagokionez, honako hauek dira irizpide nagusiak:

- Prestakuntza eskaintzea gazteen elkarte-sarearen eremuan Elkarrekin Bonu Programan parte hartzen duten erakundeekin akordioa lortuz.
- Jardun-eremu horretan hizkuntza sortzaile eta artistiko aplikatuen erabilera sustatzea, baita IKTe eta gizarte-sareek eskaintzen dituzten ahalmenena ere.
- Gazteria Kontseiluarekin lankidetzan, lehenetsia ematen jarraitzea sentsibilitate desberdineko gazteen artean bizikidetzako eta askotariko lankidetzako esperientziak sustatzen dituzten eskumenei.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
1. ekintza. Akordioa prestatzea eta sinatzea Gazteriaren Kontseiluarekin.	·2014ko lehen hiruhilekoan
2. ekintza. Lau jardun-lerroen lehen fasea martxan jartzea: -prestakuntza-programa. -truke-espazioa. -gazte eta elkarten topaketa. -erreferentzia-fondoa.	·2014ko lehen sei hilekoan
3. ekintza. Jardun-lerro horiek eguneratu eta garatzeko agiria aurkeztea.	·2014ko azken hiruhilekoan ·2015eko azken hiruhilekoan ·2016ko azken hiruhilekoan

18. ekimenaren fitxa

Gizartearen sentsibilizazioa eta hedabide publikoen konpromisoa

1. Ekimenaren deskribapena

Legegintzaldi honetan, Eusko Jaurlaritzak gizarte- eta hezkuntza-arloko sentsibilizazio-ekimenak sustatuko ditu; gizartearen elkartzeko prozesu bat gauzatu ahal izatera eta giza duintasunaren, giza eskubideen, printzipio demokratikoen, biktimekiko elkartasunaren, gatazken indarkeriarik ezeko kudeaketaren eta kulturartekotasunaren errespetuan oinarritutako bizikidetzakultura sustatzera bideratuta dauden ekimenak.

Jardun-lerro horrek bi garapen-ardatz ditu. Alde batetik, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak sustatuko du komunikazio sozialeko programak diseinatuz, behar den eta ahal den aldizkakotasunez. Bestalde, lankidetzak-esparru bat ezarriko da EITBekin erakunde publiko horrek bakea eta bizikidetzak lortzearen inguruan hartu behar dituen konpromisoak definitzeko.

2. Helburuak

- Indarkeriaren aurka kontzientzia sozial kritikoa eta giza eskubideekin ez ezik bizikidetzak demokratikoaren balioekin ere konprometituta dagoena indartzea.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko zeharkako konpromisoa, gizartearen elkartzeko prozesua gauzatu ahal izatera bideratuta dagoena, sustatzea.
- Hedabideekin eta bereziki EITB erakunde publikoarekin sinergia-dinamika bat sustatzea, proiektzio praktikoa eta gizartearen erabilera izango duten lankidetzak-eremuak ezartzeko.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Gizartearen sentsibilizatzeko ekimen honen esparruan garatzen diren ekintza guztiek “bizikidetzak haustearren kausei buruzko azterketa” edukiko dute kontuan beren edukiak diseinatzerakoan, eta azterketa hori plan honen bigarren zatian egiten da. Bestalde, gizarte- eta hezkuntza-arloko printzipioen proposamena, “Bizikidetzari aplikatutako oinarritzko lau arauak” deiturikoa, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eta hedabide publikoek eremu horretan espezifikoki sustatzen dituzten jardunen abiapuntu-dokumentua izango da. Irizpide espezifikokoak honako hauek dira:

- Komunikazio-programak egingo dira baldin eta dimentsionamendua gure gizarteak bizi dituen zailtasun ekonomikoko garaiekin bat datorren.
- Abenduaren 10ean Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren urteurrena izaten da, eta horren inguruan egiten diren komunikazio espezifikoko ekimenak ez ezik René Cassin Sariaren orientazioa ere gizartearen sentsibilizatzeko esparru horretan kokatuko dira.
- Gai horren inguruan EITBk hartzen dituen konpromisoen erreferentzia-puntua azken legegintzaldietan jarraitutako ibilbidea izango da eta bizikidetzari lehentasuna ematera bideratuko dira batez ere.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
<p>1. ekintza. Sentsibilizazio-programak diseinatzea urtero.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ·2014ko lehen hiruhilekoan, 2014rako ·2014ko azaroan, 2015erako ·2015eko azaroan, 2016rako
<p>2. ekintza. 2014-2016 aldiko EITBrekiko lankidetzaren esparrua definitzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ·2013ko azken hiruhilekoan eta 2014ko lehenengoan
<p>3. ekintza. Abenduaren 10ean urtero ospatzen den Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren eta René Cassin Sariaren inguruko lanerako plana diseinatzea urtero.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ·2013ko hirugarren hiruhilekoan ·2014ko bigarren hiruhilekoan ·2015eko bigarren hiruhilekoan ·2016ko bigarren hiruhilekoan

Zeharkako ardatza

Plan honen kudeaketarekin eta
jarraipenarekin eta
ebaluazioarekin
lotutako ekimenak

I. fitxa

Bake eta Bizikidetza Planaren sustapena, kudeaketa eta koordinazioa

1. Ekimenaren deskribapena

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari dagokio plan hau sustatzea, kudeatzea eta koordinatzea. Hiru lan-lerro ezarriko dira:

- Erakunde arteko Batzorde bat eratzea; Eusko Jaurlaritzako sailen kudeaketa dinamizatzeaz eta koordinatzeaz arduratuko da Batzorde hori.
- Koordinazio Batzorde bat sortzea Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eta Bake eta Bizikidetza Ponentzia bultzatu duten taldeen artean.
- Bizikidetza Demokratikoaren eta Indarkeriaren Deslegitimazioaren Kontsulta Kontseiluaren egitura eta eginkizunak Bake eta Bizikidetza Plan honen gizarte elkartzeko helburura egokitzea.

Horrez gain, planaren garapenaren sektore-jarraipenerako dinamika etengabea ezarriko da, bere jardun-ardatz nagusiei dagokienez. Halaber, bi urteko mekanismoa ezarriko da, Bake eta Bizikidetza Plana garatzeko kanpo-ebaluazio osoa egite aldera.

2. Helburuak

- Bake eta Bizikidetza Plan honen ahalik eta kudeaketarik hoberena gauzatzeko bide ematea eta ezarritako helburuak lortzen laguntzea.
- Ahaleginak egitea plan honen kudeaketa ahalik eta gizarte-, politika- eta erakunde-arloko adostasun handienetan oinarritzeko.
- Erakundeek eta gizarte zibilak elkarrizketak izateko, entzuteko, kontsultatzeko eta elkarlanean jarduteko dinamika antolatzea bizikidetza hobetzeko.
- Ebaluazio-metodologia zorrotza eta erabilgarria bermatzea plan hau hobetzeko, eta, hala badagokio, zuzentzeko bere aplikazioari buruzko azterketa oinarri hartuta.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Bake eta Bizikidetza Plan hau lan-proposamen ireki, dinamiko eta malgua da, gure errealitatearen konplexutasuna eta beharrezko adostasuna bideratzeko. Irekita dago legebiltzarreko taldeek, erakundeek eta gizarte-eragileek egingo dituzten ekarpenetara, onartu aurretik eta garapen-fasean. Lankidetzaren filosofia horren arabera, irizpide espezifikoak honako hauek dira:

- Sailen arteko Batzordea Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak koordinatuko du. Sei hilean behin planaren etengabeko jarraipena egingo da.
- Koordinazio Batzordea jarraipena egiteko, aholkuak emateko, kontsulta egiteko eta adostasunak kudeatzeko organoa izango da Bake eta Bizikidetza Planari dagokionez.
- Kontsulta Kontseiluak bere orientazioari eutsiko dio eta bere funtzionamendua eta osaera berregituratuko du, beste dekretu bat onetsita.
- Planaren garapenaren kontsulta-mekanismoen eta ebaluazio sektorialaren solaskide nagusiak Foru Aldundiak eta Udalak izango dira, baita hainbat erakunde ere, hala nola Elkarleen Foroa, Gizalegez Akordioa, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua edo Gazteriaren Kontseilua, besteak beste.
- Bake eta Bizikidetza Planaren garapenaren ebaluazio osoa eta kanpoko bi urtean behin egingo da. Lortzen diren emaitzen ondorioz Bake eta Bizikidetza Planaren lan-programa eguneratzeko dokumentua sortuko da.

4. Jardun-programa

Ekintzak	Egutegia
1. ekintza. Sail arteko Batzordea deitzea eta bere lan-programa aurkeztea.	·2014ko lehen seihilekoan
2. ekintza. Koordinazio Batzordearen lan- eta funtzionamendu-proposamena aurkeztea.	·2014ko lehen seihilekoan
3. ekintza. Bake eta Bizikidetza Planaren Aholku Kontseilua sortzeko dekretua onartzea.	·2013ko lehen seihilekoan
4. ekintza. Planaren ebaluazio osoaren dokumentuak enkargatzea eta aurkeztea.	·2014ko azken hiruhilekoan ·2016ko azken hiruhilekoan

II. fitxa

Jarraipena, ebaluazioa eta zuzendaritza

Ekimena	Emaitzaren adierazleak	Eraginaren adierazleak	Ekimenaren ardura duen organoa
·1. ekimena. Giza Eskubideen urraketari buruzko txostenak egitea eta eratorzen diren ekintzak	·Txostenen kopurua ·Gomendatutako jarduketa berrien kopurua	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
·2. ekimena. Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua	·Sortutako egitura ·Proiektatutako ekintzak	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
·3. ekimena. Terrorismoaren biktimak gogorarazteko proiektuari ekarpenak egitea	·Sortutako egitura ·Proiektatutako ekintzak	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
·4. ekimena. Terrorismoaren biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea	·Laguntza-ekintzak ·Errekonozimenduekitaldiak ·Gizarte-entitateekiko lankidetzak ·Ikerketak eta azterlanak	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
·5. ekimena. Egungo legerian babesik ez duten biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea	·Aztertutako espedienteak ·Emandako kalteordainak	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
·6. ekimena. Torturari buruzko ikerketa eta ekintzak	·Ezarritako ondorioak ·Hartutako neurriak	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
·7. ekimena. Lankidetzak eta elkarlana Eusko Legebiltzarrekin	·Herritarren parte-hartzeari dagokionez lortutako emaitzak	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Eusko Legebiltzarra eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

Ekimena	Emaitzaren adierazleak	Eraginaren adierazleak	Ekimenaren ardura duen organoa
·8. ekimena. Espetxe-politikari buruzko Hitzeman Programa garatzea	·Erakunde laguntzaileen kopurua ·Lortutako adostasunak ·Programarako inskripzioen kopurua	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
·9. ekimena. Europar Batasunarekiko elkarlanerako bideak bultzatzea	·Lankidetzaren esparruak ·Garatutako ekintzak	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
·10. ekimena. Lankidetzaren Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin	·Lankidetzaren esparruak ·Garatutako ekintzak	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
·11. ekimena. Euskal unibertsitateen ekarpen partekatua	·Lankidetzaren esparruak ·Garatutako ekintzak	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
·12. ekimena. ERTZAINTZAREN Konpromiso Sozialaren jarraipena Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen alde	·Prestakuntzarako ekintzen eta orduen kopurua ·Programetako parte-hartzaileen kopurua ·Ezarritako neurriak	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Segurtasun Saila
·13. ekimena. Lankidetzaren publiko-soziala euskal elkartearen sarearekin	·Elkarte parte-hartzaileen kopurua ·Erakunde parte-hartzaileen kopurua	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
·14. ekimena. Herritarren parte-hartzea sustatzea	·Inbertitutako aurrekontua ·Garatutako ekintzen kopurua ·Pertsona parte-hartzaileen kopurua	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
·15. ekimena. Bizikidetzaren aldeko adostasuna Foru Aldundiekin eta Udalekin	·Lurraldeka: -Inbertitutako aurrekontua -Garatutako ekintzen kopurua -Pertsona parte-hartzaileen kopurua	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia eta Foru Aldundiak
·16. ekimena. Jardun-lerro osagarriak bultzatzea heziketa formalaren eremuan	·Inbertitutako aurrekontua ·Ikastetxeen eta garatutako ekintzen kopurua ·Pertsona parte-hartzaileen kopurua	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
·17. ekimena. Jardun-lerro espezifikoak bultzatzea gazteriaren, kulturaren eta heziketa ez-formalaren eremuan	·Inbertitutako aurrekontua ·Garatutako ekintzen kopurua ·Pertsona parte-hartzaileen kopurua	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
·18. ekimena. Gizartearen sentsibilizazioa eta hedabide publikoen konpromisoa	·EiTBekin hitzartutako jarduketaren kopurua ·Garatutako komunikazio-ekimenen kopurua	·Kalitatea ·Gogobetetasuna ·Egokitasuna ·Beharrak ·Eragina	EiTB eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

III. fitxa

Planaren aurrekontuaren aurreikuspen xehakaturia

Ekimena	2013	2014	2015	2016
·1. ekimena. Giza Eskubideen urraketek buruzko txostenak egitea eta eratorzen diren ekintzak	12.000	80.000	80.000	80.000
·2. ekimena. Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua	_____	500.000	1.000.000	500.000
·3. ekimena. Terrorismoaren biktimak gogorazteko proiektuari ekarpenak egitea	_____	10.000	10.000	10.000
·4. ekimena. Terrorismoaren biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea	750.000	750.000	750.000	750.000
·5. ekimena. Egungo legerian babesik ez duten biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea	1.600.000	1.827.000	2.000.000	2.000.000
·6. ekimena. Torturari buruzko ikerketa eta ekintzak	_____	50.000	50.000	50.000
·7. ekimena. Lankidetzeta eta elkarlana Eusko Legebiltzararekin	_____	60.000	60.000	60.000
·8. ekimena. Espetxe-politikari buruzko Hitzeman Programa garatzea	_____	90.000	90.000	90.000
·9. ekimena. Europar Batasunarekiko elkarlanerako bideak bultzatzea	_____	50.000	50.000	50.000
·10. ekimena. Lankidetzeta Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin	20.000	20.000	20.000	20.000
·11. ekimena. Euskal unibertsitateen ekarpen partekatua	30.000	30.000	30.000	30.000
·12. ekimena. ERTZAINTZAREN Konpromiso Sozialaren jarraipena Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen alde	_____	90.000	90.000	90.000

Ekimena	2013	2014	2015	2016
·13. ekimena. Lankidetzaren publiko-soziala euskal elkartearen sarearekin	750.000	750.000	750.000	750.000
·14. ekimena. Herritarren parte-hartzea sustatzea	_____	60.000	60.000	60.000
·15. ekimena. Bizikidetzaren aldeko adostasuna Foru Aldundiekin eta Udalekin	_____	360.000	360.000	360.000
·16. ekimena. Jardun-lerro osagarriak bultzatzea heziketa formalaren eremuan	20.000	250.000	250.000	250.000
·17. ekimena. Jardun-lerro espezifikoak bultzatzea gazteriaren, kulturaren eta heziketa ez-formalaren eremuan	_____	75.000	75.000	75.000
·18. ekimena. Gizartearen sentsibilizazioa eta hedabide publikoen konpromisoa	25.000	75.000	75.000	75.000
GUZTIRA	3.207.000	5.127.000	5.800.000	5.300.000

Eranskina

Eusko Legebiltzarrak onartutako Zoru Etikoa delakoaren testua

“Bakearen eta bizikidetzaren bilaketa Eusko Legebiltzarraren lan politiko eta instituzionalaren etengabeko kezka eta zeregina izan da, Legebiltzarra sortu zenetik. Ezin zen beste modura izan, ariketa demokratiakoaren bitartez, herritarren borondateetik sortutako erakundea baita. Giza eskubide guztienganako arretak, bere defentsak legeri-neurri eta Ganbera honetako ekimen ugarietan erabilitako hitzen bidez, bake integrala eta Euskadirako bizikidetzaren demokratikoaren etengabeko bilaketaren aldeko Eusko Legebiltzarrak duen konpromisoa erakusten dute, elkarrizketaren, justiziaren, egiaren eta Euskal Herriaren interes orokorraren bidez landutako bake iraunkor bat.

2011ko urriaren 20an ETAk emandako bere jarduera armatuaren etenaren iragarkiari panorama berri bat ireki du eta garai berri bat bakearen, bizikidetzaren eta humanizazioaren inguruko politikari ekin ahal izateko. Indarkeria suntsitzaillearen eta giza eskubideen urraketa gertatu den hamarkaden ostean, garai berri honen finkatzea posiblea izango da bakarrik ETArekin desagerpen definitiboarekin.

Legebiltzar-adierazpen honek azken hilabeteotan eragile sozial eta politiko ezberdinek egindako zenbait ekarpen laburbiltzen ditu. Bere edukia, printzipioen eta konpromisoen proposamen batean antolatzen du.

Edukia, Legebiltzar honek garatutako elkarri entzutearen, elkarrizketaren eta bateratze lanaren ondorioa da. Bere asmoa, bakera eta bizikidetzara eramango gaituzten konpromisoak eta partekatutako edukiak eskaintzea da, hauxe baita euskal gizarteak eskatzen duena eta herritarren borondatearen ordezkarien bete-behar etiko, politiko eta demokratikoa.

I. PRINTZIPIOEN ETA KONPROMISOEN PROPOSAMENA

Giza eskubide guztien eta demokraziaren baloreen defentsak erreferentzia politiko, instituzional eta soziala izan beharko du, bake integral bat eta bizikidetzaren demokratikoa eraikitzen joateko helburuarekin. Bere oinarriak gure iraganari zuzendutako begirada eta etorkizuneko zerumuga kontsideratuko duen orainaren ikuspegia kontuan izango ditu.

Oroimena izango duen bakerako printzipioak

Oinarrizko printzipioa

Etorkizuneko bakeak eta bizikidetzak biolentziaren bidegabekeriaren aitortzea eskatzen dute, sortutako minaren eta biktimen duintasunaren aitortzea, biktima guztiek, egitarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidea dutelarik.

Printzipio zehatzak

1. Arduraren printzipioa ezartzea: iraganean bakoitzak izan duen ardura eta giza eskubideen urraketari loturiko ondorioak zehaztea eta aitortzea suposatzen du.
2. Oroimen kolektibo ez-neutral eta aktibo bat artikulatzea, giza eskubideen apurketaren zein bere ondorioen kontra.
3. Oroimena, terrorismoaren deslegitimizazio etiko, sozial eta politikorako funtsezko lantresna bat dela kontsideratzea.
4. Erdizkako, erreprimutako edo amnesikoak diren egiak ekiditea: gertaeren kontakizun objektiboaren bitartez, giza eskubideen kontrako bortxaketei buruzko partekatutako egia taxutu.

5. Gertatutakoaren arrazoen inguruan ezberdinen arteko partekatutako akordio bat lortzea hobe izango litzatekeelarik, giza eskubideen urraketaren sorrerari interpretazio aniztasun bat eman ahal izango zaio-la ulertu behar da, ondorioztatuz eskubide horien hauste guztiak eman zirela talde eta pertsonen giza duintasunaren aurrean beste helburu batzuk ezarri zituztelako.
6. Partekatutako oroimenaren eraikitzea, biktimen sufrimendu bidegabea arintzeko eta zigorgabetasuna ekiditeko bide bihurtzen saiatu behar da, baita, era berean, bakea eta bizikidetzeta demokratikoa lortzeko. Oroimen honek balio beharko du etorkizuna birpentsatzeko eta eraikitzeko, gertatutakoaren kontakizun-ean gelditu gabe.
7. Gertatutakoaren berreraikitzea abiapuntu izanik, lan egin, iragan mingarri bati ateak itxiko eta guztientzako itxaropentsua izan daitekeen etorkizun baten ateak irekiko diren garai berri bat iritsi dadin, zeinetan euskal gizartearen atal batek oraindik, eraginagatik eta mehatxuagatik duen beldurra deuseztuko den.

Berriro gerta ez dadin bermerako konpromisoak

Oinarrizko konpromisoa

Arrazoi politiko bat bera ere ezin da etikaren eta giza eskubideeni errespetuaren oinarrizko printzipioen gainetik jarri. Giza eskubideak edozein arrazoren gainetik dagoen absolutu etiko bat dira.

Konpromiso zehatzak

1. Konpromiso etikoa giza duintasunaren alde: giza duintasunarekiko, pertsonarekiko eta berarengatik datozen giza eskubideekiko errespetuaren balioa, bizitza, lehenik eta behin, Estatu-arrazoia edo edozein zergati edo ideia politiko baino garrantzitsuagoa eta lehenagokoa da.
2. Euskal gizartearen aniztasunarekin konpromiso demokratikoa.
3. Hitzen, elkarrizketen eta adostasunen bilaketarekiko konpromiso demokratikoa: ez biolentziak, ezta inposaketak ere, ez dute balio ezberdintasunak argitzeko. Hauxe izango da hezkuntza tresna baten oinarria, bereziki, gazteria kontzientziatzeko, ezberdintasunak, gatazka edo arazoak ez direla indarkeriaren bidearekin konpontzen, baizik eta elkarrizketa, elkarri entzute eta giza duintasunari dagozkion guztion berdintasunaren, askatasunaren, justiziaren, egiaren eta elkarrenganako errespetuaren balioak ikasiz.”



2. dokumentua

**Seihilekoz seihilekoko
jarraipen-txostenak**

Seihilekoz seihilekoko jarraipen-txostenak

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

Bake eta Bizikidetzaren Planak 2014ko lehen seihilekoan izandako kudeaketari eta gauzatzeari buruzko jarraipen-txostena

I. Txostenaren justifikazioa eta xedea

Gobernu Kontseiluaren 2013ko azaroaren 26ko Akordioak, Bake eta Bizikidetzaren Plana onartu zuenak, azken horren indarraldian egin beharreko jarraipen- eta ebaluazio-sistema arautu zuen; zehazki:

“Laugarrena.- “Bake eta Bizikidetzaren Plana 2013-2016 – Gizarte-topaketa helburu” izeneko planaren jarraipena eta ebaluazioa Gobernu Kontseiluaren 2013ko ekainaren 11ko Akordioan eta Planean bertan ezarritakoaren arabera gauzatuko dira. Azken horrek berezitasun hauek jasotzen ditu:

-Planean bertan sortutako Sail-arteko Batzordeak egingo du etengabeko jarraipena, sei hilabetean behin.”

Era berean, Planak bere Zeharkako Ardatzean aipatzen ditu horren kudeaketarekin zein jarraipen- eta ebaluazio-sistemarekin lotutako ekimenak. Besteak beste, Sail-arteko Batzorde bati (une honetan sortze-fasean dagoena) esleitzen dio seihilekoz seihileko Planaren etengabeko jarraipena egiteko ardura.

Txosten hau egiteko unean Sail-arteko Batzordea eratzeari buruzko ekimena oraindik ere burutu ez denez, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari dagokio Planeko ekimenei buruzko jarraipen txosten hau egitea, Planean bertan Batzordea koordinatzeko eta horri laguntzeko lana esleitzen baitzaio, eta, zehazki, bereziki seihileko honetarako gauzatze-konpromisoa duten ekimenei buruzkoa.

Horren ondorioz, lehen jarraipen-txosten honek egiten du 2014ko lehen seihilekoan Bake eta Bizikidetzaren Planak izandako kudeaketari eta gauzatzeari buruzko balantzea. Planaren 18 ekimenak hitzez hitz gogoratzen ditu, urtarrila eta ekaina bitarteko aurreikusitako ekintzak aipatuz eta, horrekin batera, aurreikuspenak zer mailatan bete diren adierazten du. Azkenik, lehen aldi honen martxari buruzko ondorioak eta balioespenak eranstu ditu, baita hurrengo aldirako aurreikuspenei buruzkoak ere.

II. 2014ko lehen seihilekoan Bake eta Bizikidetzaren Planak izan duen gauzatze-mailaren jarraipena

·Iraganarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena
· 1. ekimena. Giza eskubideen urraketei eta eratorritako ekintzei buruzko txostenak egitea	·Txostena egitea agindu, egin eta Eusko Legebiltzarrari ematea. ·Txostenaren edukitik eta gomen-dioetatik eratorritako ikerketak eta ekintzak aztertu eta horien plangintza egitea. ·Memoria historikoaren arloan, lehenetako oinarri-programa prestatzea.	·2013-VI-14 Txostena argitaratuta dago eta Eusko Legebiltzarrari eman zaio. ·Argitu gabeko atentatuei buruzko txosten bat egiteko agindua eman da. ·Agiri hori egiten ari dira.
· 2. ekimena. Memoriari eta Bizikidetzari buruzko Institutua	·Legebiltzarrean Memoria eta Bizikidetzari buruzko Institutuaren proposamena onartzea.	·Zentro hori sortzeko lege-proposamena eztabaidatzen ari dira une honetan Eusko Legebiltzarrean. Onartu ondoren hasiko da zentroa abian jartzeko prozesua.
· 3. ekimena. Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroari ekarpena egitea		·Espainiako gobernuari dagokio proiektu hori zuzendu eta dinamizatzea; gaur arte, ordea, ez du bere lan-proposamena aurkeztu.
· 4. ekimena. Terrorismoaren biktimei laguntzea, eta aitortzea eta ordainak ematea.	·Laguntzarako ekintza-ildoak. Biktimei Laguntzeko Zerbitzuari, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programari eta Auzitegi Nazionalen biktimei laguntzeko Bulegorako Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrekin egindako hitzarmenari eustea. ·Gizarte-erakundeekiko lankidetzaren ildoak. Biktimei laguntzeko elkartei zuzendutako diru-laguntzen deialdiari eustea, bai eta Víctimas del Terrorismo Fundazioarekin eta Fernando Buesa Fundazioarekin egindako hitzarmenari ere. Hori guztia elkarteekin eta biktimekin mintegiak eta topaketak antolatzearekin batera. ·Ikerketak eta ikasketak sustatzeko ildoak. Urteko ikerketak eta gradu-ondoko ikasketak egiteko EHUrekin (KREI) sinatutako hitzarmenari eustea. ·Parte-hartzea sustatzeko ildoak. Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluarekin koordinatuta eta lankidetzan aritzea sustatzea. Oroimenaren Egunerako oroitza adostasunez bultzatzea. Oroimenaren Mapa adostasunez garatzea sustatzea.	·Laguntzaren arloan aurreikusitako ekintza-ildo guztiei eman zaie jarraitasuna. ·2014-V-30. Horrez gainera, Gertu Programa abian jarri da eta lehen urratsak ematen ari dira biktimen arteko elkarriketarako ekimen esperimentalei dagokienez. ·Jarraitasuna eman zaie gizarte-erakundeekiko lankidetzaren arloan aurreikusitako ekintza-ildo guztiei. ·KREIrekin batera biktimen beharriari eta arduri buruz egindako ikerketa kualitatibo bat aurkeztu da. ·Lehen seihilekoan beste batzar bat egin du Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak. ·2014-VI-30. Beste bultzada bat eman zaio Oroimenaren Mapari, udal guztietara bidali duten agiri bat pres-tatu baita.

<p>·5. ekimena. Egungo legedian babesik ez duten biktimei laguntzea eta aitortpena eta ordainak ematea.</p>	<p>·Lehen dekretutik eratorritako prozesua kudeatzea.</p> <p>·Bigarren dekretua prestatzea, biktime guztiak aitortzeko eta horiei ordainak emateko prozesuak amaitu ahal izateko.</p>	<p>·107/2012 Dekretua, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimek aitortzeko eta biktime horiei ordainak emateko, kudeatu da. Espainiako gobernuak dekretu horren aldaketa bat errekurritu du eta Jaurlaritzako zerbitzu juridikoek dagozkion alegazioak aurkeztu dituzte. Bilerak antolatuta dira eragindako biktimekin.</p> <p>·Idazkaritza hau prestatzen ari da, dagoeneko, 1978tik gaur arteko biktimek aitortu eta horiei ordainak emateko prozesuetarako beste dekretu bat.</p>
<p>·6. ekimena. Torturari buruzko ikerketa eta ekintza</p>	<p>·Ikerlana egitea.</p> <p>·Tortura kasuak ikertzeko ezarri behar diren protokoloak buruzko ondorioak ateratzea.</p>	<p>·2014-VI-26. 1960tik 2012era egindako torturari buruzko ikerketa-proiektua aurkeztu da. Euskadiko Kriminologia Institutuari agindu zaio proiektua, eta Francisco Etxebarria auzitegiko medikuak zuzenduko du. Horren berri eman zaio Europako Kontseiluaren Torturari Aurre Hartzeko Batzordeari.</p> <p>·107/2012 Dekretuaren esparruko tortura-kasuak ikertzeko ezarri behar diren protokoloak buruzko adituen txosten bat jaso da.</p>

·Orainarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena
<p>·7. ekimena. Eusko Legebiltzararekin lankidetzan aritzea eta batera lan egitea</p>	<p>·Lankidetzan aktiboan jardutea Legebiltzararekin bizikidetzarako estrategikoak diren Jaurlaritzaren proiektu guztietan.</p>	<p>·Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak irekita ditu Eusko Legebiltzararekiko komunikazio- eta lankidetzan-ildo guztiak, baita legebiltzar-talde guztiekikoak ere.</p>
<p>·8. ekimena. Espetxe-politikan Hitzeman Programa garatzea</p>	<p>·Espainiako gobernuarekin elkarriketatzeko eta akordioak bilatzea.</p> <p>·Hitzeman Programa prestatzea.</p>	<p>·Eusko Jaurlaritza eta Idazkaritza hau harremanetan daude Espainiako gobernuarekin, baina oraindik ez dute akordiorik erdietsi.</p> <p>·Bake eta Bizikidetzaren Planaren aurreikuspenak betetz, Hitzeman Programa prestakuntza-fasean dago 2014ko lehen seihilekoan.</p>
<p>·9. ekimena. Europar Batasunarekin lankidetzan-ildoak bultzatzea</p>	<p>·Lankidetzan-espazioak egituratzea.</p> <p>·Ekintza-programa zehatzak garatzea.</p>	<p>·Europako esparruarekin harremanetan jarri gara Europako erakundeekin lankidetzan-ildoak ezartzeko; harreman horien emaitzak bigarren seihilekoan gertatu beharko dira.</p>
<p>·10. ekimena. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin lankidetzan aritzea.</p>	<p>·2014 Memoranduma sinatzea eta 2013ko balioespen-txostena jasotzea.</p>	<p>·2014 Memoranduma datozen hilabeteetan sinatu ahal izateko beharrezko kudeaketak gauzatu dira.</p>

<p>·11. ekimena. Euskal unibertsitateen ekarpen partekatua</p>	<p>·Lana egitea.</p>	<p>·2014-I-8. Hitzarmena sinatu da hiru euskal unibertsitateekin, eta 2014rako aurreikusitako lana aurreikusi bezala ari da gauzatzen.</p>
<p>·12. ekimena. ERTZAINTZAK Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen alde hartutako Gizarte Konpromisoari jarraitasuna ematea.</p>	<p>·Giza eskubideei eta bizikidetzaren demokratikorako polizia baten oinarri etikoei buruzko prestakuntza-programa eguneratu eta garatzea.</p> <p>·ERTZAINTZAK Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen alde hartutako Gizarte Konpromisoaren xedeak eta horri jarraitasuna emateko ekimenak prestatzeko Partaidetza Programa abiaraztea.</p>	<p>·Aurreikusitakoaren arabera gauzatzen ari dira Herrizaingo Sailarekin hitzartutako ekimenak ERTZAINTZAK bizikidetzaren eta giza eskubideen alorrean prestakuntza jasotzeko eta haren parte-hartzea bultzatzeko.</p> <p>·2014-III-1. Amnesty Internationalaren giza eskubideei buruzko ikastaroa</p> <p>·2014-IV-2 Lantalde berezi bat sortzea.</p>

·**Etorkizunarekin lotutako ekimenak**

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena
<p>·13. ekimena. Lankidetzaren publiko-soziala euskal elkartearen sarearekin</p>	<p>·Akordioa prestatu eta sinatzea euskal elkartearen sarearekin Gizalegez Akordioaren inguruan.</p> <p>Lankidetzaren hitzarmen eta akordioak prestatu eta sinatzea beste erakunde batzuekin Elkarrekin Bonuen Programa sustatzeko.</p> <p>·Elkarrekin Bonuen Programa martxan jartzea.</p>	<p>·2014-VI-17. Abiarazi da Elkarrekin Bonuen Programa, hiru alor hauetan euskal elkartearen sareko hainbat erakunderen arteko lankidetzaren espazioak sustatzen dituen: hezkuntza, herritarren parte-hartzea eta tokiko bizikidetzaren.</p>
<p>·14. ekimena. Herritarren parte-hartzea sustatzea</p>	<p>·Herritarren parte-hartzeari buruzko esparru-agiria aurkeztea.</p> <p>·Herritarren parte-hartzea bultzatzeko ekimenak abian jartzea.</p>	<p>·Herritarren parte-hartzeari buruzko esparru-agiria zirraborro-fasean dago, eta bigarren seihilekoan aurkeztu eta garatzea aurreikusten da.</p>
<p>·15. ekimena. Adostasuna bizikidetzaren alde foru-aldundiekin eta udalekin</p>	<p>·Foru-aldundi bakoitzarekin, EUDELekin eta udalekin egin beharreko akordioak zehaztea.</p> <p>·Erakunde-arteko akordioak abian jartzea.</p>	<p>·Hainbat elkarrizketa-saio egin dira hiru foru-aldundiekin Elkarrekin Programan parte har dezaten. Une honetan haien erantzunaren zain gaude.</p>
<p>·16. ekimena. Ekintza-ildo osagarriak bultzatzea hezkuntza formalararen arloan</p>	<p>·Esperientzia hezitzaileen jarraitasun-programa onartu eta bultzatzea biktimen lekukotasunen bidez.</p> <p>·Aurreko ekintza-ildoak eguneratze-ko eta garatzeko agiria aurkeztea.</p>	<p>·Aurreikusitakoaren arabera egin da aurrera Bake eta Bizikidetzaren Planak hezkuntzaren arloan jasotzen dituen lau proiektuen kudeaketari dagokionez: Gizalegez Akordioa, Elkarrekin Programa, Adi-adian Hezkuntza Modulua eta Bakegune Eskola.</p> <p>·2014. urteko bukaera aldera atzeratu da ekintza-ildoak eguneratu eta garatzeko agiriaren aurkezpena.</p>

<p>·17. ekimena. Ekintza-ildo bereziak sustatzea gazteriaren, kulturaren eta hezkuntza ez formalaren arloetan</p>	<p>·Akordioa prestatu eta sinatzea Gazteriaren Kontseiluarekin.</p> <p>·Lau ekintza-ildoen lehen fasea abian jartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> -prestakuntza-programa. -elkar-trukerako espazioa. -gazteen eta elkarleen arteko topaketa. -erreferentzien funtsa. 	<p>·2014-VI-6. Sinatu da lankidetzahitzarmena Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin.</p> <p>·Gaur egun lau ekintza-ildo handiak abian jartzeko lanak prestatzen ari dira.</p>
<p>·18. ekimena. Gizartea sentiberatzea eta komunikabide publikoen konpromisoa lortzea</p>	<p>·2014rako sentiberatze-programak diseinatzea. Lankidetzahitzarmena EITBrekin 2013-2016 aldirako.</p>	<p>·Hitzarmena izapidetze-fasean dago. Horren edukiak zehazten du 2014-2016 aldirako lankidetzahitzarmena.</p>

·Planaren kudeaketarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena
<p>·I. fitxa. Bake eta Bizikidetzaren Plana bultzatu, kudeatu eta koordinatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Sail-arteko Batzordea deitu eta horren lan-programa aurkeztea. ·Koordinazio Batzordearen funtzionamendu- eta lan-proposamena aurkeztea. ·Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholkularitza Batzordea sortzeko dekretua onartzea. 	<p>Sail-arteko Batzordearen sorrera barne-izapideen fasean dago.</p> <p>·Koordinazio Batzordearen sorrera legebiltzar-taldeekin kontsultatzeko fasean dago.</p> <p>·Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholkularitza Batzordea sortzeko dekretua barne-izapideen fasean dago.</p>

III. Ondorioak

1. Bake eta Bizikidetzaren Plana Gobernu Kontseiluaren Akordio bidez onartu zen, 2013ko azaroaren 26an. Ordutik aurrera eta 2014ko lehen seihilekoan, Plana bultzatu eta kudeatzeko ahalegin nagusia aurreikusitako ekimenak abiaraztean oinarritu da, Planak berak ezarritako lan-egutegiaren arabera.

2. Hala, bada, nabarmentzekoa da une honetan planean jasotako 18 ekimenetatik 17 aktibatuta daudela dagoeneko, gauzape-maila ezberdinetan. Oraindik ere abiarazi ez den ekimena Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroa da; izan ere, Espainiako gobernuarena da ekimenaren erantzukizuna eta hori abian jartzearena.

3. Bake eta Bizikidetzaren Planaren egitura kontzeptuzko eta kudeaketarako hiru alorretan egituratuta dago: iragana, oraina eta etorkizuna. Garai horietako bakoitzak bere gogoeta teorikoa du, eta seina ekimen zehatz. Lehen aldi honen barruan, ekintzarik nabarmenenak hauek izan dira, sailkapen horri men eginez:

- Iraganarekin lotutako ekintzei dagokienez, bi ardatzek bildu dituzte ahalegin nagusiak. Batetik, auziak argitzeko ekimenei emandako bultzada, hala nola, argitu gabeko atentatuei buruzko txostena agintzea edo torturari buruzko ikerketa; bestetik, biktimak aitortzeko eta horiei ordainak emateko politika publikoetan ekimen berriak sartzeko, adibidez, Gertu Programa edo Oroimenaren Mapa bultzatzea.

·Oraina kudeatzearekin lotutako ekimenei dagokienez, nabarmentzekoak dira, lehenik, bakea eta bizikidetzaren egonkortze aldera ekarpen akademikoko esparru bat ezartzeko euskal unibertsitateekin sinatutako hitzarmena; eta, bigarrenik, Ertzaintzaren alorrean aurreikusitako konpromisoak aktibatzea. Horrez gainera, lehen seihileko honetan lankidetzaren espazioak prestatu ahal izan dira bai Europan eta bai Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin.

·Etokizuna aintzat hartuz gero, beste bi ekintza-arlo hauek dira aipagarrienak. Alde batetik, Elkarrekin Programa berritzailea abiaraztea, bizikidetzaren kultura berri baten alde lankidetzaren publiko-sozialaren esperientzia garatzeko; eta, bestetik, hezkuntzaren arloan ezarritako aurreikuspenen %100 aktibatu izana, Adi-adian Programa eredu gisara hartuta. Horri guztiari, Gazteriaren Kontseiluarekin sinatutako hitzarmena erantsi behar zaio.

4. Nabarmentzekoa da, azken buruan, Bake eta Bizikidetzaren Planak oso emaitza onekin bete duela 2014ko lehen seihilekorako egindako gauzatze-aurreikuspena, bai ikuspuntu orokor batetik eta bai arlo zehatzetan ere, aurreikusitako ekimen guztietan.

5. 2014ko bigarren seihilekora begira, ekintza-programa zehatz-mehatz definituta dago ekimen bakoitzak horiek barruko ekintzetarako ezarritako egutegiaren. Horien artean, jarraian aipatuko ditugunak lehentasunezko mugarriak dira eta, horregatik, Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak lehentasuna emango die horien kudeaketari:

- Memoria eta Bizikidetzaren Institutuaren proiektua prestatzea, Legebiltzarrak onartu ondoren.
- Biktimak aitortzearen eta horiei ordainak ematearen arloko politika publikoei eustea eta horiek berritzea.
- Hitzeman Programa garatzeko adostasunaren oinarriak prestatzea.
- Lankidetzaren proiektuak zehaztea nazioarteko esparruan eta, bereziki, Europan.
- Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholkularitza Batzordea sortzeko dekretua onartzea eta Kontseilua eratzea.

6. Sei hileko ikuspegia laburregia da oraindik planaren gauzatze-maila zehatza emateko, balioespen goiztiarregia litzateke. Hurrengo seihileko txostenak Bake eta Bizikidetzaren Planaren urtebete baino gehiagoko kudeaketaren ikuspegia emango du. Txosten horrek gehiago sakonduko arlo hauei buruz, besteak beste: emaitza-adierazleen analisi proporzionala, ekintzen balantze bukatua, aurreratua edo atzeratua, edota, Bake eta Bizikidetzaren Plana gauzatzeko ikuspuntu dinamiko batetik, Planaren txerta daitezkeen doikuntzak, birplanteamenduak edo ekintza berriak, egokitzen jotzen badira.

2014ko uztaila.

Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

2014ko bigarren seihilekoari dagokion Planaren kudeaketari eta egikaritzapenari buruzko jarraipen-txostena

I. Txostenaren justifikazioa eta xedea

Gobernu Kontseiluaren 2013ko azaroaren 26ko Erabakiak, Bake eta Bizikidetzeta Plana onartu zuenak, azken horren indarraldian egin beharreko jarraipen- eta ebaluazio-sistema arautu zuen; zehazki:

“Laugarrena.- “Bake eta Bizikidetzeta Plana 2013-2016 – Gizarte-topaketa helburu” izeneko planaren jarraipena eta ebaluazioa Gobernu Kontseiluaren 2013ko ekainaren 11ko Erabakian eta Planean bertan ezarritakoaren arabera gauzatuko dira. Azken horrek berezitasun hauek jasotzen ditu:

- Planean bertan sortutako Sail arteko Batzordeak egingo du etengabeko jarraipena, sei hilean behin.”

Era berean, Planak bere Zeharkako Ardatzean aipatzen ditu horren kudeaketarekin zein jarraipen- eta ebaluazio-sistemarekin lotutako ekimenak. Besteak beste, Sail arteko Batzordeari esleitzen dio sei hilean behin Planaren etengabeko jarraipena egiteko ardura.

Beraz, 2014ko abenduaren 18an eratutako organo horri dagokio Planeko Ekimenei buruzko jarraipen-txosten hau onartzea, eta, bereziki, dagokigun seihilekorako egikaritze-konpromisoa duten ekimenei buruzkoa. Horren ondorioz, bigarren jarraipen-txosten honek egiten du 2014ko bigarren seihilekoan Bake eta Bizikidetzeta Planak izandako kudeaketari eta gauzatzeari buruzko balantzea.

Dokumentuaren lehen zatiak jarraipen-balantzea lau zutabetan laburtzen duen taula bat biltzen du. 1. zutabea plana osatzen duten 18 + 1 ekimenei enuntziatua jasotzen da; 2. zutabea dagokigun seihilekorako aurreikusitako ekintzak zehazten dira; 3. zutabea ekintza bakoitzaren garapena deskribatzen da. Azken zutabea aurreikusitako ekintzei 2014ko abenduaren 31n dagokien betetze-ehunekoa jasotzen da, eta beharrezkoa denean, egikaritze-egutegiaren egokitzeak zehaztu eta arrazoitu egiten dira. Jardunen jarraipenaren balioespen proportzional hori planaren balizko 5 egikaritze-mailatan sailkatu da: 2014ko amaieran aurreikuspenen % 20ko, % 40ko, % 60ko, % 80ko edo % 100eko betetze-mailak.

Dokumentuaren bigarren zatiak balioespen-alderdiak hiru ataletan egituratzen ditu: azterketa, aurreikuspenak eta ondorioak. Horrela, hurrengo seihilekorako lehentasunak eta jardun-ardatz nagusiak aurredefinitzen dira.

Lehen Zatia

2014ko bigarren seihilekoan Bake eta Bizikidetzaren Planak izan duen gauzatze-mailaren jarraipen-koadroa

1. Iraganarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetze-ehunekoa 2014-XII-31n
·1. ekimena. Giza eskubideen urraketei eta eratorritako ekintzei buruzko txostenak egitea	<ul style="list-style-type: none">·Txostena bakearen, giza eskubideen, biktimen, memoriaren, adiskidetzaren edo bizikidetzarako heziketaren eremuetan jarduten duten elkarten sareari eskaintzea.·Aurreko seihilekotik eratorriak:<ul style="list-style-type: none">-Txostenaren edukitik eta gomendioetatik eratorritako ikerketak eta ekintzak aztertu eta horien plangintza egitea.-Memoria historikoaren arloko Lehentasunen Oinarri Programa prestatzea.	<ul style="list-style-type: none">·Txostena elkarte-sarean zabaldu eta banatu da.·Atentatu terroristen egoera prozesalari buruzko txosten bat aurkeztu da ebatzi gabeko kasuak zehaztu ahal izateko.·2014ko azaroaren 4an Memoria Historikoaren arloko Lehentasunen Oinarri Programa 2015-16 aurkeztu da, eta 12 lan-proiektu biltzen ditu.	Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 100 bete da.
·2. ekimena. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua	<ul style="list-style-type: none">·Memoriaren Institutua eratzeko eta sortzeko prozesuari ekitea.·Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua inauguratzea.	<ul style="list-style-type: none">·Zentro hori sortzeko lege-proposamena 2014ko azaroaren 27an onartu da Eusko Legebiltzarrean.·Institutu hori 2015eko udan inauguratzea eta martxan jartzea aurreikusi da.	Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 60 bete da, izapide parlamentarioa azaroaren 27ra arte luzatu delako.
·3. ekimena. Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroari ekarpena egitea		<ul style="list-style-type: none">·Espainiako gobernuari dagokio proiektu hori zuzendu eta dinamizatzea; gaur arte, ordea, ez du bere behin betiko proiektua aurkeztu.·Aitu Batzorde bat sortu da proiektuaren edukiari eta jardun-planari buruzko irizpena emateko. Batzorde horretako bi kide Eusko Jauriaritzak izendatu ditu.	Eusko Jauriaritzari dagokionez, aurreikusitakoaren % 100 bete da.

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetze-ehunekoa 2014-XII-31n
<p>·4. ekimena. Terrorismoaren biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea</p>	<p>I. Jarraipen-jardunak.</p> <ul style="list-style-type: none"> · Laguntzako ekintza-ildoari eustea. · Gizarte-erakundeekiko lankidetzaz-ildoari eustea. · Ikerketak eta azterketak sustatzeko ildoari eustea. · Parte-hartzea sustatzeko ildoak <p>II. Jardun berriak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ·Biktimei Laguntzeko Zerbitzuari eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programari eutsi zaie. ·Biktimen elkarteei zuzendutako diru-laguntzei eta Victimás del Terrorismo Fundazioarekin eta Fernando Buesa Fundazioarekin sinatutako hitzarmenarako partidei eutsi zaie. ·Urteroko ikerketak eta gradu ondoko ikasketak garatzeko EHUrekin (KREI) dugun hitzarmenari eutsi zaio. ·Irailaren 24an Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren bilera bat egin da. Memoriaren Eguna ospatzen parte hartu da. Udalekin batera lan egin da Memoriaren Mapa sustatzeko. Abenduaren 17an Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideen Batzordeari balantze bat aurkeztu zaio. ·Gertu Programaren lehen fasea garatu da, Euskadin bizi diren eraildako biktimen familia guztiekin elkarrizketa zuzena izatea ahalbidetu duena, hain zuzen. Biktimen arteko elkarrizketa-esperientzien bidean aurrera egiten jarraitu da. ·Bizitzeko eskubidearen urraketen udal-erretratuak izeneko proiektuaren lehen fasea aurkeztu da. ·Irailaren 24an "Biktimen arloko politiken eta ekimenen kudeaketa-txostena" aurkeztu zen; dokumentu horretan dagokigun eremuan garatzeko hamaibost jardun-ildo zehazten dira. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 100 bete da. ·Esan beharra dago hasieran aurreikusi gabeko zenbait ekimen gaineratu direla.

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetze-ehunekoa 2014-XII-31n
<p>-5. ekimena. Egungo legerian babesik ez duten biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea</p>	<p>·Aurreko seihilekotik eratorriak: ·Lehen dekretuaren ondoriozko prozesua kudeatzea.</p> <p>·Bigarren dekretua prestatzea, biktimei guztiei dagozkien errekonozimendu-prozesuak eta horiei ordainak emateko prozesuak amaitu ahal izateko.</p> <p>·Bigarren dekretuaren ondoriozko prozesua kudeatzea.</p>	<p>·107/2012 Dekretuaren –1960-1978 aldian gertatutako giza eskubideen urraketan aitortu gabeko biktimei errekonozimendua eta ordaina emateari buruzkoaren– kudeaketarekin jarraitu da. Espainiako Gobernuak dekretu horren aldaketa bat errekurritu du. Eusko Jaurlaritza errekurtso hori auzi-bidetik kanpo ebatzea ahalbidetzeko lanean ari da. Irailaren 29an lan-jardunaldi bat izan zuen adituekin eta eragindakoekin, biktimei politika horien inguruan izan daitezkeen adostasunak eta alternatibak aztertzeke.</p> <p>·Egungo legerian babesik ez duten biktimei (1978tik gaur egun arte) errekonozimendua eta ordaina emateko prozesuetarako bigarren legegintza -tresna bat prestatzeko lana 2015era arte atzeratu da.</p> <p>·2015erako aurreikusi da</p>	<p>·El porcentaje de cumplimiento es del 80% de lo previsto para este semestre.</p> <p>·La elaboración de una segunda herramienta de reconocimiento legal a las víctimas sin cobertura se pospone a 2015. La razón de este retraso es el recurso interpuesto por la abogacía del estado contra el primer decreto.</p>
<p>-6. ekimena. Torturari buruzko ikerketa eta ekintzak.</p>	<p>·Torturaren gaineko ikerketa eta ekintzarako jardun-proposamena aurkeztea.</p> <p>·Torturaren gaineko ikerketa eta ekintzarako jardun-proposamena garatzea.</p>	<p>·2014ko ekainaren 26an aurkeztu zen Kriminologiaren Euskal Institutuari egindako enkargua, 1960-2010 aldian izandako torturari buruz ikerketa-proiektua egitekoa hain zuzen.</p> <p>·Bigarren seihilekoan, aurreikusi zen moduan, ikerketaren lehen fasea gauzatu da, hau da, azterlanak azterten duen aldian izandako tortura-salaketan kopuruaren kuantifikazio fidagarria egin da.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 100 bete da.</p>

2. Orainarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetze-ehunekoa 2014-XII-31n
<p>-7. ekimena. Lankidetzaren elkarlana Eusko Legebiltzarrarekin.</p>	<p>·Lankidetzaren aktiboan jardutea Legebiltzarrarekin bizikidetzarako estrategikoak diren Jaurlaritzaren proiektu guztietan.</p> <p>·Hitzartutako jardun-lerroak eguneratu eta garatzeko dokumentua aurkeztea.</p>	<p>·Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak irekita ditu Eusko Legebiltzarrarekiko komunikazio- eta lankidetzaren guztiak, baita legebiltzar-talde guztiekikoak ere.</p> <p>·Bi erakundeen arteko lankidetzaren hitzarmena herritarren parte-hartzearen inguruan, 2015eko lehen seihilekoan aurkeztuko da.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 80 bete da, Eusko Legebiltzarrarekin lankidetzaren hitzarmena sinatzea seihileko bat atzeratu delako.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetze-ehunekoa 2014-XII-31n
·8. ekimena. Espetxe-politikari buruzko Hitzeman Programa garatzea	<ul style="list-style-type: none"> ·Espainiako gobernuarekin elkarriketatzea eta akordioak bilatzea. ·Hitzeman Programa aurkeztea. ·Erakundeei aurkeztea eta adostasun sozio-politikoak bilatzea. ·Programa ezartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Eusko Jaurjaritza eta Idazkaritza hau harremanetan daude Espainiako gobernuarekin, baina oraindik ez dute akordiorik erdietsi. ·Urriaren 1ean aurkeztu zen jendarean Hitzeman Programa. ·Bost hilabeteko epea ireki da ekimen honen inguruan hitz egiteko eta akordioak bilatzeko. ·Programa 2015eko bigarren seihilekoan ezartzen hastea espero da. 	Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 100 bete da.
·9. ekimena. Europar Batasunarekiko lankidetzazko jardunak bultzatzea	<ul style="list-style-type: none"> ·Lankidetzazko espazioak egituratzea. ·Ezarrizko jardun-lerroak eguneratu eta garatzeko dokumentua aurkeztea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Urriaren 21etik 24ra <i>Bakearen eta Elkarbizitzaren gaineko lankidetzazko europar proiektuei buruzko topaketa</i> izan da Bilbon, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eta SEUPBk (EBko Programa Bereziak Kudeatzeko Arduradun Erakundea) antolatua. Topaketaren helburua IV. Peace Programaren esparruan txerta daitezkeen lankidetzazko proiektuak identifikatzea izan da. 	·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 100 bete da.
·10. ekimena. Lankidetzazko Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin.	·Jarraipena	<ul style="list-style-type: none"> ·Memoranduma 2014ko urrian sinatu dute Lehendakariak eta Goi Komisarioak. "Memoria Historikoaren arloko Lehentasunen Oinarri Programa 2015-2016" bidali da eta egiarako, justiziarako, erreparazioarako eta berri horrelakorik gertatu ez denaren bermerako eskubidearen sustapenari buruzko errelatorearen balioespina jasotzeko zain gaude. 	·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 100 bete da.
·11. ekimena. Euskal unibertsitateen ekarpen partekatua	·Lana egitea.	<ul style="list-style-type: none"> ·Hiru euskal unibertsitateek aurreikusitako lana garatu dute 2014ko bigarren seihilekoan, eta lan horren emaitza 2015eko urtarrilean aurkeztuko dute. 	·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 100 bete da.
·12. ekimena. ERTZAINTZAK Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen alde hartutako Konpromiso Sozialari eustea.	<ul style="list-style-type: none"> ·Bizikidetzazko demokratikorako polizia baten giza eskubideei eta oinarri etikoei buruzko prestakuntza-programa eguneratu eta garatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Aurreikusitakoaren arabera gauzatzen ari dira Segurtasun Sailarekin hitzartutako ekimenak ERTZAINTZAK bizikidetzaren eta giza eskubideen alorrean prestakuntza jasotzeko eta haren parte-hartzea bultzatzeko: - Prestakuntza-ikastaroak - Barneko hedapen- eta sentsibilizazio-ekintzak eta kanpo-hedapeneko ekintzak 	<ul style="list-style-type: none"> ·Seihileko honi dagokion betetze-ehunekoa: - % 100 - % 80

3. Etorkizunarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetze-ehunekoa 2014-XII-31n
<p>-13. ekimena. Lankidetzako publiko-soziala euskal elkarten sarearekin</p>	<p>·Aurreko seihilekotik eratorria</p> <p>·Elkarrekin Bonu Programa eguneratu eta garatzeko dokumentua aurkeztea.</p>	<p>·Bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen alde lan egiten duten elkar-teei zuzendutako diru-laguntzen urteko deialdiari eustea.</p> <p>·Abiarazi da Elkarrekin Bonuen Programa, hiru alor hauetan euskal elkarten sareko hainbat erakunderen arteko lankidetzako-espazioak sustatzen dituena: hezkuntza, herritarren parte-hartzea eta tokiko bizikidetzak.</p> <p>·Programa horren eguneratzea 2015erako deialdi-aginduetan –aurretiaz izapidetzeko prozeduraren bitartez 2014ko azaroan martxan jarri direnetan– bildu da.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 100 bete da.</p>
<p>-14. ekimena. Herritarren parte-hartzea sustatzea</p>	<p>·Aurreko seihilekotik eratorria</p> <p>·Hitzartutako jardun-lerroak eguneratu eta garatzeko agiria aurkeztea</p>	<p>·Parte hartzeko politikak hiru ardatz aktiboren bitartez bideratzen dira::</p> <ul style="list-style-type: none"> ·Lankidetzako publiko-soziala Elkarrekin Bonuen Programaren bidez. ·Eusko Jaurlaritzaren partaidetza -tresnak. ·Parte hartzea sustatzeko kontzertazioa Foru Aldundiekin eta Udalekin .. <p>·Dokumentu honen aurkezpena 2015eko lehen seihilekorako aurreikusi da.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 80 bete da, herritarren parte hartzeari buruzko dokumentuaren aurkezpena seihileko bat atzeratu delako kudeaketa-planen berrantolaketa dela-eta.</p>
<p>-15. ekimena. Bizikidetzaren aldeko kontzertazioa Foru Aldundiekin eta Udalekin.</p>	<p>·Erakunde arteko akordioak abian jartzea.</p> <p>·Hitzartutako jardun-lerroak eguneratu eta garatzeko dokumentua aurkeztea.</p>	<p>·Elkarrekin Programa Bizkaiko Foru Aldundiaren adostasunarekin jarri da martxan.</p> <p>·Udalei bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko ekimenak garatzeko diru-laguntzen deialdiari eutsi zaio.</p> <p>·Bigarren seihilekorako aurreikusi da, udal- eta foru-hauteskundearen ondoren.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 80 bete da, eguneratze-dokumentuaren aurkezpena seihileko bat atzeratu delako, kudeaketa-planen berrantolaketa dela-eta.</p>
<p>-16. ekimena. Jardun-ildo osagarriak bultzatzea hezkuntza formalararen arloan.</p>	<p>·Jarraipena</p> <p>·Aurreko seihilekotik eratorria</p> <p>·Aurreko jardun-ildoak eguneratzeko eta garatzeko dokumentua aurkeztea.</p>	<p>·Aurreikusitakoaren arabera egin da aurrera Bake eta Bizikidetzako Planak hezkuntzaren arloan jasotzen dituen lau proiektuen kudeaketari dagokionez: Gizalegez Akordioa, Elkarrekin Programa, Adi-Adian Hezkuntza Modulua eta Bakegune Eskola.</p> <p>·Abenduaren 19an Legebiltzarri Adi-Adian Programaren garapenaren balantze bat –eguneratze-ardatzak ezartzen dituena– helarazi zaio.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 100 bete da.</p>

<p>-17. ekimena. Jardun-ildo bereziak sustatzea gazteriaren, kulturaren eta hezkuntza ez formalaren arloetan.</p>	<p>·Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin egindako Hitzarmeneko jardun-ildoak eguneratzeko eta garatzeko dokumentua aurkeztea.</p>	<p>·Euskadiko Gazteriaren Kontseilua hitzarmenaren edukia aurreikusitakoaren arabera garatzen ari da. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeari lau jardun-ildo nagusien garapena eta proiektzioa zehazten dituen dokumentua aurkeztu dio.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 100 bete da.</p>
<p>-18. ekimena. Gizartearen sentsibilizazioa eta hedabide publikoen konpromisoa.</p>	<p>·2014rako sentsibilizazio-programak diseinatzea.</p> <p>·2013-2016 aldian EITBrekin izango den lankidetzaren esparrua zehaztea.</p> <p>·Abenduaren 10ean urtero ospatzen den Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren eta René Cassin Sariaren inguruko lanerako plana diseinatzea urtero</p>	<p>·Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eta EITBren arteko lankidetzako esparru-akordioa urriaren 31n izenpetu da.</p> <p>·Horren edukiak zehazten du 2014-2016 aldirako lankidetzaren esparrua.</p> <p>·Abenduaren 10ean ospatzen den Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren eta René Cassin Sariaren inguruko lanerako plana diseinatu da.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 100 bete da.</p>

·Planaren kudeaketarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetze-ehunekoa 2014-XII-31n
<p>-I. fitxa. Bake eta Bizikidetzaren Planaren bultzatu, kudeatu eta koordinatzea</p>	<p>·Aurreko seihilekotik eratorriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Sail arteko Batzordea deitzea eta horren lan-programa aurkeztea. -Koordinazio Batzordearen funtzionamendu- eta lan-proposamena aurkeztea. -Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholkularitza Batzordea sortzeko dekretua onartzea. ·Planaren ebaluazio osoaren dokumentuak enkargatzea eta aurkeztea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Gobernu Kontseiluaren azaroaren 11ko bileran onartu zen Sailen arteko Batzordea sortzea. Batzordearen lehen bilera abenduaren 18an egin zen. ·Legebiltzarreko taldeen borondatez (uztailaren 3ko bileran horrela adierazi zuten), koordinazio-batzorde bat sortu ordez Gobernuaren eta legebiltzarreko taldeen artean formalki ezarri gabeko harreman-eredu bati jarraituko zaio. ·Bake eta Bizikidetzaren Planaren Kontsulta Kontseilua sortzeko dekretua Gobernu Kontseiluaren uztailaren 29ko bileran onartu zen. Irailean eta urriaren Kontseiluko kideak izendatu ziren. Abenduaren 2an egin zen Kontseiluaren lehen osoko bilkura. ·Planak bide erdia egin duen unean lehen ebaluazio global bat egiteko ardura gobernutik kanpoko pertsona edo erakunde bati esleituko zaio. Ebaluazioaren aurkezpena 2015. urtearen erdialdeko aurreikusita dago. 	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 100 bete da. Programatutako neurriak aurreikusitako egutegiaren arabera bete dira.</p>

Bigarren zatia

Balioespena: azterketa, aurreikuspenak eta ondorioak

1. Planaren 2014ko betetze programatikoaren azterketa

A. Bake eta Bizikidetzaren Plana Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez onartu zen, 2013ko azaroaren 26an. Ordutik aurrera eta 2014. urtean, Plan hori sustatzeko eta kudeatzeko arloan egindako ahalegin nagusia Planean bertan ezarritako lan-egutegiaren arabera aurreikusitako ekimenak martxan jartzera bideratu da. Ildo horretan, azpimarratzekoa da ekimen programatiko guztiak, egikaritze-maila desberdinetan bada ere, jadanik aktibatuta daudela.

B. Planaren 2014ko abenduaren 31ko betetze-mailaren azterketa kuantitatiboan hiru mailatan sailka daitekeen balantzea erakusten du. Plana osatzen duten 18+1 ekimenetatik, lehen mailan % 100eko betetze-maila izan duten 14 ekimen ditugu; bigarren mailan, % 80ko egikaritze-maila izan duten lau ekimen eta hirugarren mailan, % 60ko betetze-mailako ekimen bat. Bigarren mailako lau ekimenei dagokien egikaritzapena seihileko bat atzeratu da kudeaketa-planen berrantolaketa dela-eta. Hirugarren mailako ekimena Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua da, eta horri dagokion atzerapenaren arrazoia izan da Legebiltzarreko izapidetzea 2014ko azaroaren 27ra arte luzatu izana.

C. Ikuspegi kualitatiboago batetik, Bake eta Bizikidetzaren Planaren edukia kontzeptuzko eta kudeaketako hiru eremutan egituratuta dago: iragana, oraina eta etorkizuna. Garai horietako bakoitzak bere gogoeta teorikoa du, eta seina ekimen zehatz. Lehen aldi honen barruan, ekintzarik nabarmenenak honako hauek izan dira, sailkapen horri men eginez:

- Iraganarekin lotutako ekintzei dagokienez, bi ardatzek bildu dituzte ahalegin nagusiak. Batetik, auziak argitzeko ekimenei emandako bultzada, hala nola, atentatu terroristen egoera prozesalari buruzko txostena agintzea edo torturari buruzko ikerketa; bestetik, biktimei errekonozimendua eta ordainak emateko politika publikoetan ekimen berriak sartzeari, adibidez, Gertu Programa edo Memoriaren Mapa bultzatzea. Era berean, azpimarratzekoa da Memoria Historikoaren arloko Lehentasunen Oinarri Programa 2015-16 aurkeztu dela.

- Oraina kudeatzearekin lotutako ekimenei dagokienez, nabarmentzekoak dira, lehenik, bakea eta bizikidetzaren egonkortze aldera ekarpen akademikoko esparru bat ezartzeko euskal unibertsitateekin sinatutako hitzarmena; eta, bigarrenik, Ertzaintzaren alorrean aurreikusitako konpromisoak aktibatzea. Horrez gainera, lehen seihileko honetan lankidetzaren espazioak prestatu ahal izan dira bai Europan eta bai Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin. Ildo honetan, aipamen berezia merezi du urrian Bilbon egindako topaketak, "Bakearen eta Elkarbizitzaren gaineko lankidetzaren europarreko proiektuei buruzko topaketa" hain zuzen; SEUPB erakunde europarrarekin lankidetzaren egin da topaketa, laugarren Peace Programaren esparruan.

- Etorkizunari dagokionez ere, bi eremu nabarmentzen dira. Alde batetik, Elkarrekin Programa bezalako ekimen berritzailea abiaraztea, bizikidetzaren kultura berri baten alde lankidetzaren publiko-sozialaren esperientzia garatzeko; eta, bestetik, hezkuntzaren arloan ezarritako aurreikuspenen % 100 aktibatu izana, Adi-adian Programa eredu gisara hartuta. Aipatutakoei Gazteriarren Kontseiluarekin eta Eitbrekin izenpetutako Hitzarmenak gaineratu behar zaizkie.

- Bestalde, planaren kudeaketari dagokionez, Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Kontseilua sortu izana aipatu behar da (abenduaren 2an bildu zen lehen aldiz) baita Sail arteko Batzordea ere (abenduaren 18an bildu zen lehen aldiz) eratu izana.

D. Azken batean, Bake eta Bizikidetzaren Planak 2014ko bigarren seihilekorako egindako egikaritzapen-aurreikuspenak balioespen positiboarekin bete ditu, bai ikuspegi global eta kualitatibotik bai ikuspegi kuantitatibo eta espezifikoetik.

2. 2015eko bigarren seihilekorako egindako aurreikuspen nagusiak

2015eko bigarren seihilekora begira, jardun-programa zehatz-mehatz definituta dago ekimen bakoitzak ekintza bakoitzerako biltzen duen egutegian. Horien artean, jarraian aipatuko ditugunak lehentasunezko mugarrak dira eta, horregatik, Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak lehentasuna emango die horien kudeaketari. Mugari horietako bost azpimarratuko ditugu:

- Legebiltzarrean onartu ondoren, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzea.
- Biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko politika publikoei jarraitutasuna ematea eta eguneratzea, bereziki bultzatu berri diren honako jardun hauei erreparatuz: Gertu Programaren bigarren zatia, esperientzia berrien programa pilotuei eta "bizitzeko eskubidearen urraketen udal-erretatuak" proiektua amaitzeari.
- Memoria historikoaren arloko Lehentasunen Oinarri Programa 2015-16 martxan jartzea.
- Hitzeman Programa garatzeko adostasunaren oinarriak ezartzea.
- IV. Peace Programaren esparruko lankidetzaren proiektuak martxan jartzea SEUPB erakunde europarrarekin lankidetzan.

3. Ondorioak

A. Bake eta Bizikidetzaren Planak biltzen dituen 18+I ekimenen betetze programatikokoaren balantzeak balioespen positiboa merezi du. Ekimen guztiak martxan daude eta ezarritako aurreikuspenen betetze-maila egokia da. Alabaina, autokonplazentzia ez da Eusko Jaurlaritzaren lan-tresna. Planak errealitate sozio-politiko zehatz baina aldakor batean jarduten du, errealitate hori modu positiboan aldatzen laguntzeko asmo argiarekin, eta, beraz, plana ere ikuspuntu horretatik balioetsi behar da.

B. Bakeko eta bizikidetzaren Plan bat da, helburu horiek lortzen lagungarri izan nahi duelako. Xede hori dela-eta, planak osagarriak diren bi eremutan jarduten du: alde batetik, gizartean bake- eta bizikidetzaren kultura sustatzea eta indartzea eta bestetik, politikan gutxieneko adostasunak sustatzea bizikidetzaren aldeko politika etiko partekatutako arloan, betiere iraganari, orainari eta etorkizunari begira.

C. Eusko Jaurlaritzaren plan estrategiko honek eragin positiboa du gizartean, hain zuzen ere gizartearen gehiengoaren nahiekin bat datorrelako eta nahi horiek indartu eta sustatu egiten dituelako. Baieztapen hori behin eta berriz egiaztatu dute hainbat azterlan soziologikok, esaterako, Deustuko Unibertsitatearen Deustobarometroak, Euskal Herriko Unibertsitatearen Euskobarometroak edo Eusko Jaurlaritzaren Sozio-barometroak. Gizarte-prozesua eta Eusko Jaurlaritzaren plana sendo eta uztartuta doaz aurrera bakea eta bizikidetzaren behin betiko finkatzeko bidean.

D. Bake eta Bizikidetzaren Planaren zailtasun nagusia euskal jokaleku politikoaren zailtasun nagusi bera da: terrorismoaren eta indarkeriaren injustiziak markatutako gertuko iraganaren zama, eta zama horrek bakearen eta bizikidetzaren arloan gutxieneko baina beharrezko adostasunak lortzea baldintzatzea. Iraganaren balioespen partekatua eta oinarriko akordioak lortzea dira euskal politikaren gaitortu gabeko erronkaren bi alderdiak. Guztiok gaude gaitortu gabeko erronka horretan inplikaturik. Baita Eusko Jaurlaritza eta Bake eta Bizikidetzaren Plana ere.

E. Autokonplazentea ez den azterketa honek honako lan-hipotesi hau planteatzera eraman ditu Eusko Jaur-larritza eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia: bizi izan dugun terrorismoko, indarkeriako eta giza eskubideen urraketako iraganaren inguruko autokritika-keinu eta -prozesuak elkargune soziopolitikoak ahalbidetzeko eta iraganaren balioespenak eragiten duen banatze-faktorea gainditzeko tresna estrategikoak izan daitezke.

F. Hori izango da 2015-2016 aldian Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Bake eta Bizikidetzara Plana kudeatzeko prozesuan txertatuko duen azterketa-ardatzetako bat. Hortaz, 2015eko lehen seihilekoan, aipatutako zentzuko lan-ildo bat planean gaineratzeko aukera aztertuko da.

G. Aipatutako horrekin guztiarekin batera, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Bake eta Bizikidetzara Plana zorrotzasunez kudeatzen jarraituko du 2015. urtean, planean biltzen diren aurreikuspenei jarraiki, eta betiere bakearen eta bizikidetzaren arloan gutxieneko adostasun etikopolitikoak lortzeko baldintzak sortzeko helburuarekin. Horri lotuta, bigarren hiru hilekoan planaren garapenaren ebaluazio globalaren berri izango dugu, planaren kudeaketa-aldiaren erdialdean. Ebaluazio horrek legegaldi bukaerara bitarteko aldian plana egikartzeko egutegiak egokitzea ahalbidetuko du.

2014ko abenduaren 18a

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

2015eko lehenengo seihilekoari dago- kion jarraipen-txostena

I. Txostenaren justifikazioa eta xedea

Gobernu Kontseiluaren 2013ko azaroaren 26ko Akordioak, Bake eta Bizikidetzeta Plana onartu zuenak, azken horren indarraldian egin beharreko jarraipen- eta ebaluazio-sistema arautu zuen; zehazki:

“Laugarrena.- “Bake eta Bizikidetzeta Plana 2013-2016 – Gizarte-topaketa helburu” izeneko planaren jarraipena eta ebaluazioa Gobernu Kontseiluaren 2013ko ekainaren 11ko Akordioan eta Planean bertan ezarritakoaren arabera gauzatuko dira. Azken horrek berezitasun hauek jasotzen ditu:

-Planean bertan sortutako Sailarteko Batzordeak egingo du etengabeko jarraipena, sei hilabete behin.”

Era berean, Planak bere Zeharkako Ardatzean aipatzen ditu horren kudeaketarekin zein jarraipen- eta ebaluazio-sistemarekin lotutako ekimenak. Besteak beste, Sailarteko Batzordeari esleitzen dio sei hilabete behin Planaren etengabeko jarraipena egiteko ardura.

Beraz, 2014ko abenduaren 18an sortutako organo horri dagokio jarraipen-txosten hau onartzea planeko ekimenei dagokienez eta, zehazki, seihileko honi bereziki lotuta dagoen gauzatze-konpromisoa duten horiei dagokienez. Horren ondorioz, hirugarren jarraipen-txosten honek egiten du 2015eko lehenengo seihilekoan Bake eta Bizikidetzeta Planak izandako kudeaketari eta gauzatzeari buruzko balantzea.

Dokumentuaren lehenengo atalean ageri den koadroak jarraipenaren balantzea laburbiltzen du, lau zutabetan. Lehenengo zutabean plana osatzen duten 18+1 ekimenen izenburuak jaso dira; bigarren, seihileko honetarako aurreikusitako ekintzak, eta, azkenik, hirugarrenak ekimen horietako bakoitzaren garapena deskribatzen du. Azken zutabeak 2015eko ekainaren 30ean ekintzok erdietsi duten betetze-ehunekoa jasotzen du, eta, beharrezkoa den kasuetan, gauzatze-egutegian egindako doikuntzak zehazten eta arrazoitzen ditu. Jarduketan jarraipenaren balorazio proportzional hori planaren gauzatze potentzialari lotuta dauden 5 mailatan sailkatzen da: 2015eko ekainaren amaieran, aurreikuspenak % 20, % 40, % 60, % 80 edo % 100 bete dira.

Dokumentuaren bigarren atalak balorazio-izaera duten alderdiak barne hartzen ditu, hiru ataletan egituratuta: analisia, aurreikuspenak eta ondorioak. Era horretan, hurrengo seihilekorako lehentasunak eta jarduketaren ardatz nagusiak aurrezartzen dira.

Esan beharra dago jarraipen-txosten hau osatzen den aldi berean, ebaluazio-prozesutan espezializatutako kanpoko talde bat planaren tarteko ebaluazioa aurrera eramaten ari dela. Talde hori aukeratzeko orduan, profesionaltasuna, esperientzia eta irizpide-zorroztasuna hartu dira oinarri.

Lehenengo atala

2015eko lehen seihilekoan Bake eta Bizikidetzaren Planak izan duen gauzatze-mailaren jarraipen-koadroa

1. Iraganarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-VI-30ean
·1. ekimena. Giza eskubideen urraketei eta horien ondoriozko ekintzei buruzko txostenak egitea	·Aurreko seihilekoarekin lotutakoak: -Hasierako txostenaren eduki eta gomendioen ondoriozko ikerketak eta ekintzak aztertu eta horien plangintza egitea. -Memoria historikoaren arloan, lehentasunen oinarri-programa kudeatzea	·Seihileko honetan, bi azterlan egiteko agindu da: bata, orokorra, mehatxuen errealitate eta eraginari buruzkoa, eta bestea, espezifikoa, mehatxuok Erantzaintzan duten eraginaren ingurukoa. ·2014ko azaroaren 4an aurkeztu ostean, materia historikoaren arloko 2015-2016 Lehentasunen Oinarri Programa garatzen ari da, bere 12 lan-proiektuen egutegiaren arabera.	·Seihileko honetarako aurreikusitakoa % 100 bete da.
·2. ekimena. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua.	·Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua inauguratzea.	·Gobernu Kontseiluak, ekainaren 23an, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren martxan jartzea onartu du (112/2015 Dekretua, Institutuaren 2015erako aurrekontua onartzen duena; 115/2015 Dekretua, Institutuko zuzendaria izendatzekoa; eta Lehendakariaren 16/2015 Dekretua, Institutuaren jardura hastekoa). Era horretan, Eusko Legebiltzarrak 2014ko azaroaren 27an onartutako legeak ezarri zuen institutua martxan jartzeko sei hilabeteko epea bete da. Inaugurazio ofiziala azaroaren 10ean izango da, Memoriaren Egunean, hain zuzen.	·Legebiltzarrean onartu zenetik, seihileko honetarako aurreikusitakoa % 100 bete da.
·3. ekimena. Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroari ekarpena egitea	·Espainiako gobernuari dagokio proiektu hori zuzentzea eta dinamizatzea.	·Eusko Jaurilaritzak Adituen Batzordeko kide izateko bi pertsona izendatu zituen. Batzordeak lehenengo irizpeina egin zuen, bai eta martxoaren 24an zentroaren lehenengo plaka jartzeko ekitaldian parte hartu ere, Espainiako Bankuko eraikinean, Gasteizen. ·Zentro hori kudeatuko duen fundazioa sortze-prozesuan dago. Eusko Jaurilaritzak fundazio horretan bere ordezkari gisa jardungo duten hiru ki-deak izendatu ditu.	·Eusko Jaurilaritzari dagokion ekarpen-atalean, aurreikusitakoa % 100 bete da.

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-VI-30ean
<p>-4. ekimena. Terrorismoaren biktimei laguntzea, eta aitortpena eta ordainak ematea.</p>	<p>I. Jarraitutasun-jarduketak.</p> <ul style="list-style-type: none"> ·Laguntza-ekintzako ildoari eustea. ·Gizarte-erakundeekiko lankidetzaz-ildoari eustea. ·Ikerketak eta ikasketak sustatzeko ildoei eustea. ·Parte-hartzea sustatzeko ildoak. <p>II. Jarduketa berriak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ·Biktimei laguntzeko zerbitzua eta biktimentzako diru-laguntzen programa mantendu dira. ·Biktimen elkarteei zuzendutako diru-laguntzei eutsi zaie, bai eta Víctimas del Terrorismo Fundazioarekin eta Fernando Buesa Fundazioarekin egindako hitzarmenarako aurrekontu-ildoei ere. Diru-laguntzen inguruko dekretu berria kudeatzen ari da. ·Urteko ikerketak eta graduondoko ikasketak egiteko EHUrekin (KREI) sinatutako hitzarmenari jarraitutasuna eman zaio. ·Seihileko honetan, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak bi bilera egin ditu, urtarrilaren 21ean eta maiatzaren 7an. ·Aurten, hamabost urte betetzen dira Fernando Buesa Jn. eta bere eskolta Jorge Díez Jn. hil zituztenetik eta José Ramón Recalde Jn. larri zauritu zuen atentatua gertatu zenetik. Otsailaren 20an, Gobernu Kontseiluak terrorismoaren biktimak izandako gobernuko kideei omenaldia egiteko eta aintzates-teko adierazpen bat onartu zuen. ·Bizitzarako Eskubidearen Urraketen Udal Erretratuak izeneko proiektua garatzen jarraitu da, udalerriz udalerriz. ·Gertu programaren bigarren faseari hasiera eman zaio, Euskadin bizi diren hildakoen familien testigantzak grabatzeko helburuarekin. Biktimen arteko solasaldi-esperientziak egiten jarraitzen da. ·Ekainaren 4an eta 5ean «Terrorismoaren biktimak eta gizartea» jardunaldiak egin ziren. Horietan, lehendakariak biktimak aintzates-teko eta eurei barkamena eskatzeko adierazpena egin zuen, eta, halaber, etorkizunerako ardatza biktimen eta gizartearen arteko batasuna dela baieztatu zuen. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Seihileko honetarako aurreikusitakoa % 100 bete da. ·Esan beharra dago hasiera batean aurreikusita ez zuden beste ekimen batzuk gehitu direla.

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-VI-30ean
<p>-5. ekimena. Egungo legegian babesik ez duten biktimei laguntzea eta aitortzea eta ordainak ematea.</p>	<p>·Aurreko seihilekoarekin lotutakoak: ·Lehenengo dekretuan jatorria duen prozesua kudeatzea.</p> <p>·Bigarren dekretua prestatzea –nola egingo den zehazteko–, edota neurri osagarrien ezarpena baloratzea.</p>	<p>·107/2012 Dekretua, 1960tik 1978ra bitartean, giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasane zituzten biktimei aitortzeko eta biktime horiei ordainak emateko, kudeatzen jarraitu da. Aurreikuspenekin bat, 2015eko bigarren seihilekoan amaituko da kudeaketa.</p> <p>·Estatuko abokatutzak dekretuaren aurka aurkeztutako errekurtsioa dela eta, atzerapenak izan dira haren kudeaketan eta aurreikusitako bigarren tresharen garapenean.</p> <p>·Edonola ere, Eusko Jaurlaritzak beraztertze errekurtsioa aurkeztu du.</p> <p>·Eusko Jaurlaritzak apirilaren 29an jakinarazi zuenez, Kriminologiaren Euskal Institutuari giza eskubideen urraketan ondoriozko biktimei aitortzea eta ordainak emateko behar besteko arau-euskarria egiteko agindu dio. Proposamena udazkenean aurkeztuko zaie legebiltzar-taldee.</p>	<p>·Aipatu errekurtsioak eragindako atzerapena dela eta, ekimenari lotuta seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 60 bete da.</p> <p>·Estaldurarik gabeko biktimei lege-aitortpena emateko bigarren tresha 2015eko bigarren seihilekoan zehar aurkeztuko da.</p>
<p>-6. ekimena. Torturari buruzko ikerketa eta ekintza</p>	<p>·Torturari buruzko ikerketa eta ekintzarako jarduketaprograma garatzea.</p>	<p>·2015eko otsailaren 6an, 1960tik 2010era bitartean izandako Torturen Ikerketa Proiektuaren lehenengo fasearen emaitza aurkeztu zen, Kriminologiaren Euskal Institutua aurrera eramaten ari dena.</p> <p>·2015eko lehenengo seihilekoan, ikerketak aurreikusitako faseak gauzatu ditu.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa % 100 bete da.</p>

2. Orainarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-VI-30ean
·7. ekimena. Eusko Legebiltzararekin lankidetzan aritzea eta batera lan egitea	·Lankidetzan aktiboan jardutea legebiltzararekin bizikidetzarako estrategikoak diren Jaurlaritzaren proiektu guztietan.	·Orain arte, Bake eta Bizikidetzarako Batzorde Txostengileak ezin izan ditu bere lanak aurrera eraman, legebiltzar-taldeek ez baitute akordiorik lortu. Hori oztopo bat da. Hala ere, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak irekita ditu Eusko Legebiltzararekiko komunikazio- eta lankidetzan-ildo guztiak, baita legebiltzar-talde guztiekikoak ere. ·2015eko lehenengo seihilekoan, herritarren parte-hartzearen inguruko bi erakundeon arteko lankidetzan-esparrua adostu da, eta Irekiaren eta Eusko Legebiltzararen arteko lankidetzan-hitzarmenaren barruan jaso da.	·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 80 bete da; izan ere, Bake eta Bizikidetzarako Batzorde Txostengileak bertan behera gelditu denez, ezin izan da lankidetzan-lan handiagorik aurrera eraman.
·8. ekimena. Espetxe-politikan Hitzeman Programa garatzea	·Espainiako gobernuarekin elkarrikitatzea eta akordioak bilatzea. ·Programa ezartzea.	·Eusko Jaurlaritza eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia Espainiako gobernuarekin harremanetan egon badira ere, ezin izan da arlo horren inguruko akordiorik lortu. ·2015eko ekainetik 2016ko ekainera bitartean, Hitzeman programaren fase pilotua garatuko da, birgizarteratze-eredu bat zehaztera bideratuko dena.	·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 80 bete da. Hauteskunde-egutegia zela eta, esperientzia pilotuaren hasiera hilabete batzuk atzeratzea gomendatu zen.
·9. ekimena. Europar Batasunarekiko lankidetzan-ildoak bultzatzea	·Aurreko seihilekoarekin lotutakoak: ·Lankidetzan-espazioak egituratzea. ·Ezarririk jarraitzea-ildoak eguneratu eta garatzea.	·Seihileko honetan zehar, SEUPBarekin (EBko programa bereziak kudeatzeko ardura duen erakundearekin) lankidetzan-programa bat aurkeztu eta koordinatu da, hiru esparru hauek: gazteria, hezkuntza eta biktimak. Proiektuak abian jartzeko, IV. Bake Programa onartu behar dute europar erakundeek; aurreikuspenen arabera, udan zehar egingo dute.	·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren % 80 bete da, europar erakundeek egin beharreko IV. Bake Programaren onarpena atzeratu baita.

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-VI-30ean
-10. ekimena. Nazio Batuen Giza Eskubi-deetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin lankidetzan aritzea.	·2015eko memorandumua sinatzea eta 2014ko balorazio-txostena jasotzea.	·Lehenengo seihilekoaren helburuak bigarrenera eraman dira. Lehenengo seihileko honetan zehar 2015eko memorandumua sinatu ahal izateko beharrezko kudeaketa guztiak egin dira Kanpo Gaietarako eta Lankidetzarako Ministerioan. Uneotan, izapidetze-fasean dago. Hurrengo asteetan 2014ko balorazio-txostena jasotzea espero da. Irailean bilera bat aurreikusita dago Genevan, aurtengo ekintzak ixteko eta 2016ko memorandumari bultzada emateko.	·Seihileko honetarako aurreikusitakoa % 80 bete da.
-11. ekimena. Euskal unibertsitateen ekarpen partekatua	·Ondorio praktikoak hartzea beren ondorioen gainean. ·Ekimena berrargitaratzeko aukera eta egokitasuna aztertzea.	·Otsailean, hiru euskal unibertsitateek 2014an egindako lana aurkeztu zuten, birgizarteratzea xede izan zutena. Hilabete horretan bertan, 2015eko proiektuaren gaia iragarri zuten: baterako hezkuntza-tresnak prestatzea unibertsitatearen arloan.	·Seihileko honetarako aurreikusitakoa % 100 bete da.
-12. ekimena. ERTZAINZAREN Konpromiso Sozialaren Jarraipena Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen alde.	·ERTZAINZAREN Konpromiso Sozialaren Jarraipenaren Programa aktibatzea, edukiak eta jarraipen- eta ebaluazio-tresnak ezarrita.	·Aurreikusitakoaren arabera gauzatzen ari dira Segurtasun Sailarekin hitzartutako ekimenak ERTZAINZAK bizikidetzaren eta giza eskubideen alorrean prestakuntza jasotzeko eta haren parte-hartzea bultzatzeko. ·Prestakuntza-prozesuak zabaltzen ari dira, bai promozio berriak prestatzeko lanari dagokionez bai eta prestakuntza emango dutenen prestakuntzari dagokionez ere. Barne hedapen- eta sentsibilizazio-lanak Pare Pare jardunaldien bidez aurrera eramaten dira.	·Seihileko honetarako aurreikusitakoa % 100 bete da.

3. Etorkizunarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-VI-30ean
-13. ekimena. Lankidetzak publiko-soziala euskal elkar-teen sarea-rekin	·Aurreko seihilekoarekin lotutakoa ·Elkarrekin Bonu Programa eguneratu eta garatzea	·2015ean Elkarrekin Bonu Programa mantendu da, hiru alor hauetan euskal elkartearen sareko hainbat erakunderen arteko lankidetzak-espazioak sustatzen dituenak: hezkuntza, herritarren parte-hartzea eta tokiko bizikidetzak. Programaren eguneraketa 2015erako deialdiaren aginduetan jasota dago. ·Bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen alde lan egiten duten elkar-teen zako diru-laguntzen urteko deialdiari eutsi zaio.	·Seihileko honetarako aurreikusitakoa % 100 bete da.

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-VI-30ean
<p>-14. ekimena. Herritarren parte-hartzea sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> ·Aurreko seihilekoarekin lotutakoar ·Hitzartutako jarduketa-ildoak eguneratu eta garatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Parte-hartze politikak hiru ardatz aktiboren bidez aurrera eramaten dira: ·Lankidetzaz publiko-soziala, Elkarrekin Bonu Programaren bidez. ·Eusko Jaurlaritzak dituen parte-hartze tresnak. ·Udalerrri eta foru-aldundiekin akordioak lortzea, parte-hartzea bultzatzeko. <p>·Horretaz aparte, seihileko honetan Memoriaren Plaza herritarrek parte-hartzeko programa abiarazi da, eta herritarren parte-hartzeari buruzko azterlana egiteko agindu zaio Lokarri, bere esperientziaren ondarea eta nazioarteko beste esperientzia batzuk bilduko dituen.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa % 100 bete da.</p>
<p>-15. ekimena. Adostasuna bizikidetzaren alde foru-aldundiekin eta udalekin</p>	<ul style="list-style-type: none"> ·Aurreko seihilekoarekin lotutakoar ·Erakunde arteko akordioak abian jartzea. ·Hitzartutako jarduketa-ildoak eguneratu eta garatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Bizkaiko Foru Aldundiarekin adostasuna lortu ostean, Elkarrekin Bonu Programa abiarazi dugu. ·Udalei zuzendutako diru-laguntzen deialdiari eutsi zaio, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko ekimenak garatu ditzaten. 	<p>·Betetze-ehunekoa % 60 da. Lehenengo seihilekoa hauteskunde-garaia izan denez, ezin izan da erakunde arteko akordio berririk lortu; horregatik, bigarren seihilekora eraman da eginkizun hori.</p>
<p>-16. ekimena. Jarduketa-ildo osagarriak bultzatzea hezkuntza formalararen arloan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ·Aurreko seihilekoarekin lotutakoar ·Aurreko jarduketa-ildoak eguneratzea eta garatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Aurreikusitakoaren arabera egin da aurrera Bake eta Bizikidetzaz Planak hezkuntzaren arloan jasotzen dituen lau proiektuen kudeaketari dagokionez: Gizalegez Akordioa, Elkarrekin Bonu Programa, Adi-Adian Hezkuntza Modulua eta Bakegune Eskola. ·Martxoaren 25ean Gizalegez Akordioaren jarraipen-bilera egin zen, hezkuntzaren alorreko eragileekin. 	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa % 100 bete da.</p>
<p>-17. ekimena. Jarduketa-ildo bereziak sustatzea gazteriaren, kulturaren eta hezkuntza ez-formalaren arloetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> ·Aurreko seihilekoarekin lotutakoar ·Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin izenpetutako hitzarmenaren jarduketa-ildoak eguneratu eta garatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Lehenengo seihileko honetan, 2015erako Hitzarmena eguneratu da. ·Euskadiko Gazteriaren Kontseilua aurreikusitakoa betetz garatzen ari da hitzarmenaren edukia. 	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa % 100 bete da.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-VI-30ean
·18. ekimena. Gizartea sentiberatzea eta komunikabide publikoen konpromisoa lortzea	<ul style="list-style-type: none"> ·Aurreko sei hilekoarekin lotutakoa ·Abenduaren 10ean urtero ospatzen den Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta René Cassin sariaren inguruko lan-plangintzaren urteko diseinua. ·EiTBrekin adostutako lankidetzak-esparruko jarduketako il-doak eguneratu eta garatzea, 2014-16 aldirako. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Abenduaren 10ean urtero ospatzen den Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta René Cassin sariaren inguruko 2015eko lan-plangintza aurreikusitako da. ·EiTBk Memoriaren Plaza ekimenean parte hartu du, sustapen-bideoa helarazita. ·Lankidetzak-akordioak ezartzen duen bezala, azken 50 urteetako memoria kritikoa iruzko dokumental-serie bat garatzen ari da. 	·Seihileko honetarako aurreikusitakoa % 100 bete da.

·Planaren kudeaketarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-VI-30ean
·I. fitxa. Bake eta Bizikidetzaren Plana bultzatu, kudeatu eta koordinatzea	<ul style="list-style-type: none"> ·Aurreko sei hilekoarekin lotutakoak: -Aurreikusitako jarduketako il-doak eguneratu eta garatzea: ·Sailarteko Batzordea. ·Koordinazio Batzordea. ·Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Batzordea. ·Planaren kanpoko ebaluazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Sailarteko Batzordeak aurreikusitako lan-egutegia garatzen du. ·Legebiltzar-taldeek 2014ko uztailaren 3an egindako bileran adierazitakoaren arabera, koordinazio-batzorde bat sortu ordez, gobernuaren eta legebiltzar-taldearen arteko harreman-eredu bat eratuko da, formalki ezarrita ez dagoena. ·Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Batzordea osatuta dago, eta aurreikusitako lan-egutegia garatzen ari da. ·Seihileko honetan zehar, planaren lehenengo kanpoko ebaluazioa egiteko agindua eman da, planak bide erdia egin baitu jada. Aurreikusitako dagoenez, 2015eko irailean aurkeztuko da. 	·Seihileko honetarako aurreikusitakoa % 100 bete da. Programatutako neurriak aurreikusitako egutegiaren arabera bete dira.

Bigarren atala

Balorazioa: analisia, aurreikuspenak eta ondorioak

1. Planaren 201eko lehenengo seihilekoaren programa-betetzea analizatzea

Planaren jarraipenaren seihilekoetako txostenen tresnak alderdi kuantitatiboetan biltzen du arreta, eta, batez ere, egutegiko konpromisoen betetze-mailan. Planaren ebaluazio kualitatiboa modu espezifikoagoan lantzen da ebaluazio globalari buruzko kanpoko txostenetan. Ikuspegi horretatik, honako alderdi hauek dira aipatzekoak:

- A.** Bake eta Bizikidetzeta Plana Gobernu Kontseiluaren Akordio bidez onartu zen, 2013ko azaroaren 26an. 2014ko ahaleginik handiena aurreikusitako ekimenak martxan jartzea izan zen, planean bertan ezarritako lan-egutegia oinarritzat hartuta. Hala, bada, azpimarratu behar da 2014an, programako ekimen guztiak aktibatuta zeudela, gauzatze-maila ezberdinetan. 2015ean, plana bere ekimenak garatu eta sendotzeko fasean sartu da.
- B.** 2015eko ekainaren 30ean planaren lan-egutegiek duten betetzeari erreparatuz gero, hiru mailatan sailkatu daiteke balantzea. Hala, planaosatzen duten 18+I ekimenetatik, lehenengo mailan 13 ekimen daude, beren egutegi-konpromisoak % 100 bete dituztenak; bigarren mailan % 80ko betetze-maila duten lau ekimen daude eta hirugarrenean, % 60ko betetze-maila duten bi ekimen.
- C.** Aipatu beharra dago egutegiko konpromisoak % 100 bete dituzten ekimenak Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren ekintzaren mende zuzenean dauden ekimenak direla. Gauzatzean atzerapen-maila ezberdinak dituzten gainerako sei ekimenak beste erakunde batzuen elkarrekintzaren pean daude, alegia, Espainiako gobernuaren (5., 8. eta 10. ekimenak), Eusko Legebiltzarraren (6. ekimena), europar erakundearen (9. ekimena) zein foru-aldundien (15. ekimena) jarduketaren pean.
- D.** Bake eta Bizikidetzeta Planak bigarren urtea beteko du. Testuinguru dinamiko eta aldakorretan beti ezarri behar diren egutegi-doikuntzak gorabehera, seihilekoko jarraipen honetako alderdirik garrantzitsuenak da plana osatzen duten 18+I ekimenak abian daudela. Horietako bakar bat ere ez da ahuldu, ez da beharrezkoa izan bertan behera uztea edota ordeztekoa. Aitzitik, uneotan, jarduketa-ildo sendoak eta iraunkorrak dira.
- E.** Laburbilduz, 2015eko lehenengo seihilekoan, Bake eta Bizikidetzeta planak bere gauzatze-aurreikuspenak arrazoizko moduan bete ditu.

2. 2015eko bigarren seihiilekorako aurreikuspen nagusiak

2015eko bigarren seihiilekora begira, jarduketa-programa zehatz-mehatz definituta dago ekimen bakoitzak horien barruko ekintzetarako ezarritako egutegietan. Horri planaren kanpoko ebaluazio-prozesuaren emaitzak gehitu behar zaizkio. Seihiilekoko txosten hau egin eta onartu ostean emango dira ezagutzera. Jakina, gertatzen den legegintzaldirako planak izango duen kudeaketaren diseinuak ebaluazio-prozesu sakon honetatik lortutako ondorioak baloratuko ditu. Hala, doikuntzak edo ekarpen berriak egin ahalko dira planean, oraindik zehaztu gabe daudenak. Salbuespen hori eginda, jarraian aipatuko ditugunak mugarri nagusiak dira eta, horregatik, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak lehentasuna emango die horien kudeaketari. Lehentasunezko bost ardatz nagusi dauzkagu:

1. **Iragana argitzeko politikei** jarraitutasuna ematea, Zuzendu programaren bitartez txostenak, azterlanak eta ikerketak eginez, giza eskubideen inguruko autokritikaren pedagogia sustatzeko helburuarekin.
2. **Biktimen inguruko politika publikoak** garatzea, laguntza-esparruaren barruan zein biktimen eta gizartearen arteko batasuna bultzatzea xede duten programa berriak sustatzearen bitartez, bat etorritik ekainaren 5eko "Terrorismoaren Biktimak eta Gizartea" jardunaldiarekin. Alor horretan, aurtengo udazkenean giza eskubideen urraketen ondoriozko biktimak aitortzeko legea adostu eta onartzeko proposamena aurkeztuko da Eusko Legebiltzarrean. Zirriborro horren helburua legebiltzarreko taldeekin adostasun ahal adina handia lortzea izango da.
3. **Memoriaren inguruko politika publikoetan** sakontzea, 2015eko bigarren seihiilekoan. Funtsean, horrek eskatuko du Gogora –Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua– martxan jartzea eta bere inaugurazio ofiziala prestatzea azaroaren 10erako. Alor horretan, halaber, Memoria Historikoaren inguruko Lehentasunen Oinarri Programa garatzen jarraituko da, 12 jarduketa-ildo barne hartzen dituena.
4. **Espetxeen eta birgizarteratzearen arloko politika publikoa** bultzatzen jarraitzea. Zailtasunak zailtasun, hurrengo hilabeteotan Hitzeman programaren esperientzia pilotua aurrera eramango da. Helburua da 2016ko ekainerako birgizarteratze-eredu bideragarria eta legala osatuta izatea eta, gainera, dokumentu horrek elkarrizketa bultzatzeko eta akordioak lortzeko balio izatea.
5. Europarekin eta nazioarteko erakundeekin lankidetzako eta **bizikidetzako gizarte-politikak** garatzen jarraitzea, Bake eta Bizikidetzaren Planean zehaztutako jarduketa-ardatzak bultzatuta, hurrengo arlo hauetan: herritarren parte-hartzea, lankidetzaren publiko-soziala, Bake Programa, hezkuntza, gazteria, komunikabideak eta bizikidetzarako tokiko politikak.

3. Ondorioak

A. Positibotzat jo da Bake eta Bizikidetzaren Planeko 18+I ekimenen programa-betetzearen balantzea. 2014an ekimen guztiak martxan jarri ziren, eta 2015eko lehenengo seihilekoan, guztiak sendotu dira.

B. 2015eko bigarren seihilekoan, Bake eta Bizikidetzaren Planaren garapenak hiru erreferentzia hauek izan behar ditu oinarri:

-Planak berak biltzen dituen aurreikuspenak eta konpromisoak betetzen jarraitzea; izan ere, planaren indargune nagusia gizarteak haren jarduketara-ildo nagusiekin duen bat-etortze handia da (halaxe baieztatu dute, behin baino gehiagotan, askotariko ikerketa soziologikoen emaitzek: Deustuko Unibertsitateko Deustu Barometroak, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskobarometroak, edota Eusko Jaurlaritzako Soziometroak).

-Planaren lan-gidoia era malgu eta harkorrean kudeatzea, irailean ezagutzera emango diren kanpoko ebaluazio-prozesutik lortutako ondorioak, iradokizunak eta gomendioak txertatzeko moduan.

-Estatu-mailan hasi berri den legegintzaldiaren barruan, bakerako eta bizikidetzarako bereziki estrategikoak diren alorretan adostasun ahal handia lortzeko aldeko baldintzen sorreran arreta biltzea.

C. Horregatik guztiagatik, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak dokumentu bat aurkeztuko du aurtengo udazkenean, Bake eta Bizikidetzaren Planean txertatzeko helburuarekin egokitutako jo eta iradoki diren doikuntzak, X. legegintzaldiko azken urteari aurre egiteko ere balioko dutenak.

2015eko uztailaren 16a

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

2015eko bigarren sei hilekoari dagokion jarraipen-txostena

I. Txostenaren justifikazioa eta xedea

Gobernu Kontseiluaren 2013ko azaroaren 26ko Akordioak, Bake eta Bizikidetzaren Plana onartu zuenak, azken horren indarraldian egin beharreko jarraipen- eta ebaluazio-sistema arautu zuen; zehazki:

“Laugarrena.- “Bake eta Bizikidetzaren Plana 2013-2016 – Gizarte-topaketa helburu” izeneko planaren jarraipena eta ebaluazioa Gobernu Kontseiluaren 2013ko ekainaren 11ko Akordioan eta Planean bertan ezarritakoaren arabera gauzatuko dira. Azken horrek berezitasun hauek jasotzen ditu:

·Planean bertan sortutako Sailarteko Batzordeak egingo du etengabeko jarraipena, sei hilabetean behin.”

Era berean, Planak bere Zeharkako Ardatzean aipatzen ditu horren kudeaketarekin zein jarraipen- eta ebaluazio-sistemarekin lotutako ekimenak. Besteak beste, Sailarteko Batzordeari esleitzen dio sei hilabetean behin Planaren etengabeko jarraipena egiteko ardura.

Beraz, 2014ko abenduaren 18an sortutako organo horri dagokio jarraipen-txosten hau onartzea planeko ekimenei dagokienez eta, zehazki, sei hileko honi bereziki lotuta dagoen gauzatze-konpromisoa duten horiei dagokienez. Horren ondorioz, laugarren jarraipen-txosten honek egiten du 2015eko bigarren sei hilekoan Bake eta Bizikidetzaren Planak izandako kudeaketari eta gauzatzeari buruzko balantzea.

Jarraipen eta ebaluazio atal horretan bertan, Planak berak esaten du Bake eta Bizikidetzaren Planaren garapenari buruzko kanpo-ebaluazio osoa egiteko mekanismoa ezarriko dela –bat garapenaren erdian, eta beste bat legegintzaldiaren amaieran–, eta ebaluazio horretako emaitzak baliatuko direla Planaren lan-programa eguneratzeko.

Sei hileko honen barruan, irailaren 9an aurkeztu eta eman zitzaion lehendakariari Bake eta Bizikidetzaren Planaren tarteko ebaluazioari buruzko txostena. Txostena Roberto Toscano, Covadonga Morales, Jesús Núñez eta Francisco Rey adituek egin dute. Handik hilabetera, Bake eta Bizikidetzaren Planaren garapenari buruzko legegintzaldiaren amaierako txostena jaso du Gobernu Kontseiluak. Dokumentu hark Planaren programa eguneratu zuen, kanpo-ebaluazioak emandako iradokizun eta gomendioak aintzakotzat hartuta. Hori dela eta, adierazitako bi txosten horietatik eratorri diren aurreikuspen berrien jarraipena txertatzen da sei hileko txosten honetan.

Dokumentuaren lehenengo atalean, aurrekoetan bezala, ageri den koadroak Planaren jarraipenaren balantzea laburbiltzen du, lau zutabetan. Lehenengo zutabean Plana osatzen duten 18+1 ekimenei izenburuak jaso dira; bigarren, sei hileko honetarako aurreikusitako ekintzak, eta, azkenik, hirugarrenak ekimen horietako bakoitzaren garapena deskribatzen du. Azken zutabeak 2015eko abenduaren 31n ekintzok erdietsi duten betetze-ehunekoa jasotzen du, eta, beharrezkoa den kasuetan, gauzatze-egutegian egindako doikuntzak zehazten eta arrazoitzen ditu. Jarduketan jarraipenaren balorazio proportzional hori planaren gauzatze potentzialari lotuta dauden 5 mailatan sailkatzen da: 2015eko abenduaren amaieran, aurreikuspenak % 20, % 40, % 60, % 80 edo % 100 bete dira.

Dokumentuaren bigarren atalak balorazio-izaera duten alderdiak barne hartzen ditu, hiru ataletan egituratuta: analisia, aurreikuspenak eta ondorioak. Era horretan, hurrengo sei hilekorako lehentasunak eta jarduketak ardatz nagusiak aurrezartzen dira.

Lehenengo atala

2015eko bigarren seihilekoan Bake eta Bizikidetzaren Planak izan duen gauzatze-mailaren jarraipen-koadroa

1. Iraganarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-XII-31n
<p>·1. ekimena. Giza eskubideen urraketei eta horien ondoriozko ekintzei buruzko txostenak egitea</p>	<p>·Aurreko seihilekoekin lotutakoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Hasierako txostenaren eduki eta gomendioen ondoriozko ikerketak eta ekintzak aztertu eta horien plangintza egitea. -Memoria historikoaren arloan, lehenengo oinarri-programa kudeatzea. -Zuzendu programaren lehenengo ekitaldia, iraganean gertatu diren giza-eskubideen urratzeen gaineko autokritikaren pedagogia sustatzera bideratua. -Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketa jasotzea eta aurkeztea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Seihileko honetan, bi azterlan egin dira: bata, orokorra, mehatxuen errealitate eta eraginari buruzkoa, eta bestea, espezifikoa, mehatxuok Ertzaintzan duten eraginaren ingurukoa. ·Materia historikoaren arloko Programa garatzen ari da, bere 12 lan-proiektuen egutegiaren arabera. ·Urriaren 30ean eta 31n egin ziren lehenengo "Zuzendu Jardunaldiak". ·Abendu amaieran jaso dugu txostena. 2016ko urtarril-otsailean argitaratzea espero dugu. 	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>·2. ekimena. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua.</p>	<p>·Aurreko seihilekoekin lotutakoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua inauguratzea eta abian jartzea. 	<p>·2015eko azaroaren 7an, memoriari buruzko politika publikoen gaineko jardunaldi bat egin zen. Azaroaren 10ean, Gogora Institutua aurkeztu zen jendaurrean; eta gaur egun normaltasunez dihardu.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>·3. ekimena. Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroari ekarpena egitea</p>	<p>·Espainiako gobernuari dagokio proiektu hori zuzentzea eta dinamizatzea.</p>	<p>·Eusko Jurlaritzak Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroaren Fundazioko hiru ordezkariak izendatu ditu eta hauek azaroaren 27an egindako bilera eratzailan hartu dute parte.</p>	<p>Eusko Jurlaritzari dagokion atalean, aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-XII-31n
<p>-4. ekimena. Terrorismoaren biktimei laguntzea, eta aitortzea eta ordainak ematea.</p>	<p>I. Jarraitutasun-jarduketak.</p> <ul style="list-style-type: none"> ·Laguntza-ekintzako ildoari eustea. ·Gizarte-erakundeekiko lankidetzako ildoari eustea. ·Ikerketak eta ikasketak sustatzeko ildoei eustea. ·Parte-hartzea sustatzeko ildoak. <p>II. Jarduketa berriak</p> <ul style="list-style-type: none"> ·"Bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan udal argazkiak, herriz herri" izeneko proiektua aurkeztea. ·Eraikiz programa sustatzea eta hari ekitea. ·Batera konpromisoa onartzea. ·Testigantzak grabatzeko Gertu programa garatzen jarraitzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Biktimei laguntzeko zerbitzua eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programa mantendu dira. ·Biktimen elkarteei zuzendutako diru-laguntzen ildoak mantendu egin da, bai eta Víctimas del Terrorismo Fundazioarekin eta Fernando Buesa Fundazioarekin egindako laguntza izendunak ere. ·Urteko ikerketak eta graduondoko ikasketak egiteko EHUrekin (KREI) sinatutako hitzarmenari jarraitutasuna eman zaio. ·Seihileko honetan, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak bilera bat egin du, eta bertan Kontseilua sortzeko dekretua aldatzeko proposamena aztertu da. ·Irailaren 4an, "Bizitzeko eskubidearen aurkako urraketan udal argazkiak, herriz herri" proiektua aurkeztu zen ekitaldi batean, alkateak bertan zirela. ·Irailaren 11n, askotariko biktimaz osatutako talde batek Eraikiz agiria aurkeztu zuen. ·Irailaren 22an, Batera konpromisoa onartu zuen Gobernu Kontseiluak. Batera konpromisoak etapa berri bat ekarri nahi du biktimen inguruko politketara, etorkizunera begiratuta eta biktimen eta herritarren batasuna bultzatuta, denak elkarrekin hobeto bizi gaitzen. ·Gertu programaren bigarren fasearekin jarraitu da, Euskadin bizi diren hildakoen familien testigantzak grabatzeko helburuarekin. 	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-XII-31n
-5. ekimena. Egungo lege-dian babesik ez duten biktimei laguntzea eta aitortpena eta ordainak ematea.	<p>·Aurreko seihilekoarekin lotutakoak:</p> <p>·Lehenengo dekretuan jatorria duen prozesuaren kudeaketa amaitzea.</p> <p>·Bigarren tresna bat prestatzea, 1978tik aurrera lehen-dabiziko dekretuari jarraipena emateko.</p>	<p>·107/2012 Dekretua, 1960tik 1978ra bitartean, giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasatzen zituzten biktimei aitortzeko eta biktime horiei ordainak emateko, kudeatzen jarraitu da. Aurreikuspenekin bat, 2015eko bigarren seihilekoan amaituko da kudeaketa.</p> <p>·Estatuko abokatutzak dekretuaren aurka aurkeztutako errekurtsioa dela eta, atzerapenak izan ziren haren kudeaketan eta aurreikusitako bigarren tresnaren garapenean.</p> <p>·Eusko Jaurlaritzak 1978. eta 1999. urteen artean legez kanpoko kontraterro-rismoek eragindako giza eskubideen urraketen ondoriozko biktimei aitortpena eta ordainak emateko legea onartzeko proposamena aurkeztu du egiteko.</p>	<p>·Aipatu errekurtsioak eragindako atzerapenak direla eta, ekimenari lotuta seihileko honetarako aurreikusitakoaren %80 bete da.</p> <p>·Legearen aurkezpena dela eta, seihileko honetarako aurreikusitakoaren %100 bete da.</p>
-6. ekimena. Torturari buruzko ikerketa eta ekintza	·Torturari buruzko ikerketa eta ekintzarako jarduketaren programa garatzea.	·2015ko bigarren seihilekoan, Kriminologiaren Euskal Institutua aurrera eramaten ari den 1960tik 2010era bitartean izandako Torturen Ikerketa Proiektuak aurreikusitako faseak gauzatu ditu.	·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren %100 bete da.

2. Orainarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-XII-31n
-7. ekimena. Eusko Legebiltzarrarekin lankidetzan aritzea eta batera lan egitea	<p>·Lankidetzan aktiboan jardutea legebiltzarrarekin bizikidetzarako estrategikoak diren Jaurlaritzaren proiektu guztietan.</p> <p>·Adostutako jardueren-lerroen eguneratze- eta garapen-txostena aurkeztea.</p>	<p>·Orain arte, Bake eta Bizikidetzarako Batzorde Txostengileak ezin izan ditu bere lanak aurrera eraman, legebiltzar-taldeek ez baitute akordiorik lortu. Hala ere, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak irekita ditu Eusko Legebiltzarrarekiko komunikazio- eta lankidetzan-ildo guztiak, baita legebiltzar-taldeekikoak ere.</p> <p>·2015eko lehenengo seihilekoan, herritarren parte-hartzearen inguruko bi erakundeon arteko lankidetzan-esparruaren eguneratzea adostu zen, eta Irekiaren eta Eusko Legebiltzarraren arteko lankidetzan-hitzarmenaren barruan jaso da.</p>	·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren %80 bete da; izan ere, Bake eta Bizikidetzarako Batzorde Txostengileak bertan behera gelditu denez, ezin izan da lankidetzan-lan handiagorik aurrera eraman.

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-XII-31n
<p>·8. ekimena. Espetxe-politikan Hitzeman Programa garatzea</p>	<p>·Espainiako gobernuarekin elkarri- rrizketatzea eta akordioak bilatzea.</p> <p>·Aurreko seihilekoarekin lotutakoak:</p> <p>·2015eko ekainetik 2016ko ekainera Hitzeman Programaren inguruan fase pilotua garatuko da birgizarteratze-eredu bat definitze aldera.</p>	<p>·Eusko Jaurjaritza eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia Espainiako gobernuarekin harremanetan egon badira ere, ezin izan da arlo horren inguruko akordioak lortu.</p> <p>·Birgizarteratze-eredu bat zehaztera bideratutako Fase pilotua aurreikuspenen arabera ari da garatzen. Bere aurkezpena ekainerako aurrekusten da "Justizia leheneratzailea eta terapeutikoa: justizia eredu berritzaileak bilatzen" Europar Kongresuan, hain zuzen ere.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %80 bete da. Hauteskunde-egutegia zela eta, esperientzia pilotuaren hasiera hilabete batzuk atzeratzea gomendatu zen.</p>
<p>·9. ekimena. Europar Batasunarekiko lankidetzazko biltzarra</p>	<p>·Aurreko seihilekoarekin lotutakoak:</p> <p>·Lankidetzazko espazioak egituratzea.</p> <p>·Ezarririk jarraitzea jarduketazko jarduerak eguneratu eta garatzea.</p>	<p>·2015. urtean zehar, SEUPBarekin (EBko programa bereziak kudeatzeko ardura duen erakundearekin) lankidetzazko programa bat aurkeztu eta koordinatu da, hiru esparru hauetan: gazteria, hezkuntza eta biktimak. Proiektuak abian jartzeko, IV. Bake Programa onartu behar dute europar erakundeek; aurreikuspenen arabera, 2016ko hasierarako egingo dute.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren %80 bete da, europar erakundeek egin beharreko IV. Bake Programaren onarpena atzeratu baita.</p>
<p>·10. ekimena. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin lankidetzazko aritza.</p>	<p>·2015eko memoranduma sinatzea eta 2014ko balorazio-txostena jasotzea.</p>	<p>·2015ean, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin harremanak kudeatu da behar bezala gauzatu den diru-laguntza izendun baten bidez. Bulegoarekin harremanak mantendu dugu eta irailan bidai bat egin genuen Genevara non etorkizunera begira harremanak estutu egin diren.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>·11. ekimena. Euskal unibertsitateen ekarpen partekatua</p>	<p>·Desarrollo del proyecto de contribución compartida establecido para 2015.</p>	<p>·Bigarren seihilekoan, hiru unibertsitateek 2015erako aurreikusitako proiektuan lan egin dute. Proiektuaren ardatza izan da bakerako hezkuntza-tresnak prestatzea unibertsitatearen arloan. 2016 hasieran aurkeztuko da.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>·12. ekimena. ERTZAINTZAREN Konpromiso Sozialaren Jarraipenaren Programa aktibatzea, edukiak eta jarraipen- eta ebaluazio-tresnak ezarrita.</p>	<p>·ERTZAINTZAREN Konpromiso Sozialaren Jarraipenaren Programa aktibatzea, edukiak eta jarraipen- eta ebaluazio-tresnak ezarrita.</p>	<p>·ERTZAINTZAREN Konpromiso Sozialaren Jarraipenaren Programa mantendu da polizia-erakunde beretik zein Arkauteko Akademiatik; prestakuntza emango dutenen prestakuntzarako, polizia-agenteen prestakuntza etengabeko eta polizia-promozio berrien prestakuntzarako ekimenak.</p> <p>·Barne hedapen- eta sentsibilizazio-lanak Pare Pare jardunaldien bidez aurrera eramanez.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

3. Etorkizunarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-XII-31n
·13. ekimena. Lankidetzako publiko-soziala euskal elkarten sarearekin	·Aurreko seihilekoarekin lotutakoa ·Elkarrekin Bonu Programa eguneratu eta garatzea.	·2015ean Elkarrekin Bonu Programa mantendu da, hiru alor hauetan euskal elkarten sareko hainbat erakunderen arteko lankidetzako espazioak sustatzen dituenak: hezkuntza, herritarren parte-hartzea eta tokiko bizikidetzako. Programaren eguneraketa 2015erako deialdiaren aginduetan jasota dago. ·Bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen alde lan egiten duten elkarrekin diru-laguntzen urteko deialdiari eutsi zaio.	·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.
·14. ekimena. Herritarren parte-hartzea sustatzea	·Aurreko seihilekoarekin lotutakoa ·Hitzartutako jarduketako ildoak eguneratu eta garatzea.	·Parte-hartze politikak hiru ardatz aktiboren bidez aurrera eramaten dira: ·Lankidetzako publiko-soziala, Elkarrekin Bonu Programaren bidez. ·Eusko Jaurlaritzak dituen parte-hartze tresnak. ·Udalekin eta Foru Aldundiekin akordioak lortzea, parte-hartzea bultzatzeko. ·Horretaz aparte, seihileko honetan Memoriaren Plaza herritarrek parte-hartzeko programarekin jarraitu da, eta Lokarri eskatutako herritarren parte-hartzeari buruzko azterlanak jasotakoak, bere esperientziaren ondarea eta nazioarteko beste esperientzia batzuk biltzen dituenak.	·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.
·15. ekimena. Adostasuna bizikidetzaren alde foru-aldundiekin eta udalekin	·Aurreko seihilekoarekin lotutakoa ·Erakunde arteko akordioak abian jartzea. ·Hitzartutako jarduketako ildoak eguneratu eta garatzea. ·Bake, bizikidetzako eta memoriarako politika publikoak koordinatzeko eta bultzatzeko topaketa bat egitea Foru Aldundiekin.	·2015ean, Bizkaiko Foru Aldundiarekin adostasuna lortu ostean, Elkarrekin Programa abiarazi genuen. ·Udalei zuzendutako diru-laguntzen deialdiari eutsi zaio, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko ekimenak garatu ditzaten. ·Aurreikuspen hau 2016ko lehenengo seihilekora eraman da.	·Betetze-ehunekoak %60 da hauteskunde orokorren kanpainaren eraginez.

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-XII-31n
<p>-16. ekimena. Jarduketa-ildo osagarriak bultzatzea hezkuntza formalaren arloan.</p>	<p>·Aurreko seihilekoarekin lotutakoa ·Aurreko jarduketa-ildoak eguneratzea eta garatzea.</p>	<p>·Aurreikusitakoaren arabera egin da aurrera Bake eta Bizikidetzaren Planak hezkuntzaren arloan jasotzen dituen lau proiektuen kudeaketari dagokionez: Gizalegez Akordioa, Elkarrekin Programa, Adi-Adian Hezkuntza Modulua eta Bakegune Eskola.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>-17. ekimena. Jarduketa-ildo bereziak sustatzea gazteriaren, kulturaren eta hezkuntza ez-formalaren arloetan</p>	<p>·Aurreko seihilekoarekin lotutakoa ·Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin izenpetutako hitzarmenaren jarduketa-ildoak eguneratu eta garatzea.</p>	<p>·Euskadiko Gazteriaren Kontseilua aurreikusitakoa betetz garatzen ari da hitzarmenaren edukia. ·En la semana del del 26 al 29 de octubre se ha celebrado el Zinexit.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>-18. ekimena. Gizartea sentiberatzea eta komunikabide publikoen konpromisoa lortzea</p>	<p>·Aurreko seihilekoarekin lotutakoa ·Abenduaren 10ean urtero ospatzen den Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta René Cassin sariaren inguruko lan-plangintzaren urteko diseinua. ·EiTBrekin adostutako lankidetzaren esparruko jarduketa-ildoak eguneratu eta garatzea, 2014-16 aldirako.</p>	<p>·Abenduaren 10ean urtero ospatzen den Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta René Cassin sariaren inguruko 2015eko lan-plangintza garatu da. ·Lankidetzaren akordioak ezartzen duen bezala, azken 50 urteetako memoria kritikoari buruzko dokumental-serie bat garatzen ari da eta 2016ko lehen seihilekorako amaitua edukitzea aurreikusitakoa da.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

·Planaren kudeaketarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-XII-31n
·I. fitxa. Bake eta Bizikidetzaren Plana bultzatu, kudeatu eta koordinatzea	<ul style="list-style-type: none"> ·Aurreko seihilekoarekin lotutakoak: -Aurreikusitako jarduketa-ildoak eguneratu eta garatzea: ·Sailarteko Batzordea. ·Koordinazio Batzordea. ·Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Batzordea. ·Planaren kanpoko ebaluazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Sailarteko Batzordeak aurreikusitako lan-egutegia garatzen du. ·Legebiltzar-taldeek 2014ko uztailaren 3an egindako bileran adierazitakoaren arabera, koordinazio-batzorde bat sortu ordez, gobernuaren eta legebiltzar-taldearen arteko harreman-eredu bat eratuko da, formalki ezarrita ez dagoena. ·Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Batzordea osatuta dago, eta aurreikusitako lan-egutegia garatzen ari da. ·Seihileko honetan zehar, planaren lehenengo kanpoko ebaluazioa jaso da, planak bide erdia eginda. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Seihileko honetarako aurreikusitakoa % 100 bete da. Programatutako neurriak aurreikusitako egutegiaren arabera bete dira.

Bigarren atala

Balorazioa: analisia, aurreikuspenak eta ondorioak

1. Planaren programa-betetzea analizatzea 2015eko bigarren seihilekoan

Planaren jarraipenaren seihilekoetako txostenen tresnak alderdi kuantitatiboetan biltzen du arreta, eta, batez ere, egutegiko konpromisoen betetze-mailan. Planaren ebaluazio kualitatiboa modu espezifikoagoan lantzen da ebaluazio globalari buruzko kanpoko txostenetan. Zehaztapen hau egin ondoren, honako alderdi hauek dira aipatzekoak:

- A.** Bake eta Bizikidetzeta Plana Gobernu Kontseiluaren Akordio bidez onartu zen, 2013ko azaroaren 26an. 2014ko ahaleginik handiena aurreikusitako ekimenak martxan jartzea izan zen, planean bertan ezarritako lan-egutegia oinarritzat hartuta. Hala, bada, azpimarratu behar da 2014an, programako ekimen guztiak aktibatuta zeudela, gauzatze-maila ezberdinetan. 2015eko lehen seihilekoan, plana bere ekimenak garatu eta sendotzeko fasean sartu zen. 2015eko bigarren seihilekoan eta 2016ra begira, Plana bere ekimenak burutzeko fasean sartzen da.
- B.** 2015eko abenduaren 31n planaren lan-egutegiek duten betetzeari erreparatu gero, aurreko txostenak erakutsi zuen antzeko maila adierazten du, hiru mailatan sailkatu daitekeena. Plana osatzen duten 18+1 ekimenetatik, lehenengo mailan 14 ekimen daude, beren egutegi-konpromisoak %100 bete dituztenak; bigarren mailan %80ko betetze-maila duten lau ekimen daude eta hirugarrenean, %60ko betetze-maila duen ekimen bat.
- C.** Aipatu beharra dago egutegiko konpromisoak %100 bete dituzten ekimenak Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren ekintzaren mende zuzenean dauden ekimenak direla. Gauzatzean atzerapen-maila ezberdinak dituzten gainerako bost ekimenak beste erakunde batzuen elkarrekin-tzaren pean daude.
- D.** 2015eko bigarren seihilekoan, Bake eta Bizikidetzeta planak bere gauzatze-aurreikuspenak arrazoizko moduan bete ditu. Orain, hirugarren urteari ekingo dio. Kanpo-ebaluazioari esker, aurreikuspen batzuk doitu dira eta txosten bat landu da Plana legegintzaldiaren amaiera arte kudeatzeko. Gauden testuinguruan, azpimarragarriena da une honetan esan daitekeela legegintzaldiaren amaierarako maila handi batean beteko direla hasieran planteatu ziren ekimen eta proiektuak.

2. 2016ko lehenengo seihilekorako aurreikuspen nagusiak

2016ko lehenengo seihilekoari begira, jarduketa-programa zehatz-mehatz definituta dago Bake eta Bizikidetzaren Planaren garapenari buruzko legegintzaldiaren amaierako txostenean, zeinean aintzakotzat hartu diren Planaren kanpo-ebaluazioak azaldu dituen ondorioak. Txosten horrek zazpi lehentasun ditu, eta indarkeriari amaiera modu antolatuan emateko zeharkako konpromiso bat eta bizikidetzari buruzko printzipio berritzaile bat. Laburbilduta, honako hauek:

Indarkeriaren amaiera ordenatua lortzeko hiru lehentasun

Indarkeriaren amaiera ordenatua bultzatzera bideratzen diren lehentasunak dira.

- **Desarmaea.** Desarme egiaztagarria, baldintzarik gabea, itzulezina eta behin betikoa bultzatzea ETA-ren aldetik, bere desagertzea ziurtatu dezan.
- **Espetxe-politika.** Lege eta giza printzipioetan oinarrituz, normaltasun penala eta espetxe-normaltasuna lortzea, birgizarteratzera eta bizikidetzara bideratua.
- **Autokritika.** Giza eskubideen urraketari buruzko hausnarketa autokritikoa proposatu eta sustatzea iraganaren kudeaketa politikorako eredu eraikitzaile gisa.

Bizikidetzaren berriz abiarazteko lau lehentasuna

Bizikidetzaren berritzeko prozesua bultzatzeko helburuan kokatzen diren lehentasunak dira.

- **Argitzea.** Jasandako indarkeriari eta terrorismoari buruzko egiazta argitze-prozesuei, -ikerketei eta -azterlanei dagokienez gehiago sakontzea.
- **Biktimak.** Biktimen politikak etorkizunerako politika –ez iraganeko politika gisa bakarrik– eta biktimen eta gizartearen arteko bizikidetzarako politika gisa osatzea.
- **Memoria.** Indarkeriari uko egiten dioten eta giza eskubideen konpromisoan eta bizikidetzaren helburuan oinarritzen diren oroimen-politikak garatzea.
- **Bizikidetzaren kultura.** Bizikidetzaren kultura sustatzera bideraturiko ekimenak artikulatzea, hezkuntzaren, partaidetzaren eta konpromiso etikoaren bitartez.

Zeharkako konpromiso bat

Zazpi lehentasun horiek garatu eta azken fasean Bake eta Bizikidetzarako Plana elkarrekin kudeatzeko, Eusko Jaurlaritzak zeharkako konpromisoa berretsi du.

- **Adostasuna eta/edo ekimena.** Momentu eta jarduketa guztietan adostasuna bilatzea lehen aukera gisa eta, hura lortzen ez bada, aurrea hartu eta arriskuak hartzea, betiere desblokeoa sustatzeko helburuarekin.

3. Ondorioak

A. Positibotzat jo da Bake eta Bizikidetzaren Planeko 18+l ekimeneren programa-betetzearen balantzea. 2013an, 2014an eta 2015ean abian jarritako eta garatutako ekimen guztiak 2016an amaitzeko pentsatuta daude.

B. 2016ko lehenengo sei hilabeterako, Bake eta Bizikidetzaren Planaren garapenak legegintzaldiaren amaierako txostenean jasotako lehentasunak izango ditu oinarri (txosten hori aurreko atalean azaldu dugu).

C. "Gizarte elkartzeko" sustatzea da Bake eta Bizikidetzaren Planean esplizituki jasotzen den misioa. Horrek esan nahi du ezen, plan honen bitartez, Eusko Jaurlaritzak plaza publiko bat eraikitzeko lanean lagundu nahi duela, herri honetako familia politiko guztiek partekatze moduko plaza, alegia. Legegintzaldia amaitzeko geratzen den denboran, horrexek jarraituko du izaten Planaren misioa.

D. Bake eta Bizikidetzaren Planaren garapenari buruzko legegintzaldiaren amaierako txosteneko diagnosiak eta kanpo-ebaluazioaren ondorioek erakusten dute plan honen hiru urteotako kudeaketa erreferentzia bat izan dela eta eraginkorra izan dela. Legegintzaldiaren azken fase honetan, Planaren eginkizun nagusia haxe izango da: gizartearentzat erreferentzia etiko eraikitzailea izaten jarraitzea, eta eragiteko elementu erabilgarri eta positiboa izatea, blokeo-egoerei aurre egiteko eta normalizazioan aurrera egiteko.

E. Eusko Jaurlaritzak uste osoa du euskal gizarteak trantsizio garbi eta atzerapenik gabekoa eskatzen duela. Nahi du zaharra betiko hil dadin, eta berria behingoz jaio dadin. Alde horretatik, Bake eta Bizikidetzaren Planaren kudeaketaren xede nagusia, azken etapa honetan, indarkeriari amaiera modu antolatuan emateko lanean eta bizikidetzaren hasiera berritzaile batean ahalegina egitea da.

F. Legegintzaldiaren amaieran, Bake eta Bizikidetzaren Planaren kudeaketa kanpotik ebaluatzeko beste prozesu bat egingo da. Kudeaketaren balantzea, egoeraren diagnostikoa eta ebaluazio horren emaitzak baliatuko dira, datorren legegintzaldiari begira bakegintza eta bizikidetzaren politikak planifikatzeko tresna berri bat lantzeko oinarriak ipintzeko.

2016ko urtarrilaren 29a

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

2016ko lehen seihilekoari dagokion jarraipen-txostena

I. Txostenaren justifikazioa eta xedea

Gobernu Kontseiluaren 2013ko azaroaren 26ko Akordioak, Bake eta Bizikidetzeta Plana onartu zuenak, azken horren indarraldian egin beharreko jarraipen- eta ebaluazio-sistema arautu zuen; zehazki:

“Laugarrena.- “Bake eta Bizikidetzeta Plana 2013-2016 – Gizarte-topaketa helburu” izeneko planaren jarraipena eta ebaluazioa Gobernu Kontseiluaren 2013ko ekainaren 11ko Akordioan eta Planean bertan ezarritakoaren arabera gauzatuko dira. Azken horrek berezitasun hauek jasotzen ditu:

·Planean bertan sortutako Sailarteko Batzordeak egingo du etengabeko jarraipena, sei hilabetean behin.”

Era berean, Planak bere Zeharkako Ardatzean aipatzen ditu horren kudeaketarekin zein jarraipen- eta ebaluazio-sistemarekin lotutako ekimenak. Besteak beste, Sailarteko Batzordeari esleitzen dio sei hilabetean behin Planaren etengabeko jarraipena egiteko ardura.

Beraz, 2014ko abenduaren 18an sortutako organo horri dagokio jarraipen-txosten hau onartzea planeko ekimenei dagokienez eta, zehazki, seihileko honi bereziki lotuta dagoen gauzatze-konpromisoa duten horiei dagokienez. Horren ondorioz, bosgarren jarraipen-txosten honek egiten du 2016ko lehen seihilekoan Bake eta Bizikidetzeta Planak izandako kudeaketari eta gauzatzeari buruzko balantzea.

Jarraipen eta ebaluazio atal horretan bertan, Planak berak esaten du Bake eta Bizikidetzeta Planaren garapenari buruzko kanpo-ebaluazio osoa egiteko mekanismoa ezarriko dela –bat garapenaren erdian, eta beste bat legegintzaldiaren amaieran–, eta ebaluazio horretako emaitzak baliatuko direla Planaren lan-programa eguneratzeko.

Aurreko seihilekoaren barruan, 2015eko irailaren 9an aurkeztu eta eman zitzaion lehendakariari Bake eta Bizikidetzeta Planaren tarteko ebaluazioari buruzko txostena. Txostena Roberto Toscano, Covadonga Morales, Jesús Núñez eta Francisco Rey adituek egin dute. Handik hilabetera, Bake eta Bizikidetzeta Planaren garapenari buruzko legegintzaldiaren amaierako txostena jaso du Gobernu Kontseiluak. Dokumentu hark Planaren programa eguneratu zuen, kanpo-ebaluazioak emandako iradokizun eta gomendioak aintzakotzat hartuta. Hori dela eta, adierazitako bi txosten horietatik eratorri diren aurreikuspen berrien jarraipena txertatzen da seihileko txosten honetan.

Dokumentuaren lehenengo atalean, aurrekoetan bezala, ageri den koadroak Planaren jarraipenaren balantzea laburbiltzen du, lau zutabetan. Lehenengo zutabeak Plana osatzen duten 18+I ekimenei izenburuak jaso dira; bigarren, seihileko honetarako aurreikusitako ekintzak, eta, azkenik, hirugarren, ekimen horietako bakoitzaren garapena deskribatzen du. Azken zutabeak 2016ko ekainaren 30ean ekintzok erdietsi duten betetze-ehunekoa jasotzen ditu, eta, beharrezkoa den kasuetan, gauzatze-egutegian egindako doikuntzak zehazten eta arrazoitzen ditu. Jarduketan jarraipenaren balorazio proportzional hori planaren gauzatze potentzialari lotuta dauden 5 mailatan sailkatzen da: 2016ko ekainaren amaieran, aurreikuspenak % 20, % 40, % 60, % 80 edo % 100 bete dira.

Dokumentuaren bigarren atalak balorazio-izaera duten alderdiak barne hartzen ditu, hiru ataletan egituratuta: analisia, aurreikuspenak eta ondorioak. Era horretan, hurrengo seihilekorako lehentasunak eta jarduketara-ardatz nagusiak aurrezartzen dira.

Lehenengo atala

2016ko lehenengo seihilekoan Bake eta Bizikidetzaren Planak izan duen gauzatze-mailaren jarraipen-koadroa

1. Iraganarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-XII-31n
-1. ekimena. Giza eskubideen urraketei eta horien ondoriozko ekintzei buruzko txostenak egitea.	<p>·Aurreko seihilekoekin lotutakoak:</p> <p>-Hasierako txostenaren eduki eta gomendioen ondoriozko ikerketak eta ekintzak aztertu eta horien plangintza egitea.</p> <p>-Memoria historikoaren arloan, lehenetako oinarri-programa kudeatzea.</p> <p>-Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko ikerketa jasotzea eta aurkeztea.</p>	<p>·Seihileko honetan, bi azterlan aurkeztu dira: bata, orokorra, mehatxuen errealitate eta eraginari buruzkoa, eta bestea, espezifikoak, mehatxuok Ertzaintzan izan duten eraginaren ingurukoa.</p> <p>·Materia historikoaren arloko Programa garatzen ari da, bere egutegiaren arabera.</p> <p>·Maiatzaren 14ean frankismoaren biktimak aitortzeko ekitaldia egin zen Donostia 2016 esparruan kokatua.</p> <p>·Ekainean EHUrekin hitzarmen bat sinatu da 1936-1978 urteen arteko giza eskubideen urraketei buruzko txostena egiteko.</p> <p>·Ekainaren amaieran jaso da behin betiko txostena.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
-2. ekimena. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua.	<p>·Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak bere ibilbidea hastea, eta bere lehen jardueraren plana onartzea eta garatzea.</p>	<p>·Otsailaren 29an Gogora Institutuaren Zuzendaritza-Kontseiluaren bigarren bilera egin eta bertan 2016. urterako jardueraren programa onartu zen.</p> <p>·Apirilaren 13an, elkarte memorialisten arteko akordioa lortu zen memoriaren ibilbideei buruz eta Elgoibarren lehen kolumbarioa eratzeko.</p> <p>·Maiatzaren 2an, Aranzadik, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, azken 13 urtetan Memoria Historikoari buruz jasotako dokumentazioa entregatu zuen Gogora Institutuan.</p> <p>·Memoria Plaza ekimen ibiltaria Bilbon, Durangon, Gasteizen, Eibarren, Tolosan eta Donostian egon da.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-XII-31n
<p>·3. ekimena. Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroari ekarpena egitea.</p>	<p>·Espainiako gobernuari dagokio proiektu hori zuzentzea eta dinamizatzea.</p>	<p>·Seihileko honetan, Memoriarako Zentroak ez du bilerarik egin. Fernando Buesa Fundazioarekin lankidetzan Erakusketa bat aurkeztu zuen Gasteizen, eta inaugurazio-ekitaldian Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren ordezkariak hartu zuten parte.</p>	<p>Eusko Jaurlaritzari dagokion atalean, aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>·4. ekimena. Terrorismoaren biktimei laguntzea, eta aitortzea eta ordainak ematea.</p>	<p>I. Jarraitutasun-jarduketak</p> <ul style="list-style-type: none"> ·Laguntza-ekintzako ildoari eustea. ·Gizarte-erakundeekiko lankidetz-ildoari eustea. ·Ikerketak eta ikasketak sustatzeko ildoari eustea. ·Parte-hartzea sustatzeko ildoari. <p>II. Jarduketa berriak</p> <ul style="list-style-type: none"> ·Terrorismoaren aldeko biktimei aitortzeko ekitaldia antolatzea Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren esparruaren barruan. ·Testigantzak grabatzeko Gertu programa garatzen jarraitzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Biktimei laguntzeko zerbitzua eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programa mantendu dira. ·Biktimen elkarteei zuzendutako diru-laguntzen ildoari mantendu egin da, bai eta Víctimas del Terrorismo Fundazioarekin eta Fernando Buesa Fundazioarekin egindako laguntza izendunak ere. ·Urteko ikerketak eta graduondoko ikasketak egiteko EHUrekin (KREI) sinatutako hitzarmenari jarraitutasuna eman zaio. ·Seihileko honetan, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak bi bilera egin ditu. ·Maiatzaren 17an, Gobernu-Kontseiluak Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua erregulatzen duen dekretu berria onartu zuen. Dekretu berriak organo honen funtzioen eta izaeraren zein bere osaketaren erreforma dakar biktimen elkarteekin batera kudeatuta. ·Martxoaren 11n, Terrorismoaren Biktimen Europako Egunean terrorismoaren biktimen aldeko aitortpen instituzionala egin zen Donostiako Paseo Berrian "Utzitako hutsunearekin eraiki nahi dugu etorkizuna" lelopean. ·Martxoaren 31n, pertsona zaurituen testigantzak grabatzeko bigarren fasea aurkeztu zen eta horretan ari da lanean une honetan. 	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-XII-31n
<p>-5. ekimena. Egungo lege-dian babesik ez duten biktimei laguntzea eta aitortzea eta ordainak ematea.</p>	<p>·Aurreko sei hilekoarekin lotutakoak: ·1978tik aurrera lehen dekretuari jarraipena emango dion bigarren tresna bat prestatzea.</p> <p>·Giza eskubideen urraketak jasan dituzten aitortu gabeko biktimen zatitza aitortu-ekitaldia, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua-ren esparruaren barruan.</p>	<p>·Apirilaren 26an Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako lege kontrako errepresio-jardueren ondorioz giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko Legearen Proiektua onartu zuen. Lege-proposamen hau orain ekainean parlamentuko izapide fasean dago.</p> <p>·Otsailaren 20an, Giza eskubideen urraketak jasan dituzten aitortu gabeko biktimen zatitza erreparazio-proposamenei buruzko Jardunaldia antolatu zen Donostiako Kursalean. Jardunaldi honen barruan, "Giza Eskubideen Urraketak jasandako Biktimen Balorazio Batzordearen Txostena 1960-1978" aurkeztu eta 107/2012 Dekretuak babestutako biktimei aitortu-ekitaldi instituzionala egin zitzaion.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren %100 bete da.</p>
<p>-6. ekimena. Torturari buruzko ikerketa eta ekintza</p>	<p>·Torturari buruzko ikerketari dagokion jardueraren programa garatu.</p>	<p>·Daukan dimentsioagatik eta konplexutasunagatik Kriminologiako Euskal Institutua egiten ari den 1960 eta 2010 urteen artean torturari buruzko ikerketa proiektuaren behin betiko txostena ez da aurkeztuko 2016ko ekainean, 2016aren amaieran baizik.</p> <p>·Dena dela, ekainaren 27an emaitzen eta ondorioen aurrerapen bat aurkeztu da EHUren Udako Ikastaroen barruan.</p> <p>·Apirilaren 28an Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eta KREIren ordezkari bat Bruselan egon zen Torturaren eta Tratu nahiz Zigor Anker eta Iraingarriaren Prebentziorako Europako Batzordearen (CPT) ordezkariekin biltzeko eta ikerketa-proiektuaren egoera aurkezteko.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren %80 bete da, ikerketaren garapenak eskatzen duen sei hilabetetako luzapenagatik.</p>

2. Orainarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-XII-31n
·7. ekimena. Eusko Legebiltzararekin lankidetzan aritzea eta batera lan egitea	·Lankidetzan aktiboan jardutea legebiltzararekin bizikidetzarako estrategikoak diren Jaurlaritzaren proiektu guztietan. ·Adostutako jardueren-lerroen eguneratze- eta garapen-txostena aurkeztea.	·Orain arte, Bake eta Bizikidetzarako Batzorde Txostengileak ezin izan ditu bere lanak aurrera eraman, legebiltzar-taldeek ez baitute akordiorik lortu. Hala ere, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak irekita ditu Eusko Legebiltzararekiko komunikazio- eta lankidetzan-ildo guztiak, baita legebiltzar-taldeekikoak ere. ·2015eko lehenengo seihilekoan, herritarren parte-hartzearen inguruko bi erakundeon arteko lankidetzan-esparruaren eguneratzea adostu zen, eta Irekiaren eta Eusko Legebiltzararen arteko lankidetzan-hitzarmenaren barruan jaso da.	·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren %80 bete da; izan ere, Bake eta Bizikidetzarako Batzorde Txostengileak bertan behera gelditu denez, ezin izan da lankidetzan-lan handiagorik aurrera eraman.
·8. ekimena. Espetxe-politikan Hitzeman Programa garatzea	·Espainiako gobernuarekin elkarriketatzea eta akordioak bilatzea. ·Aurreko seihilekoarekin lotutakoak: ·2015eko ekainetik 2016ko ekainera Hitzeman Programaren inguruan fase pilotua garatuko da birgizarteratze-eredu bat definitze aldera.	·2016ko lehen seihileko hau kokatu den hauteskunde ondorengo eta aurreko testuingurua, Espainiako jarduneko Gobernuak are gehiago mugatu du akordioak bilatzea gai honetan. ·Birgizarteratze-eredu bat zehaztera bideratutako Fase pilotua aurreikuspenen arabera garatu da. ·Ekainaren 17an, Eusko Jaurlaritzak Hitzeman Programaren esperientzia-pilotuaren ondorioak aurkeztu zituen "Justizia leheneratzailea eta terapeutikoa: justizia eredu berritzaileak bilatzen" Europar Kongresuan, EHUko Udako Ikastaroen esparruan.	·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren %80 bete da. Hauteskunde-egutegia zela eta, esperientzia pilotuaren hasiera hilabete batzuk atzeratzea gomendatu zen.
·9. ekimena. Europar Batasunarekiko lankidetzan-ildoak bultzatzea	·Aurreko seihilekoarekin lotutakoak: ·Lankidetzan-espazioak egituratzea. ·Ezarririk jarraitzea jarduketan-ildoak eguneratu eta garatzea.	·Seihileko honetan Ipar Irlandan hartu-eman topaketa bat egiteko gestioak azkenetara eramaten ari dira, aurreko topaketa batzuetan jorratutako hiru eremuetan: hezkuntza, gaztedia, biktimak; lankidetzan beste laugarren batera zabalduz: autokritika-prozesuak. ·Maiatzaren 16an et 17an, Memoria- eta Bakearen eremuan lan egiten duten Flandriako bi erakundeon ordezkariak batek Euskadi bisitatu zuen. Horrekin batera, UNWTO erakundearen Turismo eta Bakea egitasmo baten zirriborroan lan egiten hasi gara, Flandriako eta Ipar Irlandako gobernuarekin batera.	·Seihileko honetarako aurreikusitakoaren %80 bete da, europar erakundeekin egin beharreko IV. Bake Programaren onarpena atzeratu baita.

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-XII-31n
<p>·10. ekimena. Nazio Batuen Giza Eskubi-deetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin lankidetzan aritzea.</p>	<p>·2016ko memoranduma sinatzea eta 2015eko balorazio-txostena jasotzea.</p>	<p>·Lehen seihileko honetan OACNUDH erakundearen 2015eko Jarduketan Memoria jaso dugu non Euskadi agertzen den espreski lehen aldiz, emaile gisa, Espainiako estatuak egindako ekarriarekin lotuta egon arren. Ekainean, behar diren izapideak egingo dira 2016an onartutako diru-laguntza izenduna abian jartzeko.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>·11. ekimena. Euskal unibertsitateen ekarpen partekatua</p>	<p>·2015erako partekatutako ekarpen-proiektua amaitzea.</p> <p>·2016rako partekatutako ekarpen-proiektua garatzea.</p>	<p>·Apirilaren 18an, 2015ean zehar garatutako Ahotsak Proiektua aurkeztu zen euskal kasuan terrorismoari, indarkeriari, giza eskubideen urraketari eta bakearen eraikuntzari buruz unibertsitateko ikasleek egiten dituzten gogoeta erraztuko lukeen prozesu bat bultzatzeko helburuarekin, ikus-entzuzko euskarri desberdinak bitarteko.</p> <p>·Lehenengo seihilekoan, hiru unibertsitateek 2016rako aurreikusitako egitasmoa garatzeko oinarriak ezarri dituzte. Tresna samur bat prestatzea da asmoa udalen eta gizarte erakunde zerbizura jartzeko herritarren parte-hartzea bultzatzeko memoriaren eta bizikidetzaren eraikuntzan.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>·12. ekimena. ERTZAINZAREN Konpromiso Sozialaren Jarraipenaren Programa aktibatzea, edukiak eta jarraipen- eta ebaluazio-tresnak ezarrita.</p> <p>Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen alde.</p>	<p>·ERTZAINZAREN Konpromiso Sozialaren Jarraipenaren Programa aktibatzea, edukiak eta jarraipen- eta ebaluazio-tresnak ezarrita.</p>	<p>·ERTZAINZAREN Konpromiso Soziala mantendu egin da erakunde polizialek zein Arkauteko Akademiatik.</p> <p>·Aurrera atera diren zabalkunde eta sentsibilizazio-lanen artean, azpimarragarrienak honakoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Urtarriletik apirilera islamismo erradikalaren kontrako plan estrategikoa zabaldu zen Euskadiko herri-zaingoen eta alkateen artean. -Maiatzaren 5ean, Parez-Pare Jardunaldien barruan, Segurtasuna eta Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Jardunaldia ospatu zen. Bertan "Ertzaintzaren eredu eta giza eskubideen erakunde balorazio positiboak" txostena aurkeztu zen. -Gai desberdinei buruzko jardunaldiak ospatu dira: gizakien salerosketa, pertsona nagusienganako tratu-txarrak eta errefuxiatuen gaia segurtasunaren eta larrialdien eremutik. 	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

3. Etorkizunarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-XII-31n
<p>·13. ekimena. Lankidetzako publiko-soziala euskal elkarten sarearekin</p>	<p>·Aurreko seihilekoarekin lotutakoa</p> <p>·Elkarrekin Bonu Programa eguneratu eta garatzea.</p>	<p>·2016an Elkarrekin Bonu Programa mantendu da, hiru alor hauetan euskal elkarten sareko hainbat erakunderen arteko lankidetzako espazioak sustatzen dituenak: hezkuntza, herritarren parte-hartzea eta tokiko bizikidetzako. Programaren eguneraketa 2016rako deialdiaren aginduetan jasota dago.</p> <p>·Bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen alde lan egiten duten elkar-teentzako diru-laguntzen urteko deialdiari eutsi zaio.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>·14. ekimena. Herritarren parte-hartzea sustatzea</p>	<p>·Aurreko seihilekoarekin lotutakoa</p> <p>·Hitzartutako jarduketako ildoak eguneratu eta garatzea.</p>	<p>·Parte-hartze politikak hiru ardatz aktiboren bidez aurrera eramaten dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ·Lankidetzako publiko-soziala, Elkarrekin Bonu Programaren bidez. ·Eusko Jaurjaritzak dituen parte-hartze tresnak. ·Udalekin eta Foru Aldundiekin akordioak lortzea, parte-hartzea bultzatzeko. <p>·Horretaz aparte, seihileko honetan Memoriaren Plaza herritarrek parte-hartzeko programarekin jarraitu da, eta Lokarri eskatutako herritarren parte-hartzeari buruzko azterlanak jasotakoak, bere esperientziaren ondarea eta nazioarteko beste esperientzia batzuk biltzen dituenak.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>·15. ekimena. Adostasuna bizikidetzaren alde foru-aldundiekin eta udalekin</p>	<p>·Aurreko seihilekoarekin lotutakoa</p> <p>·Hitzartutako jarduketako ildoak eguneratu eta garatzea.</p> <p>·Bake, bizikidetzako eta memoriarako politika publikoak koordinatzeko eta bultzatzeko topaketa bat egitea Foru Aldundiekin.</p>	<p>·2016an, Elkarrekin Programa abiarazi da berriro.</p> <p>·Udalei zuzendutako diru-laguntzen deialdiari eutsi zaio, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko ekimenak garatu dituztenak.</p> <p>·Martxoaren 21ean, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren, Eudelen eta hiru Foru Aldundien artean bilera bat egin zen eta bertan "Toki mailan bakea eta bizikidetzako politikak egiteko iradokizunak" txostena aurkeztu zen.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-XII-31n
<p>-16. ekimena. Jarduketa-ildo osagarriak bultzatzea hezkuntza formalaren arloan.</p>	<p>·Aurreko seihilekoarekin lotutakoa ·Aurreko jarduketa-ildoak eguneratzea eta garatzea.</p>	<p>·Aurreikusitakoaren arabera egin da aurrera Bake eta Bizikidetzaren Planak hezkuntzaren arloan jasotzen dituen lau proiektuen kudeaketari dagokionez: Gizalegez Akordioa, Elkarrekin Programa, Adi-Adian Hezkuntza Modulua eta Bakegune Eskola.</p> <p>·Otsailaren 26an Gizalegez Akordioaren sinatzaileekin eta beste hezkuntza-eragileekin bilera egin zen garatutako ekimenen garapena ebaluatzeko eta hurrengoak zehazteko.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>-17. ekimena. Jarduketa-ildo bereziak sustatzea gazteriaren, kulturaren eta hezkuntza ez-formalaren arloetan</p>	<p>·Aurreko seihilekoarekin lotutakoa ·Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin izenpetutako hitzarmenaren jarduketa-ildoak eguneratu eta garatzea.</p>	<p>·Euskadiko Gazteriaren Kontseilua aurreikusitakoa betez garatzen ari da adostutako edukia.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>
<p>-18. ekimena. Gizartea sentiberatzea eta komunikabide publikoen konpromisoa lortzea</p>	<p>·Aurreko seihilekoarekin lotutakoa ·EiTBrekin adostutako lankidetzaren esparruko jarduketa-ildoak eguneratu eta garatzea, 2014-16 aldirako.</p>	<p>·Lankidetzaren akordioak ezartzen duen bezala, azken 50 urteetako memoria kritikoari buruzko dokumental-seriea burutu da eta maiatzean zehar eskaini ditu ETBk bere programazioaren barruan.</p>	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa %100 bete da.</p>

3. Planaren kudeaketarekin lotutako ekimenak

Ekimena	Aurreikusitako ekintzak	Jarraipena	Aurreikuspenen betetzearen % 2015-XII-31n
<p>·I. fitxa. Bake eta Bizikidetzaren Plana bultzatu, kudeatu eta koordinatzea</p>	<p>·Aurreko seihilekoarekin lotutakoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Aurreikusitako jarduketa-ildoak eguneratu eta garatzea: <ul style="list-style-type: none"> ·Sailarteko Batzardea. ·Koordinazio Batzardea. ·Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Batzardea. ·Planaren kanpoko ebaluazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Sailarteko Batzardeak aurreikusitako lan-egutegia garatzen du. ·Legebiltzar-taldeek 2014ko uztailaren 3an egindako bileran adierazitakoaren arabera, koordinazio-batzorde bat sortu ordez, gobernuaren eta legebiltzar-taldearen arteko harreman-eredu bat eratuko da, formalki ezarrita ez dagoena. ·Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Batzardea osatuta dago, eta aurreikusitako lan-egutegia garatzen ari da. ·Seihileko honetan zehar, Bake eta Bizikidetzaren Planaren azken ebaluazioaren memoria eskatu da. 	<p>·Seihileko honetarako aurreikusitakoa % 100 bete da. Programatutako neurriak aurreikusitako egutegiaren arabera bete dira.</p>

Bigarren atala

Balorazioa: analisia, aurreikuspenak eta ondorioak

1. Planaren programa-betetzea analizatzea 2016ko lehenengo seihilekoan

Planaren jarraipenaren seihilekoetako txostenen tresnak alderdi kuantitatiboetan biltzen du arreta, eta, batez ere, egutegiko konpromisoen betetze-mailan. Planaren ebaluazio kualitatiboa modu espezifikoagoan lantzen da ebaluazio globalari buruzko kanpoko txostenetan. Zehaztapen hau egin ondoren, honako alderdi hauek dira aipatzekoak:

- A.** Bake eta Bizikidetzeta Plana Gobernu Kontseiluaren Akordio bidez onartu zen, 2013ko azaroaren 26an. 2014ko ahaleginik handiena aurreikusitako ekimenak martxan jartzea izan zen, planean bertan ezarritako lan-egutegia oinarritzat hartuta. Hala, bada, azpimarratu behar da 2014an, programako ekimen guztiak aktibatuta zeudela, gauzatze-maila ezberdinetan. 2015ean, plana aurreikusitako ekimenak garatu eta sendotzeko fasean sartu zen. 2016ko lehenengo seihilekoan Plana bere programazioa osoa burutzeko fasean sartzen da.
- B.** 2016ko ekainaren 30ean planaren lan-egutegiek duten betetzeari erreparatuz gero, aurreko txostenak erakutsi zuen antzeko maila adierazten du, bi mailatan sailkatu daitekeena. Plana osatzen duten 18+1 ekimenetatik, lehenengo mailan 15 ekimen daude, beren egutegi-konpromisoak %100 bete dituztenak; eta bigarren mailan %80ko betetze-maila duten lau ekimen daude eta hirugarrenean.
- C.** Aipatu beharra dago egutegiko konpromisoak %100 bete dituzten ekimenak Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren ekintzaren mende zuzenean dauden ekimenak direla. Gauzatzean atzerapen-maila ezberdinak dituzten gainerako lau ekimenak beste erakunde batzuen elkarrekintzaren pean daude.
- D.** 2016ko lehenengo seihilekoan, Bake eta Bizikidetzeta planak bere gauzatze-aurreikuspenak arazoizko moduan bete ditu. Orain, bere azken txanpari ekingo dio. Kanpo-ebaluazioari esker, aurreikuspen batzuk doitu ziren eta txosten bat landu zen Plana legegintzaldiaren amaiera arte kudeatzeko. Gauden testuinguruan, azpimarragarriena da aurreikus daitekeela legegintzaldiaren amaierarako maila handi batean beteko direla hasieran planteatu ziren ekimen eta proiektuak.

2. 2016ko bigarren seihilekorako aurreikuspen nagusiak

2016ko bigarren seihilekoari begira, jarduera-programa zehatz-mehatz definituta dago Bake eta Bizikidetzaren Planaren garapenari buruzko legegintzaldiaren amaierako txostenean, zeinean aintzakotzat hartu ziren Planaren kanpo-ebaluazioak azaldu dituen ondorioak. Hau kontuan hartuta, 2016ko bigarren seihilekorako aurreikuspen nagusiak lau ataletan egituratu daitezke.

• **Legegintzaldia amaitu arte programatutako ekimenak amaitzea.** Ondorengo jarduerak azpimarratu behar dira:

- Batera Konpromisoan sakontzen jarraitu biktimen gaian eta Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua berritua abian jartzea.
- Legez kontrako errepresio-jardueren ondorioz giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko Legea bultzatzea.
- Preso dauden pertsonen bergizartratzea eta gizartratzea bultzatzeko Hitzeman Dekretua prestatzen aurrera egitea.
- Memoria Historikoaren Lehentasunen Programaren ekimenak garatzea, horien artean, 1936 eta 1978. urteen arteko giza eskubideen urraketan txostena prestatzeko EHUrekin uztailan sinatuko den hitzarmena nabarmenduz.
- Gogora Institutuaren Jarduera Programari jarraipena ematea eta, zehazki, Memoria Plazaren ekimen ibiltariarekin jarraitzea.
- Irailaren lehenengo hamabostaldian Irlandako zenbait erakunderekin hartu-ean topaketa bat egitea Peace Programme ekimenaren barruan hezkuntza, gaztedia eta biktimak gai-ardatz hartuta.
- Donostia 2016aren azken txanpan lagundu, giza eskubideen gaian, Europako Kultur Hiriburu-tzaren prozesuaren ondarea sendotzeko helburuarekin. Zehazki, Donostiako Udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Aieteko Giza Eskubideen Baliabide Pedagogikoen Zentroa.
- Giza Eskubideen Katedra bat sortzea Euskal Herriko Unibertsitatean.
- Irailaren 28an, Zuzendu Jardunaldien bigarren saioa antolatzea, autokritikaren balioen inguruan.
- Zinexit topaketaren edizio berri bat prestatzea.

• **Azken ebaluazioaren memoria enkargatzea.** Legegintzaldiaren amaierara begira Bake eta Bizikidetzaren Planaren kanpotik egindako azken ebaluazioaren memoria enkargatuko da 2015ean egindako tarteko ebaluazioaren osagarri gisa.

• **Legegintzaldi honetan garatutako lana dokumentatzea.** Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak 2012-2016 legegintzaldian, bake eta bizikidetzaren gaian, sortutako dokumentu nagusien bilduma bat utziko du osatuta. Zazpi ataletan egituratuko da: (1) Proiektu Nagusia, (2) Iragana argitzea, (3) Biktimak, (4) Memoria, (5) Espetxe-politika, (6) Hezkuntza, eta (7) Bizikidetzarako Kultura eta Giza Eskubideak.

• **2016-2020rako jarduera planaren oinarriak idaztea zirriborro gisa.** Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak, era berean, legegintzaldi honi buruzko ondorioen dokumentu bat prestatuko du 2016-2020 jarduera-plangintza baten oinarri nagusiak proiektatuz hurrengo legegintzaldirako.

3. Ondorioak

A. Positibotzat jo da Bake eta Bizikidetzaren Planeko 18+I ekimenen programa-betetzearen balantzea. 2013an, 2014an eta 2015ean abian jarritako eta garatutako ekimen guztiak 2016an amaitzeko pentsatuta daude.

B. “Gizartea elkartzea” sustatzea da Bake eta Bizikidetzaren Planean esplizituki jasotzen den misioa. Modu horretan, Legegintzaldi honetan Eusko Jaurlaritzak plaza publiko bat eraikitzeke lanean lagundu nahi izan du, herri honetako familia politiko guztiek partekatzeko moduko plaza eraikitzen, alegia. Legegintzaldia amaitzeko geratzen den denboran, horrexek jarraituko du izaten Planaren eta Eusko Jaurlaritzaren jardueraren egiteko nagusia.

C. Sentikortasun guztiei lekua egin eta giza eskubideen, printzipio demokratikoen eta pluralismoaren inguruko bere desberdintasunak kudeatzeko gai den bizikidetzaren normalizatu eta integratu batez jarduteko adierazpen erabilgarria da “gizartea elkartzea”. Arrazoi horrengatik, ziurtasun osoarekin gizartea elkartzea legegintzaldi berrirako bizikidetzaren proiektuaren misioaren parte izaten jarraituko du.

D. Lau urte hauetan zehar asko da aurreratu dena. 2012-2016 Legegintzaldian aurrerapen garrantzitsua eman da bizikidetzaren normalizazioari dagokionez. Egiteko gelditzen den agendaren barruan, hiru kontu daude: ETaren armagabetzea eta desagertzea, espetze-politika aldatzea, eta iraganari buruzko gogoeta kritikoa partekatzea.

E. Bizikidetzari dagokionez, giza eskubideen agenda berria aurrera egiten ari da. Hemendik aurrera, geure iragan hurbilari buruzko konpondu gabeko arazoez gain, kontuan hartu beharko dira bereziki giza eskubideen agenda berriak planteatzen dituen erronkak.

F. Erronka berri horiek identitate desberdinen arteko bizikidetzari buruzko eztabaidan dute ardatza, bizikidetzaren edo hezkuntzaren aniztasuna eta elkartasuna bezalako balioen kudeaketarekin harreman zuzena dute, eta zenbait errealitateetan dute isla: pertsona errefuxiatuak, migrazioak, erlijio- eta kultur-aniztasuna, bazterketa eta bidegabekeria modu berriak edo nazioarteko terrorismoaren edo gerraren mehatxuari erantzunak.

G. Euskal gizartea ez da geldi, dinamikoa da eta aurrera darrai. Hurrengo legegintzaldiari begira, bizikidetzaren eta gizartea elkartzeko plan berriak geure inguru hurbilean konpondu gabeko arazoei zein gizartearen bila-kaerari eta testuinguru erabat aldakorrari egin beharko die aurre.

2016ko uztailaren 12an

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia



3. dokumentua

Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016
aldirako Bake eta Bizikidetz
Planaren bitarteko ebaluazioa

Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzaren Planaren bitarteko ebaluazioa

Azken txostena

Ebaluazio-taldea:
Roberto Toscano,
Covadonga Morales Bertrand,
Jesús A. Núñez Villaverde
eta Francisco Rey Marcos



2015eko ekainaren 25a

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia

Aurkibidea

- 1.** Funtsezko aldeen laburpena.
 - 2.** Sarrera: helburuak, metodologia eta irizpideak.
 - 2.1. Ebaluazioaren helburuak.
 - 2.2. Ikuspegi metodologikoa.
 - 2.3. Zenbait muga. Hizkuntza urrentze-elementu gisa.
 - 3.** 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planaren testuinguru soziopolitikoa.
 - 4.** 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Plana: proposamen integral baten balorazio orokorra.
 - 5.** Planaren analisi xehatua.
 - 5.1. Planaren egokitasuna eta prestakuntza-prozesua.
 - 5.1.1. Mugak dituen partaidetza-prozesua.
 - 5.1.2. Genero-ikuspegia.
 - 5.2. Planaren alderdi metodologikoak.
 - 5.3. Abiaraztea eta gauzatea lan-eremuen arabera.
 - 5.3.1. Iraganeko memoriak eta giza eskubideen urraketak.
 - 5.3.2. Biktimei laguntza, errekonozimendua eta arreta ematea.
 - 5.3.3. Espetxe-politika eta presoak.
 - 5.3.4. Gizartearen eta tokiko erakundeen parte-hartzea bakearen eta bizikidetzaren eraikuntzan.
 - 5.3.4.1. Gizarte zibila.
 - 5.3.4.2. Alor sozioekonomikoak.
 - 5.3.4.3. Udalak eta EUDELen eginkizuna.
 - 5.3.5. Gizarte-hezkuntzaren ikuspegia eta gizarte-komunikazioa.
 - 5.3.6. Nazioarteko ikuspegia eta ikaskuntza partekatua.
 - 5.3.6.1. Lankidetzaren Europar Batasunarekin.
 - 5.3.6.2. Nazio Batuen Giza Eskubidetakako Goi Komisarioaren Bulegoarekin lankidetzaren aritzea.
 - 5.3.7. ETAREN armagabetzea.
 - 6.** Planaren antolaketarekin eta segimenduarekin lotutako aldeak.
 - 6.1. Segimendua egiteko mekanismoa.
 - 6.2. Komunikazio-politika.
 - 7.** Gomendioak.
 - 8.** Eranskinak.
-

1. Funtsezko aldeen laburpena

Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzaren Planaren bitarteko ebaluazioak, epe ertainerako ebaluazioak izanik, batik bat hobekuntza-proposamenei jarri die arreta, eta ez da izango orain arte egindako lanaren izendatze hutsa edota horren inguruko kontu-ematea. Ebaluazioaren irismena, ondorioak eta gomendioak, beraz, behin-behineko gisa ulertu beharko dira.

- Ez da zailtasun aipagarriarik aurkitu lana egiterakoan, baina adierazi beharra dago zenbait terminoren erabilera euskal kasuan oso konplexutasun eta sofistikazio handia hartu duela, jarduleen arteko ulermen nabarmen zailtzen duen horma bilakatuz. Ebaluazioak egiaztatu ahal izan du zein neurritaraino oztopatzen duen hitzen inguruko eztabaida honek edozein aurrerapauso.

- Plana erantzukizun politikoaren ondorioa da eta indarkeriaren amaiera atzeraezina den sinesmenean oinarritu da. Nolanahi ere den, aitortzen da orain-oraingoz ez dela lortu bakea finkatzea indarkeriaren amaieraz haratago eta ez dela nahikoa denbora igarotzen uztea konpontzeke dauden arazoei irtenbidea emateko. Gizartearen aldaketa sakonik gabe ezingo da lortu bake bidezkoa, orokorra eta iraunkorra eta, aldi berean, benetako adiskidetzarik gabe ezingo da bizikidetzaren osora iritsi.

- Planak epe luzerako gaiak eta helburuak jorratzen dituela kontuan hartuta, egungo legegintzaldia baino zabalagoak direnak, Planaren azken dokumentua konplexua da, 18 ekimenetan bildutako konpromisoetan barne baititu oinarritzko alderdiak eta oso alderdi zehatzak ere. Laburbilduz, Plana orokorra, beharrezkoa, anbizio handikoa (baina errealista) eta orekatua da. Planaren ikuspuntua eta xedea argi geratzen dira, sakonki arrazoitzen dira eta, ekimen bakoitzari dagokionez, zehaztasun maila ezin hobea du. Dena den, Plana egungo euskal gizarteak eta politikak har dezakeenaren aurretik doa eta horrek sor dezake alde garrantzitsu bat lortu nahi denaren eta epe laburrean denon artean lor dezakegunaren artean. Hala ere, gida bat ezartzen du konfiantzan oinarrituta eta oraingo desadostasunak abiapuntu hartuta aurrera egiteko prest dauden guztientzat.

- Plana zuzen dabil berrelkartzea eta giza eskubideak oinarritzko ardatz gisa ezartzean. Xedeari, edukiei eta erabilitako metodologiari dagokienez, berrelkartze-prozesuan enfasia jartzen duen adiskidetzaren plana da. Giza eskubideen arloan zenbaitetan egin ohi den erabilera gaizto edo sektarioagatik ere, erreferentzia hori bake- eta bizikidetzaren baten funtsezko ardatz gisa berreskuratzeak ahalbidetzen du, alde batetik, prozesua etorkizunera begira kokatzea eta, bestetik, lehen aipaturiko zenbait arazo terminologiko konpontzea.

- Idazkerak eragin bikoitza du, dena barne hartzen duen ikuspegi ongi egituratua eskaintzen baitu, bestalde “zuzentzailetzat” eta “laborategiko produktutzat” ere har daitekeelarik. Planak aurreko gobernuak bultzatutako proposamenak jarraitzen ditu eta horietan barneratzen da, gehiago sakonduz. Hitz gutxitan, Plan bizi eta malgua da, bere ibileran zehar zenbait berrikuntza gehitzeko gai dena eta beste alde batzuk egungo testuinguru soziopolitikora egokitzen dituena. Duen dinamismoa ezin da zalantzan jarri, etengabe jartzen baitira abian jarduera berriak barne dituen ia ekimen guztietan. Iturri guztien aburuz, Gobernu Programari hobekien egokitzen zaion plana da, alde handiarekin. Hala eta guztiz ere, eta betetze-maila formala handia den arren, ezarritako helburuen lorpenean zuzenki eragiteko duen ahalmena askoz mugatuagoa da, lorpen horiek Idazkaritzaren kontrolatik kanpo dauden aldagaien mende baitaude.

- Giro politikoak biziki baldintzatzen du plana. Horrek gero eta eragozpen handiagoa ekarri du, azkenik beherantz doan prozesu baten sentipena sortu arte, hainbat jarduera abian dituena baina gai esanguratsuagoak jorratzeko aukerarik gabe, eta 2016. urte erdi edo amaierarako aurreikusitako hauteskunde-prozesuen ondorioz erakundeetako egoera politikoa aldatzeko zain.

- Planaren lorpen garrantzitsuena da ez duela suntsitu iraganean eraikitakoa. Bakea lortzeko ahalegin kolektiboa sustatzeko gaur egun dagoen bultzada politikorik eza ikusita, Plana existitze hutsak garrantzi handiagoa hartzen du. Bere egiturari eta Idazkaritzaren dinamismoari esker, motorra martxan mantentzen duten jarduerak burutzen ari dira, hartara desblokeatze politikoa iristen denean askoz azkarrago aurrera egitea ahalbidetuko duten baldintzak sortuz.

- Zehatzago izateko, ebaluazioaren **ondorio** nagusiak honela laburbil daitezke:

- **-Iraganeko memoriak eta giza eskubideen urraketak.** “Historia idazteko gudua” deritzonak dakarren oztopoa alde batera utzita, gutxienez bada irizpide objektibo eta eztabaidaekin bat gertatu-

takoaren erregistroa zehaztasunez ezartzeko: giza eskubideen urraketak. Kontakizun edo historia erkidea, egunen batean lortzen bada, bidearen helmuga izango da eta ez martxan jartzeko aurrebaldintza. Ahalegin nagusiak izan behar du galdera honi erantzunak bilatzea: nola bizi gaitzke denok elkarrekin bakean eta lurralde berean gaur eta bihar? Duela gutxi sortutako Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak berebiziko erantzukizuna du ahanztura ekiditeko eta iragana argitzeko.

-Biktimei laguntza, errekonozimendua eta arretea ematea. Biktimei errekonozimendua emateko ekintzek biktimgana hurbiltzeko aukera eman dute eta Eusko Jaurlaritzaren eta biktimen elkartearen arteko elkarriketa-giroa nabarmen hobetu dute. Biktimak Planaren funtsezko ardatzaren zati dira eta beren egoera modu integralean jorratzen da hainbat elementu oinarri hartuta: egia, justizia, ordaina, berriro ez gertatzeko bermeak eta errekonozimendua. Esparru juridikoa eta laguntza-neurrien esparrua oso aurreratuak dira, eta zorrotz betetzen dira kasu gehienetan eta bereziki terrorismoaren biktimen kasuan.

Euskal Autonomia Erkidegoan burututako giza eskubideen urraketen biktima guztiak barne hartu nahi izatea koherentea da Estatuak hitzartutako nazioarteko esparru juridikoekin, Gobernu Zentralarekin arazoak sortzen ari den arren.

Egungo legediak babestutako biktimei dagokionez, laguntza- eta adiskidetze-jarduerak, emandako laguntzek eta diru-laguntzek, besteak beste, aurrera jo dute normaltasunez.

107/2012 Dekretuaren kudeaketak eta aldatetak zailtasunak ekarri ditu, Estatuako abokatutzak aurkeztutako errekurtoa dela eta.

-Espetxe-politika eta presoak. Eusko Jaurlaritzak espetxe-politikan dituen eskumen mugatuak arren, ahalegin nabarmenak egin dira alor honetan ekimenak martxan jartzeko, bereziki gizarteratzeari dagokionez. Planak kontuan hartu ditu presoaren arazoak benetako irtenbidea emateko aldagai garrantzitsu guztiak. Orain arte lortutako emaitza eskasak, funtsean, ez dira izan aktibatu beharreko gakoaren formulazioan ahazteak edo akatsak egin direlako, baizik eta zenbait jardule politikoren berrondate ezaren ondorioz.

Talde ebaluatzailearen aburuz eta elkarrizketatutako edo inkestatutako pertsonen gehiengo handiaren iritzian, ez dago inongo arrazoirik pentsatzeko Plana presoaren alde eta biktimen kalterako desorekatuta dagoenik.

Alderdi legal, juridiko edo politikoak alde batera utzita –inola ere ahaztu ezin daitezkeen arren–, gehiengoaren sentipena da presoaren egoeraren egungo kudeaketari ikuspuntu gizatiarra falta zaio-la aintzat hartu ahal izateko bai askatasun-gabetuen errealitatea –jasotzen duten tratamenduen salbuespen-izaera desagerrarazteko asmoz–, bai beren senide eta ingurukoena –azken horiek zuzenbide-estatu baten herritar gisa merezi ez duten zigorra jasotzen ari baitira. Beraz, presoaren sakanatzea amaitzea, aplikatzen zaien legediaren salbuespen-izaera kentzea eta gizarteratzea izan behar dira agendako hiru lehentasunak.

-Gizartearen eta tokiko erakundearen parte-hartzea. Planari harrera ona eman diote Planaren helburuekin zuzenki lotuta eta konprometituta dauden gizarte zibileko erakundeak. Hala ere, bakearen eta bizikidetzaren aldeko bi mugimendu nagusien desagertzea interpreta liteke gizarte zibilaren neke eta asperkizunaren seinale gisa, alor hauetako jarduera-esparrua alderdi politikoen eta erakundearen esku utziz.

Gizarte-jardule nagusien desagertzeak paradoxa bat sortu du, Plana utzi baitu aliatuak eta helburuen lorpenaren “gainbegirale kritiko” izan litezkeen zenbait funtsezko gizarte-solaskiderik gabe.

Bestalde, Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Kontseiluak eraikitze-ahalmen handia du erakundearen eta gizarte zibilaren arteko kontzertazioari eta koordinazioari dagokionez, elkarriketa-gune anitza baita non lan-taldeak eratu diren erakundearen arteko harremanen, memoriaren, hezkuntzaren eta komunikabidearen eginkizunaren inguruan. Ahalmen hori oraindik ez da erabat garatu.

-Gizarte-hezkuntza ikuspegia eta gizarte-komunikazioa. Nabari da, gaur egun, euskal unibertsitateekin dagoen harremanetarako kanala, bere garaian sinatutako Hitzarmena martxan jarri ondoren, indarra galduz joan dela eman zaion erabilera eskasaren ondorioz eta aurreikusitako jarduera motak direla eta. Garatzeke daude oraindik, besteak beste, lankidetzan jarduteko bideak ikerketaren, informazioaren, hedapenaren eta sentsibilizazioaren alorrean. Unibertsitateen aldetik ere ez dira bideratu ekimen gehiegi kanal honi modu proaktiboan onura ateratzeko.

Aitzitik, Adi-adian ekimenak, hasiera batean zailtasunak izan zituen arren, gaur egun gehiengoaren babesa du hezkuntzaren arloan, bai eta herritarren artean ere. Hala ere, badira desadostasunak azkarregi joan dela uste dutenen artean, arrazoituz ikasgeletara eraman dela eremu politikoan oraindik ebatzi eta gainditu ez dena.

-Nazioarteko izaera eta ikaskuntza partekatua. Oraindik ere iraganak eta memoria historikoarekin eta gertatutako giza eskubideen urraketak argitzearekin loturiko jardura guztiek eragiten duten konfiantza falta ikusita, egokia eta aproposa da gaur egun nazioarteko erakundeengan bilatzen ari den aholkularitza, besteak beste honako alorretan: egia, justizia, ordaina, eta biktimak berriro gerta ez daitezen ziurtatzeko bermeak.

Onuragarria da, beraz, kooperazioa eta aholkularitza bilatzea giza eskubideen inguruko nazioarteko zuzenbidea zuzenki aplikatzeko eta Idazkaritza bultzatzen dugu, ahal den neurrian, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoarekin eta Nazio Batuetako eta Europar Batasuneko sistemetako bestelako erakundeekin duen harremana areagotu dezan. Aholkularitzaren bilaketa hau ezin da inolaz ere "prozesua nazioartekotzeko" ahalegin gisa jo.

-ETAren armagabetzea. Iraganeko jarrerak alde batera uzteko blokeoaren faktoreek, sortutako mesfidantza handiaren ondorioz, guztiontzat ezezaguna den armagabetze-prozesu bat ezagutzera bultzatzea faktoreek baino pisu handiagoa dute oraindik ere.

Gobernu Zentralak bide horretan sartzeko duen uzkurutasunaren ondorioz, beste armagabetze-prozesu batzuetako ohiko formulen desberdinak diren bideak bilatzeko beharra sortu da. Erreferentzia-esparru bat ez izateak are zalantza eta kezka gehiago eragiten ditu barne dauden jarduleengan.

ETA, bestalde, ez-armagabetzearen jarreraren finkatu dela dirudi, horrek kostu gehigarria dakarrelarik gehiengo handi batean inolako baldintza politikorik gabeko ETAren desagertzea nahi duen gizarte batentzat.

Idazkaritzak, bere aldetik, aurkeztu egin zuen "Armagabetze bizkor, egingarri eta eraginkor baterako prozedura-proposamena, ETAk euskal herritarren aurrean aldeakartasunez egindako keinu bat oinarritzat duena, eta gizartearen, nazioartearen eta erakundearen babesarekin". Eusko Jaurilaritzaren eskaera esplizitu honek ez du inongo erantzun eraginkorrik izan, modu nabarmen eta egiaztagarri batean behintzat.

-Planaren antolakuntza- eta jarraipen-aldeak. Idazkaritzak Planaren ekimenen jarraipena egiteko prozedura zehatza du. Prozedura horren arabera, sei hilean behin Sail arteko Batzordeari eta, behar denean, Eusko Legebiltzarrari txostenak aurkeztu behar dizkio eta txosten horiek aldi batetik bestera hobetuz joan dira eta kalitatekoak dira. Gaur arte exekuzio maila oso handia izan da, berriki sortutako Idazkaritza bat bada ere.

Jarraipen-lanetarako dagoen aurrekontuaren kudeaketaren ikuspuntutik, Planak guztira 19.334.000 euroko aurrekontua dauka, lau urtean betearazteko, 2013 eta 2016 artean. Lehenengo bi urteetan, 6.284.603 euro betearazi dira 8.334.000 euroko aurrekontutik. Alegia, Planaren guztirako aurrekontuaren %33 eta 2013. eta 2014. urteetarako aurrekontuaren %75.

Beraz, Planaren jarraipen-neurriak ongi funtzionatzen ari direla uste da.

-Komunikazio-politika. Planak hasiera batean ez zuen komunikabideei eta gizarteari orokorrean zuzenduriko ad hoc komunikazio-estrategiarik izan Plana ezagutzera emateko eta bere garapena bultzatzea zehazketen harreman positiboak ezartzeko. Dena den, Lehendakarietzako Komunikazio Sailak Planaren garapenaren xehetasunak ezagutzera emateko ardura du, Idazkaritzak ez baitu lan hori burutzeko organo espezifikorik.

Komunikabideetan Planaren aurrerapausoak aitortzeko erresistentziak ageri dira. Halere, uste dugu euskal gizarte osoak Planaren berri izatea lortu dela.

Ebaluazioak barne ditu hainbat **gomendio** orokor eta zehatz, askotariko izaerak dituztenak eta Txosten honen azken sailean bildu direnak. Laburbilduz, hauek dira:

- Ikuspegi etikoa** lehendabiziko mailan edukitzea, indarkeriaren edozein justifikazio politiko saihesteko berriazko xedearrekin, indarkeria baldintzarik gabe kondenatu behar baita dituen helburuengandik bananduz.

- Planaren bigarren fasea birformulatzeko edo planifikatzeko garaian, testuinguruaren eboluzioaren ondorioz agertutako **kanpo-alderdien, eszenatoki eta arrisku posibleen azterketa** egitea.

•Bake iraunkor baterantz aurrera jotzeko beharrezkoa da barne dauden jardule guztiek akordioa eta aldaketa eragozten dituzten **zenbait immobilismo alde batera uztea** eta “erosotasun-zonatik” ateratzea.

•**Adostasun-guneak zabaltzea** funtsezko lana da eta ondorengo neurrietan zehaztu beharko da:

-Autokritika sustatzea bilgune gisa.

-Keinuen eta sinboloen politika bultzatzea, enpatia eta harreman pertsonala sustatzeko asmoz indarkeria mota desberdinen eraginpean egon diren gizarteko sektore guztiekin.

-Indarrean dagoen legedian kontuan hartu ez diren giza eskubideen urraketak barne hartzen dituen biktimen Lege berria prestatzea.

-Planaren alde guztietan sistematikoki giza eskubideei erreferentziak sartzea.

-Egungo espetxe-politikan posible diren ekimen eta gizarteratze esparruetan sakontzea.

-Planaren garapenean zuzenki parte hartzen duten jarduleen zerrenda areagotzea. Zehazki, eska liteke garrantzi handiko eragileek protagonismo handiagoa izatea, hala nola, enpresa-munduak edota artearen eta kulturaren munduak.

-Gizarte-hezkuntza aldeak eta parte hartu lezaketen gizarteko sektoreekin harremanak indartzea eta bakearen, bizikidetzaren eta adiskidetzaren ideia orokorrak bultzatzea.

-Plan guztiaren genero-analisia burutzea eta genero-ikuspegia ekimen guztietan ongi sartu dela bermatzeko jarduera espezifikokoak diseinatzea.

2. Sarrera: helburuak, metodologia eta irizpideak

Lehendakaritza sailaren mendekoa den Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren sorrera eta, ondoren, 2013ko azaroaren 26an, Bake eta Bizikidetzaren Planaren (aurrerantzean, Plana) onarpena Eusko Jauriaritzak egindako apustu garrantzitsuena dira indarkeriaren amaierari eta Euskadin bizikidetzaren demokratikoa normalizatzeko ahaleginei dagokionez, 2013-2016 legealdirako. X. euskal legealdia euskal gizarteak lehenengo aldiz indarkeria amaitu zenetik bozkatzeko aukera izan zuen momentuan hasi zen eta, beraz, bakearen eta bizikidetzaren finkatzerantz aurrera egiteko aukera eta erronka berriak eskaintzen ditu.

Horregatik hain zuzen, Plana Eusko Jauriaritzaren lehentasunezko proposamen gisa ezarri zen, testuinguru zehatz batean, non abian ziren aldaketa sozial eta politiko azkar eta sakonek ahalbidetzen zuten imajinatzea, hasiera batean behintzat, bakea eskuragarria zela. Aldaketa hauei egokitzeko, praktikan horien garapena zailtzen duten blokeoak sortuz joan direla ikusita, berebiziko garrantzia du zenbait neurri zaharkituta gera ez daitezen edo alferrikakoak izan ez daitezen aldatzen ari den errealitate bati egokitzeko gaitasuna izan ez dutelako.

2.1. Ebaluazioaren helburuak

Bake eta Bizikidetzaren Planaren bitarteko ebaluazioa da, hain zuzen ere, bitartekoa. Honek esan nahi du bertan dauden baieztapen, ondorio eta balorazio guztiak behin-betiko gisa ulertu behar direla, kontuan hartuz orrialde hauetan adierazitako guztiak aurrera edo atzera jo dezakeela 2016. urte amaierara arte geratzen den denbora aurrera joan ahala. Talde ebaluatzailearen helburu nagusiak hauek izan dira:

- Planaren sorrera eta abiaraztea aztertzea, bai eta bere lehenengo lorpenak eta mugak.
- Orain arte ibilitako bidearen inguruko frogak biltzea eta ondorioetara iristea, bide batez adieraziz alde eta gai bakoitzean aurkitutako indarrak eta ahuleziak.
- Planaren zenbait edukiren birformulazioan laguntzea proposamen errealistak eginez eduki horiek zehazteko eta behar berriei egokitzeko, hasieratik argi izanez zeintzuk diren egungo euskal testuinguruan bakeak eta bizikidetzak aurkituko dituzten mugak, bai denboraren eta baita politikaren eta alde sozioekonomikoaren aldetik.

Halaber, ebaluazio hau arautzen duen baldintza teknikoaren agiriaren jasotako erreferentzia-terminoek bere helburuak zehaztuta dituzte:

- Bake eta Bizikidetzaren Plana aztertzea eta ebaluatzea prestakuntzaren ikuspuntutik.
- Bake eta Bizikidetzaren Plana aztertzea eta ebaluatzea programaren betetzearen eta jarduera-egutegiaren ikuspuntutik.
- Bake eta Bizikidetzaren Plana aztertzea eta ebaluatzea bere metodologiaren, edukien eta helburuen indarren eta ahulezien ikuspuntutik.
- Bake eta Bizikidetzaren Plana aztertzea eta ebaluatzea kalitatearen ikuspuntu eta Planarekin harremana duten jardule sozial eta politikoengan duen eraginaren ikuspuntutik.
- Ondorioak ateratzea honako elementuak barne izanda: Planaren osotasunaren eta geratzen den legealdirako orientazioaren inguruko hausnarketa eta proposamenak, sustatu beharreko puntu sendoen analisia eta sektore-proposamen sorta bat hobetu edo egokitu beharreko alderdietarako errealitate aldakorra kontuan hartuta.
- Azken txostena prestatu eta aurkeztea aurreko guztiaren laburpena barne izanik.

Halaber, ezarri egin zen azken txostenaren lehenengo zirriborroa 2015eko ekainaren 15a baino lehen aurkeztu beharko zitzaioala Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari.

Helburu hauei guztiei arreta jartzeari utzi gabe, **ebaluazio honek enfasi handiagoa jarri du etorkizunera**

begira egindako hobekuntza-proposamenetan, orain arte egindakoaren izendatze hutsean eta kontumatean baino. Agerikoa denez, bi alde hauen arteko oreka bilatu da, baina bitarteko ebaluazioa izanik, prospektiba- eta aldaketa-elementuak, behar direnean, nagusi dira.

2.2. Ikuspegi metodologikoa

Talde ebaluatzaileak idazkaritzari oso proposamen metodologiko garatua aurkeztu zion, eta metodologia hori zorroztasunez jarraitu da. Izaera bikoitza duen diseinu metodologikoa da hau, teknika eta tresna kuantitatiboak kalitatearen inguruko beste teknika eta tresnekin uztartzen dituen, elkarriketa erdi-egitura-tuak nagusi izanik.

Metodologiaren azalpen xehatua sartu gabe, talde ebaluatzaileak zenbait aurretiazko gogoeta egin nahi ditu lan honen antzeko alorretan burututako ebaluazioen inguruan. Azken urteotan, politika publikoen ebaluazioa geroz eta sarriago burutu izan da demokrazia aurreratuetan. Zoritxarrez, Espainian ez da horren ohikoa eta, beraz, 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planaren bitarteko eta amaierako kanpo-ebaluazioak burutzeko beharra ezartzea gardentasunarekin harturiko konpromiso positibo eta goraiagarritzat jo behar dugu. Bere ibilbideari ekin aurretik ere, Planak mota honetako planteamenduak barne hartu ditu eta, hala-ber, gogorazi beharra dago Planaren prestakuntza-prozesuan ere ikuspegi eta eduki orokorren balorazioa egin zuela kanpoko nazioarteko talde batek¹.

Bakea eraikitze eta adiskidetzea sustatzeko eta bizikidetzaren hobetzeko arloan ere gobernuen eta bestelako jarduleen interesa handituz joan da jardura hauen ebaluazioari dagokionez, baina gaur arte, esperientzia, literatura eta proposamen metodologiko gehienek guda-egoeretatik edo indarkeria orokorreko egoeretatik irten diren herrialdeen kasuak jorratu dituzte, bereziki herrialde pobreen kasuak². Orain arte gutxi dira ebaluazio honen objektua den egoerentzat zuzenki aplikagarriak diren kasuak. "Programme for Peace and Reconciliation in Northern Ireland and the Border Counties of Ireland 2007-2013 (PEACE III)" programaren duela gutxi amaitutako ebaluazioen kasuak dira euskal errealitatearekiko hurbilenak³. Azkenik, beste kasu batzuetan, bakea eraikitze alor barnean burututako ebaluazioek "mikro" alderdietan jarri dute arreta, proiektu-mailan, eta beraz ez dira oso erabilgarriak Euskal Autonomia Erkidegoko Bake eta Bizikidetzaren Planaren ebaluazio orokorra jorratzeko.

Bestalde, gogoratu beharra dago aurreko legegintzaldietan Euskal Autonomia Erkidegoan egin zirela Bake eta Bizikidetzaren Programaren (2008) edo Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzearen Planaren (2010-2011) jarraipenerako jarduerak, baina jarraipen horiek balorazio-izaera baino izaera deskribatzaileagoa izan zuten⁴.

Horregatik, ikuspuntu hauetako batzuk ebaluazio honen metodologiara egokitzen saiatu bagara ere, partzialki besterik ez dira egokitu, modu aski eklektikoan egokitzen jo diren zenbait ideia eta hausnarketa hartuz indarkeriaren ondoko testuinguruetan burututako bestelako ebaluazioetatik. Edozein kasutan ere, aldi oro saiatu gara nazioarteko praktikan normalean onartzen diren irizpideak eta ikuspegiak erabiltzen. Honela, hemen bildutako hausnarketak frogetan oinarritzen saiatu gara eta prozesu guztian zehar ondorengo sekuentzia jarraitu dugu: aurkikuntza eta analisisaren oinarritutako kausalitatearen ezarpenetik, ondorio eta gomendioetara. Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA) Garapenari laguntzeko Batzordearen (CAD) irizpide egokituak eta Nazio Batuetako ebaluazio-taldearen giza eskubideen eta genero-ikuspegiak ebaluazioetan kontuan hartzeko gomendioak ere jarraitu ditugu (UNEG/G. 2011). Halaber, zeharka aplikatu dira parte-hartzerako eta diskriminaziorik eza bermatzeko irizpideak.

Ebaluazio-prozesu batean ohikotzat jo litekeen orientazio honekin batera, eta alderdi antzemanenez eta "inter-subjektibotasunez" beteriko alorra dela aintzat hartuta, talde ebaluatzaileak bere barne-etzabaida prozesuan sormena erabili behar izan du, baita serendipia ere, John Paul Lederachek bakea eraikitzearen

1 Bake eta Bizikidetzaren Planaren ebaluazio txostena. Andrea Bartoli eta Borislava. Seton Hall University. 2013.

2 CADaren irizpideak gatazkak ekiditeko eta bakea eraikitze ebaluazioetarako. CAD. Paris. 2007.

3 PCIA (Peace and Conflict Impact Assessment) deritzonaren antzeko ikuspegiak probatu diren arren, esaterako Ipar Irlandako kasuan, emaitzak nahiko eztabaidagarriak dira eta ezin zaizkio erraz aplikatu Euskal Herriko errealitateari. http://www.seupb.eu/Libraries/PEACE_III_Reports_Pubs/A_Monitoring_and_Evaluation_Framework_for_Peace-building.sflb.ashx. Azken ebaluazio-txostena hemen ere aurki daiteke: <http://www.niassembly.gov.uk/globalassets/documents/raise/publications/2012/ofmdfm/7113.pdf>

4 http://www.euskadi.eus/r33-2288/es/contenidos/informacion/paz_convivencia/es_paz_conv/adjuntos/plan_pazyconvivencia_evaluacion_20080114_es.pdf

arte eta arima deituko lukeen honetan⁵. Bakean eta bizikidetzan laguntzea ez da soilik, ezta nagusiki ere, prozesu "teknikoa", zenbait metodologia jakin erabiliz berma daitekeena. Askoz ere gehiago da, indarkeria eta giza eskubideen urraketa sufritu dutenen ulermen sakonean eta haiekiko enpatian oinarritutako konpromiso etikoa da.

Ebaluazio-prozesuan zehar guztira 61 elkarrizketa pertsonal burutu dira 67 parte-hartzailerekin (41 gizon eta 26 emakume, I. Eranskinean adierazitakoak) eta 11 galdetegi jaso dira pertsonalki elkarrizketak ezin izan ziren informatzaileengandik⁶. Beharrezkotzat jotako Planaren eta bestelako iturrietako informazio dokumentala ere eskuragarri izan dugu, informazio adierazgarri guztia eskuratu ahal izan dugu eta funtsezko informatzaile eta jardule-taldeengana iritsi gara. Ebaluazio-prozesua talde ebaluatzailearen eta Idazkaritzaren arteko, bai eta era batean edo bestean Planarekin loturiko kide eta erakundearen arteko harreman garden batean oinarrituta garatu da. Azkenik, adierazi beharra dago Idazkaritzaren Planaren jarraipen-sistema aski zorrotza duela Planeko jardueren eta ekimenen garapenaren jarraipenari dagokionez, sei hilean behin zentzu horretan doazen txostenak aurkezten direlarik, eta talde ebaluatzaileak txosten horiek ere kontsultatu egin ditu.

2.3. Zenbait muga. Hizkuntza urruntze-elementu gisa

Ebaluazio-prozesuan ez da zailtasun aipagarriarik aurkitu ebaluazio-lanak burutzerakoan, baina adierazi beharra dago ebaluazio honen objektuarekin, bakearekin eta bizikidetzarekin loturiko terminoen erabilerak euskal kasuan oso konplexutasun eta sofistikazio handia hartu duela, jarduleen arteko ulermena nabarmen zailtzen duen horma bilakatuz. Zentzu honetan, erabilitako hiztegia eta kontzeptuak hertsatu egin dira, askotan, beren ohiko esanahiarengandik urrun dagoen zentzu bat ematera iritsi arte. Hitzetara eta kontzeptuetara karga jakin bat eman zaie, konpontzeke dauden arazoei irtenbidea aurkitzea izugarri zailtzen edo eragozten duena. Bestelako testuinguruetan maiz eta eduki argiekin erabiltzen diren eta komunikazioa eta adostasuna errazten duten terminoak Euskal Herrian benetako balazta bilakatu dira, "bestearen" jarrerak ulertze eta konprenitze hutsa eragotziz. Ebaluazioan egiaztatu ahal izan da zein punturaino oztopatzen duen edozein aurrerapauso hitzen inguruko eztabaida honek. Halaber, egiaztatu da eztabaida hori askotan aurreiritzi gisa ("aurreiritzi" hitzaren zentzu zorrotzean) eta aitzaki gisa erabiltzen dela, beste pertsona eta kolektiboen jarrerak entzutea eta elkarrizketa soila ere ekiditera iritsiz.

Hona hemen zenbait adibide, sakon aztertzeko asmorik gabe, aurrean adierazitakoa zehazteko:

-Gatazka, zenbaitek ulertzen baitute horrekin euskal arazoa baldintza berdinetan gerran ari diren bi etsaien mailan jarriko litzatekeela. Hitz hau, beste edozein testuingurutan, modu neutralean erabiltzen da eduki zabalekin, batzuk positiboak –gatazka gizarte-aldaketa positiboaren eragile gisa–, beste batzuk potentzialki negatiboak –modu demokratiko eta baketsuan ebatzen edo aldatzen ez bada. Kasu honetan, gatazka hitza estigma bilakatu da eta erabiltzen duena jarrera abertzaleengandik eta "gatazkaren teoria" deritzonarengandik hurbil dagoela ulertzen da.

-Bakea, "hemen gerrarik egon ez dela" ulertzen baita. Agerikoa da bakea hitzak, bere adiera orokorretan, "bake positiboa" deritzonaren elementu asko barne dituela, bake negatibo edo indarkeria edo gerra ezaren kontzeptua gaituz. Orokorrean onartutako baldintzetan, berez, xede bat izaten da, helburu desiragarria, beti ez-perfektua, gizarte orok hori lortzeko ahaleginak egin behar dituelarik, inoiz ere bermatuzat jo ezin daitekeela jakinda. Horregatik hitz egiten da bakea erakitzeaz eta horregatik gogoratzen da Mahatma Gandhiren "bakea da bidea" esaldia. Eta, aldiz, Euskal Herriko pertsona eta kolektibo askorentzat termino honen erabilerak baldintzatze bat dakar eta erabiltzen duena talde edo korrante ideologiko jakin batekoa dela esan nahi du.

-Adiskidetzeta, benetan elkar ulertzea eta beren desadostasunak gaituz etorkizun komuna eraikitzea lortu ez dutenen eta bizikidetzeta hutsarekin etsi behar dutenen egoera azaltzen duen terminotzat baztertu egin dute. Bizikidetzeta orainaren emaitza da, baina adiskidetzeta iraganaren eta bere zauri eta mamuen preso geratzen da, hasierako jarrerak gaituz lortu ezean. Praktikan, inposatu egin da, zenbaitetan nekearen eta ez uste sendoen ondorioz, egitatezko bizikidetzeta bat, gaur egun iragankorra edo itzulgarria ez dirudiena, baina aldiz liskar politiko baketsu baten mugak gaituz dituen borroka eta desadostasun luzeegi baten sustrai sakonak ebatzi gabe utzi dituen.

5 Lederach, John Paul. La imaginación moral. El arte y el alma de construir la paz. Bogotá. Grupo Editorial Norma. 2008.

6 Hainbat alorretako (administrazio publikoa, alderdi politikoak, gizarte zibila, biktimen elkarteak, akademiakideak, komunikabideak eta analistak, euskal eliza eta nazioarteko esparrua) 105 pertsonekin harremanetan jarri ginen. Guztira 76 pertsonen parte hartu zuten ebaluazio-prozesuan (47 gizon eta 29 emakume).

-Honela ikusita, ohar gehigarri bat egin liteke Planaren izenaren inguruan, helburu nagusia islatu beharko luke eta. Euskal Herrian ez da bizikidetzarik falta, adiskidetzera falta da, eta Planaren berariazko helburua izan beharko luke “bizikidetzatik adiskidetzera” pasatzea. Aurrerapauso bat ezin da inoiz ere bermatuzat eman (“orria beste aldera itzuli delakoan”), denboraren eta ahanzturaren esku utzita. Adiskidetze sakonik gabe, hain zuzen, bizikidetzeta bera politikaren gorabeheren mende geratuko da, eta alor horretan –gizartearen ez bezala– ez dirudi “orria beste aldera itzuli denik”.

-Distantziakidetasuna, terminoak automatikoki biktimen eta biktimarioen arteko alderatzea dakarrela ulertzen delako, edo gertatutakoaren eta parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizunen inguruan onartu ezin den asepsia. Honela, analisi ez-alderdikari bat egiteko erabat egokia den kontzeptu baten zentzua galdu egiten da, jarrera aprioristikoetatik abiatzea ekidinez.

-Eta antzeko hausnarketak egin litezke beste termino batzuen inguruan, esaterako, justizia trantsizionala, kalte eta indarkeria “bidegabea”, terrorismoa (aplikaezina, askapen nazionalerako borroka armatua izan dela defendatzen dutenen aburuz) eta tortura (poliziaren gehiegikeriak besterik ez direla izan mantentzen dutenek errefusatua). Hitz gutxitan, ez dirudi posiblea denik iragana berrikustea adiskidetze planteamendu batetik gertaerak definitzen dituzten hitzak ere partekatzen ez badira. Hori lortu ezean, diskurtsoaren eraikitze-prozesuak gizarte- eta politika-polarizazioa areagotu egingo du eta terminologiak edozein hurbiltze-prozesu oztopatuko du.

3. 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzeta Planaren testuinguru soziopolitikoa

Plana erantzukizun politikoaren ondorioa da eta indarkeriaren amaiera atzeraezina delako sinesmenean oinarritu da. Iritzi honek euskal gizartearen zati bat bakea dagoeneko iritsi dela sinestera eraman du eta, beraz, Plan espezifikorik behar ez dela uste dute, bakea indarkeriarik eza baino askoz gehiago dela ahaztuz. Edozein kasutan, aitortzen da oraindik ere ez dela lortu bakea finkatzea indarkeriaren amaieraz haratago eta ez dela nahikoa denbora igarotzen uztearekin azkeneko hamarraldietan bizitako tragediatik eratorritako arazo guztiak konpontzeko. Aldi berean, dagoeneko ikusi da orain arte ikusezinak izan diren arazoak agertu direla eta arazo horiek derrigorrez indarkeriaren amaierarekin loturiko arazoetara gehitu behar direla. Agenda konplexu honen aurrean, ulertu beharra dago gizartearen aldaketa sakonik gabe ezingo dela lortu bake bidezkoa, orokorra eta iraunkorra eta, aldi berean, benetako adiskidetzetik gabe ezingo dela bizikidetzeta osora iritsi.

ETAK indarkeria alde batera utzi izanak bakea eta bizikidetzeta sendotzeko abiapuntu berri bat ekarri du. Baina horrek ez du esan nahi hutsetik hastea eta, berez, Planak dagoeneko martxan ziren hainbat ekimen barne ditu. Bada, beraz, dagoeneko burututakoa sustatzeko eta sostengu berriak jasotzeko borondate argia politika alderdikari bat baino gehiago den proiektu erkide bat sortzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak proiektu horren inplementazioan gehiegizko protagonismorik hartu gabe (honela aitortuz ez dela, eta ezin duela izan, jardule bakarria burutu beharreko ahaleaginean).

Ildo horretatik euskal gizarteak duen sentipen nagusiaren arren –orain arte egindako Soziometro eta Euskobarometroetan behin eta berriz ikusi den bezala– eta Plana bera bakearen zeregin komunean parte hartu nahi duen edozein pixkanaka –legegintzaldi bakar batean egin beharrik gabe– barne hartzeko tresna egokia den arren, agerikoa da blokeo orokorreko egoera bat dagoela hainbat arlotan (Legebiltzarreko ponentzia, presoak, armagabetzea, iraganaren berrikuste kritikoa), eta epe ertainera ez dela aurreikusten jarrearen aldaketa handirik.

Ebazteke dagoena xehetasun txikiak besterik ez direla barneratu ahala (garrantzitsuak halere), indarra hartuz joan da euskal gizarteak dagoeneko “orria beste aldera itzuli delako” ideia orokorra, herritarrentzat gaur egun bakea lehentasunezko gaia ez dela dioten datu soziologikoak oinarri hartuta. Zentzu honetan, pentsa liteke ez dela nahasi behar indarkeria amaituta beste gai batzuei arreta jarri ahal izateak dakarren lasaialdia (krisi ekonomiko sakon eta sistemiko baten erdian) bizitako tragedia behin-betiko itxi eta etorkizun komuna eraikitzeko helburuarekiko ustezko interesik edo ardurarik ezarekin. Ildo horretatik, antzeman da iritzi orokorraren arabera alderdi politikoek bere gain hartu behar duten lidergoa ahulegia dela –Legebiltzarreko alderdi guztiei dagokien– prozesua gaur egun dagoen blokeotik ateratzeko. Zenbaiten

arabera, familia politiko bakoitzak metatutako inertzien pisua astuna da eta ez dira gai epe laburrera beren interesetatik haratago ikusteko.

Ikuspuntu zabalago batetik, Gobernu Zentralarekin dauden desadostasunak aitortzen diren arren eta Plana Legebiltzarrean ordezkariak dituzten alderdien arteko adostasun politikorik gabe sortu dela ukaezina den arren –gaurko egunera iritsi den blokeo orokorrarekin, besteak beste, bakearen eta bizikidetzaren inguruko Legebiltzarreko ponentzia luzaroan jarduerarik gabe egon izana eragin duena–, ukaezina da ere horrek ez duela ekidin Planean aurreikusitako hainbat jarduera eta ekimen garatzea, euskal herritarren gizarte-dinamismoa argi utziz.

4. 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Plana: proposamen integral baten balorazio orokorra

Ikuspuntu orokor batetik, Planak euskal gizartean bakerantz eta bizikidetzarantz aurrera jotzeko helburuak eta bideak jorratzen ditu, antagonismoak eta planteamendu itxiak gainditzen ahalegintzen den ikuspegi argi batetik abiatuta. Epe **ertain-luzeko ikuspegiaren** ideia hau funtsezkoa da Plana ulertzeko, ekimen zehatzak alde batera utzita, Seton Hall University-ko Andrea Bartoli y Borislava Manojlovic-ek burututako hasierako ebaluazioaren dokumentuan honela adierazi zen moduan:

Behin betiko bake iraunkorra finkatzen laguntzearen xedea onena da. Ezinbestekoa da bakea imajinatzea, egia bihurtu aurretik. Horrek esan nahi du planak bakea bidean den eginkizuntzat hartzen duela, eta horrek etengabeko dedikazioa eta konpromisoa behar dituela.

Beraz, Planak epe luzeko helburuak eta gaiak jorratzen dituela kontuan hartuta, baina lau urteko legegintzaldi batean eman daitezkeen pausoak zehaztuz, **Planaren azken dokumentua konplexua da**, barne baititu, alde batetik, printzipiotzat jo daitezkeen aldeak –"Planaren interpretazio-esparrua" atalean edo diagnostikoan sartutako "Erantzukizun-printzipioak" deitutakoetan– eta, bestalde, oso alde zehatzak ekimen bakoitzaren konpromisoetan.

Planaren gaikako blokeak ondorengo ataletan aztertuko baditugu ere, hona hemen zenbait gogoeta orokor:

4.1. Plan **beharrezkoa** da

Planaren beharra ukatzen duen gutxiengoaren jarreraren arren –bakea bakarrik iritsiko dela uste dutelako, bultzada kontzienterik gabe, edo dagoeneko bakea dagoela uste dutelako gerrarik egon ez baita–, nabarmendu beharra dago Planaren garapena lorpen etikoa eta oinarritzko elementua dela, ondorengo helburuetarako behintzat:

- a. Denborak dena konpontzen duelakoan gertatutakoa ahaztea ekiditea.
- b. Burutu beharreko lana ordenatu eta egituratzea, elkarrekin aztertu beharreko elementu eztabaidasortzaileak eta gatazka-sortzaileak ere barne hartuta.
- c. Eusko Jaurlaritzak konpromiso argi eta gardenak hartu dituela eta egindakoaren inguruan kontuak eman behar direla idatziz jasotzea.
- d. Administrazioari hainbat sailen eta gizarte zibilaren lana ongi koordinatzea, bakea finkatzearen helburu erkidea lortzeko asmoz.
- e. Eztabaidarako gune pluralak sortzea gertatutakoaren berri jasotzeko, protagonista guztiei hitz egiteko aukera eman eta protagonista horiek irtenbideen bilaketan parte hartzera gonbidatuz.
- f. Iraganeko bizitako gertakarien antzekoak errepika daitezkeen ekiditea.

4.2. Anbizio handiko Plana da **baina errealista**

Legegintzaldi honetan helburu guztiak ezingo direla lortu ulertzen baitu. **Orekatua** ere bada: ongi egitura-tutako zati tekniko bat du, bai eta bakea eraikitzearen eta giza segurtasunaren alorretan praktika eta literatura aurreratuenen ildotik doan ikuspegi kontzeptual eta filosofikoa.

Anbizio hau –zenbait pertsonak gehiegizkoa ere badela uste dutelarik Eusko Jaurlaritzari eskumenak falta zaizkiolako zenbait ekimen planteatzeko– ebaluazioan parte hartu duten pertsona eta talde ia guztiek partekatzen dute. Zenbaitek, halere, Planak are anbizio gehiago izan beharko lukeela adierazi dute, giza eskubideen arloan planteamendu argiagoak sartzeko beharra aipatuz. Planak aitortu egiten du bere sorreraren garaiaren berezitasuna, aurkezpenean honakoa adierazten baitu: *“Europako esparruan, gobernu-politiken egiturak normalki giza eskubideen zuzendaritza bat, institutu bat edo antzeko instantzia bat eduki ohi du, giza eskubideak defendatu eta bultzatzeko. Normaltasun-testuinguruetan, tresna hori nahikoa da gizabidearekin eta funtsezko askatasun eta eskubideekin konpromisoa hartzeko politikak bideratzeko. Gure egungo testuingurua, ordea, berezia da. Duela bi urte, indarkeriazko jarduna bertan behera uzten zuela iragarri zuen ETAK, bost hamarkada baino gehiago igaro ondoren. Berrogeita hamar urte baino gutxiago ditugun guztiok beti bizi izan gara egoera horretan. Gertakari benetan historikoa dugu aurrean. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusi baten sorkuntza zuzenean dago testuinguru soziopolitiko berezi horri lotuta”*.

Egoeraren araberako berezitasun honek bidea utzi behar dio beste demokrazia aurreratuetan bakearen eta bizikidetzaren gaietan hartutako planteamenduari, inolako zalantzarik gabe adieraziz giza eskubideen aldeko konpromiso ukazina eta errespetu osoa.

4.3. Plana **egungo euskal gizarteak eta politikak har dezakeena- ren aurretik doa**

Eta horrek sor dezake alde garrantzitsu bat lortu nahi denaren eta epe laburrean denon artean lor dezakegunaren artean. Bestetik, aldiz, gida bat ezartzen du konfiantzan oinarrituta eta oraingo desadostasunak abiapuntu hartuta aurrera egiteko prest dauden guztientzat. Hala eta guztiz ere, ikuspegi sozial eta politiko horrek azkarrago eboluzionatzen ez badu (eta horretarako denon artean bultzatu behar dugu) Planaren emaitzak mugatuak izango dira halaberrez.

4.4. Lehen aipaturiko epe-luzerako ikuspegi honen ildotik, Planak an- bizio handiko helburuak planteatzen ditu **berrelkartzea eta giza es- kubideak funtsezko ardatz hartuta**

Xedeari, edukiei eta erabilitako metodologiari dagokienez, berrelkartzeko-prozesuan enfasia jartzen duen adiskidetzeko-plana da. *“Une honetan aurrez aurre dugun eginkizun honetan, batu egingo gaituen hitz bat aurkitu behar dugu. Ez da erraza. Nazioartean, normalki, adiskidetzeko kontzeptua erabiltzen da. Hemen, ordea, hitz horrek arazoak ematen ditu, ez da behar bezain baketsua. Adostasun-guneak bilatzeko bidean, lagungarri zaigun hitz bat hartu dugu maileguan”*, dio Planaren ataletako batek. Idazlariek adostasunak bilatzeko egin duten ahalegina onartzen dugun arren, desadostasun nominalista hauek gainditzen dituzten ikuspegiak eta terminoen erabilerak bilatzea proposatzen dugu.

4.5. Planak, egitatez, **bestelako adiskidetzeko-prozesuen antzeko egitura eta metodologia** jarraitzen du: enfasia prozesuan jarrita

Adiskidetzeko-prozesuek iraganaren, orainaren eta etorkizunaren esparru teorikoa erabili ohi dute, Planak bezala. Zentzu horretan adiskidetzeko-prozesuaren 5 elementu aipatzen dira:

- Lurraldea partekatze beharra aitortzea (gure kasuan, hainbat familia-politikoren existentzia, bakoitza bere herrialdearen ikuspegiarekin) eta desadostasunak ebazteko indarkeria berriro ez erabiltzeko konpromiso sendoa.

- Bizikidetzeko demokratikoa eta bakea ahalbidetzen dituzten erakunde/egitura ekonomiko, politiko eta sozialak eratzea. (Euskadin badira eta izan ziren indarkeriaren garaian erakunde hauek, baina gakoa

da erakunde horiek nola erabili konfiantza, eztabaida plurala, memoria partekatuen eraikuntza eta bizikidetzaren demokratikoaren gainontzeko elementuak sustatzeko).

-Iragana aitortzea eta kudeatzea. Honek dakar oraineraino iritsi diren iraganaren ondareak jorratzea (biktimak, argitu gabeko atentatuak, presoak, auziak abian dituzten pertsonak, gizarteratzea, etab.) eta kontakizun eta memoria plural erkide baten eraikuntzari ekitea, beti ere jakinda inoiz ez garelako iritsiko kontakizun bakarria izatera.

-Etorkizuneko ikuspegi erkidea sortzea. Prozesuaren xede nagusia da, aldaketa kulturetan eta jarraituen aldaketan oinarrituta. Prozesu hau garatzeko oso garrantzitsua da eztabaidarako gune pluralak sortzea eta jarduleen arteko konfiantza sustatzea hainbat mailatan, bereziki herri-mailan.

4.6. Planak argi eta garbi hartzen du hari gidari gisa **giza eskubideen defentsa**

Guztion giza eskubide guztiena, inolako anbigutasunik gabe adieraziz hiltzea eta indarkeria erabiltzea ezin dela sekula justifikatu inongo ideien defentsan. Agerikoa da giza eskubideen diskurtsoa, inork publikoki zalantzan jartzen ez duena, erabil daitekeela eta zenbaitetan erabili izan dela diskurtso horren erabilera gaiztoa edo sektarioa egiteko. Baina erreferentzia hori bake eta bizikidetzaren plan baten funtsezko ardatz gisa berreskuratzea ahalbidetzen du, alde batetik, prozesua etorkizunera begira kokatzea eta, bestetik, lehen aipaturiko zenbait arazo terminologiko konpontzea.

Gainera, Planak oinarri sendoak ditu zentzu honetan. Unibertsitateei eta izen oneko pertsonen eskutako **txosten tekniko** anitzek ahalgaitasunak egin dituzte Planaren ekimenak alor honetan dauden nazioarteko eta nazio barneko tresnetan oinarritzeko. Txosten hauen kalitatearen inguruan adostasun handia dago.

4.7. Plana **orokorra eta orekatua** da

Ebaluazioak zuzenki aztertu du Planaren orokortasunaren eta orekaren aldea, zentzu horretan dagoeneko ezagunak diren prestatutako fasean sortutako jarrera kritikoen aurrean, kritika horiek zenbait momentutan komunikabideetako eztabaida baldintzatzen iritsi zirelarik. Beraz, alderdi nagusia izan da hau talde ebaluatzaileak burutu dituen elkarrizketetan, galdetegietan eta hausnarketa eta analisi lanean bertan. Jasotako iritzi gehienek arabera, Planak bakearen eta bizikidetzaren funtsezko gaiak jorratzen ditu, baina desadostasun gehiago dago gaien planteamenduari edo gai bakoitzari ematen zaion pisuari dagokionez.

Irakurketa sektorialetan normala da talde bakoitzak ikustea edo adieraztea Planaren barnean –alderdi bakar batek osatutako gobernuak gainontzeko alderdien adostasunik gabe prestatutako Plana izanik– zenbait alderdik pisu gutxiegi dutela beste batzuen aldean. Eta hori are gehiago gertatzen da gai jakin batzuetan: biktimen aldeko politika, espetxe-politika, giza eskubideen urraketa mota desberdinen tratamendua edo memoriaren politikaren ikuspegi desberdinen inguruko desadostasunak. Ondorengo ataletan gai hau sakonki aztertuko dugu eta Planak barne dituen osagaiak modu aski orekatuan tratatzen dituelako ondorioa iritsiko gara.

4.8. Ikuspuntu formaletik, Planaren **idazkerak eragin bikoitza** du

Dena barne hartzen duen ikuspegi ongi egituratua eskaintzen baitu, bestalde “zuzentzailetzat” eta “laborategiko produktutzat” ere har daitekeelarik, idazkeraren ardura duen taldetik kanpoko pertsonen ekarpen handiak egiteko aukerarik utzi gabe. Halaber, kritika egiten diogu zenbait kasutan, mundu guztia pozik izateko ahalgaitasun batean, termino batzuen zentzua hertsatzen duelako, zenbait termino alboratzen dituelako edo azaleran geratzen delako jarduleak hasiera batetik zokoratuta senti ez daitezen. Ildo beretik doaz hasierako diagnostikoa okerra dela, ezarritako distantziakidetasuna egokia ez dela edo azken urteetako historiaren funtsezko elementuak kanpo utzi dituela dioten iritziak.

4.9. Planak **aurreko proposamenak jarraitu eta sakontzen** ditu

Planean islatzen denak aurreko euskal gobernuak abian jarritako jarduerak eta ekimen asko jaso eta zabaltzen ditu. Horrek ez ditu Plan honi egindako kritikak mugatzen, aitzitik, iraganeko gobernuaren erantzuz

kizunak izan dituzten alderdi politikoekin adostasuna lortzeko oinarritzat erabil daiteke. Lehendakariaren helburu pertsonala izan bada ere, gobernu-programaren lehentasun nagusietako bat bilakatu arte, Planak burutu beharreko lanaren alderdi anitzeko ikuspegia ematen du, hasieratik ahalegintzen delarik jardule sorta zabal baten parte hartzea lortzen. Plana osatzen duten hemezortzi ekimenetatik, gutxienez hamabi aurretik garatzen hasitakoak dira, enfasi desberdina bazuten ere. Planak hauei esparru desberdina ematea –esparru zabalagoa, egindakoari onura ateratzeko– neurri egokia da.

4.10. Hitz gutxitan, Plan **bizi eta malgua** da

Proposamen egituratua eta xehatua izan arren, bere ibilbidean zehar, Plana alde berritzaileak gehituz joan da. Giza eskubideen arloan autokritikaren pedagogia sustatzeko Zuzendu programa, edo armagabetezari buruzko dokumentua, besteak beste, aldaketak behar duten testuinguruan ulertzeko ahaleginaren adibide dira, Planak erreakzio-gaitasuna duela frogatuz. Planaren aktibotasuna ezin da zalantzan jarri, etengabe jartzen baitira abian jarduera berriak barne dituen ia ekimen guztietan. Iturri guztien aburuz, Gobernu Programari hoberen egokitzen den plana da, alde handiarekin, duen egitura egokiagatik, atal bakoitzean sei ekimen dituela, eta iraganari, orainari eta etorkizunari arreta jartzen dion ikuspegiagatik. Hala ere eta ekimen gehienetan betetze-maila formala handia den arren (egutegiak, dokumentuen aurkezpena, jarduerak martxan jartzea...), ezarritako helburuen lorpenean zuzenki eragiteko duen ahalmena askoz mugatuagoa da, lorpen horiek idazkaritzaren kontroletik kanpo dauden aldagaien mende dauden neurrian.

4.11. Azkenik, nabarmentzekoa da Plana, nola ez, **oso baldintzatua dagoela giro politikoaren ondorioz**

Horrek gero eta eragozpen handiagoa ekarri du, azkenik beherantz doan prozesu baten sentipena sortu arte, hainbat jarduera abian dituen baina gai esanguratsuagoak jorratzeko aukerarik gabe, eta 2016. urte erdi edo amaierarako aurreikusitako hauteskunde-prozesuen ondorioz erakundeetako egoera politikoa aldatzeko zain.

Testuinguru honetan, **Planaren lorpen garrantzitsuena da iraganean eraikitakoa suntsitu ez duela. Aldiz, ez du lortu Eusko Legebiltzarreko Bakearen eta Bizikidetzaren inguruko Ponentziaren blokeoa desegitea, ez eta Gobernu Zentralarekin dauden komunikazio-kanalak indartzea, teknikarien arteko komunikazioak kenduta, eta beraz ez dago arintasun bera maila politikoan.** Bakea lortzeko ahalegin kolektiboa sustatzeko bultzada politikorik ezaren aurrean –Legebiltzarreko ponentziaren paralsiak edo Gobernu Zentralaren geldotasunak agertzen dutenez–, are garrantzi gehiago hartzen du Plana existitze hutsak. Bere egiturari eta Idazkaritzaren dinamismoari esker, motorra martxan mantentzen duten jarduerak burutzen ari dira, hartara **desblokeatze politikoa iristen denean askoz azkarrago aurrera egitea ahalbidetuko duten baldintzak sortuz**, gizarte-jarduleen arteko akordioak bilatuz eta garaia iristen denean aurrerapausoak finkatzea ahalbidetuko duen gizarte-dinamika indartuz.

5. Planaren analisi xehatua

5.1. Planaren egokitasuna eta prestakuntza-prozesua

Aurreko legegintzaldietan jada, hainbat euskal gobernuk jorratu zituzten bakearekin eta bizikidetzarekin loturiko gaiak, hainbat politika publikoko tresna erabiliz. Gobernu horietako bakoitzak, egoeraren eta bere helburu politikoen arabera, enfasia jarri zuen egokienak eta beharrezkoenak zirela uste zuen gaietan. Egungo testuinguru soziopolitikoan bi hasierako berezitasun nabarmendu behar ditugu:

- Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusi baten sorrera, zuzenean Lehendakariaren mende dagoena eta ordura arte Sail desberdinetan sakabanatuta zeuden gaiak eta eskumenak multzokatu dituen (Justizia, Barne Arazoak...).

- Planaren planteamendua dena barne hartzen duen logika integraletik abiatuta, gainera iraganarekin eta orainarekin lotura duten gaiak jorratzen dituela kontuan hartuta, beti ere etorkizunera begira.

Ebaluazioak bi alderdi hauek aztertu ditu eta lortutako emaitzak eta frogak nahiko argiak dira. Elkarrizketatuen eta inkestatuen gehiengo ia osoak **uste du Idazkaritzaren sorrera eta erakunde hau maila administratibo gorenean kokatzea egokia edo oso positiboa izan dela**. Haietariko gehienentzat, hau Eusko Jauriaritzak bakearekin eta bizikidetzarekin loturiko politikari eman nahi dion lehentasunaren eta zentzu horretan Lehendakariak duen konpromiso zuzenaren seinale da. Idazkaritzaren sorreraren egokitasun handia ondorio argienetakoa da, hala ere desadostasunak badiren arren, zenbaitek uste baitute ordura arte banandutako sailak elkartzea presoen eta biktimen arteko berdintze gisa (pertsonek ikuspuntutik ere) uler daitekeela.

Planaren egokitasunari (Plan "baten" egokitasunari) dagokionez, eta momentu horretan zegoen beharri dagokionez, jarrerak ez dira horren parekoak. Elkarrizketatutako erakundeen eta pertsonen gehiengo handiarentzat Plana beharrezkoa edo oso beharrezkoa da, Euskal Herrian bizikidetzeta sendotzeko eta benetan atzeraezina izan dadin, politika aktiboak behar direla azpimarratuz. Kontrako iritzi eskasak funtsa da, asko laburbilduz, "euskal gizarteak orria beste aldera itzuli duela", nabarmenduz gizartearen errealitatea honelako plan batean aurreikusi daitekeena baino askoz azkarrago doala, eta Planaren tankerako dokumentuek gizartearen errealitate eta aldaketari gutxi ematen diotela. Edozein kasutan ere, ia aho batez adierazi dute elkarrizketatuek Planak oraindik ere euskal gizartearen diren beharrei eta arazoei erantzuten diela eta, ondoren ikusiko den moduan, desadostasunak badira ere, egokia dela.

Talde ebaluatzailearen iritziz, **Plana erabat egokia da hasieratik, duela ia bi urte, eta oraindik ere egokia da**.

Halaber azpimarratu beharra dago ekimen asko profesional eta talde independenteen txosten teknikoetan oinarrituta eraiki direla.

5.1.1. Mugak dituen partaidetza-prozesua

Plana, lehenik eta behin, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiko pertsona talde batek prestatu du –kanpoko aholkularitza-enpresarik hartu gabe– dena barne hartzen duen eta burutu beharreko lanarekin koherentea den ikuspegi bat ezarri. Gainera, Planaren prestakuntzaren ardura izan duen taldea ahalegindu da bilatzen beranduago Planaren ebaluazioa eta balorazioa erraztuko zuten adierazle, aldagai eta nazioarteko erreferentziak.

Planaren prestaketarako partaidetza-prozesu bat jarraitu zen, 2013. urteko otsaila eta azaroa bitartean, eta horren ondorioz, hainbat zirriborro lortu ziren eta azkenean onartu zen bertsioan jasotako hainbat proposamen sartu ziren. Planaren Atariko atalean bertan prozesu osoa xehetasunez azaltzen da, beraz ez dugu berriz errepikatuko. Aipagarria da ekarpenen kopuru handia, alegazioen kalitatea eta horietako bakoitzaren atzean dagoen talde-lana. Doktrina-izaera sendoa eta eduki politiko ugariak zirela eta, zenbait kasutan, edo proposamen batzuk sektore jakin bati soilik zuzenduak egonagatik, bestetan, ezin izan ziren proposamen asko barne hartu. Edozein kasutan, hasierako eta azken dokumentuen arteko alderaketak argi uzten du zenbait alderdi garrantzitsu, hizkuntzari dagokionez ere, sartu egin zirela eta Idazkaritzako idazlariek benetako ahaleginak egin zituztela sektore guztien eskakizunei erantzuteko, hartara Planari oreka handiagoa emanez.

Parte-hartzea, dena den, modu nahiko zuzenduan eta dagoeneko oso egituratua zegoen hasierako zirriborro batetik abiatuta garatu zen, parte hartu zuten zenbait erakunderen aburuz, eta horrek hainbat alderdi barne hartzeko aukera mugatu zuen. Hala ere, elkarrizketatutako pertsonak eta jasotako galdetegi gehienek erantzunek adierazi zuten prestakuntza-prozesua “nahiko parte-hartzailea” edo “parte hartzaile samarra” izan zela.

Kontuan hartuta ez Idazkaritzak ez eta Eusko Jaurlaritzak ez zutela honelako prozesu bat abian jartzeko obligatorik, sustatutako parte-hartzea eta azkeneko emaitza positiboak direla uste dugu eta,aldi berean, euskal gizarteak gai hauen inguruan iritzia emateko duen interes erkidea islatzen duela. Beste politika publiko eta testuinguru geografiko batzuekin alderaketa-irizpideak erabiliz, ondoriozta daiteke **lortutako parte-hartze maila eta proposamenen kontuan hartzea nahikoa izan zela.**

Dena den, bereizi beharko litzateke jardule politikoaren parte-hartzea, eta bereziki Legebiltzarreko taldeena, argi ezarritako prozedurei jarraiki egiten dena, eta gizarte-erakundearen eta gizarte zibilararen parte-hartzea sustatzea, azken honek, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak eta bestelako Aholkularitza Kontseiluek ezarritako bideez gain, bide formal gutxiago baititu.

Bestalde, badirudi arazoa edukietan dagoela eta ez prozeduretan, hainbat ekarpen eskatu badira ere Plana ez baita indar politiko eta sozialen bateratzearen emaitza, baizik eta “Eusko Jaurlaritzaren produktua”, eta beraz ezin da geratu eztabaida politikoek jaso ohi duten iritzi kritikoa, eta askotan polemikoa, kanpo.

Datu objektibo eta ez-aldagarri hau kontuan izanik ere, ezin da zalantzan jarri etengabe ahaleginak egiten badira, bai komunikazioaren aldetik eta bai ekimenen inguruko kontsultaren aldetik ere, adostasuna areagotu egingo dela eta Plana eraginkorragoa izango dela. Parte-hartzea, definizioz, testuak idatzi ziren momentutik haratago joateko eta testuen aplikazioan zehar jarraitzeko ahalmena duen metodoa da, are gehiago bakea eta bizikidetzaren moduko alorrean.

5.1.2. Genero-ikuspegia

Planak “bakea eta bizikidetzaren finkatzeko funtsezko eragile gisa, emakumeen esku-hartze eta partaidetza parekidea bermatzen duten ekintzak sustatzeko” konpromisoa hartzen du. Emakunderi, emakumearen euskal erakundeari, kontsulta egin zitzaion Planaren prestaketa-prozesuan eta erakunde hau ekimenen inplementazioaren jarraipena burutzeko ardura duen Sail arteko Batzordearen kide da. Laguntzen deialdiek nazio eta autonomia erkidego mailan indarrean dauden berdintasun-legeek ezarritakoa betetzen dute; gainera, 10 punturainoko baremoak dituzte genero-ikuspegia barne dutela frogatzen duten proiektuentzat. Halaber, aipagarriak dira biktimen datu-baseak sexuaren arabera bereizteko ahaleginak eta indarkeria politikoak emakumeengan duen eraginaren inguruan abian den azterlana.

Ostera, Planak ez du ekimen bakoitzarentzat zehaztutako genero-analisi integral eta espezifikorik, jarduera guztietan genero-ikuspegia modu egokian kontuan hartzen dela bermatzeko. Esaterako, nabarmentzekoa da eskatutako azterlanek genero-ikuspegiari arreta berezirik ez jartzea eta, jartzen diotenean, Euskal gatazkan 1960tik 2013ra izan diren giza eskubideen urraketari buruzko txostenaren kasuan bezala, ikuspegi hori ikuspuntu kuantitatibotik soilik aztertzea. Ondorioz, hasierako konpromisoak ez ditu ekarri jarduera espezifikorik parte-hartzea sustatzeko eta euskal emakumeek, bakearen eta bizikidetzaren eraikitzearen eragile gisa, burutu duten eta burutzen ari diren lan garrantzitsua ezagutzera emateko.

Bestalde, harritzekoa da gizarte zibilean eta alderdi politikoetan ia ez egotea elkarrizketarako eta parte-hartzerako bakearen eta bizikidetzaren aldeko emakumeentzako gune edota mugimendu espezifikorik. Adibidez, ez da errepikatu Ahotsak mugimenduak 2006. urtean antolatutako esperientzia interesgarria, non sentsibiltate desberdineko emakumeak elkartu egin ziren emakumeen parte-hartzea eta protagonismoa eskatzeko “irtenbideak bilatzeko orduan ere”. Bere sorrera-adierazpenean laburbildu zuten zergatik den garrantzitsua emakumeen parte-hartzea bakea eta bizikidetzaren maila guztietan eraikitzeak, baita maila politikoan ere: “Irtenbidearen subjektu aktibo izan behar dugu, orain arte gertatutakoaren subjektu izan garen bezala”⁷.

Egungo ahaleginak, Eusko Jaurlaritzaren barrenetik eta kanpotik ere, emakumeen elkarrizketarako eta parte-hartzerako guneak sortzeko apalak eta ahulak dira. Ebaluazio honetatik Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari eskatu nahi diogu esplora dezan, testuinguruak eskatzen duen zuhertasunarekin, sentsibiltate desberdinak dituzten emakumeak biltzen dituzten hausnarketarako, elkarrizketarako eta parte-hartzerako guneen sorrera edo sustapena. Foro mota hau garrantzitsua da genero-ikuspegia islatzeko eta parte-hartzea bultzatzeko. Halaber, konfiantza eta adostasun politiko eta sozialak lortzeko orduan ere eginkizun garrantzitsua izan dezakete, bai eta hainbat gai desblokeatzeko elkar ulertze zubiak ezartzeko orduan.

7 Ahotsak mugimenduaren sorrera-manifestua, 2006ko apirilaren 8koa.

Ondorioak

Ebaluazio honek Planaren borondate ona aintzat hartzen du genero-ikuspegia barne hartzeko helburuarekin eta euskal emakumeek bakearen eraikuntzan duten betekizun aktiboa sustatzeko eta ezagutzera emateko nazioarteko mekanismo eta ebazpenak aplikatzeko. Baina, aldi berean, **ohartarazi nahi dugu konpromiso horrek ez dituela ekarri ikuspegi hori modu egokian integratzea bermatzen duen jardueraz zehatzik**. Genero-ikuspegia Planaren eta bere ekimenen azterketan zeharka barne hartuz aukera ona sortzen da eta bermatu egiten da herritar guztien ordezkari berdintasun-baldintzetan.

5.2. Planaren alderdi metodologikoak

Bestelako plangintza estrategikorako tresnekin alderatutako ikuspuntu batetik, Plana **dokumentu originala** da eta dokumentu mota honetan ohikoak ez diren alderdi askotako elementu baliotsu anitz barne ditu: elementu etikoak, prozesuaren ikuspegi globalarekin loturikoak edo talde desberdinen adostasuna bilatzen dutenak. Are gehiago, "Planaren interpretazio-esparrua" izeneko atala du barne Planaren ulermena errazteko asmoz. Galde genezake Planaren diseinuan eta aurkezpenean egon den originaltasun honek Plana bere hartzaile potentzialetara hurbildu edo haiengandik urrundu ote duen. Ebaluazioak egiaztatu duenez, Planak, orokorrean, harrera ona izan du, bere kontzeptu eta proposamenen aberastasuna goraiatzeko da eta honelako planteamendu ezohikoak beharrezkotzat jotzen dira bakea eta bizikidetzaren bezalako alor batean plangintzak egiteko orduan. Hala ere, gutxiengo baten iritziak kritikoagoak dira Planaren alde formal eta idazkera-alde hauekin eta uste dute zenbait atalek gehiegizko erretorika dutela.

Ikuspuntu formal hauek alde batera utzita, talde ebaluatzailearen aburuz, **Planaren ikuspuntua eta xedea argi geratzen dira**, sakonki arrazoitzen dira eta, 18 ekimenetako bakoitzari dagokionez, zehaztasun-maila ezin hobea du. Zentzu honetan, argi dago Planaren lehenengo bi atalak osagarriak direla (helburuak ezartzen dituen Proiektua eta Prozesua) hirugarren atalarekiko (Programa). Eusko Jaurjaritzako Koordinatzaile Zuzendaritzak nahitaezko Planaren onarpenaren aurretiko txostena burutu zuen, Plana kalitate eta zehaztasun handikoa eta gobernuaren helburuen ildo berekoa zela ondorioztatuz. Proposamen bakarra izan zen jarraipen eta ebaluaziorako adierazle-sistema hobetzea, zentzu kualitatibo eta kuantitatiboan, batez ere eraginaren balorazioa hobetze aldera, jarraipena eta ondorengo ebaluazioa optimizatzeko xedearekin.

Planak legegintzaldiko ahaleginak gidatuko dituzten **zazpi** helburu ezartzen ditu:

- I. ETAREN desarmearen exigentzia eta haren benetako amaiera gauzatzeko laguntzea.
- II. Giza eskubideen urraketa guztien egiaztapena egitea.
- III. Biktimen guztien errekonozimendu- eta ordain-prozesua osatzea.
- IV. Memoriaren politika publiko bat definitzea eta bultzatzea.
- V. Testuinguru berriarekin bat datorren espetxe-politika baterako akordioak bultzatzea.
- VI. Bizikidetzako akordio demokratiko baterako oinarritzako adostasunak lortzea.
- VII. Gizarte- eta hezkuntza-arloko elkarrekintzak bilatzea, gizarte-elkarketako kultura bultzatzeko.

Jakina, lehenago aipatu bezala, anbizio handiko helburuak dira, baina lehenengoa izan ezik –eta lehenengoaren zati bat soilik– denak daude Eusko Jaurjaritzaren eskumenen barne. Helburu hauek zehaztutako ekimenekin duten koherentzia erabatekoa da.

Metodologiari dagokionez, Planak mikroakordio deritzon aldeko apustua egiten du. Oinarri etiko partekatutako bat eta burutu beharreko lanaren inguruko funtsezko adostasunak ezartzeak dituen zailtasunak ezagututa, are zentzu gehiago hartzen du mikroakordio horien planteamenduak. "Urratsez urrats" estrategia hori da hain zuzen ere –beste hainbat kasutan gertatu den bezala, Europar Batasuneko kasuan esaterako– hasierako mesfidantza desagerraraz dezakeena, interes erkideetan oinarritutako etorkizun komuna eraikitzearen abantailak agerian jarritz.

Planak proposatzen duen mikroakordioaren logika hau ezin izan da bete hitzez hitz planteatutako moduan, baina hala eta guztiz ere, abian jarri diren 18 ekimenetako bakoitzean aurreikusitako jarduerak asko burutu dira. Zehazki, hirugarren mikroakordioaren kasuan, gizarte- eta hezkuntza-arloarekin loturikoa, esan genezake zorrotasunez lortu eta bete egin dela aurreikusitakoa.

Planaren dokumentuaren gabeziak bat da, plangintza-tresnei dagokionez, inplementazioan eragina izan zezaketen **eszenatoki alternatibo posibleen analisisa** barne hartu ez izana. Gutxienez ere, **Planak** bere garapenean eraginen bat izan dezaketen **kanpoko faktoreak, hipotesiak eta arriskuak aintzat hartu beharko lituzke**. Ohiko plangintza-praktika bat da hau eta Plan honen tankerako alorretan oso gomendagarria dirudi, are gehiago kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzaren eskumenen esparrutik haratago doazen ekimenak barne dituela edo ekimen horien garapen zuzenerako beste jardule sozial eta politikoen borondatea behar dela.

5.3. Abiaraztea eta gauzatzea lan-eremuen arabera

Planak kasu askotan lehendik gauzatzen ari ziren jarduera askoren jarraipena ekarri du, beharrezko zuzenketekin, beste jarduera berri batzuen abiaraztearekin batera. Goraipagarria da Planaren 18 ekimenak abian jarri izana, eta haietako asko normaltasun osoz eta emaitza onekin garatu izana.

Hala ere, Planaren gaikako blokeen inguruko informazioa emango dugu, hartara, emandako aurrerapausoak, aurkitutako zailtasunak eta zenbait gaietan ager litezkeen itotzeak edo blokeoak argiago ikusiko baitira. Jarraian aztertuko diren blokeak Planaren helburuekin loturikoak dira. Haietako bakoitzarentzat egindakoaren laburpena emango dugu eta zenbait ondoriotara iritsiko den analisisa ere bai. Gomendioak, bestalde, Txostenaren amaieran multzokatu ditugu.

5.3.1. Iraganeko memoriak eta giza eskubideen urraketak

Planak argi uzten du iraganaren kudeaketa dela, indarkeria garai luze eta tragiko baten ostean, barne dituen arteko gai konplexuena eta delikatuena, beste edozein arlotan aurrera egiteko gako gisa identifikatzera iritsiz. Karga horren sakontasuna ulertzea, aurrez ikus zitezkeen oztopoak ez gainditzekotan, Plan osoaren inplementaziorako erronka orokorra zen eta oraindik ere bada.

Gertatutakoa argitzeko helburuaren xedea ez da, Planak adierazi moduan, ahaztea edo interpretazio subjektibo desberdinak daudela ukatzea. Helburu honen xedea da, 1960. urteaz geroztik egon diren giza eskubideen urraketen inguruko gertaera guztiak bilduz, beharrezko borondate etiko eta soziala sortzea gertaera horien balorazio kritikoa egin ahal izateko. Horretarako, Idazkaritzak erabaki zuen Eusko Legebiltzarreko Bakearen eta Bizikidetzaren inguruko Ponentziaren esku uztea mikroakordioen estrategian oinarritutako eztabaidarako proposamen bat, Planaren lehenengo sei ekimenekin loturiko konpromiso egituratu bat barne zuen.

Hala ere, azkar asko ikusi zen Legebiltzarreko alderdi politikoak ez zeudela prest burutu beharreko ahalgintza gidatzeko lana elkarrekin burutzeko, kontakizunaren inguruko guda batean baitzeuden eta oraindik ere ez baitute lortu oinarri etiko bat finkatzea. Mesfidantzaren pisuaren, alderdi politiko bakoitzaren barneko dinamiken eta hitz edo interpretazio jakinak onartuz gero zenbaitek garaipen/porrot gisa interpretatuko zutelako sinesmenaren ondorioz, gaur arte lehen aipaturiko Legebiltzarreko Ponentzia ia erabat geldiarazi da eta hasiera batean planteatutako mikroakordioak zehazteko aukera nabarmenki oztopatu da. Horren ondorioz:

-Beste alor batzuetan gertatu ohi den moduan, Ponentziaren blokeo argiak eragin du, programako eta proposamenetako konpromisoen betetze-maila handia izan den arren (3. ekimenean "Terrorismoaren biktimak gogoratzeko proiektuari ekimenak egitea" eta 5. ekimenean "Egungo legedian babesik ez duten biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea" izan ezik), inplementazioan ia aurrerapausorik eman ez izana (4. ekimenaren "Terrorismoaren biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea" eta 2. ekimenean eta Memoria historikoari buruzko 2015-2016ko Lehentasunen Oinarri Programan aurreikusitako Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren eraketarako duela gutxiko onarpenaren salbuespen aipagarriekin). Planak argi eta garbi azaltzen ditu desadostasunak, itotzeak eta hasierako aurkako jarreraren beldurrak aurrera jotzeko erresistentzia azal dezaketenak; baina bere horretan Planak ez du behar den bateratze-prozesua bultzatzeko gaitasunik.

-1. ekimenari dagokionez, oraindik ezin izan dira osatu ez eta irizpide erkideekin bateratu gertatutako eskubideen urraketen erregistroak. Hainbat erakundek eta elkartek orain arte egindako ahaleginak goraipatu behar diren arren, aitortu beharra dago ahalegin partzialak eta zatikatuak direla, eta ez beti motibazio berdinekin. Horren emaitza eragin kaltegarria izan liteke, desadostasunak are gehiago indartzearena hain zuzen, arreta iragana argitzean jarri beharrean.

-2. ekimenari dagokionez, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren sorrerak argi eta garbi agertzen du borondate politikoa dagoenean elkarrekin aurrera egin daitekeela, etorkizunean hartu beharreko bidearen inguruan desadostasunak badaude ere. Azken hilabeteotan Institutuaren proiektuan lortutako aurrerapausoak nabarmentzekoak dira benetan eta adostasun adibide ona dira. Ikusteko dago, ildo horretatik, Memoriaren Egunaren (azaroak 10) elkarren arteko ospakizuna berreskura daitekeen ala ez.

-Aitzitik, Terrorismoaren Biktimen Errekonozimendu eta Babeserako Legearen 57. artikuluan jasotzen den terrorismoaren biktimak gogoratzeko proiektua (3. ekimena), Gobernu Zentralaren eta Eusko Jaurilaritzaren artean dagoen komunikazio jariakor ezaren adibide argia da, Gobernu Zentralak proiektua eskusiban bere gain hartu duelarik, Eusko Jaurilaritza atzeko planoan utzita.

-Arrazoi desberdinak direla eta biktima gisa aintzat hartu beharreko pertsonen zerrenda osatzea lortu ez den arren eta abian dauden espediente guztiak oraindik ere ebatzi ez diren arren, errealitate ukazina da 4. ekimenak (Terrorismoaren biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea) betetze-erritmo handi eta egokia daramala. Aldiz, ezin da gauza bera esan 5. ekimenari buruz (), are gutxiago bere garaian Eusko Jaurilaritzak onartu zuen (eta 2013ko urriaren 16ko 426/2013 Dekretuak aldatu zuen) ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren aurkako erabaki judizialaren ondoren. Dekretu horren xedea zen 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimei babesa ematea, "urraketa berari, babes bera" printzipioa oinarri hartuta. Biktimen atalean aztertuko dugunez, aipagarria da erabaki judizial honen arren espedienteen izapideek modu normalizatuan aurrera segi izana.

-Hasiera batean 6. ekimenean (Torturari buruzko ikerketa eta ekintzak) proposatutakoari erantzuteko ardura duen Kriminologiaren Euskal Institutuaren (IVAC/KREI) lan goraipagarria ere nolabait zalantzan jartzen da, lanaren egokitasunari dagokionez, hainbat iritzi-eremutan (bertan askotariko jarrerak aurkitzen direlarik: tortura existitzen dela edo sistematikoa dela erabat ukatzen dutenetik, egungo momentu politikoan lan hori burutzea egokia ez dela uste dutenetara). Dituen giza baliabideak mugatuak badira ere, eta halaber hartutako lan-metodo zehatza gorabehera ("Istanbulen Protokoloari" eta bestelako nazioarteko erreferentziei jarraiki), oso garrantzitsua da Institutu honek bere lana bukatu ahal izatea Planean aurreikusitako denbora-esparruaren barnean.

Bere aldetik, Memoria historikoari buruzko 2015-2016ko Lehentasunen Oinarri Programak, iraganaren berrikusketa kritikoaren ahalegina zabaldu duena Francoren diktaduraren garaia barne hartuz (1936-1975), oraingoz balio izan du dagoeneko abian ziren ekimen partzialak modu egokian bildu eta artikulatzen jarraitzeko, herritarren eta erakundearen laguntzarekin, ordura arte burututako jarduerak ordenatzeko eta egituratzeko ahaleginean, jarduera horiek beharrezkoak ziren beste batzuekin osatuz eta dauden baliabideekin lortu daitezkeen lehentasunak ezarriz. Biktimen politika publikoaren barrenean dauden eta egia, justizia eta ordaina jasotzeko eskubideen alorrak barne dituen esparru generiko baten zatia den heinean, lehen aipaturiko Oinarri Programak proposatzen ditu halaber Memoriaren politika publikoaren barneko ez-errepikatzea bermatzeko jarduerak, iraganen duintasuna, askatasuna eta demokrazia defendatzeko erabili ziren balioen inguruko lan pedagogiko gisa.

Ondorioak

Oraindik ere eztabaida politiko eta mediatiko gehien sortzen duen gaietariko bat dela aintzat hartuta –kontakizunarekin eta biktimekin lotutako ekimenekin batera– honakoa ondoriozta daiteke:

-Ez dago (eta ez da egongo) iraganaren kontakizunaren eztabaida behin-betiko ebatz dezakeen arbitro aseptikorik, ebazpen hori denek onartzeko moduan. Baina bada, gutxienez, gertaeren erregistroa zehaztasunez ezartzeko neurri objektibo bat: giza eskubideen urraketa. Horrek izan behar du, itzulgingururik gabe, beharrezko argitze-prozesuaren abiapuntua.

-Memoria, definizioz, poliedrikoa da. Horrek esan nahi du, ziur asko, ezingo dela alde guztiak asebetetzen dituen kontakizun bakarrera iritsi. Zentzu horretan proposa eta bultzatzea daitekeena da herritarren eta adituen eskura dauden askotariko testuak eta materialak sortzea, gertaerak ikuspuntu desberdinetatik zehazki ezartzeko, genero-ikuspuntua barne hartuta, inor kaltetzen ez duen (baina inor asebetetzen ez duen) azaleko eremuan geratu gabe, horrek gertatutako guztia aitortzea saihestuko luke eta. Kontakizun edo historia erkidea, egunen batean lortzen bada, bidearen helmuga izango da eta ez martxan jartzeko aurrebaldintza.

-Beste kasu batzuetako esperientziagatik dakigunez, interesgarriena da elkarlanerako ekimenak maila

lokalean abian jartzea. Honela, denek erkide gisa aitortzen duten gunean libreki adierazitako hainbat kontakizun daudela onartuz, arreta gehiena jarri beharrean bakea zergatik hautsi zen eta iraganean indarkeria zergatik hasi zen erabakitzean, ahalegin nagusiak izan behar du galdera honi erantzunak bilatzea: nola bizi gaitezke denok elkarrekin bakean eta lurralde berean gaur eta bihar?

-Duela gutxi sortutako Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak berebiziko erantzukizuna du ahanztura ekiditeko –inoiz ere ez baitu balio izan indarkeriaren zauriak ixteko– eta iragana argitzeko. Biktimek memoriaren eskubidea duten bezalaxe –eskubide horrek errekonozimendua eta ordaina dakartzalarik–, gainontzekoek memoriaren betebeharra dute, gertatutakoaren egia ezagutzeko informazioa sortuz. Hortik eratoritzen da iraganaren inguruko autokritika-prozesuak alde anitzetatik partekatzeko beharra, hartara elkargune soziopolitikoak aurkitzea eta egungo desadostasunak gainditzea ahalbidetuz.

5.3.2. Biktimei laguntza, errekonozimendua eta arreta ematea

Iñigo Urkullu lehendakariak pasa den 2015eko ekainaren 5ean egindako autokritika publikoa eta biktimei barkamena-eskatze formala, ebaluazio honen garapen-prozesu batean, zalantzarik gabe aurrerapausoa da euskal autoritateen terrorismoaren biktimei taldearen aurrean erantzukizunak onartzeari dagokionez. Karga sinboliko eta enpatiko handia duen beharrezko keinua da. Pauso garrantzitsua ere bada eta beste jardule eta talde batzuk jarraitu beharko duten aurrekaria. Keinuak mila hitzek baino hobe azaltzen du erakunde eta talde guztien “erosotasun-zonatik” kanpora ateratzeko beharra, bizikidetzaren oso eta egoki baterantz aurrera jo nahi badugu. Talde ebaluatzailearen iritzitan, biktimei elkarrekin ekintza honen inguruan lortu duten batasuna eta Lehendakariaren adierazpenek biktimei eta gizarte osoaren aldetik izan duten harrera ona Planaren emaitza positiboaren adibidea dira, hasieratik alderdi konplexuenetakoa eta eztabaidatuenetakoa izan den batean: topagunerantz aurrera jotzea hasierako mesfidantziatik eta Planaren inguruan biktimei eta beren elkarrekin erakutsi zuten urruntasunetik abiatuta. Horregatik guztiagatik da hain zuzen ere ageriko emaitza ona, Planaren III. helburuaren esparruan, “Biktima guztien errekonozimendu- eta ordain-prozesua osatzea”, berriz ere nabarmen utziz “orainaren lehentasuna” bakearen diskurtsoaren esparruan: gaur egiten dena da –errekonozimendu, elkartasun eta giza hurbiltasun moduan– iraganeko zauriak sendatzen has daitekeena.

Ebaluazio-prozesuan burututako lehenengo elkarriketatik, taldeak antzeman zuen lehenengo eta egiaztatu zuen beranduago biktimekiko dagoen **honetako keinu eta ekintza enpatikoen beharra eta ego-kitasuna** erakundearen aldetik. Eta pozgarria da ikustea Eusko Jaurlaritzak Txosten honetako ondorio eta gomendio argienetako bati aurrea hartu diola, gure aburuz, Planean jasotako autokritikaren eta biktimei errekonozimenduan aurrera egiteko beharrezkoen ideia hau Planaren xede nagusiarekin erabat koherentea baita.

Agerikoa da Planean dauden gai nagusienetako eta zailenetako bat biktimei loturikoa dela, zentzu horretan bi aldeetako kritikak jaso direlarik: indarkeria kasu desberdinen (terrorismoa eta “poliziaren gehiegikeriak”) arteko distantziakidetasun onartezina dela, batetik, eta gaiaren inguruko arreta eta sentsibilitatea nahikoa ez dela, bestetik. Jakina, irmo defendatu beharra dago biktima guztien errekonozimendu- eta elkartasun-eskakizunari erantzuteko beharra –betebeharra– (tratu berdina bermatuz), baina horrek ez du esan nahi alde batera utzi behar denik indarkeria mota desberdinei buruzko historian eta estatistiketan argi agertzen den “desoreka kuantitatiboa”, ez baitago horretarako justifikaziorik.

Halere, nabarmendu beharra dago araudiaren ikuspuntutik Eusko Jaurlaritzaren biktimekiko politika oso aurreratua dela eta giza eskubideen arloko nazioarteko instrumentuen ildotik doala duela, gutxienez ere, lau legegintzaldi. Hain zuzen ere, politika horren oinarriek ezartzen duten moduan, “Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 8. artikuluan, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 2.3 artikuluan eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 13. artikuluan ezarritakoan oinarrituta, bi dira nazioarteko zuzenbideko erreferentzia nagusiak: 2005eko abenduaren 16ko Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 60/147 Ebazpena, giza eskubideen urraketen biktimei eskubideen inguruko printzipioak eta gidalerroak ezartzen dituen; eta 29/2012 Biktimei Europako Zuzentaraua”. Horiei gehitu beharko litzaieke Espainian Terrorismoaren Biktimei Errekonozimendu eta Babes osoa emateari buruzko irailaren 22ko 29/2011 Legea, eta erkidego mailan, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legea. Xedapen horiek ekainaren 12ko 17/2012 Dekretuaren bitartez zabaldu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko. Espainiako gobernua Dekretu honen aldaketari jarri dion errekurtsioa aztertuko dugu beherago.

Biktimekiko politikaren jarraipena eta sakontzea. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bitartez egindakoari jarraipena emanez, Planak biktimei zuzendutako bi ekimen espezifiko ditu: 4. eki-

mena, "Terrorismoaren biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea", eta 5. ekimena, "Egungo legedian babesik ez duten biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea". Kontuan izanik bi ekimen hauek biktimekiko politikaren zati handiena barne hartzen dutela, beste ekimen batzuek loturiko gaiak jorratzen dituztela eta biktimekin eta biktimekiko lana Planaren ildo nagusietako bat dela, aipagarria da 2014ko irailean egindako txostena, "Biktimen arloko politiken eta ekimenen kudeaketa-txostena. Zentzu-batasuna duten hamabost jardunbide aldibereko", pauso onuragarria baita koherentziari dagokionez eta alor honetan planteamendu integral eta integratua izateko ahaleginei dagokienez. 2015eko urtarrilean onartu zen "2015eko ekintza-plana biktimen gaien. Bateratzeko asmoa mantentzea eta sustatzea" beste aurrerapauso bat izan zen koherentziaren hobekuntzarako bidean, antzemandako hainbat arazo eta gabezia konpontzeko ahaleginean, esaterako, garai jakin batzuetako biktimei arreta pertsonalizatua eta errekonozimendua emateko orduan, 70. eta 80. hamarkadetako atentatuen biktimak kasu.

Gaur egun, beraz, Planak garrantzi handia ematen die biktimei, ekimenetako hainbat jarduerak egia, justizia eta ordaina helburu dituztelarik, bai eta berriro gerta ez dadin ziurtatzeko bermeak lortzea, planteamendu biktimologiko eta giza eskubideen ikuspuntuko planteamendu askoz aurreratuagoen ildoari jarraituz. Gainera, eta hau da azken garaiko elementurik aipagarriena, biktimen arloko politika publikoak argi eta garbi apustua egin du barne hartzeko iraganaren berrikuste kritiko bat ETArek terrorismoari, indarkeria mota guztiei, giza eskubideen urraketa guztiei eta ahalegin ukatzaile, justifikatzaile edo banalizatzailei zilegitasuna kentzen diena.

Biktimen arloan burututako jarraipen-jarduerak zorrotzasunez garatu dira, horien betetze-maila oso handia da aurreikusitakoarekin alderatuta eta 4/2008 Legeak edo 290/2010 Dekretuak araututako laguntza-lanak normaltasunez burutzen dira. 29/2011 Legean eta 671/2013 Dekretuan ezarritako laguntzei dagokienez, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak biktimei informazioa ematen jarraitu du aurreikusitako kalte-ordainak nola jaso jakin dezaten eta, halaber, terrorismoaren biktimek jasandako zenbait ukatze-kasu salatu behar izan ditu, batez ere eskuin-muturreko taldeen biktimen kasuan. IVAC/KREIri eskatutako txostenak argi uzten du erabaki hauen bidegabekeria. Zentzu honetan, Gerturen "Biktimei arreta pertsonalizatua eman eta hauen parte-hartzea sustatzeko" programa ongi garatu ahal izan da eta bigarren edizio baterako ondorioak ateratzea ahalbidetu du.

Biktimen politikaren beste jarraipen-alde batzuen garapenarekin jarraitu da –esaterako, arreta ematea, elkartasuna eta terrorismoaren biktimei laguntza ematea sustatzen duten proiektu eta elkarteetara zuzendutako diru-laguntzen deialdia–, batez beste urtean 40 ekimenen laguntzarekin. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren sorrerak, beste Sail batzuetatik hartutako eskumenak izanik, zenbait atzerapen eragin zituen, baina pixkanaka konponduz joan dira.

Egungo legedian babesik ez duten biktimak. Askoz arazo gehiago ekarri dituzte 107/2012 Dekretuarekin eta 462/2013 Dekretuan barne hartutako aldaketa-proposamenarekin loturiko jarduerak. Azken honen kasuan Espainiako Gobernuak errekurtsioa aurkeztu zuen eta momentu honetan auzitan dirau.

Espainiako alorrera mugatutako ikuspegi juridikoa alde batera utzita, ez baita ebaluazioaren ardura zuzenatariko bat, alderatutako ikuspegi eta giza eskubideen ikuspegi batetik, Eusko Jaurilaritzaren jarrera akatsgabekoa da, Euskal Autonomia Erkidegoan motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan hainbat garaitan zehar gertatutako giza eskubideen urraketen biktima guztien azterketari dagokionez. Baliogabe gera ezin daitezkeen delituak dira eta, gainera, biktimetako askok ez dute errekonozimendu-gunerik izan, are gutxiago ordain-gunerik, eta biktima horien kasuan beharrezkoa da beren eskubideak bermatzen dituen legeko tresna baten sorrerarantz aurrera egitea.

Bide horretan, onura atera beharko litzaieke, gai honi konponbidea emate aldera, Eusko Jaurilaritzak "Biktimen ordain eta errekonozimendu politiken jarraipenaren" inguruan eskatutako txostenei, bai eta horren inguruko hausnarketa Jardunaldiei eta lehen aipatutako Dekretuaren bidez sortutako Balioespen Batzordean burututako lanei eta metatutako esperientziari. Talde ebaluatzaileak badaki gaia korapilatsua dela, baina hainbat arlotako adituekin burututako elkarrizketen ondoren eta kontuan harturik 462/2013 Dekretuaren aldaketak izan dituen zailtasunak, **gomendagarria dirudi egintza exekutibo batetik (Dekretu bat) legegintzako egintza batera (Lege bat) pasatzea gai hau jorratzeko.**

Biktimen elkarteekin harremana. Planaren gauzatze-garaian zehar harreman zuzena mantendu da elkarteekin eta kontaktu horien eboluzioa oso positiboa izan da, horren adibide onena izanik atal honen hasieran aipatutako ekitaldia. Bestalde, askotariko biktimen memoria-ekitaldi anitzetan parte hartu da eta bilera espezifikoko antolatuta dira Adi-Adian eta Eraikiz programen barnean edo segurtasun-indarren eta eskuin-muturreko taldeen indarkeriaren biktimekin. Idazkaritzak txosten xehatua prestatu zuen 2015eko martxoan "Legegintzaldian zehar Eusko Jaurilaritzak biktimekin izandako harremanaren" gainean, bertan azalduz nola ekin zaion geroz eta gehiago horren gai delikatuari.

Elkarteek Idazkaritzarekin eta Planarekin izan duten harremanaren balorazioa orokorrean positiboa da, aitortzen dute elkar-ulermen handiago baterantz aurrera jo dela, profesionaltasuna egon dela eta, batez ere, Idazkaritzako taldearen entzuteko jarrera eta elkarrizketa-gaitasuna goraiatu dituzte. Ebaluazioak egiaztatu ahal izan du 2014. urte hasieran gertatutako urruntzea eta elkarrizketarik eza, Idazkaritzako taldean aldaketak izan ziren garaian, gainditu egin dela.

Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua periodikotasun aldakorrarekin bildu da eta gauza aipagarri bakarra da Kontseilu hori Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen Elkartetik atera dela. Gai nortzako erakundearen eta bere Presidentearen aburuz, horrek ez du eragin handirik izan Kontseiluaren lanean. Erakunde hau, bere horretan, gauza positiboa da, iturri guztien arabera elkarrizketa argi eta irekiko guzuek indartzeko erabilgarria baita eta guzuek horietan aurrerapausoak eta lorpenak agertzen ari direlako.

Jarduera berritzaileak. Pena merezi du Adi-Adian Programaren sakontasuna nabarmentzeak, gizarte-hezkuntzaren atalean xehetasunez jorratuko dena, oso balorazio onak jaso baititu abian jarri den ikaste-txetean, hezkuntza-karga handia duten testigantzak partekatzea ahalbidetzen duten esperientzia baliosuak sortu dituelako. Aurreko legegintzaldian hasi zen programa honen eboluzioak argi uzten du bere garaian arriskutsutzat edo desegokitzat jo ziren jarduerak gaur egun normaltasun osoz onartzen dituztela jarduera horien hartzaileek.

Eraikiz Programak, bere aldetik, ahalmen izugarria du euskal gizarteari biktimek etorkizunera begira egindako hausnarketa berriak eskaintzeko.

Ondorioak

-Biktimei errekonozimendua emateko ekintzek biktimengana hurbiltzeko aukera eman dute eta Eusko Jaurlaritzaren eta biktimen elkarten arteko elkarrizketa-giroa nabarmen hobetu dute. Keinuak bereziki garrantzitsuak dira indarkeria zuzena desagertu den egoera politiko honetan.

-Biktimak Planaren funtsezko ardatzaren zati dira eta beren egoera modu integralean jorratzen da hainbat elementu oinarri hartuta: egia, justizia, ordaina, berriro gerta ez dadin ziurtatzeko bermeak eta errekonozimendua. Esparru juridikoa eta laguntza-neurrien esparrua oso aurreratua da eta zorrotasunez betetzen da kasu gehienetan eta bereziki terrorismoaren biktimen kasuan.

-Euskal Autonomia Erkidegoan burututako giza eskubideen urraketen biktima guztiak barne hartu nahi izatea koherentea da Estatuak hitzartutako nazioarteko esparru juridikoekin, Gobernu Zentralarekin arazoak sortzen ari den arren.

-Egungo legediak babestutako biktimei dagokionez, laguntza- eta adiskidetze-jarduerak, besteak beste, aurrera jo dute normaltasunez.

-107/2012 Dekretuaren kudeaketak eta aldaketak zailtasunak ekarri ditu, Estatuko abokatutzak aurkeztutako errekurtsioa dela eta.

-Biktimen elkarteekin dauden harremanetan oso aldaketa positiboak izan dira eta horri esker iraganeko zenbait blokeo gainditu ahal izan dira.

5.3.3. Espetxe-politika eta presoak

Planaren hemezortzi ekimenetako batek (8. zenbakia daramana) espetxe-politikarako Hitzeman Programaren garapena du barne, 2014ko azaroan Zuzen Bidean 20 aldaketa-proposamen dituen proposamenarekin osatu zelarik. Izenak berak adierazten duen moduan, helburua hitza ematea da, aldi berean lortzeko euskal herritarrek gizarte-normalizazioaren erantzukizun orokorra har dezaten eta presoek iragana, oraina eta etorkizuna onartzeko konpromisoa har dezaten. Abian jarri zenetik iragan den denboran honakoa egiaztatu da:

-Betetze-maila ona lortu da programaren alde formalean, lehenengo lau jardueretarako ezarritako egutegiari dagokionez (jarduera horien xedeak izanik Gobernu Zentralarekin akordioak bilatzea, programa prestatu eta aurkeztea, adostasunak bilatzea eta erakunde laguntzaile posibleak identifikatzea).

-Ezin izan dira, aldiz, eduki nagusiak martxan jarri, beraz, neurri handi batean, oraindik ere ez dira lortu helburu nagusiak espetxeetan kondenaturiko pertsona asko egotearen ondorio diren arazo judicial, soziopolitiko eta humanitarioak konpondu ahal izateko.

Arlo honetan, eta “Eusko Jaurlaritzaren espetxe-politikaren alorreko jarduera-printzipioen” barne, Planak aldagai garrantzitsu guztiak ditu barne: kasu honetan aplikatzen den araudiaren salbuespen-izaera desagerraraztea, presoak hurbiltzea, presoek espetxe-onurak jasotzearen normalizazioa, preso gaixoentzako irtenbide humanitarioa, lehen legez kanpokoak ziren eta orain legezkoak diren jarduera politikoekin loturiko kondena dituzten presoentzako legezko erantzuna edo gizarteratzea. Halaber, borondate politiko irmoa adierazten da adiskidetasunak eraikitze eta bestelako jarduleekin, publiko zein pribatuak, lankidetzarako esparru eraginkorrak sortzeko. Baina ezin izan da aurrerapauso garrantzitsurik eman eskumen-esparruari dagokionez –behin baino gehiagotan aipaturiko blokeo politikoaren ondorioz–, ez eta Gobernu Zentralaren proposamenei dagokionez –azken honek alor honetan lankidetzeta-bideak bilatzeari uko egin baitio.

Eta hori bera egiaztatu da Idazkaritza Nagusiaren ondorengo ekimenekin ere, esaterako Zuzen Bidean proposamenaren aurkezpenaren kasuan, 2014ko azaroaren 29an ezagutzera eman zena. Geratzen den legegintzaldiaren zatirako Gobernu Zentralarekin negoziatzeko esparru errealista bat ezartzeko helburuarekin, Idazkaritzak hamar legezko erreformarako proposamen planteatu zituen –barne hartuz, besteak beste, Auzipetze Kriminaleko Legearen aldaketa (atxiloketa inkomunikatuak desagerrarazteko eta behin-behineko espetxealdia murrizteko) eta 7/2003 Lege Organikoarena (zigor osoa betetzeko obligazioa ezartzen duena), bai eta nazioarteko erakundeen aurrean tortura-demandak aurkezteko tresnen sorrera eta Auzitegi Zentraleko zaintza-epaileen eskumenak lurralde bakoitzeko Espetxe Zaintzako Auzitegietara eskualdatzea– eta beste hamar, esaterako, Nanclares Bidea hartu duten presoek erantzun ofiziala ematea, presoak hurbiltzea, espetxeen eskualdatzea edo preso gaixoak espetxetik ateratzea eta Hitzeman programan dagoeneko jaso ziren gainontzekoak –araudiaren aldaketarik behar ez zutenak, borondate politikoa soilik eskatzen baituzten.

Dokumentuaren helburu nagusia zen, dokumentua Hitzeman programaren osagarritzat ulertuz, zigoren eta espetxeen egoeraren normaltasuna berreskuratzea –terrorismo delituengatik zigortutako presoek soilik aplikatzen zaizkien salbuespenak kenduz– eta Gobernu Zentralarekin komunikazioa desblokeatzea. Hedatuz joan den arren, aplikatutako araudiaren salbuespen-izaerak eragin kaltegarri argiak ditu eta gehiegikeriak eragin ditu kasu askotan. Zuzen Bidean proposamenak ere ez zuen lortu dagoen blokeoarekin amaitzea.

Ondorioak

Oraindik ere Planaren gai delikatuenetakoa den eta eztabaida mediatiko gehien sortzen duen gaietariko bat dela aintzat hartuta –kontakizunarekin eta biktimekin lotutako ekimenekin batera– honakoa ondoriozta daiteke:

-Arlo honetan ekimenak aurkezteko ahalegin nabarmenak egiten ari dira, kontuan hartuta espetxe-politikarekin loturiko eskumen asko, Planak berak aitortzen duen bezala, ez daudela Eusko Jaurlaritzaren esku. Horren ondorioz eta Gobernu Zentralaren borondate politiko ezaren aurrean, zenbait arlotan (esaterako Nanclares bidea deritzona hartu duten ETako presoek kasuan) komunikazioa zuzenean instantzia judizialekin burutu beharra dago.

-Idazkaritza eta Eusko Jaurlaritza bera posizio delikatuaren geratzen dira orain, kontuan hartuta beren hasierako planteamenduek hainbat itxaropen sortu zituztela eta –lehen aipaturiko blokeoen eta mugen ondorioz– neurri handi batean ezin izan direla bete. Errealitate horrek borondate politikoaren alorrean ahaleginak egiten jarraitzea behartzen gaitu Planari geratzen zaion denboran emaitza positiboak lortzeko.

-Planak kontuan hartu ditu presoek arazoei benetako irtenbidea emateko aldagai garrantzitsu guztiak. Orain arte lortutako emaitza eskasak, funtsean, ez dira izan aktibatu beharreko gakoak formulazioan ahazteak edo akatsak egin direlako, baizik eta jardule politikoaren borondate ezaren ondorioz.

-Eskumene esparruari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko alderdi politikoaren artean sarriegi manipulatu izan da espetxeen gaia, zenbait jardulek bereganatu nahi izan dutelarik. Honek, izandako tratamendu mediatiko nabarmenarekin batera, Plana presoek aldekoa delako irudipena sortu du, biktime kalterako; baina errealitatea da 18 ekimenetako bat bakarrik dagoela presoek zuzendua, aldiz hainbat ekimen daudelarik, dagokion atalean aztertuko den moduan, indarkeriaren biktime anitzen arazoak konpontzeko diseinatuak.

Talde ebaluatzailearen aburuz eta elkarrizketatutako edo inkestatutako pertsonen gehiengo handiaren esanez, ez dago inongo arrazoirik pentsatzeko Plana presoek alde eta biktime kalterako desorekatuta dagoenik.

-Alde legal, juridiko edo politikoak alde batera utzita –inola ere ahaztu ezin daitezkeen arren–, gehiengoaren sentipena da presoan egoeraren egungo kudeaketari gizaldeko ikuspuntua falta zaiola aintzat hartu ahal izateko bai askatasun-gabetuen errealitatea –jasotzen duten tratamenduaren salbuespen-izaera desagerrarazteko asmoz– eta baita beren senide eta ingurukoena ere –azken hauek zuzenbidezko estatu baten herritar gisa merezi ez duten zigorra jasotzen ari direlarik. Beraz, presoan sakabanatzea amaitzea, aplikatzen zaien legediaren salbuespen-izaera kentzea eta gizarteratzea izan behar dira agendako hiru lehentasunak.

5.3.4. Gizartearen eta tokiko erakundearen parte-hartzea bakearen eta bizikidetzaren eraikuntzan

Planak administrazioko eta gizarte zibileko hainbat sailen lana ongi koordinatu eta bateratu nahi du, bakea finkatzeko helburu erkidearekin, euskal gizarteak dagoeneko bakegintzaren eta bizikidetzaren alorrean gizarte-sare sendoa duela abiapuntu hartuta eta Planak, bide desberdinetatik, gizarte-sare horri laguntza eman nahi diola besterik ez.

5.3.4.1. Gizarte zibila

Planak garrantzi handia ematen dio euskal herritarrek eta gizarteak bete duten eta betetzen jarraitu behar duten paperari bakearen eraikuntzarako eta giza eskubideak errespetatzen dituen kultura demokratikoa sendotzeko. Gizarte zibilarekin hartzen duen konpromisoa argi geratzen da Planak jaso eta sustatzen dituen aurreko gobernuek garatutako hainbat jardueren eta diru-laguntzen jarraipenarekin, bereziki 13. ekimenarekin.

Erakundearen eta gizarte zibilaren arteko beharrezko elkarrizketari, parte-hartzeari eta iritziak trukatzeari dagokionez, lankidetzaren bideak ezarri dira, besteak beste, Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Kontseiluarekin eta Gaztediaren Kontseiluarekin. Gizarte-jarduleek izan dezaketen eginkizun garrantzitsua aintzat hartzeko orduan, harrizkoa da Elizari erreferentziarik ez aurkitzea, erakunde hori izan baita eta oraindik ere bada garrantzi handiko gizarte-erreferentzia zauriak ixten laguntzeko eta etorkizuna oinarri partekatuen gainean eraikitzen hasteko.

Planak gizarte zibileko elkarte eta erakundeek burutzen duten lan baliotsuari ematen zaion laguntza mantentzen du aurreko gobernuek ezarritako ohiko finantziario-ildoan bitartez, memoria historikoaren, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko alorretan. Honela, adibidez, Idazkaritzak 2013. eta 2014. urte artean guztira 3.235.266 euro⁸ bideratu zituen gizarte zibileko 202 elkarte eta toki-erakunderi laguntzak, diru-laguntzak, hitzarmenak eta bonuak emateko ondorengo arloetan proiektuak eta jarduerak garatzeko helburuarekin: terrorismoaren biktimei errekonozimendua eta laguntza ematea; bakea, bizikidetzaren eta giza eskubideak, eta memoria historikoa berreskuratzea (ikus erakunde onuradunen zerrenda II. Eranskinean).

Aurreko planteamenduekiko ikuspegi berri gisa, eta indarkeriaren ondorengo eszenatoki berriaren aurrean, Idazkaritzak abian jarri zuen Elkarrekin Bonu Programa, hau da, programa arautzen duen ekainaren 17ko 110/2014 Dekretuaren arabera: “bakea, giza eskubideak, indarkeriarik eza eta printzipio demokratikoen sustapena sendotzeko ekimen osagarria. Programaren helburu nagusia da bizikidetzaren eta adiskidetzaren kultura sendotzera bideratutako elkarte-sarearen eta erakunde publikoen arteko lankidetzaren ugaritzea”.

Elkarrekin Bonuek hiru ildo osagarri eta bereizi ezartzen dituzte hezkuntzaren arloan, udalerriri-mailean eta herritarren parte-hartzearen arloan garatutako proiektuei laguntza emateko. Ekimen desberdinen arteko lotura Gizalegez, Gizarte- eta Hezkuntza-arloko Konpromisoa da. Programa berri honen enfasia finantziario-ildo berri honek eskaintzen duen errefortzu-izaeran jarri da, euskal gizarteko erakunde eta jarduleek, arlo horietan bertan, 25 urtez baino gehiagoz burutzen aritu diren lana sustatzeko. 2014. urtean, Idazkaritzak 112.310 euro bideratu zituen Elkarrekin Bonu Programarako. Datozen urteetan kopuru hau handi dadin espero da.

8 Gizarte zibileko elkarte eta toki-erakundeei terrorismoaren biktimei errekonozimendua eta laguntza emateko, bakea, bizikidetzaren eta giza eskubideak sustatzeko eta memoria historikoa berreskuratzeke 2013. eta 2014. urte artean emandako laguntzen, diru-laguntzen, hitzarmenen eta bonuen batura. Ez ditu barne terrorismoaren biktime izan diren banakakoei emandako laguntzak eta diru-laguntzak, 426/2013 Dekretuaren aplikaziotik eratorriak.

Diru-laguntzen kudeaketan lehenengo edizioan hainbat arazo izan ziren arren, horrek atzerapenak eta erakunde onuradunei eragozpenak eragin zizkiolarik, badirudi arazoak konpondu egin direla hurrengo ekitaldian zehar.

5.3.4.2. Alor sozio-ekonomikoak

Planak ez du behar bezala aintzat hartzen ikuspegi sozio-ekonomikoa orokorrean eta, bereziki, enpresa-munduaren parte-hartzea bakearen eraikuntzarako giltzarrietako gisa, erakunde eta egitura politiko eta sozialekin batera. Beraz, iraganarekin loturiko ekimenek ez dituzte kontuan hartzen indarkeriaren garaian alor honetan burutu ziren analisia eta hausnarketa. Halaber, Planak ez du aintzat hartzen enpresa-munduaren eginkizuna orainaren eta etorkizunaren kudeaketan.

Esan liteke, iraganeko eta oraingo dinamika sozio-ekonomikoak asko lagundu duela “bizikidetzaren praktikoa” mantentzeko eta bizikidetzaren horren erabateko haustura ekiditeko, bestelako indarkeria testuinguruarekin alderatuta. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, dagoen oinarri sozio-ekonomiko sendoa oso kontuan hartu beharreko bermea eta aukera da. Bestalde, egungo krisi garai batean batez ere, ez da komeni pentsatzea automatikoki gertatuko dela bere horretan konpontzeke dauden arazo guztiak konponduko dituen aktibazio ekonomikoa. Aldiz, enpresen sektoreak bakearen eta bizikidetzaren proiektu erkidetan parte hartzea lortu beharra dago, planteamendu ekonomizista soilak gaudituz eta haratago joanez.

Garrantzitsua da ere sindikatuen sektorea barne hartzea. Planaren prestaketa-prozesuan zehar kontsulta egin zitzaion arren, eta beren fundazioen bitartez memoria historikoaren berreskurapenaren arloan izan duten jardueraren arren, sindikatuetak ordezkarren presentzia mugatua izan da Planak sortutako ekimenetan eta parte-hartzerako eta elkarrizketarako guneetan. Euskal Autonomia Erkidegoa sindikatuak beti oso sendoak izan dira eta, etorkizunera begira, eginkizun positiboa izan behar dute Planaren helburuak lortzeko orduan.

5.3.4.3. Udalak eta EUDELen eginkizuna

Pertsonengandik hurbil dagoelako, tokiko unibertsoa gunerik aproposena eta, aldi berean, sentikorrena da parte-hartzea eta bakearen eta bizikidetzaren berrezarkuntza sustatzeko. Plana zuzen dabil Aldundien eta Udalen diru-laguntzekin garatutako jardueran anitzak ahaleginak biderkatzeko aukera gisa interpretatzen dituenean, bikoizte-arriskua agertzen bada ere. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan gaur egun dagoen politikaren polarizazioa herri-mailan islatzen da bakearen eta bizikidetzaren ikuspegi desberdinetan enfasia jartzen duten jarduerekin, tokiko gobernuaren alderdi politikoaren arabera, honela jarduerak gidatuko dituen ikuspegi komuna adostea zailago eginez.

Sentsibilitate eta arrisku hauek ezagututa, Planak dio “erakundearen erantzukizunaren agindua dela bikoiztasunak saihestea eta koordinatua izateaz gain gutxieneko eduki batzuk batera jartzen dituen jardun bat bilatzea”. Aldiz, Planak orain arte aurkitu duen tokiko mapa politikoak akordioetara iristea zaildu du alderdi politiko desberdinen eskutan zeuden Aldundien eta Udalen artean “hainbat erakunderen artean bakearen eta bizikidetzaren aldeko politika publikoak elkartzeko eta optimizatzeko” helburuarekin.

Bestalde, ez dirudi orain arte Planak EUDELen eginkizuna behar bezala kontuan hartu duenik, behar diren adostasunak lortzeko hizketakide eta bideratzaila gisa, tokiko ekimenei koherentzia eta batasuna ematen dieten gutxieneko edukiak ezartzeko orduan. Mota honetako nazioarteko esperientzia askok emaitza positiboak jaso dituzte⁹.

Bai blokeo politikoa dela eta, bai iragana berpizteko beldurra edo mesfidantza direla eta, udalerrietan oraindik ere beldur hori oso bizirik baitago, edo bai bestelako arrazoien ondorioz, Planak ezin izan du garatu toki-mailako unibertsoak eskaintzen duen potentziala parte-hartzea sustatzeko eta bakea eta bizikidetzaren iraunkorrek ezartzeko. Ekimena lagundu nahi duten Udalen eta gizarte zibileko erakundearen esku uzten da laguntzak eta diru-laguntzak emanez. Aldi berean, Plana zailtasun eta mesfidantza politiko horiek apaltzen saiatzen da tokiko eremuan udalekin batasunak eta lankidetzak ezarriz. Hainbat udalen parte-hartzea memoriaren maparen sorreran, bizitzeko eskubidearen urraketan udalerrietako erretratuak (1960-2010) eta tokiko esparrurako Elkarrekin Bonuak batasun espezifikoak ezartzeko balio duten tresnen adibideak dira, bakea eta bizikidetzaren demokratikoa premisa etiko erkideetatik abiatuta sustatzen duten ekimenak bateratu eta koordinatzeko xedearekin.

9 Ikus, esaterako, Municipal Alliance for Peace in the Middle East (MAP) eta REDES Programa, Kolonbian.

Tokiko esparruan parte-hartzea bultzatzeari dagokionez, badira ere Eusko Jaurlaritzatik aurreko legegintzaldietan abian jarritako ekimenen aurrekariak. Esaterako, Konpondu ekimenak interakziorako, elkarrizketarako eta herritarren proposamenak jasotzeko gunea sortu zuen. Mota honetako foroek eginkizun bikoitza dute, alde batetik, herritarren parte-hartzea eta konpromisoa sustatzea eta, bestalde, ekimenen gizarte-eragina jarraitzeko, ebaluatzeko eta aztertzeko tresna eta zeharkako adierazle izatea.

Blokeo politikoaren egoerak tokiko bultzada gizarte zibilaren esku uztea gomendatzen badu ere, horrek ez du esan nahi erakundeek ezin dutela lagundu edo ez dutela laguntzeko beharrik ahaleginak batzeko orduan, eskala handiagoko ekimen eta estrategien koordinazioaren bitartez. Foru Aldundi eta Udal bakoitzaren autonomia errespetatuz, Idazkaritza saia daiteke konpromisoen hitzartzeari eta bilaketari bultzada berria ematen.

Ondorioak

-Planaren arabera, gizarte zibilaren eginkizuna, haren egitura eta edukiak direla eta, oraindik ere beharrezkoa da indarkeriarik gabeko eszenatoki berrian, baina aldiz Planak ez dio garrantzi bera ematen produkzio-sektoreari. Ebaluazio-prozesuan zehar egiaztatu ahal izan dugu Planari harrera ona eman diotela Planaren helburuekin zuzenki lotuta eta konprometituta dauden gizarte zibileko erakundeek.

-Hala ere zenbait iritzi kritiko eta gizarte-adierazle badira pentsaraz dezaketenak gizarteak "orria beste aldera utzi duela" eta egoera sozio-ekonomikoarekin arduratuago dagoela, aurreko ataletan ikusi dugun bezala. Bakearen eta bizikidetzaren aldeko hainbat gizarte-planteamendu barne hartzen zituzten herritarren mugimendu handien desagerpenak –Gesto por la Paz eta Lokarri esaterako–, zentzu horretan interpreta litezke; baina baliteke ere gizarte zibilaren neke eta asperkizunaren seinale izatea, alor hauetako jardueresparrua alderdi politikoen eta erakundeen esku utziz. Honela interpreta litezke ebaluazio-prozesuan zehar "gizarte azkarrago doala eta klase politikoari zentzabidea ematen ari zaiola" adierazi zuten iritziak.

-Gizarte-jardule nagusien desagertzeak paradoxa bat sortu du, Plana utzi baitu aliatuak eta helburuen lorpenaren "gainbegirale kritikoak" izan litezkeen zenbait funtsezko gizarte-solaskiderik gabe. Hori gertatu da hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzatik gai hauetarako gizarte zibilaren kooperazioa bilatzen jarraitu denean, blokeo politikoaren arren, edo agian horren ondorioz. Ez da ebaluazio honen lana talde hauen desagerpenaren arrazoiak aztertzea eta are gutxiago utzi duten hutsunea erakundeek edo beste gizarte-jarduleren batek bete beharko luketen esatea. Talde ebaluatzaileak soilik Idazkaritzari eskatzen dio erakundeek eta gizarte zibilak bete dezaketen askotariko eginkizun osagarrien inguruan hausnartzen jarraitzeko iraganaren, orainaren eta etorkizunare n kudeaketari dagokionez, bakea eta bizikidetzaz sendotzeko eta indarkeria errepika dadin ekiditeko beharrezko aldaketa kulturala bermatzeko.

-Bere aldetik, Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Kontseiluak eraikitze-ahalmen handia du hausnarketa hori egiteko eta erakundeen eta gizarte zibilaren arteko hitzarmenari eta koordinazioari dagokionez, elkarrizketa-gune anitza baita non lan-taldeak eratu diren erakundeen arteko harremanen, memoriaren, hezkuntzaren eta komunikabideen eginkizunaren inguruan. Aholku Kontseilua bultzatu beharko litzateke Planaren edukiei eta gizarte zibilaren lanari laguntza emateko ziklo politikoetatik haratago doazen estrategiak diseinatuzko gune egokia den neurrian. Orain arte, badirudi oraindik ere ez zaiola onura guztia atera Aholku Kontseilu honen potentzialari. Beraz, foro hau eta bere baitako lantaldeak are gehiago bultzatu eta dinamizatu beharko liriteke eta enpresen eta sindikatuen munduko ordezkariak barne hartu beharko litzukete.

5.3.5. *Gizarte-hezkuntzaren ikuspegia eta gizarte-komunikazioa*

Iraganaren inguruko oinarri partekatua ezartzeko (orain arteko) ezintasunak mugatu egin du gizarte-eta hezkuntza-arloan aurreikusitako ekimenen erabateko garapena. Planak aldagai horri hirugarren ardatz estrategikoan (Etorkizuna) garrantzi gehiago ematen dion arren, agerikoa da honen ekarpenak ere oso baliogarriak direla gertatutakoa argitzeko eta oraina kudeatzeko. Zentzu horretan, Planak ikuspuntu apala hartzen du, lehenik eta behin, bizikidetzaz suntsitu duten faktore kulturalak, hezkuntza-faktoreak eta jarrera pertsonal eta kolektiboak zeintzuk izan diren argitzen saiatuz. Hortik aurrera, beste jardule batzuekin indarrak batzen saiatzen da gizarte-alor zabaletan ezarri den dogmatismoa, fatalismoa, manikeismoa eta sektarismoa aztertu eta gainditzeko, hezkuntza-sistemak eskaintzen dituen instrumentu formal eta ez-formal guztiak erabiliz bizikidetzaren hausturari aurre egiteko eta bizikidetzaz baketsu baterako eta edozein motako indarkeria gaitzesteko oinarri sendo komunak sortzeko.

Xede horrekin, Planak hasiera batean Eusko Legebiltzarreko Bakearen eta Bizikidetzaren inguruko Ponentziari mikroakordio bat proposatu zion Gizalegez Akordioa deituriko gizarte- eta hezkuntza-arloko konpromisoa ezartzen zuena, hasierako zazpi pausotan egituratua eta prebentziozko ikuspegi batean oinarritua haustura suntsitzaile berriak saihesteko, giza eskubideen defentsa sustatzeko eta euskal gizarte osoa modu positiboan kutsatzen duen bakearen kultura bat bultzatzeko.

Planteamendu horren ondorioz, Planak hainbat ekimen abian jartzea lortu du, implementazio-maila desberdinekin. Planaren ekimenen berrikuspen telegrafikoak honakoa adierazten du:

-Haietako asko ordura arte arlo horretan egindakoaren ildo beretik doaz, aurreko lana sustatuz eta ikasitakoari onura ateratzea ahalbidetzen duten ikuspegi berriak gehituz.

-Historia garaikidearen zenbait garai jakin interpretatzeko ahalegin partzialak biderkatzen diren bitartean, gertaera historikoak azaltzea baino jarrera jakinak justifikatzea bilatzen duen ikuspuntu batetik, nolabaiteko desoreka antzeman dugu gaur egun bai hezkuntzaren arloan eta baita gizarte-komunikazioaren arloan ere aurkezten ari diren materialetan. Honela, adiskidetzaren lortzeko erabilera gutxiko irakurketa eta interpretazio korronte baten hedatzearen aurrean, are beharrezkoagoa da Planak korronte hori indargabetzeko ahalegin etengabea egin dezan.

-Idazkaritzak argi du garatu nahi dituen gaiak zeintzuk diren eta gai horiek nork joratu ahal/behar dituen. Horrek esan nahi du erakunde kolaboratzaileek beren zerrenda propioa ezartzeko duten tokia mugatua dela.

-Hezkuntzaren alorrean ez dirudi Planari geratzen zaion indarraldian gizarte-hezkuntza ekimenik martxan jartzeko aukerarik egongo denik.

-Orokorrean, eta bakearen kulturaren ikuspuntutik, gabezia pedagogiko nabarmena dago gatazken ebazpenak benetan esan nahi duenaren inguruan, zenbaitek interesa baitute oraindik ere indarkeriarik eza bake positiboarekin nahasteko eta eztabaida garaipen/porrot terminoetan planteatzeko.

-Legebiltzarreko ponentziaren paralisiak halabarrez oztopatu du Gizalegez Akordioa.

Zehatzago izateko, Gizalegez gizarte- eta hezkuntza-arloko Akordioaren planteamenduetara itzuliz, talde ebaluatzailearen aburuz zuzena da akordioak egiten duen apustua euskal elkarten sarearekin lankidetzaren publiko-soziala sustatzen duten ekimenen alde (13. ekimena), herritarren parte-hartzearen alde (14. ekimena), Foru Aldundiekin eta Udalekin hitzarmena lortzearen alde (15. ekimena), heziketa formalaren alde (16. ekimena), gazteriaren, kulturaren eta heziketa ez-formalaren alde (17. ekimena), bai eta gizartearen sentsibilizazioaren eta hedabide publikoen konpromisoaren alde (18. ekimena). Horiek guztiak oso bide gomendagarriak dira "mesfidantzatik konfiantzara" pasatzeko eta "bizikidetzan eta gizartearen elkartean oinarritutako kultura berria bultzatzeko".

Ondorioak

Hala ere:

-Nabari da, gaur egun, euskal unibertsitateekin dagoen harremanetarako kanala (11. ekimena), bere garaian sinatutako Hitzarmena martxan jarri ondoren, indarra galduz joan dela eman zaion erabilera eskasaren ondorioz eta aurreikusitako jarduera motak direla eta. Esploratzeke daude oraindik, besteak beste, lankidetzarako bideak ikerketaren, informazioaren, zabalkundearen eta sentsibilizazioaren arloetan –bai iraganari dagokionez eta baita orainari eta etorkizunari dagokienez ere–, non unibertsitateek ahalmen handia duten. Unibertsitateen aldetik ere ez dira bideratu ekimen gehiegi kanal honi modu proaktiboan onura ateratzeko.

-Aitzitik, Adi-adian bezalako ekimenek, hasiera batean zailtasunak izan zituzten arren hainbat gizarteko sektorek agertu zituzten eragozpen handiak zirela eta, gaur egun gehiengoaren babesa dute hezkuntzaren arloan, bai eta herritarren artean ere. Hala ere, badira desadostasunak azkarregi joan dela uste dutenen artean, arrazoituz ikasgeletara eraman dela eremu politikoan oraindik ebatzi eta gainditu ez dena.

-Egiaztatu egin da komunikabideek ikasgeletan biktimen inguruan garatutako jardueretik (Adi-adian hezkuntza-modulua) izan duten jarrera ona, bakerako heziketaren interesak ez diren bestelako interesen aldeko manipulazioa alde batera utzita.

5.3.6. Nazioarteko ikuspegia eta ikaskuntza partekatua

Egia da bizikidetzakrisi bakoitzak eta gatazka bakoitzak bere berezitasunak dituela (historikoak, politikoak, sozialak, kulturalak), beraz ez dirudi posiblea denik ereduak eta estrategiak herrialde batetik bestera eramatea. Aldi berean, agerikoa dirudi oso erabilgarria dela beste batzuek gatazkak gainditzeko, adiskidetzeko eta bizikidetzak eraikitze bidean bizi izan dituzten esperientziak kontuan hartzea eta horiei onura handiena ateratzea nazioarteko lankidetzako ekimenen bitartez. Honela, Planak alderdi hauetako zenbait barne hartzen ditu nazioarteko lankidetzarekin eta esperientzia-trukearekin loturiko bi ekimenetan, Europar Batasunarekin eta Giza Eskubideetarako Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoarekin.

Aipatu beharra dago, halaber, nazioarteko ikuspegiari erreferentzia egitea oso erabilgarria izan daitekeela izenen inguruko eztabaidak gainditzeko, edo murrizteko behintzat, dagoeneko nazioarteko mailan eztabaidagarriak ez diren definizioen inguruan, definizio horiek alde anitzeko biltzarretan onartutako hitzarmenetan, deklarazioetan eta bestelako dokumentuetan adostuta geratu direlarik.

5.3.6.1. Lankidetzak Europar Batasunarekin

Honen adibide zehatza da "Special EU Programme Body – SEUBP" ekimenaren barne buruturiko lankidetzak, "Ipar Irlandan bakea eta adiskidetzak lortzeko Europar Batasuneko PEACE III Programarekin" (1995. urteko PEACE I, eta 2000. urteko PEACE II programen ondoren) eta, bereziki, Programaren arduraduna den Pat Colganek buruturikoa. Lankidetzak 2008. urtean hasi zen eta ikasketa-bidaien bitartez garatuz joan da, garai hartan Lehendakaria zen Juan José Ibarretxek Ipar Irlandara egin zuen bisita batekin, eta Udaletan antolatu ziren hezkuntzaren, biktimen, gazteriaren, presoaren eta elkarriketaren inguruko mintegiekin batera.

Interesgarria da PEACE III Programa Bake eta Bizikidetzak Planarekin alderatzea, paralelismoak eta desberdintasunak aurkitzen baitira. SEUBPak Ipar Irlandarako garatu zituen hiru programetan hiru oinarriko ikuspuntu aurkitzen ditugu: 1. Gatazkaren berehalako ondareari aurre egitea (PEACE I); 2. Gizarte baketsu eta orekatu baterantz aurrera egitea garapen ekonomikoaren bitartez (PEACE II); eta 3. Adiskidetzak sustatzea (PEACE III).

Iraganaren inguruko kontakizun partekatu bat lortzearen ezintasuna, eta are gehiago hiztegi komun bat adosteko ezintasuna ere kontuan hartuta, bake-ekimeneak arreta jarri dute "bizi garen lurraldea partekatuz" erabakian eta egitura politiko eta ekonomiko erkideen eraikuntzan. Aipatu beharra dago ere, Irlandako kasuan, indarkeria politikoak ekonomiaren gainean izan zuten eragina ezin txarragoa izan zela eta horregatik hain zuzen izan zela ekonomia lehentasunetarako bat.

PEACE programaren beste partikularitasun bat da "partnerships" deritzen garapena, tokiko politikaren esparrua eta gizarte zibilaren erakundeak barne hartuta. Planean izendatzen diren "mikroakordioen" antzekoak dira.

Baina Irlandako eta Euskal Herriko kasuen arteko desberdintasunak nabarmenak izan daitezkeen eragiten duena testuinguru politiko desberdina da, zentzu bikoitzean:

Belfasten koalizio-gobernu bat dute eta, gobernu horren esparruan, alderdi politiko guztiak, erradikalenak ere, behartuta daude bitartekaritzan jardutera, konpromisoak onartzera eta alor praktikoan lan egitera, bakoitzaren ideologiari eta memoriari loturiko ikuspuntuaren salbuespenak mantenduz.

Nazioarteko ikuspegia: 1998. urteko Bake Akordioak Londres eta Dublineko gobernuak, Belfastkoarekin batera, lan egin zezaten erreferentzia-esparrua ezarri zuen. Ostiral Santuko Akordioarekin batera hasitako bake-prozesuak testuinguru bat, hiru alde zituen "indar-eremu" bat, ezarri zuen, testuinguru horrek Ipar Irlandan bakea eta adiskidetzak lortzeko prozesuari eragin eta prozesua zuzendu zuen. Gainera, Akordio horrek Europar Batasunak prozesuan parte har zezan ahalbidetu zuen, lehen aipaturiko ondorengo PEACE programei atea irekiz. Aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoan ez da holako akordiorik egon gobernuen artean, eta erkidegoko gobernu boterea ere ez da partekatua.

Ondorioak

-Ipar Irlandan Bakea eta Adiskidetzak lortzeko Europar Batasuneko Programarekin partekatutako ikaskuntzara bideratutako lankidetzak eta esperientziak partekatuzko ekimenak oso positiboak eta

aberasgarriak dira, bai Bake eta Bizikidetzaren Planarentzat eta baita PEACE programarentzat ere. Gaur egungo biktimen, hezkuntzaren eta gazteriaren inguruko lan-ildoak proposak eta beharrezkoak dira, bai esperientziak partekatze eta elkar-ikasteko zein biktimek, hezkuntza-jarduleek eta gazteriek etorkizunera begira bakearen eta bizikidetzaren demokratikoaren alde egiten duten lanaren errekonozimendurako guneak eratze aldera.

-PEACE programa Europar Batasunaren ekimena da. Europar Batasuna kanpoko jardule egoki eta neutralizat jotzen denez, ekimenak bultzatzeko erraztasun eta toki gehiago du eta baita elkarriketarako eta parte-hartzerako guneak eratze ere, bereziki tokiko politikaren esparruan. Eusko Jaurilaritzaren eta *Special EU Programme Body*-aren lankidetzat aintzat hartu behar du desberdintasun hau, bakoitzaren jarduteko esparrua eta mandatua desberdinak baitira.

5.3.6.2. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin lankidetzan aritzea

Giza eskubideak erreferentzia-puntu zentrala dira Planaren helburuen barnean, horien urraketa izan baita, indarkeriaren bitartez, orain adiskidetzera aurrera jotzea eta adiskidetzera indartzea eragozten duten zauriak eta erresuminak eragin dituena.

Bere eskumena eta mandatu zabala ikusita, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa erreferentzia-puntu ezin hobea da Bake Plana bezalako ekimen konplexu eta irismen handiko baterako.

Garrantzitsua da, bestalde, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoaren mandatuak alde bikoitza duela: alde batetik, giza eskubideen babesa eta jarraipena nazioarteko mailan eta, bestetik, giza eskubideen sustapena lankidetzaren eta laguntza teknikoaren bitartez. Bigarren alde honetan dago, zalantzarik gabe, giza eskubideen alorreko ekimenen eta proiektu autonomoen inguruko lankidetzaren, Eusko Jaurilaritzaren garatu duenaren modukoa.

Zehazki, Eusko Jaurilaritzaren lankidetzaren dirau Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoarekin 2008. urtetik. Harreman hori urtero berritzen da Gobernu Zentralaren oniritzia duen Ulermen Memorandum baten sinadurarekin, Estatuko Kanpo Harremanetarako eta Zerbitzuetarako Legeari jarraiki. Lankidetzaren hau Goi Komisarioaren mandatuari eta lanari ematen zaion laguntzaren bitartez, interes erkideko jardueren garapenaren bitartez eta "indarkeria-osteko egoeretako giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidearen estandarren" inguruko aholkularitzaren bitartez bideratzen da.

Planak ongi daki euskal kasuak desberdintasun handiak dituela honelako instrumentu eta giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidearen estandarrek erabiltzen dituzten beste indarkeria eta indarkeria-osteko egoerekin alderatuta. Horregatik kokatzen du Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoarekin duen harremana "giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidearen estandarrek gure testuingurura aplikatuta interpretatzeko" azterketaren barnean.

Ebaluatzen ari den garaian zehar izandako lankidetzaren memoriari eta historiari lotutako giza eskubideen arloan jarri du arreta. Farida Shaeed, Kultura Eskubideen arloko Nazio Batuen Erakundeko Txostengile Bereziak, pasa den martxoan Bilbon emandako "Iraganaren erabilera: nola idazten eta irakasten den historia gizarte zatituetan eta gatazka osteko egoeretan" mintegia elkarrekin burutzen diren jardueraren motaren adibide ona da¹⁰. Aholkularitza bila, Idazkaritzak, halaber, Memoria Historikoari buruzko 2015-2016ko Lehentasunen Oinarri Programa partekatu du Egiaren, Justiziaren, Erreparazioaren eta Berriz Ez Gertatzeko Bermeen arloko Txostengile Bereziarekin partekatu du, arlo hauetako nazioarteko estandarren inguruko aplikazio zuzenari buruz daukan iritzia jasotzeko helburuarekin.

Ondorioak

-Iraganak eta memoria historikoarekin eta gertatutako giza eskubideen urraketa guztiekin loturiko jarduerak oraindik ere sortzen duten mesfidantza ikusita, egokia eta proposa da nazioarteko autoritateengan aholkua bilatzea, egiaren, justiziaren, adiskidetzaren eta biktimek ez errepikatze printzipioen alorrean, Oinarri Programan proposatzen den moduan, eta hau ezin daiteke inolaz ere "prozesua nazioartekotzeko" ahalegin gisa jo.

10 http://www.unescoetxea.org/base/berriak.php?hizk=es&id_atala=1&id_azpiatala=1&zer=orokorrean&nor=1315

-Ebaluazio onek positiboki baloratzen du lankidetzarako eta aholku-bilaketarako ekimen hau giza eskubideen inguruko nazioarteko zuzenbidea ongi aplikatzeko xedearekin eta Idazkaritza bultzatzen dugu, ahal den neurrian, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoarekin eta Nazio Batuen sistemako beste erakunde batzuekin harremana areagotu dezan. Zentzu horretan, oraindik ere toki asko dago goi-komisarioaren bulegoarekin dagoen harremanaren esparru barruan bestelako aholkularitza-jarduerak gehitzeko, bai eta ekitaldiak, lan-mintegiak eta zabalkunde publikorako jarduerak burutzeko. Txostengile Bereziekin antolatutako topaketak (bai mintegiak eta baita publikoaren parte-hartzea duten ekitaldiak ere) Planaren helburu espezifikoek haratago bultza daitezke, "giza eskubideen kultura" zabaldu eta sakontzeko helburuarekin, edozein bizikidetzak eta adiskidetzak-prozesurako beharrezkoa den oinarri solidoa eta ez polemikoa ezarriz. Berezi gomentagarria izango litzateke aholkularitza bilatzea genero-ikuspegia Planaren azterketan eta ekimenetan sartzeko asmoz, esaterako honako instrumentuak edo antzekoak erabiliz: Emakumeen aurkako Bereizkeria-Mota guztiak Ezabatze Konbentzioa (CEDAW) eta Nazio Batuen Erakunde Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena.

5.3.7. ETAREN ARMAGABETZEA

Planaren apustu politikoak zentzua hartu zuen ETAK indarkeria behin-betiko bertan behera uzten zuela iragarri zuenean (2011ko urriaren 20an). Harez geroztik, prozesuaren atzerazintasuna eta Euskal Autonomia Erkidegoa etapa historiko berri baten atarian zegoelako ideia ia aho batez hedatuz joan ziren. Orokorrean bizi izan zen tentsioaren arintzeari eta orrialde hori betiko atzean uzteko gogo biziari esker, hasiera batean, hau da, Plana prestatzen eta onartzen hasia zen garaian, pentsatu izan zen bakea finkatzeko konpontzeke zeuden gaiak epe laburrean konponduko zirela.

Era berean, ulertu egin zen ETAREN erabateko armagabetzea garai berri horri ekiteko ezinbesteko baldintza zela eta baita jardule guztiak helburu hori lortzearren laguntzeko interesa izango zutela, bakoitzak bake- eta bizikidetzak-prozesuaren beste arlo batzuetan zituen ikuspuntuak eta jarrerak alde batera utzita. Planak, inplizituki behitza, hala ulertu zuen, zazpi helburuetako lehenengo gisa "ETAREN desarmarearen existentzia eta haren benetako amaiera gauzatzen laguntzea" ezarri zuenean.

Denbora joan ahala, aldiz, argi geratu da ETAREN armagabetzea konpondu gabeko kontua zela, eta ETAK berak ez du aukera hori negoziatioetan azken errekurtso gisa erabiltzeari uzteko borondatea behar bezain garbi adierazi. Bestalde, Gobernu Zentralak ez du parte hartu nahi izan epe laburrera onurarik ekarriko ez dion alor honetan. Aldi berean, nazioarteko jarduleek ezin izan dute konfiantza nahikoa eragiten duen prozesua sortu eta Eusko Jaurlaritzak ezin du helburu honen gauzatzea inolaz ere azkartu.

Halere, Eusko Jaurlaritza saiatu egin da proposamenak egiten helburu horretarantz urratsak ematen hasteko. Ideia horrekin, eta Planaren hemezortzi ekimenei 2014ko abenduaren 21ean gehitutako osagarri gisa, Idazkaritza Nagusiak aurkeztu zuen "Armagabetze bizkor, egingarri eta eraginkor baterako prozedura-proposamena, ETAK euskal herritarren aurrean aldeakartasunez egindako keinu bat oinarritzat duena, eta gizartearen, nazioartearen eta erakundearen babesarekin". Eusko Jaurlaritzak ETARI egindako eskaera esplicitu honek ez du inongo erantzun eraginkorrik izan, modu nabarmen eta egiaztagarri batean behintzat.

Ondorioak

Egungo egoeraren balorazioaren ondorioz, talde ebaluatzaileak honakoa uste du:

-Iraganeko jarrerak alde batera uzteko blokeoaren faktoreek, sortutako mesfidantza handiaren ondorioz, guztiontzat ezezaguna den armagabetze-prozesu bat ezagutzera bultza dezaketen faktoreek baino pisu handiagoa dute oraindik ere.

-Gobernu Zentralak bide horretan sartzeko duen uzkurutasunaren ondorioz, beste armagabetze-prozesu batzuetako ohiko formulen desberdinak diren bideak bilatzeko beharra sortu da. Erreferentzia-esparru bat ez izateak are zalantza eta kezka gehiago eragiten ditu barne dauden jarduleengan.

-ETA, bestalde, ez-armagabetzearen jarreran finkatu dela dirudi, horrek kostu gehigarria dakarrelarik gehiengo handi batean inolako baldintza politikorik gabeko ETAREN desagertzea nahi duen gizarte batentzat.

6. Planaren antolaketarekin eta segimenduari lotutako aldeak

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren tankerako erakunde bat sortzeak hainbat artikulazio-arazo sortu izan ditu herri-administrazioan, harik eta administrazioaren makinaria martxan jarri arte eta eskumenak abiarazi arte; politika publikorako erremintak zehatz-mehatz diseinatu behar izaten dira, eta langileekin lotutako alderdiak argitu ere bai. Auzi mota horrek baliteke eraginkortasunari eragitea epe laburrean, baina epe ertainetik aurrera hasten dira etekinak ikusten. Horixe izan da, hain justu, plan honen kasua ebaluatzaileen arabera.

Plana denbora errekorrean egin zen, euskal administrazioak zehaztutako administrazio-prozedurak jarraituta, baita prozedura politiko guztiak ere. Hala, gobernu-planak koordinatzeaz arduratzen diren langileen arabera, Lehendakariaren gobernu-programarekin ondoen uztartutako hamalau planetako bat da. Legegintzaldi osorako aurreikusitako hamalau gobernu-planetatik, Bake eta Bizikidetzaren Plana izan zen lehendabizikoa onartzen. Horrek erakusten du zer-nolako tokia izan duen planak lehentasun politikoen artean.

Nolanahi ere den, gorago aipatu ditugun alderdiek eragin dute ekimen batzuk atzeratzea, edota diru-laguntzen prozedura batzuetan ere izan da atzerapenik, nahiz eta modu arrazoizkoan joan diren konpontzen arazok. Idazkaritza martxan jarrita, Justizia edota Herrizaingo sailetan administratibolan egiten zituzten langile guztien transferentziarik gabe, lan-bolumen handia eragin da Idazkaritzako langileen artean. Eta, nahiz eta aurreikusita dagoen laguntza emateko langile gehiago ekartzea, lan-karga gehiegizkoa izan da zeregin eta espediente batzuetan. Baina ebaluazio honen helburua ez da kudeaketa-alderdiotan sakontzea, baina ebaluazio-taldeak nabarmendu nahi du Idazkaritzako langileek izan duten motibazioa, baita haien dedikazioa ere.

Edonola ere, nolabaiteko barne-desoreka topatu da Idazkaritzan, zuzendaritza-lanen eta administratibozereginen artean; izan ere, dituzten giza baliabideak gutxitxo dira balioespen- eta segimenduari lotutako kudeatu beharreko espedienteen, planak aurreikusten dituen deialdiei eta ekimenei jarraiki.

6.1. Segimendua egiteko mekanismoa

Idazkaritzak segimendu-plan xehatua dauka planaren ekimenetarako: sei hilean behin Sailarteko Batzordean txostenak aurkezten ditu, eta, hala dagokionean, Eusko Legebiltzarrean. Denbora-tarte bakoitzean hobetzen joan dira, gainera, eta, ebaluazio-taldearen arabera, kalitate bikainekoak dira.

“Laugarrena.- “Bake eta Bizikidetzaren Plana 2013-2016 – Gizarte-topaketa helburu” izeneko planaren jarraipena eta ebaluazioa Gobernu Kontseiluaren 2013ko ekainaren 11ko Erabakian eta Planean bertan ezarritakoaren arabera gauzatuko dira. Azken horrek berezitasun hauek jasotzen ditu: Planean bertan sortutako Sailarteko Batzordeak egingo du etengabeko jarraipena, sei hilean behin.”

Segimendu-txostenek jasotzen dute denbora-tarte bakoitzerako aurreikusitako jarduerak zenbateraino bete diren, eta exekuzio mailarekin lotutako alderdi kuantitatiboak eta ehunekoak izan ohi dituzte. Gaur arte exekuzio maila oso handia izan da, berriki sortutako Idazkaritza bat bada ere. Balioespen kualitatiboak ere izan ohi dituzte, baina, orain-oraingoan, ez daukate emaitzak edota inpaktua neurtzeko adierazle sendo samarririk. Planaren II. fitxan emaitzak eta inpaktua neurtzeko adierazle-zerrenda bat jasotzen da, baina oso orokorrak dira; inpaktua neurtzekoetan, behintzat, ez du segimendurik egiten. Hasieran esanda bezala, banakapen handiagoz antolatutako adierazleak jasotzeko beharra izan zen Koordinatzailearen Zuzendaritzaren proposamenetako bat.

Jarraipen-lanetarako dagoen aurrekontuaren kudeaketaren ikuspuntutik, Planak guztira 19.334.000 euroko aurrekontua dauka, lau urtean betearazteko, 2013 eta 2016 artean. Lehenengo bi urteetan, 6.284.603 euro betearazi dira 8.334.000 euroko aurrekontutik. Kopuru hori planaren aurrekontu osoaren % 33 da, eta 2013 eta 2014 arteko aurrekontuaren % 75. Legegintzaldiaren erdi aldera zenbateraino osoaren % 43 betearaztea aurreikusita zegoen arren, ez dirudi ehuneko txikiagora iritsi izanak plana txertatzeko efikazian eta eraginkortasunean eragin duenik, begi-kolpe batez behintzat egokia izan baita. Gainera, planak aurreikusita zeukan diseinatu zutenean aurrekontuaren zatirik handiena azken bi urteetan gastatuko zela, % 57, alegia.

Plana betearazteko bigarren zatian, komeniko litzateke ekimen batzuetarako emaitzak eta inpaktua neurtzeko adierazle zehatzagoak ezartzea, guztia ere ekintzen segimendu kualitatiboagoa egiteko eta azken ebaluazioan erabili ahal izateko.

Uztailaren 29ko 157/2014 Dekretuak, Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Batzordea arautzen duenak, Sailarteko Batzordea osatzeaz gain, aurreko erregulazioak aldatzen ditu eta besteak beste planaren segimendua egiteko ardura duen organo bat ezartzen du. Hala, ikuspegi organikoa kontuan hartuta, planaren segimenduak honako hauek esku hartzen dute:

-Sailarteko Batzordea Eusko Jaurlaritzako sailen kudeaketa dinamizatzeaz eta koordinatzeaz arduratuko da.

-Aholku Batzordeak erakundeen eta gizarte zibilaren arteko interakzioa bideratuko du, planaren gizarte-topaketaren helburuaren barruan.

Plana abiarazi zen garaitik, bi alderdiok ondo funtzionatu dute. Eusko Legebiltzarrarekin koordinatuta jarduteko batzordea, aitzitik, ez zen martxan ipini, eta harremanak modu bilateralean egiten dira Legebiltzarreko talde bakoitzarekin.

Horrenbestez, esango genuke planaren segimendu-lanak erabat zuzen ari direla funtzionatzen.

6.2. Komunikazio-politika

Barne-kontuei erreparatuta, Idazkaritzaren funtzionamenduak nolabaiteko desoreka izan du zuzendaritzaren komunikazio eznahikoaren eta planak jorratzen dituen auzien administrazio-kudeaketaz arduratzen den osagai funtzionarialaren artean.

Planak ez zeukan ad hoc sortutako komunikazio-planik, komunikabideei eta gizarteari oro har bideratuta, ezagutarazteko eta garapena sustatzeko konplizitate positiboak sortzeko. Harrezkero, Lehendakartzaren Komunikazio Kabinetean arduratzen da komunikabideei eta gizarteari ezagutarazten planaren garapenak zer xehetasun dituen, Idazkaritzak ez baita organo espezifikoa bat lanok egiteko. Idazkaritzan ez dago foku-punturik identifikatuta, baina bi instantzien arteko komunikazioa ona dela nabari da.

Planaren komunikazioaren eta prentsaren segimendua egiteaz Eusko Jaurlaritzaren Komunikazio Kabinetean arduratzen da. Komunikabideek badituzte behar beste kanal aktibatuta planarekin lotutako alderdiaren inguruko informazioa uneoro eskuratu ahal izateko, baita Idazkaritzako zuzendaritza-taldearekin harremanetan jartzeko ere.

Komunikabideetan Planaren aurrerapausoak aitortzeko erresistentziak ageri dira. Nolanahi ere den, nabarmendu behar da euskal gizartearen gehiengoak baduela, partzialki bada ere, planaren berri, nahiz eta planean aurreikusitako jardueren hasieraz eta ekimenez hitz egiten duten albisteengatik bakarrik izan¹¹. Komunikabideek Lehendakartzaren Komunikazio Kabinetetik jasotako informazioa banatzen jarraitzen dute, eta planaz arduratzeko eta hitz egiteko interesa agertzen dute.

7. Gomendioak

Nahiz eta testuan zehar ondorioetatik sortutako hainbat gomendio iradoki diren, hemen jasoko ditugu garrantzitsuenak.

Gomendio orokorrak

•**Ikuspegi etikoa** lehendabiziko mailan edukitzea, indarkeriaren edozein justifikazio politiko saihesteko berriazko xedearekin, indarkeria baldintzarik gabe kondenatu behar baita dituen helburuengandik

¹¹ 2014ko martxoan argitaratutako bakeari eta bizikidetzari buruzko 54 Euskal Soziometroaren arabera, elkarrizketatutako pertsonen %37k adierazi zuen entzun duela Bake eta Bizikidetzaren Planari buruz hitz egiten.

bananduz. Indarkeria bidegabea izan dela aitortzea oinarritzakoa da bakea eta adiskidantza lortzeko, eta horren oinarria etikoa baino ez da.

•Planaren bigarren fasea birformulatzeko edo planifikatzeko garaian, testuinguruaren eboluzioaren ondorioz agertutako **kanpo-alderdien, eszenatoki eta arrisku posibleen azterketa egitea**. Alde horretatik, ezinbestekoa da planaren denbora-horizontea zabaltzea, jarraitutasun-lerro garbiak ezarrita, ondorio positiboak izan baititu horrek, orain artean ikusi dugun bezala.

•Bake iraunkorrean aurrera egiteak eskatzen du **immobilismotik eta konfort-egoeretatik irtetea**; inplikaturako eragile guztiek egin behar dute hori, akordioa eta aldaketa lortuko badira. Horrenbestez, paralisi posible horiek gainditzea da kontua, planteamendu proaktiboagoak eginda. Ildo horretatik, gomendagarria da ahaleginak bikoiztea Legebiltzarreko ponentzia aktibatuzeko, panorama politikoaren aldaketa hipotetiko baten zain egon gabe. Familia politikoen inplikazio zuzenik ezean, ezingo da planak aurrera egitea lortu eta egungo blokeoa hautsi. Eta, horretarako, oinarri etikoari buruzko akordio espezifikoak erabateko lehentasuna da.

•Era berean, hainbat gairen inguruko **adostasun-espazioak zabaltzea**, eragile guztiak kontuan izanda, oinarritzakoa zeregina da. Ideia horren bitartez, hainbat beharrez nabarmenduko ditugu:

-**Autokritika topagune gisa sustatzea**. Horri dagokionez, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak gako izan behar du topaketarako eta adostasuna lortzeko espazioan, eta ikerketara, trebakuntzara eta partaidetzara egon beharko du bideratuta, eta ez horrenbeste oroipenera eta kontserbaziora, museo-lan tradizionalen kateatuta gera ez dadin.

-**Keinuen politika sustatzea**, indarkeriak astindutako gizartearen sektore guztiekin enpatia eta harreman pertsonala lortzeko, edozer izanik ere indarkeria horren adierazteko modua.

-**Biktimen Lege berria prestatzea**, egungo legediak kontuan hartzen ez dituen giza eskubideen urraketak jasoko dituena.

-Planaren dimentsio guztietan **giza eskubideei** erreferentzia sistematikoak egitea, bakea eraikitzeko alorrean aurreikusten den moduan.

-**Gizarteratzeko marko propioak eta ekimenak sakonetik lantzea**, egungo espetxe-politikan txertatzeko.

-**Eragileen zerrenda zabaltzea**, planaren garapenean zuzenean inplikaturak daudenena, hain justu. Zehazki, eska liteke garrantzi handiko eragileek protagonismo handiagoa izatea, hala nola, enpresa-munduak edota artearen eta kulturaren munduak.

-**Alde sozioedukatiiboak indartzea**, bai eta bakea, bizikidetzaren eta adiskidetzaren babesten parte har dezaketen gizarte-sektoreekin harremanak ere.

-Bake eta Bizikidetzaren Planari **genero-analisia** egitea eta genero-ikuspegia behar bezala txertatu dela ziurtatuko duten jarduerak espezifikoak diseinatzea, giza eskubideekin, memoriarekin eta partaidetzarekin lotutakoei arreta berezia ipinita.

Gomendio espezifikoak

•**Historiaren rol zentrala handitzea**, modu esplizituan aitortuta egun oraindik egiten dituzten azterketen eta ikerketen ekarpena (irizpide objektiboak oinarri dituen diziplina gisa), kontuan izanda memoriak baduela alde subjektibo saihestezin bat, osagai emozional handiak eragina. **Hainbat euskarritan egindako argitalpenentzako laguntza-lerro bat abiaraztea**, euskal historia garaikidea jorratzeko, bai alde akademikoan, bai sozioedukatiiboan.

•**Memoriaren Mapa prestatzen jarraitzea**, terrorismoarekin, indarkeriarekin eta giza eskubideen urraketekarekin lotutako ekintza guztiak jasota. **Biktimen erregistro osoa amaitzea**, orain artean erregistro partekatu bat osatzea galarazi duten iritzi-desberdintasunak gaindituta eta biktima guztiak bilduta, desberdintasunik egin gabe.

•**Kriminologiaren Euskal Institutuaren lana zuzenean babestea**, oraindik ere ebazteke dauden tortura-kasuen erregistro sistematikoa eta unean unekoa bizkortzeko. **Torturatutako pertsonen laguntza psikologikoa ematea**.

•**Biktimei zuzendutako lan psikosoziala sustatzea**, alderdi horretako nazioarteko esperientziekin lerrokatuta.

-
- Orain artean izandako espetxe-politikarekin jarraituta, **dispertsio/gerturatze kontuak agenda politikotik kentzea, eta giza eskubideen alorrera eta alor humanitariora eramatea.**
 - Bake-giroan hezteko programa formalak eta ez-formalak indartzea**, Adi-adian hezkuntza-moduluaren esperientzia positiboa zabaldua lanbide-heziketara eta helduen hezkuntzara.
 - Euskal Unibertsitateen partaidetzari bultzada handiagoa ematea** bere-bereak dituen esparruetan.
 - Eskola-materialaren sorrera bultzatzea**, euskal historia garaikidearen irakurketa egokia transmititzeko.
 - Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Batzordea dinamizatzeko beste bultzada bat ematea**, enpresetako eta sindikatuetako ordezkariak gehituta haren egiturari. Alde guztien artean adostutako pertsona bat izendatzea, foroa gidatzeko eta dinamizatzeko, behar beste giza eta finantza-baliabidez lagunduta. Aholku Batzordeari emandako bultzada berritu hori aprobetxatzea gizarte zibilak hainbat alorretan laguntza emateko estrategia bateratua prestatzeko: bakegintzan, bizikidetzan edota giza eskubideetan, ziklo politikoez gaindik betiere.
 - Enpresaren munduak zer rol izan dezakeen eta nola batera daitekeen aztertzea eta alderdi horiekin lotutako jardura espezifikoak sortzea**, Bake eta Bizikidetzaren Planaren iraganari, orainari eta etorkizunari dagokionez.
 - Tokiko egoera politiko berria aprobetxatzea, **Foru-Aldundiak eta Udalak uztartzen, lankidetzarako prestatzen eta koordinatzen jarraitzeko**. EUDELekin aztertzea bakearen eta bizikidetzaren aldeko udalerrien sare edota aliantza bat sortzeko aukera, irizpide komunak kontuan hartuta eta arreta berezia ipinita herritarrek parte hartzeko espazioei eta proposamenak sortzeari.
 - Emakumei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko NBEren Segurtasun Kontseiluaren **1325 Ebazpena betetzeko balioko duten ekintza konkretuak identifikatzea**, ordezkariarekin eta partaidetzarekin loturik. **Genero-analisia modu transbertsalean txertatzea** egiten diren azterlan guztietan, eta, batez ere, giza eskubideen urraketei buruzko oinarrizko txostenean.
 - Arrazoi politikoei eragindako indarkeriak emakumeetan izandako inpaktuari buruzko ikerketa osatzea** eta emakumezkoek egindako lanari ikusgarritasuna eta errekonozimendua emateko jarduerak identifikatzea.
 - Planaren kanpo-komunikaziorako estrategia bat prestatzea eta martxan jartzea.**

8. Eranskinak

8.1. I. eranskina. Elkarrizketatutako pertsonen zerrenda

Ondorengo zerrendan ageri dira, kronologikoki, elkarrizketatutako pertsonak¹².

- Manu Castilla, Azterlan Kabinetearen Zuzendaritza, Lehendakaritza, Gasteiz, apirilak 7.
- Mikel Burkazo, Gobernu Planen Koordinaziorako Zuzendaritza, Lehendakaritza, Gasteiz, apirilak 7.
- Aintzane Ezenarro, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, Gasteiz, apirilak 7.
- Monika Hernando, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, Gasteiz, maiatzak 7 eta 28, ekainak 10 eta 11 (telefonoz).
- Enrique Ullibarriarana, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, Gasteiz, apirilak 8.
- Marian Sánchez, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, Gasteiz, apirilak 8.
- Maite Alejo, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, Gasteiz, apirilak 8.
- Nekane Zeberio, Komunikaziorako Zuzendaritza, Lehendakaritza, Gasteiz, apirilak 8.
- Vicenç Fisas, Escuela de Cultura de Paz, Universidad Autónoma de Barcelona, Oslo, apirilak 20.
- Pello Saluburu, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, apirilak 28.
- Cristina de la Cruz, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, apirilak 28.
- Josean Pérez, UPV/EHU Valentín de Foronda Institutua, Gasteiz, apirilak 28.
- Jonan Fernandez, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, Donostia, apirilak 28; Gasteiz, maiatzak 28.
- Mariano Ferrer, kazetaria, Donostia, apirilak 28.
- Francisco Etxeberria, Aranzadi Zientzia Elkartea/Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia, apirilak 28.
- Eduardo Ruiz-Vieytez, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, apirilak 28.
- Paul Ríos, Lokarri, Bilbo, apirilak 28.
- Txema Lanzagorta, ASERFAVITE, Bilbo, apirilak 28.
- Juan Mari Gastaca, El País, Bilbo, apirilak 29.
- Maite Alonso, Eskola Kontseilua, Bilbo, apirilak 29.
- Asun Olaeta, ZAITU, Bilbo, apirilak 29.
- Joseba Markaida, ZAITU, Bilbo, apirilak 29.
- Ángel María Unzueta, Bilboko Bikarioa, apirilak 29.
- Andoitz Korta, Joxe Mari Kortaren Bidetik Fundazioa, Bilbo, apirilak 30.
- Carmen Alba, Auzitegi Nazionalen Terrorismoaren Biktimei Informazioa eta Laguntza emateko Bulegoa, maiatzak 11 (telefonoz).
- Teresa Toda, SARE, Gasteiz, maiatzak 18.
- Joseba Azkarraga, SARE, Gasteiz, maiatzak 18.

¹² 2015eko apirilaren 7aren eta ekainaren 11ren artean, 67 pertsonekin jarri ginen harremanetan eta guztira 61 elkarrizketa burutu genituen 67 pertsonekin (41 gizon eta 26 emakume).

-
- Faustino López de Foronda, Arartekoaren Bulegoa, Gasteiz, maiatzak 18.
 - Sara Buesa, Fernando Buesa Fundazioa, Gasteiz, maiatzak 18.
 - Julen Arzuaga, EH Bildu, Gasteiz, maiatzak 18.
 - Andoni Aranburu, EiTBko Komunikazio Estrategiarako Zuzendaritza, Bilbo, maiatzak 19.
 - Josu Puelles, COVITE, Bilbo, maiatzak 19.
 - Juan María Uriarte, Donostiako Apezpiku emeritua, Bilbo, maiatzak 19.
 - Iñaki Soto, Gara egunkaria, Donostia, maiatzak 19.
 - Mainer Alustiza, Etxerat, Donostia, maiatzak 19.
 - Nagore López de Luzuriaga, Etxerat, Donostia, maiatzak 19.
 - Itaso Andueza, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Donostia, maiatzak 19.
 - Iker Uson, Baketik, Donostia, maiatzak 19.
 - Monika Vázquez, UNESCO Etxea, Bilbo, maiatzak 19.
 - María Teresa Oianguren, Bilbo, maiatzak 19.
 - Mar Zabala, EUDEL, Bilbo, maiatzak 19.
 - Beatriz Ruesgas, EUDEL, Bilbo, maiatzak 19.
 - Xabier Etxebarría, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, maiatzak 19.
 - Bingen Zupiria, DEIA egunkaria, Bilbo, maiatzak 19.
 - Patxi Zubiaur, Leizaola Fundazioa / Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkarleen Foroa, Bilbo, maiatzak 19.
 - Javier Elzo, Katedradun Emeritua, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, maiatzak 19.
 - José Gabriel Mujika, Diario Vasco, Donostia, maiatzak 19.
 - Carmelo Barrio, Alderdi Popularra, Gasteiz, maiatzak 21.
 - Rodolfo Ares, Euskadiko Alderdi Sozialista, Bilbo, maiatzak 21.
 - Ainara Esteran, Egiari Zor Fundazioa, Bilbo, maiatzak 21.
 - Lorea Bilbao, Egiari Zor Fundazioa, Bilbo, maiatzak 21.
 - Jon-Mirena Landa, Euskal Herriko Unibertsitatea, maiatzak 21.
 - Laura Sagastizabal, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, maiatzak 27 (telefonoz).
 - Joseba Egibar, Eusko Alderdi Jeltzalea, Gasteiz, maiatzak 28.
 - Iñigo Iturrate, Eusko Alderdi Jeltzalea, Gasteiz, maiatzak 28.
 - Marina Goikoetxea, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, Gasteiz, apirilak 28.
 - Inés Núñez, Adi-Adian programan parte-hartzailea, Gasteiz, maiatzak 28.
 - Gorka Maneiro, Unión Progreso y Democracia (UPyD), ekainak 1 (telefonoz).
 - José Luis de la Cuesta, Kriminologiaren Euskal Institutua IVAC/KREI, ekainak 2 (telefonoz).
 - Izaskun Landaida, Emakunde, ekainak 2 (telefonoz).
 - Camilo Cataldo, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa, ekainak 2 (telefonoz).
 - Alberto Ayala, El Correo egunkaria, ekainak 2 (telefonoz).

- Miguel Folguera, Asociación Víctimas del Terrorismo, Madril, ekainak 3.
- Carmen Ladrón de Guevara, Asociación Víctimas del Terrorismo, Madril, ekainak 3.
- Pat Colgan, EU Special Programme Body, ekainak 3 (telefonoz).
- Cristina Fraile, Giza Eskubideetarako Zuzendaritza, Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioa, ekainak 8 (telefonoz).
- Carlos Martín Beristain, Deustuko Unibertsitatea, ekainak 11 (telefonoz).

8.2. II. eranskina. 2013ko eta 2014ko laguntzen, bonoen, hitzarmenen eta diru-laguntzen onuradunen zerrenda

Biktimen elkarteak

- Asociación 11-M Afectados por el Terrorismo
- Asociación Andaluza de Víctimas del Terrorismo (AAVT)
- Asociación Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado Víctimas del Terrorismo (ACFSE)
- Asociación para la Defensa de la Dignidad Humana (ADDH)
- Asociación de Ertzainas y Familiares de Víctimas del Terrorismo (ASERFAVITE)
- Asociación Extremeña de Víctimas del Terrorismo (AEVT)
- Asociación Plataforma de Apoyo a las Víctimas del Terrorismo (APAVT)
- Asociación Psicopedagógica de Euskadi (APSIDE)
- Asociación Riojana de Víctimas (ARVT)
- Asociación de Víctimas 3 de Marzo – Martxoak 3 Elkarte
- Asociación Víctimas del Terrorismo (AVT)
- Asociación Víctimas del Terrorismo de la Comunidad Gallega (AGAVITE)
- Asociación Víctimas del Terrorismo de la Comunidad Valenciana (AVTCV)
- Asociación Víctimas del Terrorismo Santiago Apóstol
- ZAITU Elkarte
- Terrorismoaren Biktimen Euskadiko Elkarte (COVITE)
- Fernando Buesa Fundazioa
- Gregorio Ordóñez Fundazioa
- Miguel Ángel Blanco Fundazioa

Udalak eta Toki Erakundeak

- Abanto-Zierbenako Udala
- Dulantziko Udala
- Amorebieta-Etxanoko Udala
- Amurrioko Udala
- Erandioko Udala
- Azpeitiko Udala
- Balmasedako Udala
- Barakaldoko Udala
- Bilboko Udala
- Campezo/Kanpezuko Udala
- Donostiako Udala
- Durangoko Udala

- Elgetako Udala
- Elgoibarko Udala
- Ermuko Udala
- Errenteriako Udala
- Etxebarriko Udala
- Gernika Lumoko Udala
- Gueñesko Udala
- Hernaniko Udala
- Hondarribiko Udala
- Igorreko Udala
- Irungo Udala
- Lasarte-Oriako Udala
- Leioako Udala
- Lekeitioko Udala
- Llodio/Laudioko Udala
- Mungiako Udala
- Orioko Udala
- Orozkoko Udala
- Portugaleteko Udala
- Santurtziko udala
- Soraluzeko Udala
- Txorierriko Mankomunitatea
- Urnietako Udala
- Zallako Udala
- Zarauzko Udala
- Zumarragako Udala

Gizarte elkarteak eta erakundeak

- Aculco Euskadi
- AGLE, Arabako Gizarte Lan Elkartea
- Aisibizia Elkartea
- Aldapa Haundi Kultur Elkartea
- ALDARTE Gay, lesbiana eta transexualen arretarako zentroa
- Amekadi
- Ampa A.P.Y.N.A. Etorrizuna Guraso Elkartea
- Ampa Landarra. Arrigorriaga BHI

-
- IES San Adrián BHI Guraso Elkarte
 - Argizai Eskaut Taldea
 - Arma Plaza Fundazioa
 - Bakearen aldeko Lankidetzako Batzarra
 - Arabako Gizarte Lan Elkarte, AGLE
 - Arte Eszenikoen Lagunen Elkarte (Amares)
 - Arabako SEADen Lagunen Elkarte
 - Argituz Elkarte
 - Gatazkak Eraldatzeko Unibertsitate Zentroa, GEUZ
 - Trueba Kultur Elkarte
 - Asociación Española para el Derecho Internacional de los Derechos Humanos
 - Asociación Española de Investigación para la Paz (AIPAZ)
 - "Nicolás Guerenidiain" Irungo Elkarte Errepublikarra
 - CEAR Euskadi, Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea
 - Clara Campoamor Elkarte
 - Afric' Forum Garapenerako Lankidetzak Elkarte
 - Eurocampus Kultur Elkarte
 - Kale Dor Kayiko Ijitoen Kultur Elkarte
 - Ikertze Kultur Elkarte
 - Zinhezba Kultur Elkarte
 - Giza Duintasunaren Defentsarako Elkarte (ADDH)
 - Umeak Kanean Komunitate Garapenerako Elkarte
 - Asociación Ekuale para el Desarrollo de la Justicia Comunitaria
 - El Taller de Geppetto Elkarte
 - Goitibera Elkarte
 - Hegoak-Alde Elkarte
 - Asociación de Innovación Cultural Moviltik, Móviles para el Cambio
 - Gernika Gogoratzuz Bakearen Aldeko Aztertegia Elkarte
 - Lur Gozoa Elkarte. Herritar kontzienteentzako plataforma.
 - Matiz Elkarte. Bizikidetzak Sozial, Ekonomiko eta Iraunkorrerako Balioen Hezkuntza.
 - Euskadiko Bitartekaritza Elkarte (Amekadi)
 - Suspergitza, Animazio Sozio-Kulturala Sustatzeko Elkarte
 - Euskadiko Psikopedagogia Elkarte (APSIDE)
 - Berdintasunerako Aizan Elkarte Psikosoziala
 - Susterra Giza Sustapen eta Garapenerako Elkarte
 - Drogaren Aurkako Euskal Kirolarien Elkarte – Mugarik Gabeko Kirolariak

- Bitar-Bask Eusko Bitartekaritza Elkartea
- Ukraina-Gaztea, Ayuda a Niños y Niñas de Chernobil
- Baskale Elkartea
- Bilbao Historiko Elkartea
- Bitarbask
- Nazioarteko Bake Brigadak (PBI)
- Bultzain. Gizarte Bazterketa Arazoak dituzten Pertsonen Abegi Egiteko Elkartea
- Centro de Información María Cambrils
- CIDEA
- Bakearen Aldeko Koordinakundea
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
- Demagun Hausnarketarako Taldea
- Donostiako Diozesa
- Donostiako Frankismoaren Genozidioaren Biktimen Elkartea
- EDEX Baliabide Komunitarioen Zentroa
- Ekai Center Fundazioa
- Ekimen 2000
- Elkasko. Bizkaiko Ikerketa Historikoko Elkartea
- ERK – Proyectos Promoción de Colectivos en Exclusión Social
- Erkibe Kultur Elkartea
- Euskalerriko Eskautak Bizkaia
- Euskalherriko Eskautak Federakuntza Trebeak
- Euskal Herriko Ahozko Ondarearen Elkartea
- Euskal Herriko Giza Eskubideen Behatokia
- Eusko Ikaskuntzaren Euskomedia Fundazioa
- Eusko Lurra Fundazioa
- Euskal Memoria Fundazioa
- Etxerat A.E.
- Federación de Asociaciones de Defensa y Promoción de los Derechos Humanos – España
- Bosko Taldea Federazioa
- Familia Gurasoen eta Ikasleen Gurasoen Federazio Katolikoa (FECAPP)
- Gipuzkoako Ikasleen Guraso Elkarleen Federakuntza Librea (FEGUIAPA)
- Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkarleen Foroa
- Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa
- Baketik Fundazioa
- Fundación Cultura de Paz

-
- EDE Fundazioa
 - EKAI Center Fundazioa
 - Gizagune Fundazioa
 - Harribide Fundazioa
 - Itaka-Eskolapioak Fundazioa
 - Juan de los Toyos Fundazioa
 - Leonardo Genozidioaren Fundazioa
 - Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
 - Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa
 - Fundación de Trabajadores de la Siderurgia Integral
 - Gebehatokia Giza Eskubideen Behatokia
 - Gerediaga Elkarte
 - Gernika Gogoratuz
 - Gogoan Sestao Elkarte
 - Goldatu Elkarte Sozio Kulturala
 - Gozaldi Gazte Elkarte – Kiribil Sarea Ganbara Elkargunea
 - Hamaika Bide Elkarte
 - Harresi Kulturala Elkarte
 - Heber Elkarte
 - Herriari Egia Elkarte
 - Ikertze Kultur Elkarte
 - Itaka – Escolapios
 - Francisco de Vitoria Nazioarteko Ikerketen Euskal Herriko Institutua
 - Gizarte Ikerketarako Talde Eragilea
 - Intxorta 1937 Kultur Elkarte
 - Jesús María de Leizaola Fundazioa
 - José Unanue Fundazioa
 - KCD ONGD. Kultura, Communication y Desarrollo
 - Kiribil Sarea
 - La Fundación
 - Landetxa Ventas Auzo Elkarte
 - Larrañaga Kolektiboa Kultur Elkarte
 - Lau Haizetara Gogoan
 - Lenbur Fundazioa
 - Lokarri Akordioaren eta Kontsultaren aldeko Herritarren Sarea
 - Mario Onaindia Fundazioa

- Matxitxako Kultur Elkartea
- Mugarik Gabeko Medikak
- Mugarik Gabeko Musikariak
- Pikor Kultur Elkartea
- Portugaleteko Aisialdi Sarea
- Ramón Rubial Fundazioa
- Sabino Arana Fundazioa
- Shareak Kultur Elkartea
- Gipuzkoako SOS Arrazakeria
- Bizkaiko SOS Arrazakeria
- Torturaren Aurkako Taldea
- Unión Sindical Obrera (USO)
- Umeak Klean
- UNESCO Etxea

Unibertsitateak eta Unibertsitate Institutuak

- Fundación Universidad Complutense
- Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua
- Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC/KREI)
- Mondragon Unibertsitatea
- Deustuko Unibertsitatea
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- UPV/EHU Valentín de Foronda Institutua



4. dokumentua

Legealdiaren amaieran Bake eta Bizikidetzaren Planak izango duen garapenari buruzko txostena.

Zazpi lehentasun

**Legealdiaren amaieran Bake eta Bizikidetzaren
Planak izango duen garapenari buruzko txostena**



Amaiera ordenatua eta hasiera berritzailea
Zazpi lehentasun

2015ko urriaren 13a

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

Aurkibidea

Sarrera.

Lehenzatia. Abiapuntuak.

1. Tarteko ebaluazioaren kanpo-txostena.

- 1.1. Gomendioen laburpena.
- 1.2. Gomendioak balioztatu eta txertatzea.
 - 1.2.1. Gomendio nagusiak.
 - 1.2.2. Gomendio espezifikoak.

2. Egoeraren diagnostikoa.

- 2.1. Gaur egungo egoeraren gakoak.
 - 2.2. 2015aren amaierako eta 2016ko testuinguruaren ustezko agerlekuak.
 - 2.2.1. Agerlekuen aniztasuna zehazten duten osagai nagusiak.
 - 2.2.2. Ustezko agerlekuen konbinazioa.
 - 2.2.3. Agerlekuen sinplifikazioa.
 - 2.3. Eusko Jaurlaritzaren jarrera agerleku-aniztasun horren aurrean.
-

Bigarren zatia. Ondorioak.

3. Esparru orokorra.

- 3.1. Egiteko nagusia.
- 3.2. Helburu nagusia.
- 3.3. Irizpide gidaria.

4. Zazpi lehentasun eta zeharkako konpromiso bat.

- 4.1. Indarkeriaren amaiera ordenatua lortzeko lehentasunak.
- 4.2. Bizikidetzeta berriz abiarazteko lehentasunak.
- 4.3. Zeharkako konpromisoa.

5. Lehentasunen garapena eta horien zeharkako konpromisoa.

- 5.1. Desarmaea.
 - 5.2. Espetxe-politika.
 - 5.3. Autokritika.
 - 5.4. Argigarriak.
 - 5.5. Biktimak.
 - 5.6. Memoria.
 - 5.7. Bizikidetzarako kultura eta hezkuntza.
 - 5.8. Zeharkako konpromisoa.
-

Hirugarren zatia. Jarduketa-programa.

1. 2015eko irailetik abendura bitarte.

2. 2016ko urtarriletik maiatzera.

3. 2016ko ekainetik azarora.

Sarrera

2013-2016 Bake eta Bizikidetzarako Planaren lehen aurrerapena 2013ko martxoaren 6an aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrean. Plan horren proposamen osoa ekainaren 6an ezagutarazi zen, eta eztabaidarako eta ekarpenak jasotzeko bost hilabete igaro ostean, Gobernu Kontseiluak behin betiko onespena eman zion urte bereko azaroaren 26an.

Horrela, 2015ean planak hiru urte bete ditu eta, orain, haren indarraldiko azken urteari aurre egingo dio, legealdi amaierarekin bat etorriz. Horregatik, momentu honetan aurkeztu den txostena prestatu behar izan da planak azken fasean izango duen proiektioaren eta aplikazioaren inguruan.

Gainera, irailaren 9an Roberto Toscano, Covadonga Morales, Francisco Rey eta Jesús Núñez adituek egindako Bake eta Bizikidetzarako Planaren bitarteko ebaluazioaren kanpo-txostena aurkeztu zen. Txosten horren lanketa planaren beraren aurreikuspenetako bat da, haren jarraipenari eta ebaluazioari dagokion atalean. Horrexegatik, dokumentu honetan horiek egindako gomendioen balorazioa txertatzea komeni da, amaierako fasean horiek planera txerta daitezten.

Gainera, Bake eta Bizikidetzarako Planaren amaierako fasea prestatzen duen dokumentuak nahitaez aztertu behar du esku hartu nahi duen bake eta bizikidetzarako prozesu-egoeraren bilakaera. Zentzu horretan, Espainian laster hauteskunde orokorrak izango direla izan behar da kontuan, horiek agerleku potentzial desberdinetan kokatzen baitute prozesuaren etorkizuna, eta horrek beste modu batera baldintzatzen du dokumentua.

Horiek dira, hain zuzen, txosten honen lanketa eta aurkezpena azaltzen duten faktoreak. Izan ere, faktore horiek edukien egitura osoa osatzen dute, hiru zati dituena: lehenik eta behin, kanpo-ebaluaziorako txostena eta gobernuak berak egiten duen egoera-diagnostikoa oinarri hartuta *abiapuntuak* jorratzen dira; bigarrenik, lehen zatian adierazitakotik ateratzen diren ondorioak aurkeztu dira; eta, hirugarrenik, jarduketa-programa garatzen da modu xehatuagoan.

Txosten hori 2015eko urriaren 13an aurkeztuko zaio Gobernu Kontseiluari. Bake eta Bizikidetzarako Planaren eranskin-izaera izango du eta haren aurreikuspenak eguneratuko ditu; horrenbestez, erreferentzia gisa hartu behar da seihileko hurrengo jarraipen-txostenetan eta planaren amaierako ebaluazioan.

Lehen zatia

Abiapuntuak

Dokumentu honen helburua da azken fasean Bake Planaren garapena bideratzea. Metodologikoki, proiektio hori bi abiapuntutan oinarrituz gauzatzen da: tarteko ebaluazioaren kanpo-txostena eta egoeraren diagnostikoa.

1. Tarteko ebaluazioaren kanpo-txostena

Tarteko ebaluazio-txostenak Bake eta Bizikidetzarako Planaren balorazio egokia egiten du. Haren laburpen exekutiboan honako hau dio, literalki:

“Laburbilduz, Plana orokorra, beharrezkoa, anbizio handikoa (baina errealista) eta orekatua da. Planaren ikuspuntua eta xedea argi geratzen dira, sakonki arrazoitzen dira eta, ekimen bakoitzari dagokionez, zehaztasun maila ezin hobea du. Dena den, Plana egungo euskal gizarteak eta politikak har dezakeenaren aurretik doa eta horrek sor dezake alde garrantzitsu bat lortu nahi denaren eta epe laburrean denon artean lor dezakegunaren artean. Hala ere, gida bat ezartzen du konfiantzan oinarrituta eta oraingo desadostasunak abiapuntu hartuta aurrera egiteko prest dauden guztientzat.”

Ebaluazio-txosten hori Bake eta Bizikidetzarako Planaren ezarpena hobetzera zuzendurik dauden gomendioen atal batekin amaitzen da amaierako fasean.

1.1. Gomendioen laburpena

Tarteko ebaluazio-txostenak izaera orokorreko lau gomendio planteatzen ditu. Honako hauek dira, laburbilduz:

• **Lehena.** Dimentsio etikoari lehen planoan eusten jarraitzea, betiere indarkeriaren bidegabekeria aitortuz.

• **Bigarrena.** Agerlekuen azterketa txertatu eta Planak dituen helburuen behin-behineko kudeaketaren horizontea handitzea.

• **Hirugarrena.** Akordioa galarazten duten “konfort-guneetatik” irteteko gonbidapena egin aktore guztiei eta elkarrizketarako eta adostasunerako foroen sorrera azpimarratzea, batzorde txostengilearen kasuan bezala.

• **Laugarrena.** Honako gai sentikor hauetan adostasun gehiago lortzea:

- (1) autokritika topagune gisa;
- (2) indarkeriak eragindako sektore guztienganako enpatia-keinueta oinarritutako politika;
- (3) aitortu gabeko biktimak kontuan hartuko dituen lege berri bat;

- (4) giza eskubideak sendotzea, bakea eraikitzeko ardatz gisa;
- (5) birgizarteratze-politikak;
- (6) aktore sozial gehiago txertatzea;
- (7) gizarte eta hezkuntza arloko alderdiak sendotzea;
- eta (8) genero-ikuspegia txertatzea.

Gomendio orokor horiez gain beste 14 gomendio zehatz gaineratzen dira:

- I. Gure historia berriari buruzko eduki akademikoa duten argitalpenak babestea.
- II. Memoriaren Mapa eta biktima guztien erregistroa osatzea.
- III. KREIk torturaren inguruko ikerketari dagokionez egin duen lana babestea.
- IV. Biktimekiko lan psikosoziala sustatzea.
- V. Presoak gerturatzearekin lotutako alderdia giza esparruan kokatzea.
- VI. Adi-adian gisako esperientziak hezkuntza-esparru guztietara zabaltzea.
- VII. Unibertsitateen partaidetza gehiago sustatzea.
- VIII. Euskal historia garaikideari buruzko ikasmateriala sustatzea.
- IX. Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Batzordeari sustapen berri bat ematea.
- X. Enpresa-munduaren eginkizunari buruzko hausnarketa egitea.
- XI. Udalekiko eta foru aldundiekiko itunak bultzatzea.
- XII. Generoaren analisia zeharka txertatzea (NBEren 1325. ebazpena).
- XIII. Indarkeriak emakumeengan duen inpaktuari buruzko ikerketa osatzea.
- XIV. Planaren kanpo-komunikaziorako estrategia bat prestatu eta martxan jartzea.

1.2. Gomendioak balioztatu eta txertatzea

Hurrengo bi tauletan, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak gomendioen inguruan egin duen balorazioa laburbiltzen da, horiek planaren kudeaketarako azken fasean txertatu daitezkeen. Ikusiko dugun moduan, horietako askok dagoeneko abian diren jarduketan jarraipena egin eta horiek indartu edo sakontzeko xedea dute.

1.2.1. Gomendio nagusiak

Gomendioak	Balorazioa eta txertaketa
<p>Lehena. Dimentsio etikoa lehen planoan eusten jarraitzea, betiere indarkeriaren bigabekeria oinarritzat hartuz.</p>	<p>-Horixe da, hasiera-hasieratik, Bake eta Bizikidetzarako Planaren kudeaketari dagokion oinarri sendotako bat, eta hala izaten jarraituko du amaierako fasean.</p>
<p>Bigarrena. Agerlekuen azterketa txertatu eta Planak dituen helburuen behin-behineko kudeaketaren horizontea handitzea.</p>	<p>-Gomendio bikoitz hori dokumentu honetan bertan txertatzen da. Lehenengoa "Egoeraren diagnostikoa" atalean eta bigarrena haren hainbat puntutan.</p>
<p>Hirugarrena. "Konfort-guneetatik" ateratzeko gonbidapena egin eta adostasunerako foroen sorrera azpimarratzea, batzorde txostengilearen kasuan bezala.</p>	<p>-Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu du konpromiso hori, eta elkarrizketarako eta adostasunerako eremuak sortu daitezela eskatzen jarraituko du gizarte, politika, parlamentu eta erakunde arloetan.</p>
<p>Laugarrena. Honako gai sentikor hauetan adostasun gehiago lortzea:</p> <p>4.1. Autokritika topagune gisa</p> <p>4.2. Enpatia-keinueetan oinarritutako politika indarkeriak eragindako sektore guztietara.</p> <p>4.3. Aitortu gabeko biktimak kontuan hartuko dituen lege berri bat.</p> <p>4.4. Giza eskubideak sendotzea, bakea eraikitzeke ardatz gisa.</p> <p>4.5. Birgizarteratze-politikak.</p> <p>4.6. Aktore sozial eta kultural gehiagoren txertaketa.</p> <p>4.7. Gizarte eta hezkuntza arloko alderdiak sendotzea.</p> <p>4.8. Genero-ikuspegia txertatzea.</p>	<p>-2015. urte amaieran hasi eta 2016. urtean zehar, adostasun batera iristea izango da Eusko Jaurlaritzaren lehentasuna. Horretarako, hainbat ekimen eta proposamen aurkeztuko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> ·Azken fase honetan hori izango da lehentasunezko jarduketa-ardatzetako bat eta Zuzendu Programaren bitartez bideratuko da. ·Keinueetan baino gehiago, sufritu duten pertsonen kito hitzetan, ekintzetan eta enpatia-konpromisoeetan oinarritutako politikan sakonduko da, ekainaren 5ean egindako ekitaldiaren ildo beretik jarraituz. ·Udazken honetan bertan lege-proposamen bat aurkeztea aurreikusten da. ·Erabateko sintonia kontzeptu horren pixkanakako garapenarekin; haren garrantziak planean oinarritu beharko luke hurrengo legealdirako. ·Planaren amaierako kudeaketaren aurreikuspenen artean ekimen berrien aurkezpena dugu, Hitzeman eta Zuzen Bidean dokumentuak oinarritzat hartuta. ·Hausnarketa hori Kultura Sailera eta Kontsulta Kontseilura bidaliko da. ·Planaren kudeaketan lehentasunezko helburua da gizarte eta hezkuntza arloetan lortutako itunak bereziki zaindu eta lantzea, eta agente guztiekin lan-kidetzan jardutea, betiere Gizalegez Akordioa oinarritzat hartuta. ·Gomendio zehatzen artean ere agertzen da gomendio hori, atal horren XII eta XIII puntuei erantzunez.

1.2.2. Gomendio espezifikoak

Gomendioak	Balorazioa eta txertaketa
I. Gure historia berriari buruzko eduki akademikoa duten argitalpenak babestea.	·Ildo horretan lan egin da eta horrela egiten jarraitu nahi da, Memoria Historikoari nahiz Memoria Berriari dagokionez.
II. Memoriaren Mapa eta biktima guztien erregistroa osatzea.	·Erretratuak proiektuaren bitartez garatzea aurreikusten da eta garatuko da, eta abian den datu-basea optimizatuko da.
III. KREIk torturaren inguruko ikerketari dagokionez egin duen lana babestea.	·Eusko Jaurlaritzaren konpromiso esplizitueta bat da.
IV. Biktimekiko lan psikosoziala sustatzea.	·Ildo horretan, biktimekiko tratua pertsonalizatzea da apustu nagusia, horien premiak kontuan hartuta.
V. Presoak gerturatzearekin lotutako alderdia giza esparruan eta giza eskubideen esparruan kokatzea.	·Ikuspegi hori behar bezala jasotzen da Zuzen Bidean dokumentuaren lehen zatian; hark planaren azken faseko kudeaketa hartuko du barne esparru horretan.
VI. Adi-adian gisako esperientziak hezkuntza-esparru guztietara zabaltzea.	·Iradokizun hori hurrengo legealdirako proiektatu da eta hezkuntza-eragileekin batera prestatu behar da. 2015. urtean, unibertsitate-eremuko bakea lortzeko hezkuntza-proiektu bat prestatzen ari gara unibertsitateekin.
VII. Unibertsitateen partaidetza gehiago sustatzea.	·Proposamen hori Idazkaritzak hiru euskal unibertsitateekin zehaztuta duen lankidetzaren esparrura bideratuko da.
VIII. Euskal historia garaikideari buruzko ikasmateriala sustatzea.	·Proposamen hori Hezkuntza Sailera eta Idazkaritzak hezkuntza-eragileekin duen lankidetzaren esparrura bideratuko da.
IX. Bake eta Bizikidetzaren Planaren Aholku Batzordeari beste bultzada bat ematea.	·Proposamen hori Bake eta Bizikidetzarako Planaren Kontsulta Kontseiluaren senera igorriko da eta, noizean behin eta epeak direla-eta, hurrengo legealdian proiektatuko da.
X. Enpresa-munduaren eginkizunari buruzko hausnarketa egitea.	·Ekarpen hori enpresa arloan ordezkartza duten erakundeekin elkarrizketan aritzeko esparrura bideratuko du Idazkaritzak.
XI. Udalekin eta foru aldundiekin itunak gehiago bultzatzea.	·Amaierako fasean planeko programara txertatu diren aurreikuspenetako bat da hau, Elkarrekin Programaren bitartez.
XII. Generoaren analisia zeharka txertatzea (NBEren 1325 Ebazpena).	·Gomendio hau ez da behar bezain zehatza. Gehienez ere hausnarketa bat egingo da Emakunderekin, alderdi horren inguruan gehiago sakontzeko.
XIII. Indarkeriak emakumeengan duen inpartuari buruzko ikerketa osatzea.	·Ikerketa hau 2015eko bigarren seihilekoan bukatzea aurreikusten da.
XIV. Planaren kanpo-komunikaziorako estrategia bat prestatu eta aktibatzea.	·Ez da beharrezkotzat jotzen legealdi honetan, eta, beraz, lanerako hipotesi gisa proiektatuko da hurrengoan.

(Dokumentuan zehar, ebaluazio-txosten honetako gomendioak txertatzen diren aurreikuspenak eta jarduketak adieraziko dira, kasu bakoitzean. Horretarako, bi taula hauetako zenbakiak erabiliko dira: zenbaki ordinalak gomendio orokorretarako eta zenbaki erromatarrak gomendio espezifikoetarako.)

2. Egoeraren diagnostikoa

2.1. Gaur egungo egoeraren gakoak

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak 2015eko urrian egindako egoeraren analisia bost gako garrantzitsu hauetan laburbildu daiteke:

·**Aurrerapena.** Legealdi hasieratik, ETAk 2011ko irailean iragarritako terrorismoaren behin betiko amaiera bermatzen duten datuak sendotu dira. Bake eta bizikidetzaren arloan egoerak ez du okerrera egin; are gehiago, aurrera egin du eta oraindik hobetzeko tartea du. Dena den, prozesua nahi baino mantsoago aurrera egiten ari dela pentsatzen du, oro har, gizarteak.

·**Blokeoak.** Espainiako Gobernuaren immobilismoak eta euskal erakundeekin alderdi estrategikoei buruzko akordioak lotzeari uko egiteak (desarmearen edo espetxe-politikaren inguruan, esaterako) eta ETaren eta haren inguru politikoko sektoreen desarmearen eta espetxe-bide legalen inguruko edo iraganari buruzko hausnarketa kritikoaren inguruko paralsiak nolabaiteko frustrazioa eragin dute aurrerapen handiagoen gabezia dela eta.

·**Borrokak.** Sektore politiko batzuek alderdien arteko borrokan oinarritutako antzerki mediatikoa maila altuan mantentzeko beharra eta Eusko Legebiltzarreko Bakerako eta Bizikidetzarako Lantaldearen blokeoa direla-eta, zeharkako itun politikoak eraikitzeke aukerak neutralizatu egin dira esparru estrategiko eta aurre-partidario horretan.

·**Erreferentziak.** Bake eta Bizikidetzarako Planari esker, gizarteak ezagutu dezakeen bide erakitzaile bat garatu ahal izan da, bizikidetzaren normalizazio esparruan batez ere. Plana bera eta Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortu izana itxaropenezko erreferentzia erakitzaile gisa eraiki dira.

·**Trakzioa.** Euskal gizarteak armak utzi eta behin betiko desagertu dadila eskatzen dio ETari. Aktore politikoek eta instituzionalek indarkeriaren amaiera ordenatua eta bizikidetzaren berria sustatu daitezela eskatzen dute. Posizionamendu sozial horrek funtzio traktorea eragiten du trantsizio horretan.

Ondorio gisa, eta analisia egokitzeko, bi prozesu hauen arteko bereizketa egitea komeni da: indarkeriaren amaiera eta bizikidetzaren normalizazioa. Indarkeriaren amaiera ordenatuari dagokionez, egoeraren diagnostikoak nolabaiteko blokeoa islatzen du hiru korapiloren inguruan: desarmea, presoak eta hausnarketa kritikoak. Bizikidetzaren normalizazioari dagokionez, gizartearen identifikazio handiko bilakaera islatzen da.

2.2. 2015aren amaierako eta 2016ko testuinguruaren ustezko agerlekuak

Legealdiaren amaieran oso agerleku-aukera zabala konfiguratu daiteke bake- eta bizikidetzaren prozesuaren kudeaketarako. Atal horretan, etorkizunerako azterketaren nolabaiteko hurbilketa jorratzen da (2. gomen-dioa). Azterketa horrek hiru atal ditu: lehenik eta behin, agerleku desberdinak zehazten dituzten osagai nagusiak identifikatzen dira; bigarrenik, ustezko agerlekuak ikustea ahalbidetzen duen taula bat eskaintzen da; eta azkenik, agerlekuak sinplifikatzen dira, aurreikus daitezkeen bi joera nagusietan oinarrituz.

2.2.1. Agerlekuen aniztasuna zehazten duten osagai nagusiak

2015. urtean zehar egon daitezkeen agerlekuen aniztasuna hiru osagai garrantzitsu hauek definitzen dute:

·**Lehentasunak.** Aurrera egiteko edo blokeorako faktoreak osatzen dituzten lehentasunezko hiru alderdiak: (1) desarmea, (2) espetxe-politika, (3) iraganari buruzko hausnarketa kritikoak.

·**Aktoreak.** Lehentasun horien inguruan jarduteko erantzukizuna duten hiru subjektuak: (1) Espainiako gobernu berria, (2) ETA eta haren ingurunea, (3) alderdiak eta erakundeak.

·**Hipotesiak.** Lehentasun bakoitzeko aktoreen jarduketatik eratorritako bi aukerak: aurrerapena edo **blokeoa**.

2.2.2. Ustezko agerlekuen konbinazioa

Lehentasunak Aktoreak	Desarmea	Espetxe-politika	Iraganari buruzko hausnarketa kritikoa
Espainiako gobernu berria	Akordioa Eusko Jaurlaritzarekin Adostasunik eza	Malgutu eta adostu egiten du Adostasunik eza	Parte hartzen du Ez du parte hartzen
ETA eta haren ingurunea	Aurrerapauso eraginkorrak ematen ditu Ez du aurrerapausorik ematen	Aurrerapauso eraginkorrak ematen ditu Ez du aurrerapausorik ematen	Aurrerapauso eraginkorrak ematen ditu Ez du aurrerapausorik ematen
Alderdiak eta erakundeak	Ondorioak partekatzen dituzte Ez dute elkar ulertzen	Elkarrizketa eta akordioak daude Ez dago adostasunik	Lankidetzan dihardute Ez dago lankidetzarik

2.2.3. Agerlekuen sinplifikazioa

Aurreko bi atal horien eraginez, aldagaien aniztasuna oso zabala da. Horrela planteatuta, horien azterketak balorazio espekulatiboegia eragingo luke. Edonola ere, taula horri esker behar bezala ondoriozta dezakegu, 2016an zehar, egoera politikoak ustezko bi agerleku hauei aurre egin behar-ko diela: aurrera egin daiteke, intentsitate-maila desberdinekin; edo indarkeriaren amaiera ordenatua lortzeko hiru begizta handien blokeoa mantenduko da.

·**Aurrerapenean oinarritutako agerlekua.** Agerleku horretan hainbat mugimendu eraikitzaile gertatu dira desarmearekin, espetxe-politikarekin eta iraganari buruzko hausnarketa kritikoarekin lotuta. Aurrerapen horiek honako hauen eraginez gerta daitezke: a) Espainiako Gobernu berria aurrerapausoak emateko eta Eusko Jaurlaritzarekin adosteko prest dago, b) ETAk eta haren inguruneak erabaki eraginkorrak eta aldebakarrekoak hartu ditu, eta c) alderdi eta erakunde nagusiek batzeko jarrera hartu dute.

·**Blokeoan oinarritutako agerlekua.** Agerleku honetan, 2016an zehar ez da mugimendu berririk gertatuko desarmeari, espetxe-politikari edo iraganaren hausnarketa kritikoari edo autokritikari dagokionez, arestian aipatutako aktore nagusien aldetik.

Metodologikoki hala egin behar balitzateke ere, ez da atzerapen-agerlekurik zehaztu. Bi dira horretarako arrazoiak: batetik, eta guztiz baztertu behar balitzateke ere, 2016an ez da atzerapausorik aurreikusten indarkeriaren amaierari dagokionez; eta bestetik, eta alderdi hori oinarritzat hartuta, gaur egungo blokeo-agerlekua mantentze hutsa atzerapen-agerlekutzat hartu behar da.

2.3. Eusko Jaurlaritzaren jarrera agerleku-aniztasun horren aurrean

Legealdi honetan, Bake eta Bizikidetzarako Plana blokeoaren agerlekuan garatu da orain arte. Espainiako Gobernuak ez du Eusko Jaurlaritzarekin adostu nahi izan, ETAk eta haren inguruneak ez dute aurrerapauso berri eta eraginkorrik eman, eta legebiltzarreko taldeek, alderdi politikoek eta erakundeek ez dute elkarrizketarako prozesurik eta balio erantsiko akordiorik garatu.

Hiru urte hauetan zehar, Eusko Jaurlaritza agerleku horretan kokatu da Bake eta Elkarbizitzarako Plana diseinatu eta aplikatzeko orduan, agerlekurik kaltegarrienean, alegia. Etsipenik gabe eta agerlekurik onena lortzeko baldintzak sortzeko erabakiarekin murgildu da bere konplexutasunean. Espiritu horretan oinarrituz prestatu eta kudeatu da, hain zuzen, Bake eta Bizikidetzarako Plana.

Desarmaea aktibatu, espetxe-politika aldatu edo legebiltzarreko txostenean parte hartzeko erantzukizuna ez zegoen exekutibo horren esku. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritza “konfort-gune” batean jar zitekeen, mugitu behar dutenen eta esparru horietako bakoitzean egiten ez dutenen erantzukizuna adieraztera mugatuz, eta hori guztia egin dezatela eskatuz.

Nolanahi ere, aurea hartu eta erantzukizuna bere gain hartzea erabaki du, beharrezkotzat jotzen dituen proposamenak mahai gainean jarriz. Horrela jardun du, hain zuzen, desarmeari, espetxe-politikari eta iraganaren hausnarketa kritikoari eta autokritikari dagokionez, baita bakearen eraikuntzarekin eta bizikidetzaren normalizazioarekin lotuta dauden esparru guztiei dagokienez ere.

Bere erantzukizun etikoa eta politikoa hori zelako eta erabaki horrek euskal gizartearen borondatea hobeto irudikatzen zuela uste zuelako jardun du horrela Eusko Jaurlaritzak. Eusko Jaurlaritzak posizionamendu horretatik egiten duen balorazioa positiboa da.

Jarduteko modu horri esker, indarkeriaren amaierako blokeoak ez du bizikidetzarako normalizazio-prozesua blokeatu, eta, beraz, hura ez da gizartearen desesperazio-prozesu bihurtu erreferentzia positiboan eta eraikitzaileen gabezia dela eta.

Legealdia amaitzeko falta den denbora-tarteari eta Bake eta Bizikidetzarako Planaren kudeaketari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak jarrera bera mantenduko du (3. gomendioa). Agerlekurik kaltegarrienean kokatuko da, agerlekurik onuragarriena lortze aldera beharrezkoak izan daitezkeen mekanismoak aktibatuz: indarkeriaren amaiera ordenatuaaren eta bizikidetzaren berriaren arteko trantsizioa posible den agerlekua.

Bigarren zatia

Ondorioak

Tarteko ebaluazioaren kanpo-txosteneko nahiz egoera-diagnostikoko edukietatik hainbat ondorio zentral atera daitezke Bake eta Bizikidetzarako Planaren proiektzioa eta aplikazioa Legealdiko azken fasean kartzeko eta bideratzeko, 2015eko irailaren eta 2016 amaiera artean, hain zuzen. Ondorio horiek hiru atal handitan islatzen dira: esparru orokorra, lehentasunak eta garapena.

3. Esparru orokorra

Gizarte-topaketa sustatzea da Bake eta Bizikidetzarako Planaren berriaz islatzen den misioa. Horrek zera esan nahi du, plan horren bitartez, Eusko Jaurlaritzak familia politiko guztiek partekatu ahal izango duten bizikidetzarako plaza publiko bat eraiki nahi duela. Legealdia amaitu bitartean horixe izango da planaren misioa. Hori oinarritzat hartuta, haren funtzio nagusia, helburu zentrala eta irizpide gidaria zehaztu dira azken etaparako.

3.1. Egiteko nagusia

Egoeraren diagnostikotik eta kanpo-ebaluaziotik behar bezala ondoriozta daiteke, hiru urte hauetan, Bake eta Bizikidetzarako Planaren kudeaketak erreferentzia eta eragin gisa jardun duela. Baldintza hori mantentzea izango da, hain zuzen, planak legealdi honetako azken fasean izango duen funtzio nagusia.

·**Erreferentzia.** Gizartearentzat erreferentzia etiko eta eraikitzaile bat irudikatzen jarraitzea, eta blokeo-egoerei aurre egin eta normalizazioan aurrera egiteko eragin erabilgarria eta positiboa izatea (1. gomendioa).

3.2. Helburu nagusia

Eusko Jaurlaritzak ziur dago euskal gizarteak trantsizio garbia eta atzerapenik gabekoa nahi duela. Zaharra hil dadila eta berria jaio dadila nahi du. Bake eta Bizikidetzarako Planaren kudeaketak helburu nagusi hori du, hain zuzen, azken etapan.

·**Trantsizioa.** Indarkeriaren amaiera ordenatua eta bizikidetzeta berria lortzeko helburuarekin laguntzea.

3.3. Irizpide gidaria

Zehaztutako funtzio eta helburu nagusiak direla-eta, *zer* eta *nola* galderei erantzuneko dien zehaztapen-esparru bat finkatu behar da:

·**Lehentasunak.** Amaierako zatian, kudeaketarako oinarritzeko lehentasunak eta konpromisoa finkatzea.

4. Zazpi lehentasun eta zeharkako konpromiso bat

Aurreko atalean adierazitako ondorioak direla-eta, indarkeriaren amaiera ordenatua eta bizikidetzeta berria eragiten duten lehentasunak finkatu eta proiektatu behar dira. Eusko Jaurlaritzaren iritziz, jarraian adierazten direnak dira trantsizio horretan aurrera egiteko zazpi lehentasun nagusiak. Horiekin batera, horiek zeharkatzen dituen konpromiso bat dugu.

4.1. Indarkeriaren amaiera ordenatua lortzeko lehentasunak

Iraganera lotzen jarraitzen gaituzten hiru korapiloetan eragiten duten lehentasunak dira, horiek desblokeatuz gero indarkeriaren amaiera ordenatua lortzeko prozesua amaituko bailitzake.

- Desarmaea.** Desarme egiaztagarria, baldintzarik gabea eta itzulezina bultzatzea ETaren aldetik, bere desagertzea ziurtatu dezan.
- Espetxe-politika.** Lege eta giza printzipioetan oinarrituz, normaltasun penala eta espetxe-normaltasuna lortzea, birgizarteratzera eta bizikidetzara bideratua (VII. gomendia).
- Autokritika.** Giza eskubideen urraketari buruzko hausnarketa autokritikoa proposatu eta sustatzea iraganaren kudeaketa politikorako eredu eraikitzaile gisa (4.1 gomendia).

4.2. Bizikidetzaren berriz abiarazteko lehentasunak

Bizikidetzaren berriz abiarazteko lehentasunak dira, hau da, etorkizunera proiektatzen gaituzten lehentasunak.

- Argitzea.** Jasandako indarkeriari eta terrorismoari buruzko egiaztagarri eta argitze-prozesuei, -ikerketei eta -azterlanei dagokienez gehiago sakontzea.
- Biktimen.** Biktimen politikak etorkizunerako politika –ez iraganeko politika gisa bakarrik– eta biktimen eta gizartearen arteko bizikidetzarako politika gisa osatzea (4.2 gomendia).
- Memoria.** Indarkeriari uko egiten dioten eta giza eskubideen konpromisoan eta bizikidetzaren helburuan oinarritzen diren oroimen-politikak garatzea.
- Bizikidetzaren kultura.** Bizikidetzaren kultura sustatzera bideraturiko ekimenak artikulatzea, hezkuntzaren, partaidetzaren eta konpromiso etikoaren bitartez.

4.3. Zeharkako konpromisoa

Zazpi lehentasun horiek garatu eta azken fasean Bake eta Bizikidetzarako Plana elkarrekin kudeatzeko, Eusko Jaurlaritzak zeharkako konpromisoa berretsi du.

- Adostasuna eta/edo ekimena.** Momentu eta jarduketan guztietan adostasuna bilatzea lehen aukera gisa eta, hura lortzen ez bada, aurrea hartu eta arriskuak hartzea, betiere desblokeoa sustatzeko helburuarekin (4. gomendia).

5. Lehentasunen garapena eta horien zeharkako konpromisoa

5.1. Desarmaea

Eusko Jaurlaritzak ETari ondorengoa eskatzen jarraituko du: desarme-prozesu bat eta behin betiko desagertu dadila, modu itzulezinean, baldintzarik gabe, erabat eta modu egiaztagarrian. Aldi berean, desarmeari eta amaiera ordenatuari buruzko proposamen bat aurkeztuko dio Espainiako Gobernu berriari, eta hark behar bezala eguneratu eta berraktibatuko du Eusko Jaurlaritzak 2014ko abenduaren 21ean aurkeztutako proposamena. Era berean, ekimen hori bideratuko zaie eragile politikoei (3. eta 4. gomendioak).

Hau horrela, Eusko Jaurlaritza prest egongo da nazioarteko ahalegin bat laguntzeko, eta baita elkarrekin horren buru izateko ere, ETak behin betiko amaitu nahi baldin badu. Eusko Jaurlaritzak ez du parte hartuko hori epeka komunikatzeko eta dosifikatzeko diseinatutako operazioetan.

5.2. Espetxe-politika

Eusko Jaurlaritzak dispersioaren amaiera eta politika penal eta espetxe-politikaren berrorientazioa defendatzen jarraituko du Espainiako Gobernuaren aurrean, lege eta giza printzipioetan oinarrituz eta birgizarteratzea eta bizikidetzeta xedetzat hartuz. Presoei banakako espetxe-onurak baliatzea eta birgizarteratu eta birsozializatzeko bide legalak igarotzea ukatzen dien beto kolektiboa altxatu dadila eskatzen jarraituko du, ezker abertzalearen barruan dagokionari.

Eusko Jaurlaritzak proposamen bat aurkeztuko dio Espainiako Gobernu berriari espetxe-politikaren esparruan, betiere Zuzen Bidean eta Hitzeman dokumentuak oinarritzat hartuz. Osagarri gisa, Hitzeman Programaren inguruko esperientzia pilotua garatzen jarraituko da. Haren ondorioen bitartez birgizarteratze-eredu xehatu bat aurkeztuko da. Ekimen horiek indar politikoekin, eragile sozialekin eta presoekin nahiz horiek ordezkatzeko dituzten erakundeekin partekatuko dira (3. eta V. gomendioak).

5.3. Autokritika

Eusko Jaurlaritzak autokritikaren pedagogia bat sustatuko du giza eskubideen esparruan, iraganaren kudeaketa politiko eta eraikitzaileko eredu gisa. Zentzu horretan, eta Zuzendu Proposamena oinarritzat hartuta, bi ekitaldi antolatzea aurreikusten du: lehenengoa 2015eko udazkenean, eta, bigarrena, 2016ko udaberrian (4.1 gomendioa). Zuzendu Programako ekitaldiak 2016ko Donostiako Kultur Hiriburuaren programarekin bat etorri garatuko dira.

5.4. Argigarriak

Iraganean gertatutakoaren egia eta argitze-prozesuetan laguntzeak hainbat azterlan zehatzez osaturiko puzzle bat osatzea esan nahi du, elkarrekin, horiek gertatutakoaren deskribapen orokor bat osatzen baitute. Eusko Jaurlaritzak iragana argitzeko txosten, ikerketa eta prozesu ofizialak garatzen eta babesten nahiz horietan laguntzen jarraituko du.

Izan ere, honako hauek aurreikusten dira legealdiaren amaierako fasean: ETAre indarkeriak mehatxatutako jendearengan, Ertzaintzarengan eta estortsio ekonomikoa jasan duten pertsonengan izan duen eraginari buruzko txostenak (I. gomendioa). Era berean, torturari buruzko ikerketaren emaitzak (III. gomendioa) eta indarkeriak emakumearengan izan duen eraginaren emaitzak (XIII. gomendioa) jasotzea espero du. Memoria Historikoari dagokionez, frankismoan (1936-1975) urratutako giza eskubideen Oinarri-Txostena prestatzeko batzorde bat jarriko du martxan.

5.5. Biktimak

Eusko Jaurlaritzak biktimei lagundu, ordaindu eta aitortzeko politikekin jarraituko du, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa Egiteko 4/2008 Legean xedatutakoari jarraiki (IV. gomendioa). Era berean, Batera Konpromisoa garatuko du; haren bidez etapa berri bat irekitzea proposatzen da biktimen politikei dagokienez, hala, horiek iraganaz gain etorkizuna ere kontuan izan dezaten eta biktimen eta gizartearen arteko bizikidetzarako batasuna sustatu dezaten (4.2 gomendioa).

Osagarri gisa, 17/2012 Dekretua kudeatzeaz amaitu eta giza eskubideen urraketak jasan dituzten aitortu gabeko biktimei aitorpena egiteko lege baten proposamena aurkeztuko da (4.3 gomendioa). Biktimen politika publikoei dagokienez, Adi-adian, Erretratuak, Gertu eta Eraikiz programak sustatzen jarraituko da (II. gomendioa).

5.6. Memoria

Memoria, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Institutua abian jartzea eta haren lehen jarduketa-proiektua garatzea izango da, hain zuzen, legealdi amaierako ardatz estrategikoetako bat. Esparru horren barnean, lankidetzan jarraitu nahi da Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroarekin, Gernikako Bakearen Museoarekin eta Aieteko Giza Eskubideen Etxearekin.

Gogora Institutuaren lehen jarduketa-programak honako ekimen hauen garapena gehituko du, besteak beste: memorial birtuala, Memoriaren Plaza proiektu ibiltaria, Udal Memoriak eta Memoriaren Eguna. Gainera, lehentasunen programa-oinarrian aurreikusitako memoria historikoaren arloko jarduketak garatuko dira.

5.7. Bizikidetzarako kultura eta hezkuntza

Giza eskubideen arloko bizikidetzaz eta hezkuntza-kultura berri baten sustapena herritarren partaidetza eta bizikidetzaz sustatzeko diru-laguntzen programak mantentzearen inguruan egituratzen da, baita hezkuntza-eragileekin, Gazteria Kontseiluarekin, EITBekin, euskal unibertsitateekin (VII. gomendioa), Peace programarekin eta Nazio Batuen Goi Komisarioarekin mantendu beharreko giza eskubideetarako lankidetzaz jarduketaren inguruan ere (4.6 gomendioa).

Legealdiko azken fasean, erakunde arteko lankidetzaz azpimarratuko da honako hiru ardatz hauen inguruan: 2016ko Donostiako Kultur Hiriburutzaren Bakearen faroarekin lankidetzaz estua mantentzeko konpromisoa, topaketa Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien artean bakea, bizikidetzaz eta memoriarako politika publikoaren koordinazioaren eta sustapenaren inguruan (XI. gomendioa), eta esparru europarrean koordinatutako jarduketa multzo baten garapena Peace Programaren barnean.

5.8. Zeharkako konpromisoa

Konpromiso horretarako proposamen zehatzak egin behar dira, esparru bakoitzean adostasuna bilatuz noranzko instituzional eta politiko guztietan. Aurreko zazpi lehentasunetan, aurrea hartzeko konpromiso hori eta hitz egin eta ados jartzeko proposamen hori islatu da.

Gehigarri gisa, eta hauteskunde orokorren ostean, Eusko Jaurlaritzak elkarbizitzarako akordio-oinarri baten proposamena prestatuko du. Dokumentu hori Bake eta Bizikidetzarako Planak jasotzen dituen mikroakordio-proposamenetan eta lurzoru etikoan oinarrituko da, eta, hala badagokio, epe ertainera lortu beharreko bizikidetzaz arloko lankidetzaz-eremu partekatu bat sortzeko erreminta gisa aurkeztuko da

Hirugarren zatia

Jarduketa-programa

Puntu honetan, hiru etapa programatu dira arestian adierazitako guztiaren kudeaketan. Ez dira Bake eta Bizikidetzarako Planean aurreikusitako jarduketa guztiak jasotzen, lehentasunezko izaera dutenak baizik.

1. 2015eko irailetik abendura bitarte

·Irailean "Batera" konpromisoa aurkeztuko da biktimen politika esparruan etapa berri bat sustatzeko; hura etorkizuneko ikuspegian eta bizikidetzarako biktima eta gizartearen arteko batasunean oinarrituko da.

·Urriaren 26tik 31ra Zinexit eta Zuzendu Programaren lehen ekitaldia ospatuko dira.

·Azaroaren 7an memoriaren politika publikoei buruzko hausnarketa-jardunaldia gauzatuko da Memoriaren Institutua inauguratu aurretik.

·Azaroaren 10ean Gogora irekiko da, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua, eta Memoriaren Eguna ospatuko da.

·Azaroan topaketa bat egingo da Foru Aldundiekin, bakea, bizikidetzeta eta memoriaren politika publikoen koordinazioari eta sustapenari dagokionez.

·Indarkeriak emakumeengan duen inpaktuari buruzko ikerketa jaso eta aurkeztea.

·Azken hiruhilekoan 17/2012 Dekretuaren kudeaketa amaituko da eta azken hiruhilekoan giza eskubideen urratzeak jasan dituzten aitortu gabeko biktimei buruzko Lege Proposamena aurkeztuko da.

·Azken hiruhilekoan terrorismoak ETAk mehatxatutako pertsonengan eta Ertzaintzarengan izan duen eraginari buruzko txostenak jaso eta aurkeztuko dira.

Tarteko ebaluazio-txostenetik eratorritako beste jarduketa batzuk

Etapa honetan, tarteko ebaluazioaren kanpo-txosteneko gomendioetatik eratorritako jarduketa hauek garatuko dira:

1. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari eta Kontsulta Kontseiluari aktore sozialen eta kulturalen inplikazio handiagoa lortzeko gomendioa aurkeztuko zaie (4.6 gomendioa).
2. Kontsulta Kontseiluari organo honen sustapenari buruzko gomendioa helaraziko zaio (IX. gomendioa).
2. Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak barneko lan-prozesuarekin jarraituko du biktimei buruzko datu-basea eguneratu, hobetu eta osatzeko helburuarekin (II. gomendioa).
3. Enpresa-erakundeekin enpresa-munduak bake-prozesuan duen eginkizunari buruzko hausnarketa-iradokizuna partekatzea (X. gomendioa).

2. 2016ko urtarriletik maiatzera

·Desarme-proposamena eguneratuko da Espainiako Gobernu berriarekin eta nazioarteko eragileekin.

·Hitzeman eta Zuzen Bidean proposamenak eguneratuko dira Espainiako Gobernu berriaren, eragile politikoen, presoen eta erakundeen aurrean.

·Bizikidetzarako akordio-oinarri baten proposamena aurkeztea.

·Batera konpromisoaren garapena eta Adi-adian, Erretratuak, Gertu eta Eraikiz programekin aurrera jarraitzea.

·Bakerako hezkuntzari buruzko proiektua jasoko da unibertsitate esparruan; hura hiru unibertsitateek prestatu dute 2015. urtean eta proiektua 2016an zehaztuko da.

·1936-1975 aldiko giza eskubideen urraketari buruzko txosten-oinarria lantzeaz arduratzen den Batzordea jarriko da martxan.

·Peace Programarekin partekatutako programaren lehen fasearen garapena.

·Memoriaren Plaza ekimenaren programa ibiltariaren garapena.

·Giza eskubideen autokritikarako pedagogia bat sustatzeko Zuzendu Programaren bigarren ekitaldiaren garapena.

Tarteko ebaluazio-txostenetik eratorritako beste jarduketa batzuk

Eta honetan, tarteko ebaluazioaren kanpo-txosteneko gomendioetatik eratorritako jarduketa hauek garatuko dira:

1. 2016. urte hasieran Gizalegez Akordioan parte hartzen duten hezkuntza-eragileei dei egingo zaie eta tarteko ebaluazio-txosteneko hezkuntza-educia duten gomendioen inguruko kontsulta egingo zaie (4.7, VI eta VIII. gomendioak). Gomendio horiek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin batera baloratuko dira.
2. Indarkeriak emakumearengan duen eraginari buruzko ikerketaren emaitzak aztertu ostean, generoa bakegintza eta bizikidetzarako politiketan gehiago txertatzeko modua baloratuko da Emakunderekin batera (4.8 eta XII gomendioak).

3. 2016ko ekainetik azarora

·Legealdiaren amaierarako Bake eta Bizikidetzarako Planaren kudeaketa diseinatu, planifikatu eta aurkeztuko da.

·Zuzendu Programako bigarren ekitaldia egingo da.

·Torturari buruzko ikerketa jaso eta aurkeztuko da.

·Hitzeman Programarekin garatutako esperientzia pilotuari dagokion fasearen balantzea eta birgizarteratze-ereduaren esparruko ondorioak aurkeztuko dira.

·Memoria Historikoaren arloan, lehentasunen oinarri-programaren lehen balantzea eta proiektzioa aurkeztuko dira.

·2016ko Memoriaren Eguna ospatzea.

·Bake eta Bizikidetzaren Planaren azken ebaluazioa.

Tarteko ebaluazio-txostenetik eratorritako beste jarduketak batzuk

1. Giza eskubideak sendotzeko buruzko lan bat egingo da, hurrengo legealdian bakea eraikitzeko ardatz gisa (4.4 gomendioa).
2. Hurrengo urteetarako proiektzio-azterketa bat egingo da bake eta bizikidetzaren esparruko lehentasun nagusiei dagokienez (2. gomendioa) eta hurrengo planerako kanpo-komunikaziorako estrategia bat ezartzeko aukerari eta komeni ote den jakiteari dagokionez (4.8 eta XII. gomendioak).



5. dokumentua

**Eusko Jaurlaritzaren
2013-2016 Bakegintza eta
Bizikidetzaren Planaren balorazioa,
X. legegaldiaren amaieran**

Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016 Bakegintza eta Bizikidetzaren Planaren balorazioa, X. legealdiaren amaieran

Ebaluatzaileen taldea
Roberto Toscano,
Covadonga Morales Bertrand,
Jesús A. Núñez Villaverde
eta Francisco Rey Marcos



2016ko abuztuaren 31

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia

Aurkibidea

- 1.** Sarrera.
- 2.** Gogoeta orokorrak.
- 3.** Gaien araberako gogoetak.
 - 3.1. Armagabetzea.
 - 3.2. Espetxe-politika.
 - 3.3. Argitzea eta memoria.
 - 3.4. Biktimak.
 - 3.5. Bizikidetzarako hezkuntza eta kultura.
- 4.** Zeharkako gaiak.
 - 4.1. Genero-ikuspegia.
 - 4.2. Autokritika.
 - 4.3. Ikerketak, politiken oinarriak.
 - 4.4. Nazioarteko alderdiak.
 - 4.5. Parte hartzeko mekanismoak.
- 5.** Ondorioak.
- 6.** Gomendioak.
- 7.** Eranskinak.

1. Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzaren Planaren (aurrerantzean, «plana») kanpoko ebaluazio hau X. legealdiaren amaieran egin dugu. Hortaz, plana onartu zenetik, hots, 2013ko azaroaren 26tik hona egin diren ekintzen gaineko kontuen berri ematea da ebaluazioaren helburu nagusietakoa. Dena den, planaren lehenengo etapa (2013-2016) bukatu bada ere, planak etorkizunean ere garatzen jarraituko du. Horren harira, gomendioak eta proposamenak sartu dira, ahal den heinean, 2017-2020 Ekintza Plana egiten laguntzeko eta EAEn bizikidetzari eta bakeari buruz egingo diren hurrengo jarduketak bultzatzeko.

Hauteskundearen eguna hilabete batez aurreratu denez, uste baino lehenago egin behar izan dugu balorazioa; beraz, bertan behera utzi behar izan ditugu egindakoaren gaineko azterketa zehatzagoa egiteko modua emango zuketzen zeregin batzuk. Era berean, epe handiagoa eduki izan bagenu, planaren etapa bakoitzean parte hartu duten eragile gehiagorekin hitz egingo genukeen. Hori dela eta, balorazioaren helmena, ondorioak eta gomendioak amaitu behar den prozesu baten parte gisa ulertu behar dira Planaren aurreikusita dagoen bezala, eta planean ezarritako epe osoa amaitutakoan (2013-2016) azken ebaluazioa, osoa, egin beharko da. Azken ebaluazio horretan, beraz, planaren eragina zehaztasun gehiagorekin aztertu ahal izango da dimentsio guztietan.

Balorazio hau 2015eko irailaren 9ko bitarteko ebaluazioaren osagarria da (ebaluatzaileen taldeak lehendakariari aurkeztu zion bitarteko ebaluazioa). Bestela esanda, balorazio hau eta bitarteko balorazioa elkarren osagarritzat hartu behar dira; legealdiaren amaieran planaren egoera azaltzeko egin diren ebaluazio partzialak dira. Lehendik ere azaldu diren ideiak ez errepikatzen eta bitarteko ebaluaziotik hona aldatu ez diren faktoreak berriro ere ez aipatzen saiatu gara. Metodologiaren aldetik, erabili duguna ez da hain formalista izan, bestela, 18+1 ekimenak banan-banan aztertu beharko bailirateke eta ebaluazio-prozesuen ohiko irizpideei jarraitu. Azken balorazioa egiteko lanetan funtsezkoak izan dira planak sortu dituen informazio-iturburuaren azterketak eta kontsultak. Gero, elkarrizketa batzuk eginez kontrastatu ditugu. Bitarteko ebaluazioan egin ziren gomendio asko jaso eta abian jarri dira aztertutako aldiaren, eta hori, duda barik, pizgarria izan da ebaluatzaileen taldearentzat. Gainera, agerian utzi da planaren erantzule den idazkaritzak zorrotasunari eta koherentziari eusteko egin duen lan handia.

Laburbilduz, lehenik eta behin plan osoaren balorazio orokorra eta zeharkako ebaluazioa egin ditugu. Aldi berean, bereziki erreparatu diegu gai-blokeei, bertan hoberen ikusten baita eraldaketa bultzatzeko indarra. Eraldaketa horrek gizartearen bakea eta bizikidetzaren lortzea ekarriko luke, eta horixe da helburu nagusia, hain zuzen ere. Eranskinetan zehaztasun handiagoz jaso ditugu planaren ekimenei buruzko informazioa: bete-tze-maila, aurrekontuaren banakapena, onuradunen zerrenda eta horiek bezalako datu kuantitatiboak eta finantza-datuak.

Aurretiazko ohar horiek egindakoan, honako hauek dira ebaluazioaren ardatz nagusiak:

2. Gogoeta orokorrak

- Dakigunez, Espainiako Estatuan behin eta berriro atzeratu da gobernu bat osatzeko prozesua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrean, berriz, geldiarazi egin da Bake eta Bizikidetzaren Ponentzia. Bi faktore horiek oztopo izan dira bitarteko ebaluazioan zehaztu ziren blokeoak gainditzeko (bereziki, armagabetzea, presioak eta iraganaren gaineko hausnarketa kritikoa). Horrez gain, zenbait hamarkadatan iraun duen indarkeria-etaparen amaiera ordenatua, berehalakoa eta behin betikoa gauzatzeko, ETaren eta haren inguruko eragileen uzurtasunarekin egin da topo. Beraz, beste garai bat hasteko bidean atzerapausotzat har daitezke blokeo horiek. Hala eta guztiz ere, indar politikoen artean aurrerapenak egin dira: esaterako, biktimen arloan, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua eta abar.
- Dena den, oraindik ere nabarmentzekoa da Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkari Nagusiaren aktibismo handia. Lan handi horren ondorioz, planean jaso diren ekimenetako 15 bete dira gutxienez, sei hilez behin egin diren jarraipen-txostenetan erakusten den bezala. Beraz, esan liteke, planaren egungo egituraketa aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzak ahalik eta ahalegin handiena egin duela bakearen eta bizikidetzaren alde. Gainera, ahaleginak egin dira alderdi teorikoetan ez ezik, baita garrantzi handiko ekimen praktikoetan ere. Bestalde, Gobernu zentralak, ETak eta EAEko indar politikoen multzoak ez dute nahi adinako urratsik eman egiteko dagoen zeregin horri heltzeko.
- Nolanahi ere, horrekin batera esan behar da eragile publikoek eta pribatuek egin dituzten ahaleginek emaitzak izan dituztela. Izan ere, aztertu dugun azken etapa horretan funtsezko aurrerapenak egon dira zenbait alderditan, hala nola biktimei aitortza eta erreparazioa emateari begira, indarkeriaren amaierari begira edo autokritika eta memoriari begira. Dena den, aldi berean onartu behar da ia ez dela aldataririk egon ETaren armagabetzean, zigor- eta espetxe-politikan edo «kontakizunaren bataila» deiturikoaren alderdi batzuetan.
- Horren erakusgarri ditugu, adibide modura, Legealdiaren azken fasean, 2015eko urriaren 13an, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak aurkeztutako *Bakegintza eta Bizikidetzaren Planaren Garapenari buruzko Txosteneko* zazpi lehentasunak (balorazioaren hurrengo atalean zehaztasun handiagoz datoz azalduta):
 - **Armagabetze** arloan, azkenean ez zaio aurkeztu Gobernu zentralari Eusko Jaurlaritzaren proposamena. 2016ko urtarrilean aurkezteko asmoa zegoen, baina proposamen hori hurrengo legealdian egiteko utziko da.
 - **Espetxe-politikan** Hitzeman dekretua egiteko prozesuan aurrerapausoak eman dira. Interes bereziz landu dira arlo judiziala (preso bakoitzaren gizarteratzea sustatzeko) eta laguntza-arloa (berririo gizarteratzen laguntzeko). Hori guztia justizia leheneratzailearen esparruan egin da.
 - **Autokritikaren** arloan, Zuzendu Jardunaldiaren lehen edizioa antolatu da (bigarrena urtea amaitu aurretik egitea aurreikusten da), eta autokritikaren dimentsioa planaren ezaugarri bereizgarria izaten hasi da.
 - Gertatutakoa **argitzeko** arloan, pertsona mehatxatuen eta ertzainen txostenak aurkezteaz gain beste txosten bat egiten ari dira frankismoaren biktimei buruz. Horrekin batera, Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuaren Zentroa ETak eragindako estortzioari buruzko beste ikerketa bat egiten ari da, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren babesa duena, besteak beste.
 - **Biktimei** aitortza eta arreta emateari dagokionez, aurreikusitako ekintzak egin eta arautu dira. Legealdiaren amaieran Legebiltzarrean onartu da Motibazio Politikoko Biktimei Errekonozimendua eta Erreparazioa emateko Legea (biktima horiek ez baitzeuden aintzat hartuta aurreko legeetan).
 - **Memoriaren** arloan nabarmena izan da Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua martxan jartzea. Dagoeneko, 2015-2016 aldirako Jarduketa Plana onartu eta 2017-2020 aldirako jarduketaren Plan Estrategikoa prestatzen ari da. Hala eta guztiz ere, oraindik ez da aurrerapenik egin Espainiako Gobernuaren menpe dagoen Terrorismoaren Biktimen Memorial Zentroari (hemendik aurrera Memoriala) buruzko proiektuan.
 - Azkenik, **bizikidetzarako hezkuntzaren eta kulturaren** arloan, aipatzekoak dira Adi-Adian programaren hedadura, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren esparruko jarduerak eta beste ekimen batzuei eman zaien jarraipena eta finkotasuna.

- EAEko herritarrek, beren aldetik, aurrera egin dute, eta haien bilakaerak agenda politikoa gainditu du. Agenda politikoan oraindik ere iraganeko blokeoak dira gai nagusiak; herritarrek, ordea, orainari eta etorkizunari begiratzen diete, eta, hein handi batean, blokeo horiek gainditu dituzte. Herritarrek hizpide hartzen dituzte langabezia, migrazio-fluxuak, globalizazio desorekatua, nazioarteko terrorismoa, giza eskubideak... Txosten soziologikoen datu guztiak eta, bereziki, Deustu Gizarte Barometroak 2016ko ekainean egin zuen txostenaren datuak aintzat hartuta, gero eta pertsona gehiagok uste dute «Euskadin bake-egoera bizitzen ari garela», eta beste arazo batzuek –haitako batzuk bizikidetzarekin lotuta– garrantzi handiagoa dutela¹. 2017-2020 Ekintza Planari begira, lehentasunak eta ikuspegia berriro antolatzea eskatzen du gorabehera horrek; hau da, gizartearen benetan elkartuko bada, prozesuko eragile guztiak batu behar dira. Deustu Barometroaren datuen arabera, inkestaren % 57k uste du bakea eta bizikidetzaren izan dela azken lau urteotan gehien hobetu den alderdia; % 17k uste du hobekuntza handiena ekonomian jaso dela; eta % 8k aipatu du gizarte-eraberritasunaren arloa. EAEko herritarren % 79k uste dute bakean eta normaltasunez bizi direla.
- Bestela esanda, bakeari buruz egiteke dauden urratsak aldi batera utzi gabe, badirudi agenda politikoa «zaharkituta» dagoela, herritarren ikuspegitik. Horren arabera, askotariko gizartearen izanik, bizikidetzari ematen zaio garrantzi handiagoa; hortaz, lehentasuna eduki beharko lukete bizikidetzarekin lotutako gaiak. Baliteke, Bakegintza eta Bizikidetzaren Planaren ordez, Bizikidetzaren eta Bakegintzaren Planaren ordua izatea jada.
- Beraz, gizarte-elkartzea sustatuko bada –hori baita planaren misio nagusia–, iraganari itxiera egokia ematea eta bake onuragarria ahalbidetuko duten gaiei heltzea ez dira faktore bakarrak, ezta faktore nagusiak ere. Hori baino beharrezkoagoa da bizikidetzaren normalizatzeko esparrua sortzea eta bultzatzea; horretarako, hizkuntza berritu behar da, eta EAEko herritarren eskaeren arabera lehentasunak ezarri behar dira. Izan ere, EAEko herritarrek testuinguru globalean daude, eta honako lehentasun hauek nabarmentzen dira testuinguru horretan: giza eskubideak, migrazio-fluxuak, kultura-aniztasuna, iheslarien egoera tamalgarria, globalizazio desorekatuaren ondorioak edo nazioarteko terrorismoa.

3. Gaien araberrako gogoetak

3.1. Armagabetzea

- Bost urte igaro dira ETAk iragarri zuenetik ez zuela berriro indarkeria erabiliko. Alabaina, egiteke dago oraindik armagabetze egiaztagarri, baldintzarik gabeko, oso eta atzerazina; hor daude, era berean, espetxe-politika eta iraganari buruzko hausnarketa kritikoa. Eta horiek dira, hain zuten ere, bakegintza- eta bizikidetzaren prozesuko funtsezko gaietako batzuk.
- EAEko gizartearen ustez, gaur egun atzerazina da bakea, eta bizikidetzaren ere ezarri eta finkatuz joan da maila guzietan. Akats larria izango litzateke, armagabetzea hain garrantzitsua ez dela pentsatuko bagenu edo funtsik gabeko keinu sinbolikoa baino ez dela iriziko bagenu.
- Aitzitik, guztiz baliodunak izaten jarraitzen dute Eusko Jaurlaritzaren 2014ko abenduaren 21eko txostenean jasotako gogoetek «ez armagabetzeak eragiten dituen kostuei» eta «armagabetzeak dakartzan onurei» buruz. Txosten horretan adierazi bezala, ez armagabetzearen kostua ez da hutsala. Armagabetzearen ezean, EAEko gizarteak ezin du atzean utzi indarkeria, dagoeneko egin duen moduan; areago, indarkeria gogoan izatera bultzatzen du horrek, eta, hartara, immobilismoa sustatzen du.
- Armagabetzea zorionez ez da ezinbesteko baldintza izan indarkeria bertan behera uzteko, baina garai berria sortzeko mugarriztat hartu behar da. Dena den, onartu behar da eremu horretan blokeoa dagoela eta arrazoak ez direla teknikoak edo operatiboak, baizik eta politikoak. Egundako Estatuaren Gobernuak ezta ETA ere ez dira prest agertu gaiari buruz ikuspegi desberdinen artean bat-egite puntu bat zehazte aldera apustu egiteko. Horrek azaltzen du bost urteotan aurrerapausorik egin ez izana.
- Eusko Jaurlaritzak, Bakegintza eta Bizikidetzaren Plana onartu zuenetik, horrela ulertu du. Horregatik, aldiro saiatzen ari da ikuspegi edo neurri lagungarriak bultzatzen. Ildo horretatik, nabarmentzekoak dira beste kasu batzuetan ikasitakoa (Irlandan, adibidez) baliatzeko ahaleginak eta behin betiko irtenbidea aurkitzeko ezinbestekoak diren eragile guztiak mobilizatzeko lana.

¹ Deusto Gizarte Barometroa 2016ko uda. <http://barometrosocial.deusto.es/wp-content/uploads/2013/12/Deustobar%C3%B3metro-Social-Verano-2016.pdf>

-
- Komeni da Espainiako Estatuaren lankidetzaz zuzena jasotzea aztertu behar diren aukera guztietan, zehazki, prozesua eraginkorra izan dadin, eta prozesuaren eskakizun eta berme guztiak ziurtatuta egongo daitezkeen. Hurrengo ministerioen kabinetearen osaera edozein izanda ere, gaur egungo testuinguru politikoak ez du bermatzen gai horretan epe laburreko aldaketa politikoa gertatuko denik. Hori dela eta, blokeoak *sine die* jarraituko duela ematen du.
 - Baina, hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzak lan-ildoak aztertzen jarraitzen du. Horren harira, zehazteke dago armagabetze-proposamena aurkezteko eguna. Hasieran, 2014ko abenduaren 21eko txostenean azaldutakoari jarraikiz, 2016ko urtarrilean egitekoa zen baina atzeratu egin zen jarduneko gobernu dagoelako. Proposamena egingo dela kontuan hartzen badugu, beharrezkoa da bermeak eta sinesgarritasuna zaintzea; izan ere, horiek gabe, ETaren armagabetzea alde bakarrekoa izango balitz, zalantzak eta kritikak jasoko litzuke, eta, azkenean, arazoak sortuko litzukete politikan. Irlandan bezala, hemen ere armagabetzeko erabakia eraginkorra izango bada, era konfidentzian egin beharko da; hau da, jendaurreko entrega-ekitaldirik gabe, suntsitze-daturik erregistratu gabe, baina nazioarteko batzorde neutroaren laguntzaz, armagabetzeko jarduerak geroago baliozkotu dezaten.
 - Gardentasunik eza dela eta, kritikak egin dakizkio horrelako prozesu bati. Prozesu horretan eman behar diren bermeak baino garrantzitsuagoa da konfidentziazitatea, eta kasu guztietan ez da zehazten armen azken helmuga. Beraz, garrantzitsua da gardentasunarekin eta bermekin lotutako alderdiak sendotzea, Eusko Jaurlaritzaren 2014ko abenduko proposamenaren funtsezko edukiak aldatu ez arren. Horrez gain, proposamenari nazioarteko ordezkariak ere gehitu behar zaio (gizartearen eta erakundearen ordezkariarekin batera) eta Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen egitekoa zehaztu behar da. Izan ere, batzorde hori ezinbestekoa da armagabetze-mekanismoaren neutraltasuna bermatzeko.

3.2. Espetxe-politika

- Gernikako Estatuaren 10.14 eta 12.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera, espetxe-erakundearen eskumena Eusko Jaurlaritzari eskualdatu behar zaio. Hala eta guztiz ere, Estatutua onartu zenetik 37 urte igaro arren, eskumen horren eskualdaketa oraindik ere ez da eraginkorra. Aurreko urteetan gertatutakoa kontuan hartzen badugu, agerikoa iruditzen zaigu espetxe-politika terrorismoaren aurkako borrokaren osagaitzat hartu dela, eta ez dela aldaketa esanguratsurik egin, terrorismoaren mehatxa desagertu arren.
- Estatuko gobernuak eskualdaketa hori egiteko borondaterik eza eta, berriki, espetxe-politika bizikidetzaren ikuspegitik aztertze borondaterik eza beste behin adierazi badute ere, Eusko Jaurlaritzaren jokabidea izan da legeen esparruko aukera guztiak baliatzea, presoek gizarteratzea eta bergizarteratzea sustatzeko neurriak bultzatzeko.
- Planteamendu horren ondorioz, 2014ko urriaren 1ean ekin zioten prozesuari, eta Hitzeman Programa ekarri duen esperientzia pilotua 2015eko martxotik abian dago. Era berean, Zuzen Bidean proposamena 2014ko azaroan aurkeztu zuten. Horren bidez, zigor-politikan eta espetxe-politikan ezabatuta zegoen normaltasuna berreskuratu nahi zuten, ETaren terrorismoaren aurkako borrokan hartu ziren salbuespenekiko neurriak indargabetuta.
- Batetik, programa horrek izan duen ibilbidea ikusita, eta, bestetik ETak eta Administrazio zentralak –nork bere arazoengatik– gai horren gainean duten paralisiaz ohartuta, Eusko Jaurlaritzak dekretu bat lantzea bultzatu du, dekretu horren bitartez bizikidetzaren politika publikoak arautzeko, gizarteratzearen eta bergizarteratzearen arloetan.
- Justizia leheneratzailea gai nagusia da lege-arau horretan (legealdi honen amaieran egiteko prozesuan dago). Ikuspegi horretan batzen dira zuzenbide-estatu guztien lege-erreferenteak eta printzipio humanitarioak. Jaurlaritzak, egokiro, presoek sakabanatzea amaitu nahi du, eta, gainera, bide erabilgarriak proposatzen ditu espetxe-politikak presoek gizarteratzea lortzeko helburuz diseinatzeko. Banakako oinarrian errotuta, lege-prozesuak sustatzen ditu, eta presoek bergizarteratzea bultzatzen du, laguntza -neurriak ezarrita.
- Edonola ere, formulazio pragmatikoak eta lehendik dauden programak mantentzeko proposamenak alde batera utzita, jasota utzi behar dugu bitarteko ebaluazioa egin zenetik ez dela aurrerapen esanguratsurik egin eremu horretan. Pentsatzekoa da, beraz, Estatuan zein EAEn hauteskunde-prozesuen ondorioz desblokeo politiko bat gertatu ezean ez dela aldaketarik egongo.

3.3. Argitzea eta memoria

- Bitarteko ebaluazioan adierazi zen bezala, «kontakizunaren gaineko guduak» Bakegintza eta Bizikidetzaren Planaren prozesu osoa kutsatu du. Horrek oztopo politikoak eragin ditu, azkenaldian ahultzen ari direla ematen badu ere. Dinamika berri horren arrazoiak honako hauek izan daitezke: batetik, herritarren iritzien aldaketa (inkestetan herritarrek «orrialdea pasatzea» eskatzen dute behin eta berriz); bestetik, Bakegintza eta Bizikidetzaren Planaren bultzatzaileak erabat seguru daude helburu horren oinarrian egon behar dutela ukaezinak diren printzipio etiko batzuek. Printzipio horietan alderdien gogoeta guztiak baino garrantzitsuagoa da giza eskubideen defentsa.
- Bitarteko ebaluazioa aurkeztu zenetik, eremu horretan esanguratsua izan da Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua martxan jarri izana (elementu bakarra ez bada ere, 1. eranskinean jasota dagoen bezala). Zuzendarien Kontseiluak egin zuen lehenengo bileran (2015eko urriaren 19an) Institutuaren 2016ko jardun-plana onartu zuten (18 proiektu zituen), eta 2017-2020 Plan Estrategikoa onartzeko prozesuari ekin zioten.
- Harrezkero denbora gutxi igaro den arren, Gogora Institutua ikusgai egin da EAEko testuinguruan; argi azaldu ditu zeintzuk diren beraren egiteko bereziak, eta dagoeneko beste ekimen batzuk ere jarri ditu abian. Ekimen horietako bat EAEko museoak antolatzeako proiektu bat da (Gernikako Bakearen Museoa, Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea eta aipatu dugun Memoriarako Zentroa). Beste alde batetik, oinarrizko adostasun politikoa lortu du, iraganari eta memoriari buruzko eremu bakoitzean jarduera eta azterketa zehatzak egin ahal izateko.
- Gogora Institutuak erreferentzia nagusizat hartu du indarkeria eta giza eskubideen urraketak ezin direla zuritu, eta oinarritzat hartu ditu eskusiorik eta berdintzerik ez egiteko printzipioak. Handik begiratu nahi dio azken mendeko memoriari.
- Ahalegin partekatu horretan erakunde pribatuak, erakunde publikoak eta euskal unibertsitateak (Ahotsak proiektua) parte hartu dute. Horren emaitzak izan dira, besteak beste honako hauek: hobiak ikertzea eta non zeuden zehazteko lanak (2015-2020); pertsona mehatxatuei egindako bidegabekeriak aztertzea (1990-2011); tortura ikertzea (1960-2013); ertzainek jasotako bidegabekeria aztertzea (1990-2011); terrorismoaren biktimei aitortza eta erreparazioa ematea (1978-1999); frankismoaren biktimak eta poliziaren gehiegikerien biktimak ikertzea (2016ko uztailaren 28an Eusko Legebiltzarrean onartutako lege batekin).
- Memoriarekin lotutako lanak herritarrei jakinarazteko lanaren ildotik, nabarmenak dira euskal telebistan eman diren bost dokumental, *Oinatz galduak* titulu generikoan bilduta. Walter Benjamin-ek zion bezala, «iraganaren historia antolatzeako, ez da ezinbestekoa benetan zer gertatu zen zehatz-mehatz jakitea, baizik eta istant arriskutsuaren oroitzapenak igortzen digun distira harrapatzen jakitea». Horrekin batera, biktimak sortu zituztenek EAEko pertsonen eta erakundeen indarkeria-urteetan egin zieten estortsioa ere ikertzen ari dira. Idazkaritzari indarkeriari eta emakumei buruzko txosten berezi bat ere aurkeztu diote, eta balorazio honetan aurrerago aipatuko dugu berriro.
- Institutuaren lehenengo etapa horretan lortu dituzten emaitzak –bereziki, Memoria Plazarekin lotutakoak eta Elgoibarren kolunbarioa sortu izana– kontuan hartzen baditugu, ondorioztatzea da «plaza publikoa» bereganatu, eta konfiantza sortu dutela eragile politikoen eta sozialen artean. Horren frogatzat har daitezke azaroaren 10ean, Memoriaren Egunean, egin ziren ekitaldiak, aurreko urtearekin erkatuta laukoiztu egin baitzen parte hartu zuten udalen kopurua. Gure ikuspegitik, Idazkaritzak egin duen lana gainerako eragile politikoek aintzat hartu izan ez balute, edo aurreko jarduketek konfiantza sortu izan ez balute, nekez lortuko ziratekeen ageriko aurrerapen horiek.
- Kapitulu honetan behin eta berriro aipatu dugun paralisia ahaztu gabe, Gogorak etorkizunari begiratzen dio, eta sinetsita dago euskal testuinguruan erreferentzia-erakunde modura bermatzea lor dezakeela. Aurreko urteetan gai horiekin lotuta garatu diren gainerako ekimenak aintzat hartuz eta elkarrekin koordinatua eginez lortu nahi du helburu hori. Institutuaren helburu praktikoa ahozko lekukotasunetan espezializatzea da, eta Euskal Herriko kasuan erreferentzia-liburutegia izatea.

3.4. Biktimak

- Biktimei laguntza, aitortza eta arreta emateko ekintzak hiru ardatzen arabera antolatu dira: hasitakoari segida ematea, normalizazioa bultzatzea eta auzian sakontzea. Laguntza- eta arreta-ekintzak garatzen jarraitu da; biktimen elkarrekin harremanak normalizatu dira, eta gizarteak aintzatetsi ditzen lortu da. Horrez gain, aurrera egin da gaur egun legeetan aintzat hartzen ez diren biktimei begirunea adierazteko prozesuan, gaia sakonago landuta. Hiru kasu horietan emaitza onak lortu dira.

-
- *Biktimen arloko politiken eta ekimenen kudeaketa-txostena* 2014ko irailaren 24an aurkeztu zen, eta bertan bildu ziren hamabost jardun-lerro. Ekimenak gauzatzeko lehenengo fasea jada aztertu da bitarteko ebaluazioan, eta normaltasun osoz jarri dira abian gainerako ekimenak. Ez da intzidentzia nabarmenik egon, eta aipatzekoa da ondoren Batera Konpromisoa onartu zela, biktimen politiketan etapa berri bati ekiteko (2015eko irailaren 22a). Konpromiso horrek indartzen ditu planaren lehenengo etapan bereziki zailak izan ziren elementu batzuk: biktimen eta gizartearen arteko batasuna sustatzea eta biktimen eginkizuna eta lotura etorkizunean ere bultzatzea. Ebaluatzaileen taldearen aburuz, horrek paradigma-aldaketa eragin du, eta sakonago landu beharko da planaren hurrengo etapetan edo datorren Eusko Jaurlaritzak bizikidetzaren sustatzeko egingo dituen jarduketetan.
 - Hainbat hilabetez elkarrizketak izan ondoren, askotariko biktimen taldeak *Eraikiz* dokumentua kaleratu zuen (2015eko irailaren 11n), eta agerikoa da dokumentu hori suspergarri gertatu dela biktimen eginkizun berri horretan eta lagungarria izan dela biktimen oroitzenak eta haien lekukotasunak, bai eta etorkizuneko hausnarketa kolektiboa bultzatzeko. Ekimen hori hasieran konplexua izan bazen ere, adierazgarria izan da hausnarketa kritikoak eta autokritikak etorkizunerako elementu baliozgarriak eman ahal dituztela erakusteko.
 - Denbora igaro ahala, gero eta agerikoagoa da aurrerapenak egin direla bai parte-hartzean bai biktimen elkarteeke harremanean. Donostiako Pasealeku Berriko ekitaldian, adibidez, erakundeek aitortza egin zieten biktimei, Donostia 2016 Kultur Hiriburutzaren esparruan. Ekitaldia Terrorismoaren Biktimen Europako Egunean egin zen; hots, 2016ko martxoaren 11n. Ondorengo ekitaldietan ere aitortza-ildo horri jarraitu zaio, eta gero eta adostasun handiagoa lortzen ari da. Ebaluatzaileen taldeak uste du planaren ondorioz orokortu egin dela biktimekiko aitortza eta argiago utzi dela biktimen elkarrekin zer leku eta eginkizun hartu behar duten. Agerikoa da askotariko sektorea dela, eta, hartara, desadostasunak sortzen direla, baina, gure ustez, hala izanda ere, normalizazio eta sintonia aipagarriak lortu dira.
 - Biktimak aitortzeko ildo berean eta Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren esparruan, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak beste bi aitorten ekitaldi antolatu ditu legebiltzarreko talde guztien presentziarekin: 107/2012 Dekretuak babestutako biktimei erakundeen aitortzen emateko ekitaldia (otsailaren 20a) eta frankismoaren biktimei egindako aitorten-ekitaldia (maiatzaren 14a).
 - Bestalde, alderdi politikoek eta legebiltzar-taldeek gero eta konpromiso handiagoa dute gai horretan laguntzeko, eta, hartara, indartu egiten dute azpimarratu dugun normalizazio hori.
 - Estatuko Abokatutzarekin arazoak eta desadostasunak sortu dira biktimei laguntza, aitortza eta erreparazioa emateko gaietan. Hala eta guztiz ere, Motibazio Politikoko Indarkeriaren Biktimei Errekonozimendua eta Erreparazioa emateko Legea onartu da Eusko Legebiltzarrean (2016ko uztailaren 28a), eta nabarmentzeko moduko mugarririk izango da. Euskal Autonomia Erkidegoan 1978tik 1999ra izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran gertatu ziren giza eskubideen urraketek heldu die legeak, urraketa horiek ez baitzeuden aintzat hartuta aurreko legeetan. Planaren eginkizuna oso garrantzitsua izan da prozesu horretan: azterlanak egin baititu eta oinarriak prestatu, bai hasierako dekreturako, bai ondorengo legerako.
 - Aurrekontuen ikuspegitik, nabarmentzekoa da biktimak ardatz nagusitzat hartzen dituzten ekintzetan (4. eta 5. ekimenak, laguntza emateko ekintzak ez ezik, beste batzuk ere barne hartzen dituztenak) 6.578.866 euro erabili direla; hots, planaren aurrekontu exekutatuaren % 44. (Ikusi II. eranskina).

3.5. Bizikidetzarako hezkuntza eta kultura

- Bake- eta bizikidetzaren kultura sustatzeko jarduerak, oro har hartuta, askotariko ikuspegi eta ekimenetatik landu dira planean. Batzuei heldu zaie hezkuntza-sistema formalen bitartez, beste batzuei sentsibilizazio-ekintzen bitartez, gizarte-komunikazioaren bidez edo komunikazio ez-formalaren bidez. Beste jarduerak batzuetan laguntza eman zaie arlo horietan jarduten duten askotariko erakundeei. Plana garatzen hiru urte eman ondoren, orokorrean, bizikidetzaren sustatzeko elementutzat hartu behar da. Horretan ezinbestekoak dira planaren kultura- eta hezkuntza-ardatzak.
- Bitarteko ebaluazioa egin zenetik hona, normaltasunez garatu dira hezkuntza-, kultura- eta gizarte-arloetako ekimenak. Gainera, oso handiak izan dira antolatutako ekintzen betetze-ehunekoak. Gaur egun, arlo horietan ohikoak dira Eusko Jaurlaritzak eta hezkuntza-komunitateak bizikidetzaren lantzeko lan-esparru gisa onartu zuten Gizalegez akordioa edo Adi-Adian hezkuntza-modulua. Modulu horretako ekintzen bitartez, 5.000 ikasle ikastetxeetan entzun dituzte biktimen lekukotasunak.
- Beste ekimen batzuek denbora gehiago behar izan zuten aurrera egin ahal izateko, baina azkenaldian gero eta indar handiagoa hartzen ari dira. Ekimen horiek dira, besteak beste EAEko Gazteriaren Kontseilua,

Elkarrekin Bonuen Programa edo tokiko erakundeekin batera antolatutako jarduerak. Udalek eta beste tokiko erakunde batzuek bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan egin dituzten jarduerari eman zaien laguntza 1.200.000 eurokoa izan da, modu arautuan, 2013an eta 2016an diru-laguntzak eskatzeko antolatu diren deialdien bidez. Halaber, Elkarrekin Bonuen Programan 53.655 euro eman ziren, tokiko gizarte-erakundeek 2014an eta 2015ean garatu zituzten proiektuak sustatzeko². Guztira, 5.771.895 euro bidez sustatu da zenbait erakunde hezkuntzaren, giza eskubideen, bakearen eta bizikidetzaren arloetan egin duten lana. Horrez gain, memoria historikoa ere sustatu da, urteko deialdi ofizialen bitartez³. Azkenik, gizarte zibilaren eginkizunaren harira, nabarmentzekoa da Lokarriren enkargatu zitzaion azterlana, herritarren parte-hartzeari buruzkoa. (2015eko abendua).

- Bitarteko ebaluazioan gomendatu genuen udal-esparruan bultzada berria ematea bakearen, bizikidetzaren eta koordinazioaren gaineko itunei, kooperazioari eta koordinazioari. Horren harira, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkariak bilera-deia egin zien Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei eta Euskadiko Udalen Elkarteari. Bilera 2016ko martxoaren 21ean egin zen, eta honako dokumentu hau aurkeztu zuten: *Bakearen eta bizikidetzaren aldeko politikak udal-esparruan garatzeko iradokizunak*. Txosten hori lan-tresna izango da erakundeen artean, bai eta erakundeen eta gizartearen artean ere, sinergiak bultzatzeko, eta udal-esparruan bakegintzaren eta bizikidetzaren aldeko politika publikoak bateratzeko. Horretan, auzo, udalerrri, eskualde edo lurralde historiko bakoitzeko erakundeak eta errealitateak errespetatuko dira.
- Epeak hain laburrak izanik, balorazio-txosten hau egitean ezin izan dugu egiaztatu iradokizunen hartzaileek zer iritzi dieten iradokizunei. Hortaz, Bakegintza eta Bizikidetzaren Planaren edo tokiko bizikidetzaren arloko beste politika publiko batzuen hurrengo ebaluazio-eraketak hurrengo legegialdian diseinatzeko prozesuan iritzi hori ere sartzea gomendatzen dugu.
- Unibertsitateen arloko ekimenak eta EITBrekin lotutako komunikazio-ekimenak antolatu bezala garatu dira. *Oinatz galduak* izeneko telesaila egin eta zabaldu da. 1960tik 2016ko maiatza arte, terrorismoari, indarkeriari eta giza eskubideen urraketari buruz gertatutakoa ikuspegi kritikoaz gogoratu dute. Seriearen eragina handi samarra izan da.
- Plana betearazi bitartean, aldaketa azkarrak gertatu dira EAEko gizartearen, eta jada hasieran aipatu ditugu. Aldaketa horiek direla-eta, hezkuntza-arloko ikuspegi batzuk zaharkituta egoteko bidean daude. Besteak beste, adibide adierazgarriak dira Adi-Adian Programaren zenbait ebaluazio. Ebaluazio horietan agerian utzi da komeni dela bizikidetzari buruzko beste alderdi batzuk jorratzen hastea. Edonola ere, eragile guztiek uste dute kultura- eta hezkuntza-jarduerak eta herritar guztien parte-hartzea sustatzeko ekintzak egin jarraitu behar dela, EAEko herritarren aurrerapenak bizikidetzari buruzko gaietan jarrai dezan.

4. Zeharkako gaiak

4.1. Genero-ikuspegia

- Bitarteko ebaluazioaren txostenean egiaztatu genuen genero-ikuspegia ez zegoela kontuan hartuta Bakegintza eta Bizikidetzaren Planaren diseinuan eta garapenean. Genero-ikuspegia sartzen bada, Euskal Herrian gertatu diren giza eskubideen urraketa guztiak argitu ahal izango dira, eta biktimen errealitateak aintzat hartzeko eta haiei behar bezalako erreparazioa emateko aukera egongo da. Eraso egin zaion pertsonaren sexua eta adina zeintzuk diren (gizon edo emakume; haur, gazte edo agure) bestelakoak dira indarkeriaren ondorioak; hala, bada, memoria ezin da osoa izan pertsonen bizi-inguruabarrak alde batera uzten badira.
- Bitarteko ebaluazioaren gomendioak betetze aldera, 2016ko uztailean, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkariari aurkeztu zioten *Motibazio politikoko indarkeria emakumeen aurka, euskal kasuan - 1960-2014* txostena, ARGITUZ elkarteak egin (giza eskubideen aldeko elkarte), «Giza eskubideen urraketari eta hortik eratorritako ekintzei buruzko txostenak» egiteko 1. ekimenaren barruan. Euskal Herriko kasuan, lehenengo aldiz, bereizita aztertu da indarkeriak zer eragin izan zuen emakumeengan eta gizonengan,

² Egiteke dago bizikidetzaren arloko Elkarrekin Bonuen 2016ko deialdia. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkariak eta Bizkaiko Foru Aldundiak ekarpenak egin zituzten 2014ko eta 2015eko deialdietan.

³ Ikusi II. eta III. eranskinetan aurrekontuaren banakapena eta onuradunen zerrenda, hurrenez hurren.

eta, txostenean ondorioztatzen denez, «Euskal Herriko kasuan giza eskubideen urraketan eragina bestelakoa izan dela emakumeengan eta gizonengan⁴». Txostenaren gai nagusizat hartu da ETak, Estatuko segurtasun-kidegoek, talde parapolizialek eta eskuin-muturreko taldeek emakumeen aurka egin dituzten giza eskubideen urraketak eta beste ekintza bortitz batzuk. Zehetasun handiz aztertu dira nazioarteko, Estatuko eta EAeko arauen esparruak eta haietatik sortzen diren betebeharrak. Horrez gain, nazioarteko esperientziak berrikusi dira, gatazkak konpontzeko eta bakegintzako prozesuetan genero-ikuspegia txertatzeko jardunbide egokien ereduak jaso nahian.

- Txosten hori lehen urratsa izan da genero-ikuspegia txertatzeko, ETak eta beste eragile batzuek Euskal Herriko kasuan eragin zituzten motibazio politikoko indarkeria eta giza eskubideen urraketak argitzeko, justiziaz epaitzeko eta biktimei erreparazioa emateko prozesuan. Txostenean adierazi duten bezala, ikuspegi hori kontuan hartu da, giza eskubideen aldeko nazioarteko tresnek erakundeek ezarri dieten betebeharra izateaz gain, bakegintza lortzeko bide bakarra delako, iragana bere osotasunean eta inor ahaztu gabe ezagutuko edo aintzat hartuko bada⁵.
- Ebaluatzaileen taldeak bat egiten du txosten horren gomendioekin, eta, bitarteko ebaluazioan adierazi bezala, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkariari proposatzen diogu gomendiook kontuan hartzeko, eta jarduketa guztietan genero-ikuspegia txertatzeko ahaleginak egiten jarraitzeko.

4.2. Autokritika

- Ebaluatzaileen taldeak nabarmendu nahi du autokritika oso baliagarria izan dela planaren sinesgarritasuna areagotzeko eta nolabait eztabaidaren alderdi zaharrak aldatzeko. Autokritikak planaren dimentsio askori eragiten die, eta Zuzendu Programaren eta horri buruz egin diren jardunaldien bidez zabaldu da. Erakundeek eta pertsonak erantzukizunak gain hartzeko konpromisoa hartu dutenez, konfiantza areagotu da, eta gai konplexu batzuei heldu ahal izan zaie.

4.3. Ikerketak, politiken oinarriak

- Bitarteko ebaluazioan jada aipatu genuen arren, berriro ere nabarmendu nahi dugu planaren ekimen gehienetan eta, bereziki, gai berriak edo korapilatsuak lantzen zituztenetan ikerketak egin direla. Gainera, kalitate eta zorroztasun handiko ikerketak izan dira, eta ekimenak onartzeko oinarria ezarri dute. Guk ez ezik, inplikaturata dauden sektoreek eta, hala dagokionean, hezkuntza-komunitateak edo sektore bakoitzeko adituek ere oso ondo iritzi diete planean egin diren txosten eta azterlanei, politika publikoa sortzeko erabilgarritzat eta egokitzat hartu dituztelako.

4.4. Nazioarteko alderdiak

- Bakegintza eta Bizikidetzaren Planak harremanetan jarraitzen du Europar Batasunarekin eta Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoarekin (ACNUDH), 9. eta 10. ekimenetan antolatuta bezala. Euskal Autonomia Erkidegoa ACNUDH-ko emailea da 2015etik, Espainiako Estatuari lotuta. Europar Batasunarekiko harremanak Special EU Programme Body (SEUBP) programa eta Ipar Irlandan bakegintza eta adiskidetzaren prozesuak sustatzeko programa (PEACE IV) bidez egiten da. Harreman horretan esperientzien berri ematen da, eta hezkuntzaren, gazteriaren eta biktimen arloan ikasitakoa partekatzen da. Atzerapen batzuk gertatu diren arren, alderdi biek uste dute behar bezala garatzen ari dela.

4.5. Parte hartzeko mekanismoak

- Planean ezarrita zegoen Aholku Batzorde edo beste batzorde batzuen bidez ordezkari eta parte-hartzea bultzatzeko zenbait mekanismo abian jartzea. Mekanismoen funtzionamendua formal samarra izan da, eta ez dute eman espero zen balio erantsia. Etorkizunean, Bakegintza eta Bizikidetzaren Planean gai hori landu beharko dute. Horrez gain, kontuan hartu beharko dute talde berrien eta sektore gehiagoaren parte-hartzea. Txosten honetan jorratu dugun bizikidetzaren kontzeptua zabaldu beharra dago.

4 ARGITUZ Giza eskubideen aldeko elkartera, Motibazio politikoko indarkeria emakumeen aurka, euskal kasuan 1960-2014, Vitoria-Gasteiz, 2016, 121. or.

5 Berdin, 121. or.

5. Ondorioak

- ETAk indarkeriaren amaiera iragarri zuenetik, funtsezko aldaketak gertatu dira Euskal Herrian.
- Aldi berean 2013-2016 Bakegintza eta Bizikidetzaren Plana tresna errealista izan da, eta aldaketa horiek bultzatzen eta sendotzen lagundu du.
- Idazkaritzak ehuneko oso handian bete ditu bere eskumenen arabera hartu zituen konpromisoak. Gainera, bizikidetzari eta bakeari buruzko gai batzuk hizpidetzat hartzen eta haien garrantzia kontuan hartzen lagundu du. Hala, Idazkaritzaren lana ezinbestekoa izan da, gai batzuek arreta handiagoa bereganatu dezaten gizartearen, politikaren eta hedabideen agendan. Gai horien artean daude, besteak beste aitortza egitea gaur egungo legeetan babesik ez duten giza eskubideen urraketen biktimei, autokritika egitea eta bake-kultura eta giza eskubideak etorkizuneko gakotzat hartzea.
- Behin hori esanda, agenda «zaharkituta» dagoela ere esan behar da. Hizkera berritu behar da, eta agenda ere berriz antolatu. Herritarrak etorkizunari begira daude, eta iraganeko indarkeriak eta borrokak baino gehiago kezkatzen dituzte giza eskubideek eta globalizazio desorekatuaren ondorio kaltegarriek (migrazio-fluxuak, errefuxiatuak, handitzen ari den desberdintasunaren arraila, klimaren aldaketa, nazioarteko terrorismoa...).
- Bakegintza eta Bizikidetzaren Planak, egun duen egituraketan, ia ibilbide osoa bete du. Hala eta guztiz ere, esan bezala, egiteke dauden funtsezko aurrerapauso batzuk egin ahal izateko, blokeo politikoa amaitu behar da, egun arte eragile esanguratsu batzuek blokeo horri eutsi baitiote (bereziki ETA eta Gobernu zentrala). Erronka horiei heltzeko, oraindik ere beharrezkoa da plana antolatzea. Hurrengo planaren oinarriak ezartzean, kontuan hartu behar da eduki batzuk berritu eta beste batzuk errealitateara moldatu behar direla.

6. Gomendioak

- 2013-2016 Bakegintza eta Bizikidetzaren Plana bukatutakoan, guztiz ebaluatzea: batetik, planaren hasierako ebaluazioan hori egitea ezarrita dagoelako, baina, bestetik, ezinbesteko oinarria izango delako azken ebaluazio oso hori 2017-2020 Ekintza Plana egiteko. Ebaluazioan bereziki aztertu behar da planak zer eragin izan duen gizartearen eta, hurrengo programazioei begira, zer ikasi den haren bidez.
- Egiteke dauden zereginak inondik ere bazter utzi gabe, ezinbesteko dugu bizikidetzaren normalizatzeko ahallegina egitea, aintzat hartuta betiere EAEko gizartearen askotarikoa dela, kultura-aniztasunean bizi dela eta testuinguru global baten barruan diharduela.
- Horrenbestez, Planaren aurreikusita zegoen ebaluazio-konpromisoari helduz eta 2017-2020 Jarduketaren Plan bat lantzeko oinarri gisa, ezinbestekoa da azterketa soziologikoa garatzea. Azterketa honek, alde batetik, Planaren agenda osatu duten gaien eta, bestetik, Jarduketaren Planaren etorkizuneko agenda osatu behar duten ikuspegi inguruko euskal herritarren iritzia eta sentikortasuna ezagutzea ahalbidetuko luke.
- Adostasuna bilatzea beti onuragarria izan arren, ez da komeni puntu horretan gehiegi tematzea, eragile askok uko egiten baitiote euren konfort-guneetatik ateratzeari. Espetxe-politikaren arloan, egungo Eusko Jaurlaritza sustatu nahi dugu dekretua aurrera ateratzeko ahaleginean jarrai dezan, justizia leheneratzailan oinarritzeko espetxe-politika, betiere beste eragile batzuekin ados jartzeko aukerak ere baztertu gabe.
- Kultura- eta hezkuntza-alderdiek ezinbestekoak izan behar dira hurrengo planaren, eta planaren edukia zabaltzeko behar dira. Horrez gain, komeni da hezkuntza- eta kultura-eragile gehiagoren parte hartzea bilatzea. Memoria eta historiaren ikaskuntza lotu behar dira. Giza eskubideak ikasi edo irakasten direnean, sakon aztertu behar dira «guztien» eskubideak, eta eskubideen zatiezintasuna aintzat hartu behar da. Bizikidetzaren hezkuntza ikuspegi on eta zabaletik jorratu behar da, enpatiaz eta beste zein aniztasuna aintzat hartzeko jokabideaz.
- Biktimen arloan, erreparazio-jarduketak finkatu eta normalizatutakoan, biktimen egoera aintzat hartu ondoren eta autokritikan aurrera pausoak eman ondoren, hau da hurrengo erronka: esperientziak eta ikasbideak etorkizuneko gizartearen integrazioa, eragindako minetik ikasi ahal izateko.

- Sexuen arabera banakatutako daturik ez edukitzea oztopo izan daiteke, hurrengo planean genero-ikuspegia txertatzeko eta analisi kualitatiboa egiteko. Alderdi eta pertsona guztiak barne hartuko balira, analisi horrek atea irekiko lieke justizia-, erreparazio- eta memoria-prozesu osoei. Hori dela eta, hurrengo legealdian lehentasuna eman behar zaie datu banakatuei eta datuen azterketa kuantitatiboari eta kualitatiboari. Horrez gain, datuak adinaren arabera ere banakatzea gomendatzen dugu, ikuspegia zabalagoa izan dadin. Horrela, hobeto jakingo dugu indarkeriak nolako eragina duen emakumeen eta gizonen adinaren arabera.

7. Eranskinak

I. Eranskina

2013-2016 Bake eta Bizikidetzaren Planaren betearazpen-koadroa⁶

<i>Ekimena</i>	<i>Proiektatutako ekintzak</i>	<i>Egindako ekintzak</i>	<i>Aurrekontu exekutatu</i>
1. ekimena. Giza eskubideen urraketei eta eratorritako ekintzei buruzko txostenak egitea	1. 1960. urtetik egin diren giza eskubideen urraketen gaineko txostena. 2. Argitu gabe dauden giza eskubideen urraketei eta atentatuei buruzko txostena. 3. Txostenetik ondorioztatu diren ikerketak eta ekintzak. Txostenaren gomendioak. 4. Genero-inpaktuari buruzko txostenak. 5. Memoria historikoaren arloko lehentasunen oinarritzko programa.	1. Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarritzko txostena 1960-2013 (2013ko ekaina). 2. 1960tik 2014ra erakunde terroristek egin zituzten heriotza-atentatuen egoera prozesalari buruzko txostena. Euskal kasua (2014ko abendua). 3. ETAk mehatxatutako pertsonak jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011). - Ertzainek eta haien familiek ETArekin mehatxuaren ondorioz jasan duten bidegabekeriari buruzko txostena (1990-2011). 4. Euskal kasuan emakumeen aurka egin den motibazio politikoko indarkeriari buruzko txostena 1960-2014 (2016ko uztaila). 5. Memoria historikoaren arloko lehentasunen oinarritzko programa 2015-2016 (2014ko azaroa). - 2015-2020 aldirako EAEko Plana, hobien kokapena ikertzekoa, Gerra Zibilean desagertutako pertsonak bilatu eta identifikatzeko (2015eko azaroaren 1a). - Aranzadi Zientzia Elkartearekin sinatutako hitzarmena, pertsona desagertuak eta errepresaliatuak bilatzeko eta haien buruzko informazioa biltzeko, bai eta DNA bankua handitzeko ere (2013-2016). - Memoriaren ibilbideak: Gerra Zibilaren memoriarekin lotutako espazioen zerrenda, I. eta II. txostenak (2014-2015). - Frankismoaren biktimei aitortza egiteko ekitaldia (2016ko maiatzaren 14a). *Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortu ondoren, haren bitartez egin dira jarduketak batzuk, eta 2. ekimenean adierazita daude. Jarduketa osagarriak: - Giza eskubideen arloan autokritikaren pedagogia egiteko dibulgazio-programa. Zuzendu Programa (2015eko apirila). - Lehen Zuzendu jardunaldiak, iraganean egin ziren giza eskubideen urraketei buruzko autokritikaren pedagogiari buruzkoak (2015eko urriaren 30etik 31ra).	149.721 €

⁶ Aurrekontuaren exekuzio-zifrak behin-behinekoak dira. Txostena egin denean erabilgarri zeuden datuak erabili ditugu.

Ekimena	Proiektatutako ekintzak	Egindako ekintzak	Aurrekontu exekutatu
<p>2. ekimena.</p> <p>Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua</p>	<p>1. Legebiltzarrean Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutuaren proposamena onartzea.</p> <p>2. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren eratzea eta irekitzea.</p> <p>3. Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua martxan jartzea.</p>	<p>1. Eusko Legebiltzarrak Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko 4/2014 Legea onartu zuen (2014ko azaroaren 27an).</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gobernu Kontseiluak onartu zuen institutuaren hasiera, aurrekontua eta institutuko zuzendaria (2015eko ekainaren 23a). <p>2. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua zabaltzeko ekitaldia, Memoriaren Egunean, 2015eko azaroaren 10ean.</p> <p>3. 2016ko jardun-programa onartzea (2016ko otsailaren 29a).</p> <ul style="list-style-type: none"> - Memoriaren arloko elkarten arteko akordioa, memoria-ibilbideei buruz. Lehen kolonbarioa Elgoibarren egitea (2016ko apirilaren 13a). - Aranzadi Gizarte Elkartek Memoria Historikoari buruz bildutako dokumentazioa entregatzea (2016ko maiatzaren 2a). - Memoriaren Ibilbideak: Gerra Zibilaren memoriarekin lotutako espazioen zerrenda I. eta II. txostenak entregatzea, memoria historikoari buruzko ibilbide pedagogikoak egiteko (2016). - Memoria Plaza ekimen ibiltaria Bilbon, Durangon, Gasteizen, Eibarren, Tolosan eta Donostian aurkeztea 2016an. 	<p>570.860 €</p>
<p>3. ekimena.</p> <p>Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroari ekarpena egitea</p>	<p>1. Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak ekimen hau indartzeko partekatzen duten Batzorde Mistoan proiektua batera diseinatzea eta definitzea.</p> <p>2. Proiektua egitea eta onartzea.</p> <p>3. Memoriarako Zentroa abian jartzea.</p>	<p>1. Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea, proiektua diseinatzeko eta bultzatzeko adituen batzordean.</p> <p>2. Terrorismoaren biktimak aitortu eta osorik babesteko legean ezarritakoarekin bat etorrira, Espainiako Gobernuari dagokio zentroa sortzea eta zuzentzea (57. art.).</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espainiako Bankuaren Gasteizko eraikinean zentroaren lehen plaka jartzeko ekitaldia (2015eko martxoaren 24a). <p>3. Eusko Jaurlaritzak Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroko hiru ordezkari izendatzea. Lehen eratzte-bilera, 2015eko azaroaren 27an.</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>En pie de foto: la mirada de la víctima. Biktimaren begirada</i> erakusketaren inaugurazioa (2016ko martxoaren 21a). 	<p>4.955 €</p>

Ekimena	Proiektatutako ekintzak	Egindako ekintzak	Aurrekontu exekutatu
<p>4. ekimena.</p> <p>Terrorismoaren biktimei laguntza, errekonozimendua eta ordaina ematea</p>	<p>1. Laguntza-ekin-tzaren ildo. Bik-timei Laguntzeko Zerbitzuari, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programari eta Auzitegi Nazionalen biktimei laguntzeko Bulegorako Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrekin egindako hitzarmenari eustea.</p> <p>2. Gizarte-erakundeekiko lankidetzaren ildo. Biktimei laguntzeko elkar-teei zuzendutako diru-laguntzen deialdiari eustea, bai eta Víctimas del Terrorismo Fundazioarekin eta Fernando Buesa Fundazioarekin egindako hitzarmenei ere. Hori guztia elkar-teei eta biktimekin mintegiak eta topaketak antolatzearekin batera.</p> <p>3. Ikerketak eta azterketak sustatzeko ildoak. Urteko ikerketak eta graduondoko ikasketak egiteko UPV/EHUrekin (IVAC/KREI) sinatutako hitzarmenari eustea.</p> <p>4. Parte-hartzea sustatzeko ildo. Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluarekin koordinatuta eta lankidetzan aritzea sustatzea. Memoriaren Eguneko ekitaldiak antolatzeari eustea. Adostasuna sustatzea. Memoriaren Mapa adostasunez gara dadin sustatzea.</p>	<p>1. Laguntzaren arloko ekintza-ildo guztiak exekutatu dira. Biktimei laguntzeko, kalte-ordainak emateko, laguntzak eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak emateko zerbitzuetan 815.156 € exekutatu dira.</p> <p>2. Gizarte-erakundeekiko lankidetzaren arloko ekintza-ildo guztiak exekutatu dira, besteak beste urteko diru-laguntzen deialdiak antolatzea eta planeatutako hitzarmenak sinatzea (2014-2016).</p> <p>Biktimei laguntzeko elkar-teei eta terrorismoaren biktimei aitortza egiteko ekitaldietan, topaketetan eta aitortza-jardunaldietan 1.417.049 € eman dira.</p> <p>3. Kriminologiaren Euskal Institutuarekin sinatzen diren urteko hitzarmenak, ikerketa zehatzak egiteko eta graduondoko ikasketak sustatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Biktimen premiei eta ardurei buruzko azterlan kualitatiboa (2013). - Terrorismoaren biktimen memoriarako eskubidea (2014). - Terrorismoaren biktimekin tratatzeko eta bigarren mailako biktimizazioa saihesteko jardunbide egokien gida orokorra (2014). - Biktimen inpaktua, erresiliencia eta interpelazioa: terrorismoaren biktimen arteko eta biktimen eta unibertsitate-ikasleen arteko topaketak (2015). - Erakunde terroristen bahiketen biktimen gaineko ikerketak (1970-1997): biktimen inpaktuaren dimentsioak ikuspegi narratibotik ikusita eta aurrera egiteko faktore gakoak (2016). <p>4. Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua bederatzi aldiz bildu da, 2013ko ekainetik 2016ko ekainera.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Biktimen elkar-teei ados jarrita, kontseiluaren ezaugarriak, egitekoak eta osaera eraldatzeko dekretua onartzea (2016ko maiatzaren 17a). <p>4.1. Urteko parte-hartzea, Memoriaren Eguna ospatzeko ekitaldian (azaroaren 10ean).</p> <p>4.2. Memoriaren mapa amaitzea: udalerrietan terrorismoaren zein indarkeriaren biktimei aitortza egiteko eta memoria lantzeko ekimenak antolatzeko iradokizunak (2014ko maiatzaren 29a).</p> <p>4.3. Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri (1960-2010). Proiektua alkateekin batera egindako ekitaldi batean aurkeztu zen, Memoriaren Maparen esparruan (2015eko irailaren 4a).</p> <p>Jarduketa osagarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Biktimen eskubideetatik gizartearen zereginetara</i> izeneko jardunaldia (2013ko azaroa). - Kriminologiaren Euskal Institutuaren irizpena, terrorismoaren biktimei kalte-ordainak emateari buruzkoa (2014ko urtarrilaren 13a). - Biktimen arreta pertsonalizatua eta biktimen parte-hartzea sustatzeko GERTU programa. Lekukotasunen eta biktimen arteko elkarriketa-bizipenen grabazioak ere jaso dira (2014-2016). - <i>Biktimen arloko politiken eta ekimenen kudeaketa-txostena</i> aurkeztea. Dokumentu horretan hamabost jardun-ildo zehaztuta daude (2014ko irailaren 24a). - Gobernu Kontseiluaren adierazpena, terrorismoaren biktimak izandako gobernuko kideei omenaldia egiteko eta aintzatesteko (2015eko otsailaren 20a). - <i>Terrorismoaren biktimak eta gizartea</i> jardunaldia. Lehendakariaren adierazpena, biktimei aitortza egiteko eta barkamena eskatzeko (2015eko ekainaren 4a eta 5a). - Askotariko biktimen talde batek zenbait hilabetez elkarriketan jardun ondoren eginiko <i>Eraikiz</i> dokumentua aurkeztea (2015eko irailaren 11). - Batera konpromisoa, biktimen politiketan etapa berria sustatzeko (2015eko irailaren 22a). - Terrorismoaren biktimei aitortza egiteko ekitaldi instituzionala, Donostiako Pasealeku Berrian, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren esparruan. Terrorismoaren Biktimen Europako Egunean egin zen; hots, 2016ko martxoaren 11n. 	2.837.004 €

Ekimena	Proiektatutako ekintzak	Egindako ekintzak	Aurrekontu exekutatua
<p>5. ekimena.</p> <p>Egungo lege-rian babesik ez duten biktimei laguntza, erre-konozimendua eta ordaina ematea</p>	<p>1. 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko 107/2012 Lehen Dekretuaren ondorioz hasitako prozesua kudeatzea: teknika egokitzea, Ebaluazio Batzordearen irizpideen bidez aurkeztu diren txostenak kudeatzea.</p> <p>2. Babesik gabeko biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko prozesuen azterketa egitea, bigarren dekretu bat onartzeko asmoz.</p> <p>3. Bigarren dekretua prestatzea (onartua izan dadin), 1978tik 2015era bitartean gertatu diren biktima guztiei aitortza eta ordainak emateko prozesuak osatu ahal izateko.</p> <p>4. Bigarren dekretuaren ondoriozko prozesua kudeatzea.</p> <p>5. Neurri osagarriak ezarri behar ote diren balioestea.</p>	<p>1. 107/2012 Dekretuaren aplikazioa 2013tik 2015era kudeatu zen, espedienteen izapideak barne hartuta. 3.652.096 € eman ziren biktimei zuzendutako kalte-ordainetan.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Giza eskubide-urraketak pairatu dituzten eta lege-babesik ez duten biktimak aitortzeko eta ordaina emateko gogoeta jardunaldia (2013ko irailaren 29a). - Kriminologiaren Euskal Institutuak 2015eko ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren aplikazioa aztertzea eta ebaluatzea. - <i>Giza Eskubideen Urraketak jasandako Biktimen Balorazio Batzordearen Txostena 1960-1978 aurkeztea</i> (2016ko otsailean). - Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren esparruan, 107/2012 Dekretuak babesten dituen biktimei aitortza egiteko ekitaldi instituzionala (2016ko otsailaren 20a). - Estatuko Abokatutzak errekurritu egin zuen dekretu hori aldatzeko proposamena (462/2013 Dekretuan jasota). Hori dela eta, atzerapenak gertatu dira bigarren dekretuaren kudeaketan eta idazketan. <p>3. Eusko Legebiltzarrean onartzea motibazio politikoko biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko Legea. Euskal Autonomia Erkidegoan 1978tik 1999ra izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran gertatu ziren giza eskubideen urraketari heltzen die legeak (2016ko uztailaren 28a).</p>	<p>3.741.861 €</p>

Ekimena	Proiektatutako ekintzak	Egindako ekintzak	Aurrekontu exekutatu
<p>6. ekimena.</p> <p>Torturari buruzko ikerketa eta ekintza</p>	<p>1. Azterlan zientifikoa egitea.</p> <p>2. Tortura-kasuak ikertzeko ezarri behar diren protokolei buruzko ondorioak ateratzea.</p> <p>3. Torturaren gaineko ikerketa eta ekintzarako jardun-proposamena aurkeztea.</p> <p>4. Jardun-programa garatzea.</p>	<p>1. 1960tik 2010era EAEn gertatutako torturari buruzko ikerketa, 2014ko ekainean Kriminologiaren Euskal Institutuari eskatua.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Torturari buruzko ikerketaren diseinuari eta lehen urratsei buruzko txostena (2014ko abendua). - 1960tik 2013ra EAEn gertatutako torturari buruzko ikerketa egiteko proiektuaren egoeraren gaineko txostena (2016ko apirilean). - Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritzako eta Kriminologiaren Euskal Institutuko ordezkariak Bruselan bildu ziren Torturaren eta Zigor edo Tratamendu Krudel edo Laidogarrien Prebentziorako Europar Batzordeko ordezkariekin. Bileran ikerketa-proiektuaren egoera azaldu zuten (2016ko apirilaren 28a). - <i>Tortura, tratu txar eta umiliagarrien biktimenzako egia eta aitortpena</i> UPV/EHUko uda-ikastaroan egindako jardueren laburpen-memoria (2016ko ekainaren 27a). - Ikerketaren azken emaitza, 2016ko abenduan azaltzekoa. <p>2. 107/2012 Dekretuaren esparruan adituek aurkeztutako txostena, tortura-kasuak aztertzeko protokolei buruzkoa (2014).</p>	<p>264.969 €</p>
<p>7. ekimena.</p> <p>Eusko Legebiltzarrekin lankidetzan aritzea eta batera lan egitea</p>	<p>1. Bakegintza eta Bizikidetzaren Plana Eusko Legebiltzarrean aurkeztea eta legebiltzar-taldeek ekarpenak jasotzea.</p> <p>2. Lankidetzaren jardutea Legebiltzarrekin bizikidetzarako estrategikoak diren Jaurlaritzaren proiektu guztietan.</p> <p>3. Herritarren parte-hartzeari buruzko lankidetzaren hitzarmen bat prestatzea, sinatzea eta abian jartzea Eusko Legebiltzarrekin.</p>	<p>1. Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordera bertaratzera, planaren idazketa-prozesuari buruzko aurrerapen bat aurkezteko (2013ko martxoaren 6a).</p> <ul style="list-style-type: none"> - Plana proposamen gisa aurkeztea (2013ko ekainaren 11). Legebiltzarreko taldeen ekarpenak jasotzea eta hurrengo hilabeteetan bilerak egitea. <p>2. Bake eta Bizikidetzaren Ponentziak ez du aurrera egin Legebiltzarrean, legebiltzar-taldeak ados jarri ez direlako; ondorioz, ez da egin lankidetzaren handiko jarduerarik. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak bi aldeko bilerak egin ditu alderdi politikoekin. Komunikaziorako eta balizko lankidetzarako ildoak irekita ditu Legebiltzarrekin eta legebiltzar-taldeekin.</p> <p>3. Irekiaren eta Eusko Legebiltzarrekin arteko lankidetzaren esparrua erakutsi zen, herritarren parte-hartzearen arloan (2015).</p>	<p>0 €</p>

Ekimena	Proiektatutako ekintzak	Egindako ekintzak	Aurrekontu exekutatua
<p>8. ekimena.</p> <p>Espetxe-politikan Hitzeman Programa garatzea</p>	<p>1. Espainiako Gobernuarekin elkarrizketak izatea eta akordioak lortzea.</p> <p>2. Hitzeman programa prestatzea.</p> <p>3. Presoak ordezkatzeko dituzten erakundeei programa erakustea.</p> <p>4. Erakunde laguntzaileekin adostasunak lortzea eta erabaki sendoak hartzea.</p> <p>5. Programa ezartzea.</p> <p>6. Hitzeman Programa eguneratu eta garatzeko agiria aurkeztea.</p>	<p>1. Bilerak, elkarrizketa-saiakerak eta akordioak bilatzeko ahaleginak egin ziren, baina ez da emaitzarik lortu.</p> <p>2. Hitzeman dokumentuaren zirriborroa aurkeztea: <i>Legezko bidea</i>.</p> <p>- Presoak berriro gizarteratzeko legezko prozesuei laguntza emateko programa (2014ko iraila).</p> <p>3. Hitzeman programa jendaurrean aurkeztea (2014ko urriaren 2a).</p> <p>- Zuzen Bidean elkarrizketa-proposamenari buruzko dokumentua (2014ko azaroa).</p> <p>4. Elkarrizketak egiteko eta akordioak bilatzeko aldia (2014ko urritik 2015eko martxora).</p> <p>5. Hitzeman programaren proba-esperientzia, gizarteratzeko eredu bideragarria eta legezkoa zehazteko bideratuta (2015eko ekainetik 2016ko ekainera).</p> <p>- <i>Justizia leheneratzaile eta terapeutikoa: justizia-eredu berritzaileetarantz</i> esperientzia pilotua Europako Kongresuan aurkeztea. UPV/EHUko Uda Ikastaroen esparruan antolatuta (2016ko ekainaren 16tik 18ra).</p>	<p>37.050 €</p>

Ekimena	Proiektatutako ekintzak	Egindako ekintzak	Aurrekontu exekutatu
<p>9. ekimena.</p> <p>Europar Batasunarekiko lankidetzaren bultzatzea</p>	<p>1. Plana Europako erakundeetan aurkeztea.</p> <p>2. Lankidetzaguneak antolatzea.</p> <p>3. Definituriko programak garatzea.</p> <p>4. Ezarritako jardun-lerroak eguneratu eta garatzeko agiria aurkeztea.</p>	<p>2. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eta Europar Batasunaren programa bereziak kudeatzeko erakunde erantzuleak (SEUPB) antolatutako topaketa, IV. Peace Programan lankidetzaren proiektuak zehaztu ahal izateko (2014ko 21etik 24ra arte).</p> <p>3. Lankidetzaren programa gazteriaren, hezkuntzaren eta biktimen arloetan garatzea 2015eko Peace Programaren esparruan. Europako erakundeek IV Peace Programari eman behar zioten onarpena atzeratu zen, eta, hartara, programa ez zen abian jarri 2016ra arte.</p> <p>- Elkartrukerako topaketa Ipar Irlandan. 2016ko bigarren hiruhilekoan egitekoa zen.</p> <p>Jarduketa osagarriak:</p> <p>- Flandriaren memoriaren eta bakegintzaren alde jarduten duten bi erakundetako ordezkariak Euskadira bidaiatu zuten (2016ko maiatzaren 16tik 17ra).</p> <p>- Nazio Batuen Erakundeko Turismoaren Mundu Erakundeak turismoari eta bakegintzari buruzko proiektu bat garatzeko akordioa, Flandriako eta Ipar Irlandako gobernuekin elkarlanean. Euskal Herriko Unibertsitatearen «Kultur Paisaiak eta Ondarea» UNESCO Katedrak ere parte hartzen du (2016).</p>	59.853 €
<p>10. ekimena.</p> <p>Lankidetzaren Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoarekin</p>	<p>1. 2013ko Memorandua sinatzea eta Bakegintza eta Bizikidetzaren Plana bidaltzea ebalua dezaten.</p> <p>2. 2014ko Memorandua sinatzea eta 2013ko balorazio-txostena jasotzea.</p> <p>3. 2015eko Memorandua sinatzea eta 2014ko balorazio-txostena jasotzea.</p> <p>4. 2016ko Memorandua sinatzea eta 2015eko balorazio-txostena jasotzea.</p>	<p>2. Memorandua sinatzea (2014ko urriaren 1a).</p> <p>- 2015-2016 Memoria Historikoaren arloko Lehentasunen Oinarriko Programa bidaltzea, egia, justizia eta ordaina jasotzeko eskubideak eta berriz ez gertatzeko bermeak sustatzeko errelatore bereziak azter zezan (2014ko urria).</p> <p>3. Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioarekiko harremana 2015ean eta 2016an (OACNUDH), diru-laguntza izendun baten bidez.</p> <p>- Tailerra, Kultura Eskubideak sustatzeko Nazio Batuen errelatore bereziarekin: <i>Iraganaren erabilera: nola idazten eta irakasten den historia gizarte zati-tuetan eta gatazka osteko egoeretan</i> (2015eko martxoaren 5ean, Bilbon)</p> <p>- Bilera eta ikastaroa Genevan, giza eskubideak babesteko mekanismoei buruz, EAEko administrazio publikoetako teknikariei zuzenduta (2015eko iraila).</p> <p>- EAE lehenengo aldiz emaile gisa agertu zen OACNUDH-ren 2015eko Jardueren Memorian. Espainiako Estatuaren ekarpenarekin lotuta agertu zen (2016).</p>	60.000 €

<i>Ekimena</i>	<i>Proiektatutako ekintzak</i>	<i>Egindako ekintzak</i>	<i>Aurrekontu exekutatua</i>
11. ekimena. Euskal unibertsitateen ekarpen partekatua	1. Elkarrekin definitzea proiektuaren xedea, bakegintzaren eta bizikidetzaren premien arabera. 2. Lana gauzatzea. 3. Ondorio praktikoak ateratzea. 4. Ekimen hau berrargitaratzeko aukera eta egokitasuna aztertzea.	1. 2014-2016 Esparru Akordioa sinatzea EAEko hiru unibertsitateekin (2014ko urtarrilaren 8a). 2. <i>Gizarteratzea eta ETAko presoak: horien egungo egoerari buruzko azterketa juridikoa eta etorkizuneko orientazioak</i> txosten akademikoa eta tekniko-juridikoa. Egileak: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea (2014ko abendua). 3. 2015ean egin zen Ahotsak Proiektuaren ondorioak aurkeztea. Proiektuaren helburua: ikasleen artean gogoeta-prozesua bultzatzea, terrorismoaren, indarkeriaren, giza eskubideen urraketen eta bakegintzaren gainean. Ikus-entzunezko euskarriak eta elkarrizketa-guneak erabili ziren (2016ko apirilaren 18a). 4. Memoriarako eta bakegintzarako parte-hartzea sustatzeko tresna bat eraikitzeko 2016ko proiektuaren oinarriak aurkeztea. Tresnaren xede-erabiltzaileak: udaletxeak eta gizarte-erakundeak (2016ko lehenengo sei hilekoa).	170.556 €

Ekimena	Proiektatutako ekintzak	Egindako ekintzak	Aurrekontu exekutatua
<p>12. ekimena.</p> <p>Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen alde ERTZAINZAK duen Konpromiso Sozialaren jarraipena egitea.</p>	<p>1. Ekimena sustatzeko eta dinamizatze lantaldea izendatzea.</p> <p>2. Bizikidetzaren demokratikoa lortzeko, giza eskubideei eta oinarri etikoei buruzko poliziak duen prestakuntza-programa eguneratzea eta garatzea.</p> <p>3. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen alde ERTZAINZAK duen Konpromiso Sozialaren jarraipenaren ekimenak eta helburuak zehazteko partaidetza programa abian jartzea.</p> <p>4. ERTZAINZAK duen Konpromiso Sozialaren Programa aktibatzea, edukioak eta jarraipen eta ebaluazio tresnak ezarri.</p>	<p>1. Lan-talde zehatza sortzea (2014ko apirilaren 2a).</p> <p>2. eta 4. Arkauteko Akademiako Segurtasun Sailaren ekimen itunduak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Amnistia International-en ikastaroa, giza eskubideei buruzkoa (2014ko martxoaren 1a). - Giza eskubideei buruzko prestakuntza-ikastaroak (2014-2015). - Promozio berriei zuzendutako prestakuntza-ikastaroak (2015-2016). - Hezitzaileak prestatzeko ikastaroak (2015-2016). - Etengabeko prestakuntzarako ikastaroak (2015-2016). - Barneko hedapen- eta sentsibilizazio-ekintzak eta kanpoko hedapenerako ekintzak (2014), Parez-Pare jardunaldien bitartez (2015-2016). - Segurtasunari eta giza eskubideei buruzko nazioarteko jardunaldia. <i>Ertzaintzaren eredu eta giza eskubideetako erakunde balorazio onak</i> (2016ko maiatzaren 5a). <p>* Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak gain hartu zuen ekintza horien finantzazioa, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiarekin ados jarrita.</p>	0 €

<i>Ekimena</i>	<i>Proiektatutako ekintzak</i>	<i>Egindako ekintzak</i>	<i>Aurrekontu exekutatua</i>
13. ekimena. Lankidetzako publiko-soziala euskal elkartearen sarearekin	1. Akordioa prestatu eta sinatzea euskal elkartearen sarearekin Gizalegez Akordioaren gainean. 2. Lankidetzako hitzarmen eta -akordioak prestatu eta sinatzea beste erakunde batzuekin, Elkarrekin Bonuen Programa sustatzeko. 3. Elkarrekin Bonuen Programa martxan jartzea. 4. Elkarrekin Bonuen Programa eguneratu eta garatzeko dokumentua aurkeztea.	1. Gizalegez Akordioa aurkeztea, Eusko Jaurlaritzaren eta hezkuntza-komunitatearen arteko bizikidetzako sustatzeko (2013ko urriaren 1a). 2. eta 3. 110/2014 Dekretuak Elkarrekin Bonuen Programa arautzen du. Programak honako hiru alor hauetan sustatzen ditu euskal elkartearen sareko hainbat erakunderen arteko lankidetzako espazioak: hezkuntzan, herritarren parte-hartzean eta tokiko bizikidetzan (2014ko ekainaren 17a). 4. Elkarrekin Bonuen Programaren eguneraketa 2015. eta 2016. urteetako deialdiaren aginduetan jasota dago. Ikus 14., 15. eta 16. ekimenak. Jarduketa osagarriak: - Guztira 2.820.000 € eman ziren diru-laguntzetan. Memoria historikoaren, bakegintzaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen alde jarduten duten elkartei zuzendu zitzaizkien (2013-2016). - <i>Hiritar Pluraltasuna. Bakea eraikitzea gizartearen oinarrian</i> jardunaldiak, AiPAZ-ek (Asociación Española de Investigación para la Paz) antolatuta (Bilbon, 2014ko abenduaren 12tik 13ra).	3.429.044 €
14. ekimena. Herritarren parte-hartzea sustatzea	1. Herritarren parte-hartzeari buruzko esparru-agiria aurkeztea. 2. Herritarren parte-hartzea bultzatzeko ekimenak abian jartzea. 3. Hitzartutako jardun-lerroak eguneratu eta garatzeko dokumentua aurkeztea.	2. Parte hartzeko politikak hiru ardatz bitartez antolatu ziren: - Lankidetzako publiko-soziala, Elkarrekin Bonuen Programaren bidez. 95.300 € eman ziren 2014. eta 2016. urte bitartean. - Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzerako tresnak (adibidez, Irekia). - Foru-aldundiekin eta udalekin akordioak lortzea, parte-hartzea bultzatzeko (ikus 15. ekimena). Jarduketa osagarriak: - Memoria Plaza programa, herritarren parte-hartzea sustatzeko (2015-2016). - Bake-prozesuetan herritarren parte-hartzea aztertzeke lana, Lokarri-ri eskatuta. (2015eko abendua).	179.758 €

Ekimena	Proiektatutako ekintzak	Egindako ekintzak	Aurrekontu exekutatu
<p>15. ekimena.</p> <p>Udal eta aldundiekin bizikidetzaren aldeko akordioak adostea</p>	<p>1. Foru-aldundi bakoitzarekin, EUDELekin eta udalekin egin behar ziren akordioak zehaztea.</p> <p>2. Erakunde arteko akordioak abian jartzea.</p> <p>3. Hitzartutako jardun-lerroak eguneratu eta garatzeko dokumentua aurkeztea.</p>	<p>1. Bizkaiko Foru Aldundiarekin akordioa egitea, Aldundiaren ekarpen zehatzarekin Elkarrekin bonu-programa betetzeko (2014).</p> <p>2. Elkarrekin bonu-programa eguneratu eta garatzea. 53.655 € eman ziren 2014. eta 2015. urte bitartean.</p> <p>- Udalei urteko diru-laguntzak ematen jarraitzea, bakegintzaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko ekintzak gara ditzaten. 1.200.000 euroko aurrekontua. (2013-2016).</p> <p>Jarduketa osagarriak:</p> <p>- EUDELekin eta hiru foru-aldundiekin bilera bat egitea, <i>Bakearen eta bizikidetzaren aldeko politikak udal esparruan garatzeko iradokizunak</i> dokumentua aurkezteko (2016ko martxoaren 21a).</p>	1.499.655 €
<p>16. ekimena.</p> <p>Jardun-lerro osagarriak bultzatzea heziketa formalaren eremuan</p>	<p>1. Hezkuntzaren erki-degoko Gizalegez Akordioa prestatu eta garatzea.</p> <p>2. Hezkuntza-espe-rientziei jarraipena emateko plana onartzea eta sustatzea, biktimen testigantzen bitartez.</p> <p>3. Webguneak eta Eskola Bakegune berritzea, eguneratzea eta optimizatzea.</p> <p>4. Hezkuntza Sailaren, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eta gizarte- nahiz hezkuntza-arloko eragileen arteko lankidetzaren adostea</p> <p>5. Aurreko jardun-ildoak eguneratze-ko eta garatzeko dokumentua aurkeztea.</p>	<p>1. Gizalegez Akordioa aurkeztea, Eusko Jaurlaritzaren eta hezkuntza-komunitatearen arteko bizikidetzaren sustatzeko (2016ko urriaren 1a).</p> <p>2. Adi-Adian Hezkuntza Moduluaren Programan (eskoletan biktimen lekukotasunak entzuteko) 132 saio egin ziren, eta 5.171 ikaslek parte hartu zuten (2014-2016).</p> <p>3. Eskola Bakegune webgunea eguneratzea (2014-2016).</p> <p>4. Gizalegez Akordioaren jarraipena egitea, hezkuntza-eragileekin 2015ean eta 2016an izandako bileren bitartez.</p> <p>- Elkarrekin Bonuen Programa exekututzea (562.940 €) hezkuntza-arloan (2014-2016).</p> <p>5. Adi-Adian programaren garapenaren balantze-txostena; bertan ezartzen dira eguneratze-ardatzak. Legebiltzarrari eman zitzaion. (2014ko abenduaren 19a).</p> <p>Jarduketa osagarriak:</p> <p>- Udako ikastaroa Unibertsitate Konplutentsean: <i>El fin de ETA y la recuperación de la convivencia en el País Vasco</i> (El Escorial, 2014ko ekainaren 30etik uztailaren 2ra).</p> <p>- Udako ikastaroa Unibertsitate Konplutentsean: <i>Propuestas de futuro para la convivencia en una Euskadi sin ETA</i>. (El Escorial, 2016ko uztailaren 4tik 6ra).</p> <p>- Udako ikastaroa UPV/EHU: <i>Bakearen eraikuntza: historiaren ikuspegia</i> (Donostia, 2016ko irailaren 12an eta 14an).</p>	728.093 €

<i>Ekimena</i>	<i>Proiektatutako ekintzak</i>	<i>Egindako ekintzak</i>	<i>Aurrekontu exekutatua</i>
<p>17. ekimena.</p> <p>Jardun-lerro espezifikoak bultzatzea gazteriaren, kulturaren eta heziketa ez-formalaren eremuan</p>	<p>1. Akordioa prestatu eta sinatzea Gazteriaren Kontseiluarekin.</p> <p>2. Lau jardun-lerroen lehen fasea martxan jartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> -prestakuntza-programa -truke-espazioa -gazte eta elkar-teen topaketa -erreferentzien funtsa. <p>3. Jardun-lerro horiek eguneratu eta garatzeko agiria aurkeztea.</p>	<p>1. EAEko Gazteriaren Kontseiluarekin elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatzea, eta Jarraipen Batzordea sortzea (2014ko ekainaren 6a).</p> <p>2. Lau jardun-lerroak garatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetzaren, giza eskubideen eta gatazken konponbidearen arloan prestakuntza zehatza jasotzeko programa (2014ko azaroa). - Bakeahots gune irekia martxan jartzea eta hedatzea. Pertsona gazteek eta gazteen taldeek lekukotasunak, esperientziak eta ikuspegiak bidal ditzakete zenbait formatutan (2014). - Elkarte eta gazteen topaketa, bakegintzaren eta bizikidetzaren gaineko ikuspegiak partekatzeko eta iraganeko esperientzien, gaur egun garatzen ari diren proiektuen eta etorkizunerako ideien berri emateko (2014). - Literaturari, antzerkiari, zinematografiari eta abarrei buruzko erreferentzia-funtsa sortzea. Ikuspegi pedagogikotik, lan horiek bake-kultura eta bizikidetzaren sustatzeko baliagarriak izango direlakoan (2014). <p>3. Lankidetzaren Hitzarmena berritzea. Jarduerak eguneratzea eta jardura berriak sortzea (2015eko uztailaren 21a).</p> <p>3.1. 2016ko diru-laguntza izenduna.</p> <p>Jarduketa osagarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Giza eskubideen defendatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan babesteko programa (2013-2016). - Euskal Autonomia Erkidegoan erlijioen aniztasuna ondo kudeatzeari buruzko txostena (2015eko abendua) eta jardunaldia (2016ko martxoaren 2a). - Zentsuraren aurkako jaialdiari laguntzea (2015). 	605.250 €

Ekimena	Proiektatutako ekintzak	Egindako ekintzak	Aurrekontu exekutatua
<p>18. ekimena.</p> <p>Gizartea sentiberatzea eta komunikabide publikoen konpromisoa lortzea</p>	<p>1. Sentsibilizazio-programak diseinatzea urtero.</p> <p>2. 2014-2016 aldiko EiT Brekiko lan-kidetzaren esparrua definitzea.</p> <p>3. Abenduaren 10ean urtero ospatzen den Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta René Cassin sariaren inguruko lan-plangintzaren urteko diseinua.</p>	<p>1. eta 2. EiT Brekin lan-kidetzaren aritzeko esparru-akordioa 2014-2016 sinatzea (2014ko urriaren 31).</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Oinatz galduak</i> izeneko telesaila egitea eta zabaltzea, ikuspegi kritikoz gogora ekartzeko 1960tik 2016ko maitzera arte terrorismoari, indarkeriari eta giza eskubideen urraketei lotuta izandako gertakizunak. - Jardunaldi tekniko-akademikoa eta informazio-monografikoa zenbait multimedia euskarritan: <i>Hedabideak eta Bakea eta Bizikidetzaren</i>. (2016ko apirilaren 27a). <p>3. Urtean-urtean elkarrekin egiteko lan-planak diseinatzea eta exekutzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - René Cassin sariaren urteko entrega. Giza Eskubideen sustapena, defentsa eta hedapena saritzen da (2013-2016). - Urteko komunikazio-kanpaina, abenduaren 10ean (gutxi gorabehera). Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna (2013-2016). <p>Jarduketa osagarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zinexit, elkarbizitzaranzko zine-erakusketa. Urtero egiten da. (2013-2016). - Honako dokumental hauek egiteko laguntza: <ul style="list-style-type: none"> - <i>Reconciliación</i> (2014) - <i>El Reencuentro</i> (2014) - <i>El valor de la autocrítica</i> (2015) - <i>Batallón Gernika. Askatasunaren ametsa – esperanza de libertad (1945-2015)</i> (2015) - <i>Aldana 1980, isiltasun eztanda</i> (2016) 	549.445
		GUZTIRA	14.888.075 €⁷

7 Behin-behineko guztizkoa, txostena egitean erabilgarri zeuden datuak erabili baitira.

II. Eranskina

Aurrekontu-exekuzioa⁸

2013-2016 Bakegintza eta Bizikidetzaren Planean jasotako III. fitxan adierazi bezala, guztira **19.434.000 euro** aurrekontua ezarrita zegoen. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eman dituen behin-behineko datuen arabera, 2013. eta 2016. urte bitartean **14.888.075 euro** exekutatu dira. Legealdi osorako ezarritako aurrekontu osoaren % 77 hartzen du zenbateko horrek. Aurrekontuaren exekuzio-maila egokitzat hartzen da, % 100era ez iritsi arren.

Lehen urtean, 2013an, eta azken urtean, 2016an txikiagoak izan ziren exekuzio-ehunekoak (% 17 eta % 23, hurrenez hurren), legealdiaren hasierako eta amaierako urteak baitira.

Biktimei laguntza, aitortza eta erreparazioa ematea

Bakegintza eta Bizikidetzaren Planeko 4. eta 5. ekimenetan, hurrenez hurren, eman ziren terrorismoaren biktimei eta motibazio politikoko indarkeriaren biktimei laguntza, aitortza eta erreparazioa emateko politiketan. Horrek osatzen du planaren aurrekontu exekutatuaren .

Laguntzak, bonuak, hitzarmenak eta emandako diru-laguntzak

Bake eta Bizikidetzaren Planak dituen 18. ekimenen bidez **8.572.232 euro**⁹ bideratu dira, zenbait erakunde, elkarte eta erakunde publikori laguntzak, bonuak, hitzarmenak eta diru-laguntzak emateko. III. eranskinean jaso da laguntzen, bonuen, hitzarmenen eta diru-laguntzen hartzaileen zerrenda. 2013tik 2016ko abuztuaren 31ra bitarte eman dira.

Laguntzak eta bonuak eskatzeko deialdi ofizialak:

Arestian aipatu dugun zifra horretatik, 2016ko abuztuaren 31n, Bake eta Bizikidetzaren Planak 5.771.895 euro erabilia ditu herritar zibilen erakundeei, udalei eta tokiko erakundeei laguntzak eta bonuak emateko. Horretarako, urteko deialdi ofizialak egin dira. Honako arlo hauek jorratu dira:

- a) 2013. eta 2016. urte bitartean, **1.040.000 euro eman zitzaien terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta laguntza eskaintzen dizkieten erakundeei eta elkarteei.**
- b) **4.020.000 euro** eman zitzaien **bakearen, bizikidetzaren, giza-eskubideen alde eta memoria historikoa berreskuratzearen arloan jarduten duten gizarte-erakundeei eta tokiko erakundeei.** Urteko hiru deialdi egin dira, bereizita.

- **Bakearen eta bizikidetzaren arloko** erakundeei emandako laguntzak.

2013-2016	2.400.000 euro
-----------	----------------

- **Memoria historikoa** berreskuratzearen arloko erakundeei emandako laguntzak.

2013-2016	420.000 euro
-----------	--------------

- **Tokiko erakundeei** eman zitzaizkien laguntzak, bakeari, bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko programak sustatzeko

2013-2016	1.200.000 euro
-----------	----------------

- c) **Elkarrekin Bonuen Programaren** bidez, elkarten sarearen, hezkuntza-zentroyen eta erakunde publikoen arteko lankidetzaren ekintzak ugaritu nahi dira. 2014tik 2016ko abuztura¹⁰, **711.895 euro** bideratu ziren, hezkuntza-, tokiko bizikidetzaren eta herritarren parte-hartzearen arloetan egindako proiektuei laguntza osagarriak emateko. 2014. eta 2015. urte bitartean, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpen osagarriak jaso ziren programan.

Zehazki, laguntza osagarria «bonu» bat ematean datza, eta hezkuntzaren, tokiko bizikidetzaren edo

⁸ Eranskin honetan jaso diren zifrak eta ehunekoak behin-behinekoak dira. Txostena egitean erabilgarri zeuden datuak oinarri hartu dira.

⁹ Zifra horretan ez da sartu biktimei zuzendutako kalte-ordainik.

¹⁰ Tokiko Bizikidetzarako 2016ko Elkarrekin Bonuak eskatzeko deialdia egiteke dago.

herritarren parte hartzearen arloetan prestakuntza edo dinamizazio zerbitzuetan jardundako eta justifikatutako ordu bakoitzeko. Zerbitzuen hartzaileak eskolak, udalak edo bestelako erakunde batzuk izan daitezke. Gaiak, besteak beste, bakegintzaren kultura, giza eskubideak, biktimekiko elkartasuna, adiskidetzea edo gatazken konponketa izaten dira¹¹».

Hurrengo deialdietan nabarmena izan da bonuen eskatzaileen eta esleipenen kopuruaren gorakada. Horrek agerian utzi du laguntza eta kooperazio publiko-sozialeko modalitate horrek sortzen duen interesa. Ildo horretatik, lehenengo bi deialdietan (2014an eta 2015ean) herritarren parte-hartzeari bideratutako aurrekontuaren % 29 eta % 30 baino ez zen exekutatu, hurrenez hurren. 2016an, ordea, aurrekontuaren % 100 exekutatu da. Hezkuntza-arloan, hauxe izan da aurrekontuaren exekuzioaren bilakaera: 2014an, % 26; 2015ean, % 99; eta 2016an, % 100.

Hala eta guztiz ere, tokiko bizikidetzaren arloan, 2014an eta 2015ean erabilgarri zegoen aurrekontuaren % 11 eta % 9 baino ez zen exekutatu. Tokiko bizikidetzarako 2016ko bonuak eskatzeko deialdia irailean egingo da. Txosten honetan ezin izan da zehaztu zergatik izan den txikia tokiko arloan bonuen programaren exekuzioa. 2016ko deialdian ere exekuzio-tasak antzekoak baldin badira, foru-aldundiekin batera azterketa eta balioespena egin beharko lirateke, argitzeko arrakasta-tasa zergatik den horren txikia.

- Elkarrekin Bonuak. Parte-hartzearen arloa.

2014-2016 95.300 euro

- Elkarrekin Bonuak. Tokiko bizikidetzaren arloa.

2014-2015 53.655 euro

- Elkarrekin Bonuak. Hezkuntzaren arloa.

2014-2016 562.940 euro

11 110/2014 Dekretua, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena.

III Eranskina

Bonuen, Hitzarmenen eta Diru-laguntzen onuradunen zerrenda
2013-2016¹²

Elkarteak, Fundazioak, Sindikatuak eta Gizarte erakundeak

- Aculco Euskadi
- Asociación Alavesa de Madres y Padres Separados (AMAPASE)
- Arabako Gizarte Laneko Elkartea (AGLE)
- Ahaztuen Oroimena Markinaldeko Frentea 1936
- Aisibizia Elkartea
- Aldapa Haundi Kultur Elkartea
- AMPA A.P.Y.M.A. Etorkizuna Guraso Elkartea
- AMPA Landarra. IES Arrigorriaga
- AMPA IES San Adrián BHI
- Argilun Kultur Elkartea
- Argizai Eskaut Taldea
- Arma Plaza Fundazioa
- Bakerako Lankidetzaz Batzarra
- Askatasunarte
- Asociación de Amigos de las Artes Escénicas-Amares Elkartea
- Asociación Amigos y Amigas de la RASD Alava
- Asociación pro derechos humanos ARGITUZ
- Asociación AVIDNA
- Asociación Bozak – Mujeres por el Derecho a la Comunicación
- Asociación Centro Universitario para la Transformación de Conflictos, GEUZ
- Colectivo Latinoamericano de Refugiad@s-BACHUE
- Asociación Cultura Abierta – Kultura Irekia
- Asociación Cultural Trueba Kultur Elkartea
- Asociación Española para el Derecho Internacional de los Derechos Humanos
- Asociación Española de Investigación para la Paz (AIPAZ)
- CEAR Euskadi, Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea
- Clara Campoamor Elkartea
- Asociación para la Cooperación al Desarrollo – Afric Forum
- Asociación Cultural Eurocampus
- Asociación Cultural Gitana Kale Dor Kayiko
- Asociación Cultural para la Integración, Derechos Humanos, Educación, Arte y el Deporte
- Hego Izarra Kultur Elkartea
- Irudi Berria Kultur Elkartea
- Zinhezba Kultur Elkartea
- Asociación para la Defensa de la Dignidad Humana (ADDH)
- Asociación para Desarrollo Comunitario-Umeak Kanean
- Asociación Ekuale para el Desarrollo de la Justicia Comunitaria
- El Taller de Geppetto Elkartea
- Asociación Gerediaga Elkartea
- Goitibera Elkartea
- Hegoak-Alde Elkartea
- Asociación de Innovación Cultural Moviltik, Móviles para el Cambio
- Jatorkin Elkartea
- Asociación Jorge Adolfo Freyter Romero
- Lur Gozoa Elkartea
- Asociación Matiz. Educación en Valores para una Convivencia Social, Económica
- Asociación de Mediación de Euskadi (AMEKADI)

12 2016ko abuztuaren 30era arteko bonuen, hitzarmenen eta diru-laguntzen onuradunak sartu dira

- Asociación por la Convivencia “Elkarbizitza” Elkartea
- Asociación de Psicopedagogía de Euskadi (APSIDE)
- Asociación Psicosocial para la Igualdad Aizan
- Asociación República Irunesa Nicolás Gerendiain
- Asociación Socioeducativa Orientalan
- Asociación Susterra para la Promoción Humana y el Desarrollo Comunitario
- Asociación Tiempo Libre Carmelitas Atsedeen Taldea
- Asociación Vasca de Deportistas contra la Droga – Deportistas sin Fronteras
- Asociación Vasca de Mediación Bitar-Bask
- Asociación de Víctimas del Genocidio de Donostia (AVICGE)
- Ayuda a Niños y Niñas de Chernobil Ukraina-Gaztea
- AZTARNA - Asociación de Etnología y Difusión Cultural del Alto Nervión
- Baskale Elkartea
- Bilbao Historiko Elkartea
- Bitarbask
- Bitarte
- Bizigay Eusko Abertzaleon Sexu Askapenerako Alkartasuna
- Brigadas Internacionales de Paz (PBI)
- Bultzain. Asociación de Acogida de Personas con Problemas de Exclusión Social
- Centro de Atención a Gays, Lesbianas y Transexuales - ALDARTE
- Centro de Información de Infancia, Juventud y Mujer de Euskadi María Cambrils
- Centro Juvenil María Auxiliadora
- CIDEK
- Coordinadora Gesto Por la Paz
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
- Dar-dar Produkzioak Gizarte Ekimenezko Kooperatiba
- Demagun Hausnarketarako Taldea
- Diócesis de San Sebastián
- Donostiako Frankismoaren Genozidioaren Biktimen Elkartea
- EDEX Centro de Recursos Comunitarios
- Ekai Center Fundazioa
- Ekimen 2000
- Elkasko - Asociación Vizcaína de Investigación Histórica
- Emigrados sin Fronteras
- Erain Elkarteko Osasun Mentala - Sociedad Cooperativa Pequeña
- ERK – Proyectos Promoción de Colectivos en Exclusión Social
- Erkibe Kultur Elkartea
- Euskalerriko Eskautak Bizkaia
- Euskalerriko Eskautak Federakuntza Trebeak
- Euskal Herriko Ahozko Ondarearen Elkartea
- Euskal Herriko Giza Eskubideen Behatokia
- Eusko Ikaskuntza
- Eusko Ikaskuntzaren Euskomedia Fundazioa
- Eusko Lurra Fundazioa
- Etxerat A.E.
- Federación de Asociaciones de Defensa y Promoción de los Derechos Humanos
- Federación Bosko Taldea de Euskadi
- Federación Católica de Padres de Familia y Padres de Alumnos de Bizkaia (FECAPP)
- Federación Libre de Asociaciones de Padres de Alumnos de Guipuzcoa (FEGUIAPA)
- Foro de Asociaciones de Educación en Derechos Humanos y por la Paz
- Lehendakari Agirre Fundazioa – Agirre Center
- Anesvad Fundazioa
- Asmoz Fundazioa
- Baketik Fundazioa
- Fundación Cultura de Paz
- EDE Fundazioa
- Euskal Memoria Fundazioa
- Gizagune Fundazioa
- Harribide Fundazioa
- Itaka-Escolapios Fundazioa

-
- Jesús María Leizaola Fundazioa
 - José Unanue Fundazioa
 - Juan de los Toyos Fundazioa
 - Leonardo Genozidioaren Fundazioa
 - Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
 - Fundación Museo de la Minería del País Vasco
 - Oreki Fundazioa
 - Fundación Popular de Estudios Vascos
 - Fundación Social Ignacio Ellacuria
 - Fundación de Trabajadores de la Siderurgia Integral
 - Ganbo Iturri K.E.
 - Gebehatokia Giza Eskubideen Behatokia
 - Gerediaga Elkarte
 - Gernika Garretan Kultur Alkartea
 - Gernika Gogoratuz
 - GITE-IPES Instituto para la Promoción de Estudios Sociales
 - GKE Pausumedia
 - Gogoan Sestao Elkarte
 - Goldatu Elkarte Sozio Kulturala
 - Gozaldi Gazte Elkarte
 - Hamaika Bide Elkarte
 - Harresi Kulturala Elkarte
 - Heber Elkarte
 - Herriari Egia Elkarte
 - Hezkide Eskola
 - Ikertze Kultur Elkarte
 - INSOLA Asociación de Inserción/Reeducación Social
 - Iratzar Fundazioa
 - Itaka – Escolapios
 - Instituto Estudios Internacionales País Vasco Francisco de Vitoria
 - Instituto para la Promoción de Estudios Sociales
 - Intxorta 1937 Kultur Elkarte
 - Karraderan
 - KCD ONGD. Cultura, communication y desarrollo
 - Kiribil Sarea
 - La Fundación
 - Landetxa Auzo Elkarte
 - Larrañaga Kolektiboa Kultur Elkarte
 - Lau Haizetara Gogoan
 - Lenbur Fundazioa
 - Lokarri, Akordioaren eta Kontsultaren aldeko herritarren sarea
 - Manu Robles Arangiz Fundazioa
 - Mario Onaindia Fundazioa
 - Matxitxako Kultur Elkarte
 - Médicos Sin Fronteras
 - Mugen Gaietik
 - Mujeres de Colores para la Paz y la Convivencia
 - Músicos Solidarios Sin Fronteras
 - Pikor Kultur Elkarte
 - Portugaleteko Aisialdi Sarea
 - Ramón Rubial Fundazioa
 - Sabino Arana Fundazioa
 - SARE (Konponbidearen eta Giza Eskubideen Aldeko Sare Herritarra)
 - Save the Children
 - Shareak Kultur Elkarte
 - SOS Racismo Gipuzkoa
 - SOS Racismo Bizkaia
 - Suspergintza Elkarte
 - Torturaren Aurkako Taldea
 - Unión General de Trabajadores (UGT-Euskadi)

- Unión Sindical Obrera (USO)
- Umeak Klean
- UNESCO Etxea

Biktimen elkarteak

- Asociación 11-M Afectados por el Terrorismo
- Asociación Andaluza de Víctimas del Terrorismo (AAVT)
- Asociación Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado Víctimas del Terrorismo (ACFSE)
- Asociación para la Defensa de la Dignidad Humana (ADDH)
- Asociación Dignidad y Justicia
- Asociación de Ertzainas y Familiares Víctimas del Terrorismo (ASERFAVITE)
- Asociación Extremeña de Víctimas del Terrorismo (AEVT)
- Asociación Plataforma de Apoyo a las Víctimas del Terrorismo (APAVT)
- Asociación Riojana de Víctimas (ARVT)
- Asociación de Víctimas 3 de Marzo – Martxoak 3 Elkarte
- Asociación Víctimas del Terrorismo (AVT)
- Asociación Víctimas del Terrorismo de la Comunidad Gallega (AGAVITE)
- Asociación Víctimas del Terrorismo de la Comunidad Valenciana (AVTCV)
- Asociación Víctimas del Terrorismo de la Región de Murcia
- Asociación Víctimas del Terrorismo Santiago Apóstol
- ZAITU Elkarte
- Terrorismoaren Biktimen Euskadiko Elkarte (COVITE)
- Fernando Buesa Blanco Fundazioa
- Gregorio Ordoñez Fundazioa
- Miguel Ángel Blanco Fundazioa

Udalak eta tokiko erakundeak

- Abanto-Zierbenako Udala
- Alegria-Dulantziko Udala
- Amorebieta-Etxanoko Udala
- Amorotoko Udala
- Amurrioko Udala
- Erandioko Udala
- Arrigorriagako Udala
- Aiarako Udala
- Bakioko Udala
- Balmasedako Udala
- Berangoko Udala
- Erandioko Udala
- Azkoitiako Udala
- Azpeitiako Udala
- Balmasedako Udala
- Barakaldoko Udala
- Barrikako Udala
- Beasaingo Udala
- Berangoko Udala
- Berrizko Udala
- Bilboko Udala
- Kanpezuko Udala
- Donostiako Udala
- Durangoko Udala
- Eibarko Udala
- Elgetako Udala
- Elgoibarko Udala
- Ermuako Udala
- Errenteriako Udala
- Etxebarriko Udala
- Fruizko Udala
- Galdamesko Udala
- Gatikako Udala

-
- Gauegiz-Arteagako Udala
 - Gernika-Lumoko Udala
 - Getariako Udala
 - Güeñesko Udala
 - Hernaniko Udala
 - Hondarribiako Udala
 - Igorreko Udala
 - Irungo Udala
 - Larrabetzuko Udala
 - Lasarte-Oriako Udala
 - Laudioako Udala
 - Lazkaoko Udala
 - Leioako Udala
 - Lekeitioko Udala
 - Lemoako Udala
 - Lemoizko Udala
 - Markina-Xemeingo Udala
 - Maruri-Jatabeko Udala
 - Mungiako Udala
 - Muskizko Udala
 - Mutrikuko Udala
 - Ordiziako Udala
 - Orioko Udala
 - Orozkoko Udala
 - Portugaleteko Udala
 - Santurtziko Udala
 - Soraluzeko Udala
 - Tolosako Udala
 - Urnietako Udala
 - Gaubeako Udala
 - Atxondoko Udala
 - Villabonako Udala
 - Gasteizko Udala
 - Zallako Udala
 - Zarauzko Udala
 - Zeberioako Udala
 - Zestoako Udala
 - Zumaiaiko Udala
 - Zumarragako Udala
 - Entidad Pública Bilbao-Ekintza
 - Lea Ibarako Mankomunitatea
 - Txorierriko Mankomunitatea
 - Uribe Kostako Mankomunitatea

Unibertsitateak eta Unibertsitate Institutuak

- Fundación Universidad Complutense
- Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua
- Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC/KREI)
- Mondragon Unibertsitatea
- Deustuko Unibertsitatea
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- UPV/EHU Valentín de Foronda Institutua



6. dokumentua

Bake eta Bizikidetza
Planarekin harremana duten
iritzi-azterlanen laburpena

Bake eta Bizikidetza Planarekin harremana duten **iritzi-azterlanen** laburpena

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia

54. EUSKAL SOZIOMETROA:

BAKEA ETA BIZIKIDETZA

2014ko martxoa
(Laburpena)

Sarrera

54. Euskal Soziometro honen gai nagusia **Euskal Herriko bakea eta bizikidetzaren** izan da. Soziometroaren landa lana **2014ko otsailaren 4a eta 12a** bitartean egin zen.

Bakea eta bizikidetzaren

Bake eszenategiaren bilakaera

Biztanleen erdiek baino gehiagok EAEko bake eszenategi berriaren **nondik norakoaren gaineko interesa** adierazi dute (%54k interes handia edo nahikoa), aldiz, %25ek txikia edo batere interesik ez dute adierazi. Bi pertsonatetik batek onartu du (%49) ez duela inoiz edo ia inoiz gaiaz hitz egiten ingurukoekin, eta beste %49k esan dute sarritan edo noizean behin hitz egiten dutela.

Bake eszenategi berriaren aurrean **gehien aipatu diren sentimenduak baikortasuna eta ilusioa dira**: %46k baikor sentitzen direla adierazi dute eta %46k ilusioa sentitzen dutela. Halere, nabarmendu behar da, handiak direla ere kezkatuta (%27) eta nahastuta (%22) sentitzen direla diotenen portzentajeak. 2012ko otsaileko datuekin alderatuta zertxobait txikitu dira baikortasuna eta ilusioa sentitzen dutenen portzentajeak, aldiz, apur bat handitu dira kezka eta nahasmena sentitzen dutenenak (gogoratu behar dugu, ETAk 2011ko urrian iragarri zuela bere jardueraren behin betiko etetea).

Hamar pertsonatetik seik uste dute bake prozesua geldirik dagoela (%58), %28k uste dute aurrera doala eta soilik %4k atzera doala. 2006ko urriarekin konparatuz, orduko ikuspegia gaur egungoa baino 5 puntu ezkorragoa zen.

Aurrera egiteko trabak eta lagundu dezaketen ekimenak

Bakea lotzeko bidean biztanleriak **hiru traba nagusi** nabarmentzen ditu: *Espainiako Gobernuak aurrerapausorik ez ematea presoaren egoera hobetzeko* (%44), *alderdi politikoak gai ez izatea adostasun nahikora iristeko gai honetan* (%41) eta *ETAk ez dituela armak entregatzen eta ez dela desegin* (%39).

Zentzu berean, herritarrek **hiru ekimen nabarmentzen dituzte aurrerapauso handiagoak ematea ahalbidetuko luketenen artean**: *ETAk armak entregatzea eta erakundea desegitea* (%51), *presoak Euskal Herriko kartzelatarik gerturatzeko* (%34) eta *Eusko Legebiltzarreko indar politiko guztiak Bake eta Bizikidetzaren ponentziaren inguruan ados jartzea* (%33).

Eragile eta instituzioen jokaeraren balorazioa

Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren jokaera

Biztanleria oso kritikoa da **Espainiako Gobernuaren** jokaerarekin bakeari dagokionez. Soilik %9k uste dute ondo edo oso ondo jokatzeko ari dela, **gaizki edo oso gaizki jokatzeko ari dela uste dutenen %57ren parean**. Portzentaje hau 31 puntu handitu da 2006arekin alderatuta, urte horretan %26k uste zuten Espainiako Gobernua gaizki edo oso gaizki ari zela. **31 puntuko alde** hori oso adierazgarria da.

Bestalde, herritarren herenak uste du **Eusko Jaurlaritza ondo edo oso ondo ari dela** bakeari dagokionez (%31), %17k gaizki edo oso gaizki ari dela dioten bitartean. %44 tartean kokatzen dira, eta uste dute erdi-purdi ari dela. Eusko Jaurlaritzaren jardunaren balorazio hauek 2006koaren antzekoak dira.

Hamar pertsonatik bederatzik (**%92**) ez dute zalantzan jartzen bake eta bizikidetzaren gaietan **Eusko Jaurlaritza inplikatu egin behar dela**. Are gehiago, %71k uste dute orain baino gehiago inplikatu behar dela eta %21ek orain bezala.

Azkenik, gehiago zabal batek, **%85ek**, uste dute **Espainiako Gobernuak Eusko Jaurlaritzarekin adostu beharko lukeela** Bakea eta Bizikidetzaren gaineko politika.

Eragile, erakunde eta alderdi politikoen jokaera

Bakea eta Bizikidetzari dagokionez duten jokaeragatik **hobekien baloratutakoak** hauek dira: bakearen aldeko mugimendu sozialak (%41) eta Eusko Jaurlaritza (%31); **okerren baloratutakoak**, berriz, ETA (soilik %15ek uste dute ongi edo oso ongi ari dela) eta Espainiako Gobernua (%9).

Alderdi politikoen jokaerari dagokionez, %42k uste dute EAJ laguntzen ari dela asko edo nahikoa behin betiko bakea lortzen, %34k EH-Bildu asko edo nahikoa laguntzen ari dela eta %15ek PSE-EE asko edo nahikoa laguntzen ari dela. Aldiz, soilik %5ek uste dute PP eta UPD asko edo nahikoa laguntzen ari direla Euskal Herria behin betiko bakea lortzen.

Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzaren Plana

Hamar pertsonatik lau inguruk **entzun dute zerbait Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzaren Planari** buruz (%37). Ezagutzen dutenen artean hamarretik seik adierazi dute bere helburuekin gehienbat ados daudela (%60), eta soilik hamarretik batek gehienbat aurka daudela (%10).

Behin **Bake eta Bizikidetzaren Planaren helburuak** aurkeztuta, biztanleak ados agertu dira haiekin. Orokorrean, **hamar biztanletatik zortzi inguru ados agertu dira** Eusko Jaurlaritzaren Planaren proposatutako helburuak bilatzearekin.

Biktimak

Biztanleriaren erdia baino gehiagok uste du **ETAk egindako atentatuak biktimak** nahikoa babes eta errekonozimendu jasotzen ari direla (%54), %30ek uste dute ezetz eta %17k ez dakite edo ez dute erantzuten.

Terrorismoaren biktimen elkarteek jokaerari dagokionez, %56k uste dute **jarrera politizatuegia izaten ari direla** (%56), eta %20k uste dute euren eskubideak legitimoki defendatzen baino ez direla ari.

Polizia-gehiegikerien eta talde parapolizialen biktimei dagokienez, gehiengoak uste du ez direla nahikoa babes eta errekonozimendu jasotzen ari (%58), eta bai jasotzen ari direla uste dute %20k.

Bake prozesuak aurrera egin dezan dauden aukeren artean, biztanleriaren gehiengoak uste du **ETAko presoek sortutako kaltea onartzeaz gainera, gaizki egin dutela ere onartu behar duela**. Bestalde, %26k uste dute emandako pausua, egindako mina aitortzea, nahikoa dela aurrera egiteko.

Espetxe politika

%45ek uste dute **Espainiako Gobernuak gaizki kudeatzen ari dela espetxe politika** ETaren indarkeriaren amaieraz geroztik. Soilik %12k uste dute ondo ari dela, eta %17k ez ondo eta ez gaizki. %26k ez dute gai honi buruko ezer entzun edo ez dute erantzun nahi izan.

Espainiako Gobernuaren espetxe politikaren balorazioa **okerragoa da egun** (%45) 1999. urtean baino (%36). Bederatzi puntuko alde hori oso adierazgarria da.

Balorazio txar horren atzean dagoen arrazoi nagusia presoek sakabaketa edo dispersioa mantentzea da (%64), baita Espainiako Gobernuak ETatik bereizi diren presoek birgizarteratzea ez dela babesten ari ere (%17). Soilik %4k uste dute Espainiako Gobernuak ETako presoekin bigunegia izaten ari dela.

Hamar pertsonatik zazpi baino gehiago **ados agertu dira presoak** Euskal Herriko kartzelara **gerturatzearekin** (%73) eta gaixotasun larriak edo sendaezinak dituzten presoak **kaleratzearekin** (%71).

Hirutik bi ados daude, gaur egun gainerako presoek onartzen zaizkien **espetxe-onura berak ETako presoek ere onartzearekin** (%66).

Bestalde, bi pertsonatik bat ados agertu da ere Espainiako Gobernuak, legearen barruan, ETako **presoen birgizarteratzea erraztu** beharko lukeenaren ideiarekin (%47). %22k birgizarteratzea soilik odol-deliturik ez dutenen kasuan erraztu beharko litzatekeela uste dute eta %20k uste dute zigorrak oso-osorik bete behar dituztela.

Bizikidetza

Biztanleriaren gehiengo zabalak **itxaropena du** datozen urteetan Euskal Herrian bakea egonkortuko dela (%81), baina %13k ez dute itxaropen hori partekatzen.

Etorkizunari dagokionez, eta **gizartean sortutako errezeloak eta irekitako zauriak gainditzeko aukeren gainean**, apur bat gehiago dira optimistak (%51) pesimistak baino (%42).

BAKE ETA BIZIKIDETZA TESTUINGURU BERRIAN HERRITARREN IRITZIARI BURUZKO DOKUMENTU BATERATUA

Euskal Soziometroa, 2014ko martxo
Deustobarometroa, 2013ko abendua
EEIren Txostena, 2014ko martxo.

Euskal gizartearen eta terrorismoaren biktimen iritziak jasotzen dituzten hiru barometro partekatu dira dokumentu honetan, Euskadin izandako indarkeriaren bukaeraren harira. Dokumentu honetan jasotako ikerketak honakoak dira:

Euskal Soziometroa 54.

Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Eusko Jaurlaritza.

2014ko martxo.

Lagina: 2.470 elkarrizketa EAEko etxeetan, 18 urtetik gorako biztanleekin.

Informazio-bilketa 2014ko otsailaren 4 eta 12 bitartean burutu zen.

Deustobarometroa.

Deustuko Unibertsitatea.

2013ko abendua.

Lagina: 1.000 elkarrizketa online, 18 eta 65 urte bitarteko herritarrei egindakoak.

Landa-lana 2013ko azaroaren 20 eta abenduaren 2a bitartean burutu zen.

“EAEn bizi diren Terrorismoaren biktimak: erailketen zeharkako biktimen nahigabea eta esperantza”.

Kriminologiaren Euskal Institutua.

2013ko otsaila.

Ikerketa kualitatiboa EAEn bizi diren 154 biktima indibidualei egindako elkarrizketen bidez, eta elkarrizketa-taldearen garapena 24 biktimekin. Ikerketa horrek ematen duen informazioaren balioa kualifikatua da, ez kuantitatiboa, hala elkarrizketa biktima gehiagori zabaltzeko muga teknikoengatik, nola ikerketaren diseinuagatik beragatik, biktimen parte-hartze aktibori garrantzia handia ematen baitio.

Informazioa 2013 urtean bildu zen.

Ikerketen bitartez, ikuspegi partekatua aurkez daiteke:

Euskal gizartearen adostasun etiko eta demokratikoen espazio zentral zabala dago Bake eta Bizikidetzaren arloan.

Euskal gizartearen anitza eta askotarikoa da iritziei dagokienez. Euskadiren garai berriaren gaineko interesa dago eta horren inguruko iritziak ematen dira.

Euskal herritarrek baikorrak dira eta itxaropentsu agertzen dira Euskadiko testuinguru baketsu berrian.

Euskal herritarrek terrorismoaren biktimak babesten jarraitzen dute; biktimek, ordea, babesgabetasuna sentitzen jarraitzen dute, nahiz eta indarkeria bukatu.

Herritarrek babesa erakusten diote Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzaren Planari.

ETA desagertzea eskatzen du gizarteak, eta Espainiar Gobernuari inplikazio handiagoa eta elkarrizketa eskatzen zaizkio, baita Espetxe Politikan aldaketak egitea ere, prozesuak aurrera egin dezan ahalbidetzeko. Biktimak, ordea, zigorgabetasunaren beldur dira.

Bake agertokian

euskal herritarrek uko egiten diote indarkeriaren legitimazioari eta itxaropentsu agertzen dira Euskadin Bakea finkatzearen inguruan. Dena dela, egoeraren gaineko kezka adierazi dute.

Biktimek ulermen ezaren sentazioa dute, triste daude, eta behar beste gogoan izan ez dituztela uste dute, aitortu gabe segitzen dutela. Hala ere, terrorismoaren bukaerarekin hobeto sentitzen dira.

Soziometroa:

Herritarren %54k interes handia agertzen du Bake agertoki berriaren aurrean.

Herritar gehienak **itxaropentsu** ageri dira (%81) eta uste dute Euskadin Bakea finkatu egingo dela datozen urteetan; herritarren %13k, ordea, ez du horren itxaropenik. %46k dio ilusioa eta baikor daudela egoeraren aurrean. %27 kezkatuta dago eta %22 zalantziatuta.

%51 baikor azaldu da gizartearen sortutako **errezelo eta zauri irekiak desagertzeko** aukerari dagokionez. %42 ezkortasunez mintzo da.

Herritarren %58k uste du egoera etenda dagoela, geldia. %28k, ordea, uste du egoera aurrera doala; eta %4k baino ez du uste atzera egiten ari dela.

Deustobarometroa:

Herritarren %87k uste du indarkeria ezin dela inolako ere legitimatu helburu politikoak lortzeko.

EEI Txostena:

Elkarrizketatutako biktimak hobeto sentitzen dira orain, baina, aldi berean, ez dute uste terrorismoa desagertu denik, ez behintzat armak eman eta ETA desagertu ez den bitartean.

Tristura sentimendua nabari da, terrorismoaren amaiera ez delako lehenago heldu. Hala eta guztiz ere, itxaropentsu eta arinduta sentitzen dira.

Elkarrizketatutako biktima gehienek uste dute euskal gizarteak egoera berehala gainditu nahi duela.

Adostasun orokor horren azpian, ordea, bi pertzepzio biltzen dira, iritzi ezberdinetan oinarrituta: batzuek uste dute gizarteari “biktimek enbarazu egiten diotela”; besteak, ordea, sinetsita daude gizarteari benetan “ardura zaizkiola biktimak”.

Bake planari buruz

Herritar gehienak bat datoz Bake Planean jasotako helburuekin. Herritarren erdiak baino gehiagok izan du Bake Planaren berri eta gehiengo handi bat ados dago haren helburu nagusiekin:

Soziometroa:

%37k dio ezagutzen duela Eusko Jaurlaritzaren **Bake eta Bizikidetzaren Plana**. Horien artean, hamar pertsonatik sei (%60) bat datoz planaren helburuekin eta hamarretik bakarrak (%10) ez ditu helburu horiek bere egiten.

Herritarren %80 ados dago EJK Planaren helburuak sustatzearekin.

Deustobarometroa:

Gehiengoak aitortzen du gutxi dakiela (edo ezer ez) Bake Planaren inguruan, nahiz eta herritarren %71k inoiz entzun duen haren aipamenik. %26k ez du inoiz haren berririk izan. (Inkesta egin duten pertsonen %61ek dio gutxi edo ezer ez dakiela Planaren inguruan, %10ek zertxobait edo nahikotxo daki).

Herritarrek Planaren proposamen zehatzei ematen dioten babes-maila:

Torturak ikertzea: %71. Terrorismoaren biktimen aitortza sustatu eta osatzea: %69. Estatuaren indarkeria edo indarkeria parapoliziala jasan zuten biktimen aitortza sendotzea: %64. Euskadiren iragan hurbilaren interpretazio bakarra ezartzea, guztiek partekatu ahal izango dutena: %63. Pre-soak gizarteratzeko hitzarmenak sustatzea: %55.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 31

EUSKO JAURLARITZAREN BALORAZIOA ETA GOBERNU OSAKETA ESTATUAN

2016ko apirila
(Laburpena)

Ikerketa honen gai nagusia Eusko Jaurlaritzaren kudeaketaren balorazioa eta Espainiako Gobernu berriaren formazioa izan dira. Landa lana 2016ko martxoaren 9 eta 10ean egin zen.

Eusko Jaurlaritzari buruzko pertzepzioa hobetu da

Azken hiru urte hauetan 8 puntu igo da Eusko Jaurlaritza herritarren arazoak konpontzen ari dela uste dutenen ehunekoa, 9 puntu jaitsi delarik Euskadiko arazoak nola konpondu ez dakiela uste dutenena. Orain, Euskadiko arazoak konpontzeko Eusko Jaurlaritzak duen gaitasunari buruz galdetuta, herritarren %15ek uste dute arazoak konpontzen ari dela, %54k Jaurlaritzak badakiela arazoak nola konpondu baina denbora gehiago behar duela eta, aldiz, %22k uste dute ez dakiela nola konpondu arazoak.

Gehiengoak, %61, Eusko Jaurlaritzak euskal herritarren beharrak asko edo nahikoa ezagutzen dituela deritzote, %54 ziren 2015. urtean.

EAEko biztanleek Eusko Jaurlaritzaren kudeaketarako gaitasun eta ezaugarriak ontzat jo dituzte: gestiorako gaitasuna (6,4 puntu, Oitik 10erako eskala batean), zintzotasuna (6,3), akordioak lortzeko gaitasuna (6,1), Euskadiren etorkizunerako egitasmo baten lidergoa izateko gaitasuna (6,1) eta herritarren arazoetako hurbiltasuna (5,5).


Bilakaerak gora egin du eta ikerketa honetan jasotako balorazioa azken hiru urte hauetan egindakoen artean positiboena da.

Herritarrek Eusko Jaurlaritzaren lan ildoak babesten dituzte


Euskal herritarrek Eusko Jaurlaritzaren lan ildoak oso garrantzitsutzat jotzen jarraitzen dute: Bakea eta Bizikidetzaren (8,6ko garrantzia, Oitik 10erako eskalan), Ekonomiaren Berrindartzea (8,6) eta Estatus Politikoa Berria (7,1). Hiru arlo hauetan Eusko Jaurlaritzak aurrera daraman lanak 6,9, 6,3 eta 5,9 puntu jaso ditu, hurrenez hurren.

Eusko Jaurlaritzaren hiru lan ildoen jardueraren balorazio hau 2015etik nabarmen hobetu da. Honela, 6 hamarren igo da Bakea eta Bizikidetzari dagokionean, 8 Ekonomiaren Berrindartzean eta 5 Estatus Politikoa Berrian.

Eusko Jaurlaritzaren hiru ardatzen garrantzi handia gizarte mailan



Hiru ardatzetan eusko jaurlaritzaren jardueraren balorazioa gizarte mailan eta eboluzio positiboa



Ikerketa honen fitxa teknikoa zabaldu den Txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.000 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm\%3,16$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2016ko martxoaren 9an eta 10ean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago: http://www.euskadi.eus/ikerketa_sozio-logikoak